



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko azaroaren 25a

136. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2021eko irailaren 20ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

I. TITULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

1. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikuluari apartatu berri bat, 2 zenbakikoa, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Klima neutraltasuna lortzeko, Nafarroako Foru Komunitateak Espainiako estatuak klima aldaketarekin lotuta sinatutako nazioarteko konpromisoak bete eta sustatuko ditu, eta, bereziki, Klima neutraltasuna lortzeko esparrua zehazten duen 2021eko ekainaren 30eko 2021/ (EB) Erregelamenduan, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandakoan, ezarritakoak”.

Zioak: entzunaldi izapidean behin eta berriz aipatu den urritasunetako bat izan da trantsizio energetikoaren plangintzak ez duela helburu zehatz eta argirik.

Nafarroak (Nafarroaren klima aldaketaren ibilbide orrian) eta estatuak (Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 2021eko maiatzaren 20ko 7/2021 Legean) ezarritako helburuek, denbora arrazoiak direla eta —biak ere Klima neutraltasuna lortzeko esparrua ezartzen duen

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 30eko 2021/ (EB) Erregelamenduaren ondorengoak dira—, ez dute jasotzen aipatu Europako erregelamenduaren 4.1 artikuluen edukia.

Artikulu horretan hau dago xedatuta:

“1. 2. artikuluko 1. apartatuan azaldutako klima neutraltasunaren helburua lortzeko, Batasunak 2030erako duen klima helburu loteslea izanen da berotegi-efektuko gasen emisioen barne murrizketa lortzea (xurgapenak kendu ondorengo emisioak); zehazki, une honetatik 2030era 1990. urteko mailekin alderatuta % 55eko murriztapena lortzea”.

Europako Hitzarmen Berdean aipatu bezala, Europako Batzordeak Batasunak 2030erako ezarritako berotegi-efektuko gasen emisioak murriztearen helburua ebaluatu zuen 2020ko irailaren 17ko jakinarazpen honetan: «Europaren 2030erako klima asmoak handitzea: gure herritarren ongizaterako klimatikoki neutroa den etorkizunean inbertitzea». Modu horretan, batzordeak inpaktu zorrotzeko ebaluazioan oinarrituz jardun zuen eta kontuan hartu zuen agiri hauen inguruan egin zuen analisia: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (12) 2018/1999 (EB) Erregelamendurekin bat etorritako sortutako energiaren eta klimaren plan nazional integratuak.

2050erako klima neutraltasunaren helburua ikusirik, une honetatik aurrera eta 2030era arte berotegi-efektuko gasen emisioak murriztu eta xurgapenak gehitu behar dira. Modu horretan, berotegi-efektuko gasen emisio garbiak (xurgapenak kendu ondorengo emisioak) ekonomiaren sektore guztietan eta barneko mailan gutxienez % 55 murriztu beharko dira 2030erako, 1990eko mailekin alderatuta.

Europako Kontseiluak helburu hori berretsi zuen 2020ko abenduaren 10eko eta 11ko ondo-

rioetan. Aplikatzeko orientabideak ere eman zituen. Batasunaren 2030erako klima helburu berri hori 2018/1999 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 11. puntuaren ondorioetarako ondorengo helburua da, eta beraz, puntu horretan Batasunerako 2030erako ezarritako berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburua ordezkatzan du.

2. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikuluari apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Foru lege honen helburuak lortzeko erantzukizuna partekatzen dute gobernuak, toki erakundeek, ekoizpen sektoreek, politika, gizarte eta ekonomia eragileek eta herritarrek, orokorrean”.

Zioak: foru lege honen helburuak lortzeko gizarte osoaren (eta ez bakarrik administrazio publikoen) erantzukizun partekatuari buruzko deklarazioa ezartzea.

3. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. apartatuari c) letraren ondoren letra berriak gehitzeko zuzenketa.

“d) Ekoizpen sektoreak egokitzea eta lurralde plangintzan, jardueretan, azpiegituretan eta eraikinetan klima aldaketarekiko erresilientzia gehitzea.

e) Hezkuntza, ikerketa, garapena eta teknologia transferentzia sustatzea eta klima aldaketarekiko egokitzapen eta arintze arloko ezagutza hedatzea.

f) Klima aldaketarekin, denboran izanen duen bilakaerarekin eta inpaktuekin lotutako alderdi guztiei buruzko informazio objektiboa eta ebaluagarria ematen duten mekanismoak ezartzea.

g) Herritarrek eta ekonomia eta gizarte eragileek klima politikak sortzen eta ebaluatzen partehartzea sustatzea.

h) Energiaren demokratizazioa sustatzea. Hauxe esan nahi du:

– Herritarrek energia kontsumitzaile eta ekoizle gisa energia eskuratzeko duten eskubidea eta herritarrek sistemaren parte aktibo gisa duten erantzukizuna.

– Erabiltzaileek energiaren alorrean informazioa eta prestakuntza jasotzeko duten eskubidea, kontsumoa eta ekoizpena energia politiko jasangarri eta efizienteetara egokitzeko.

– Energia sistemak herritarrengan sortzen duen ekonomia, gizarte eta ingurumen inpaktua.

i) Energia merkaturatzean ekimen publikoa gehitzea sustatzea.

Zioak: foru lege proiektuaren testua osatu eta hobetu nahi da, eta horretarako, apartatu honetan jaso ez diren eta garrantzitsutzat jotzen ditugun helburu berriak gehitu dira, besteak beste hauek:

– Ekoizpen sektoreak egokitzea eta lurralde plangintzan, jardueretan, azpiegituretan eta eraikinetan klima aldaketarekiko erresilientzia gehitzea.

– Hezkuntza, ikerketa, garapena eta teknologia transferentzia sustatzea eta klima aldaketarekiko egokitzapen eta arintze arloko ezagutza hedatzea.

– Klima aldaketarekin, denboran izanen duen bilakaerarekin eta inpaktuekin lotutako alderdi guztiei buruzko informazio objektiboa eta ebaluagarria ematen duten mekanismoak ezartzea.

– Herritarrek eta ekonomia eta gizarte eragileek klima politikak sortzen eta ebaluatzen partehartzea sustatzea.

– Energiaren demokratizazioa sustatzea. Hauxe esan nahi du:

a) Herritarrek energia kontsumitzaile eta ekoizle gisa energia eskuratzeko duten eskubidea eta herritarrek sistemaren parte aktibo gisa duten erantzukizuna.

b) Erabiltzaileek energiaren alorrean informazioa eta prestakuntza jasotzeko duten eskubidea, kontsumoa eta ekoizpena energia politiko jasangarri eta efizienteetara egokitzeko.

c) Energia sistemak herritarrengan sortzen duen ekonomia, gizarte eta ingurumen inpaktua.

– Energia merkaturatzean ekimen publikoa gehitzea sustatzea.

4. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

1. artikuluari (Xedea eta helburua) testua gehitzeko zuzenketa. 2. puntuan hiru letra gehitzen dira:

“e) Laguntzea energia demokratizatzen, herritarren eskubidea baita energia eskuragarri edukitzea, bai kontsumitzaileena, bai ekoizleena.

f) Laguntzea informaziorako eta trebakuntzarako eskubidea sustatzen, kontsumoa eta ekoizpena energiaren arloko politika eraginkor eta jasangarrietara moldatzeko.

g) Sustatzea herritarren, ekoizpen-sektoreen eta ekosistemen aldaketa klimatikoaren aurreko erresilientzia eta hartara moldatzeko gaitasuna”.

Zioak: zehatzago azaltzen du foru legearen xedea, behar duen arau-esparrua emateko foru legeari, baita esparru instituzionala eta instrumentala ere, une oro Nafarroako gizarteari lagunduz hurrengo urteetarako daukagun erronkari ekiteko informazioan, zabalkundearen eta prestakuntzan.

5. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

1. artikuluan (Xedea eta helburua) 2 b) apartatuari testua gehitzeko zuzenketa. Honela gelditzen da:

“b) Berotegi-efektuko gasak arintzen eta murrizten laguntzea eta, era berean, klima aldaketarako egokitzapena egiten laguntzea Nafarroako Foru Komunitatean, herritarren eta lurraldearen zaugarritasuna murriztuta. Horretarako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 30eko 2021/1119 (EB) Erregelamenduak, klima neutraltasuna lortzeko esparrua ezartzen duenak, helburu lotesle bat ezartzen du 2030erako: berotegi-efektuko gasen isurketak guztira %55era jaitea gutxienez, 1990eko isurketekin alderaturik. Horrekin bat, Europar Batasuneko instituzioak eta estatuak elkarrekin beharturik daude behar diren neurriak hartzera”.

Zioak: foru legearen helburuek ez diote erantzuten zioen azalpenean adierazitakoari; izan ere, Nafarroako Ekintza Klimatikoaren Planera igortzen gaituzte, eta horrek 2030erako helburutzat ezartzen du % 23ko murrizketa lortzea 1990eko mailen aldean, baina portzentaje hori ez da nahikoa klima larrialdia leuntzeko.

6. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua 2. apartatuan letra berri bat gehitzeko zuzenketa. Xedea eta helburua.

“e) Europako Parlamentuaren 2021/1119 (EB) Erregelamendua betetzea, zeinak juridikoki finkatzen baitu EBren helburua, neutraltasun klimatikoa 2050erako lortzea, alegia, eta helburu lotesle hau ezartzen baitu: 2030erako, Nafarroan berotegi-efektuko gasen isurketak, guztira, % 55 jaitea gutxienez, 1990eko isurketekin alderaturik”.

Zioak: EBren helburu lotesle bat denez gero, testu artikulatuan egon behar du, eta ez zioen azalpenean.

7. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“2. artikulua. Klima ekintzaren eta trantsizio energetikoaren printzipio gidariak.

Nafarroako administrazio publikoen jarduketa printzipioak dira, foru lege honen helburuak lortze aldera:

a) Prebentzio ekintza, klima aldaketaren aurka.

b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: genero ikuspegia.

c) Ekitatea: pertsona guztiek etxeetan bizi baldintza duinak izateko behar den energia eskuratzen ahalko dute. Halaber, egokitzapen neurrietan klima aldaketaren ondorioz sortu edo areagotutako desberdintasunak murriztea agertu beharko da. Halaber, erakundeek modu ekitatiboa jardun behar dute eskudun diren lurralde osoan.

d) Gardentasuna: zuzen jokatzeko aldera, herritarrek informazio egiazkoa eta eskuragarria jaso behar dute eragiten ahal dieten ondorioen gainean. Eskuragarri dagoen ezagutza jasangarritasunerako interpretazioaren, gaikuntzaren eta hezkuntzaren bitartez transmititu behar da.

e) Aurreratzea, ikerketa eta ezagutza sustatuz, eta agertoki klimatikoak oinarri hartuta.

f) Agertoki eta horizonteetara egokitzea: jardueraren sektore guztietan, praktika berrien analisia,

ebaluazioa, definizioa eta zabalkundea egitea, kliman aurreikusten diren aldaketekin bat.

g) Zuhertasuna, ondorio arriskutsuak eragin ditzaketen fenomenoek, produktuen edo prozesuen aurrean.

h) Berrikuntza teknologikoa eta soziala: izan ere, hala arazo klimatikoaren edo energetikoaren diagnosiak, nola haien proposatzen diren konponbideek, funtsaturik dauden ebidentzia zientifikorik onenak eta berrienak hartu behar dituzte kontuan, betiere behar bezalako ebaluazioan, kalkulu objektiboetan eta neurri efizienteetan oinarrituta.

i) Subsidiarioritasuna foru lege honetatik eratorzen diren jarduketan aplikazioan.

j) Fiskalitate ekologikoa, ingurumenari dagokionez positibotzat jotzen diren portaera aldaketak sustatzeko bitarteko gisa erabil dadin sistema fiskala, eta, edonola ere, printzipio hau ardatz hartuta jokaturik: kutsatzen duenak ordaintzen du, eta gehiago duenak gehiago ordaintzen du.

k) Parte-hartze publikoa, gizarteak klima aldaketari buruzko erabakiak har ditzan. Hortaz, Nafarroako administrazio publikoek elkarlanean aritu behar dute gizarteko sektore guztiekin, sektore horiek gaitu eta ahalduntzeko, gai izan daitezkeen klimari dagokionez neutroa eta erresilientea den gizartea erdiesteko trantsizio sozial justu eta bidezkoa lortzeko ekintzak egiteko.

l) Nazioarteko lankidetzaren, Nafarroa klima neutraltasuna sustatzeko klima eta ingurumen foroe-tan egon dadin”.

Zioak: foru lege proiektuaren artikulua idazketa hobetu nahi da klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren printzipio zuzentzaileei dagokienez. Horretarako, gardentasunari eta informazioari buruzko printzipioak zehaztu nahi dira eta bi letra berri gehitu, bata partaidetza publikoari buruzkoa —Klima neutraltasuna lortzeko esparrua ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 30eko 2021/ (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluari jarraituz— eta bestea nazioarteko lankidetzari buruzkoa.

Oinarritzotzat jotzen diren printzipio zuzentzaile berriak gehitu dira:

– Fiskalitate ekologikoa, ingurumenari dagokionez positibotzat jotzen diren portaera aldaketak sustatzeko bitarteko gisa erabil dadin sistema fiskala, eta, edonola ere, printzipio hau ardatz hartuta jokaturik: kutsatzen duenak ordaintzen du, eta gehiago duenak gehiago ordaintzen du.

– Parte-hartze publikoa, gizarteak klima aldaketari buruzko erabakiak har ditzan. Hortaz, Nafarroako administrazio publikoek elkarlanean aritu behar dute gizarteko sektore guztiekin, sektore horiek gaitu eta ahalduntzeko, gai izan daitezkeen klimari dagokionez neutroa eta erresilientea den gizartea erdiesteko trantsizio sozial justu eta bidezkoa lortzeko ekintzak egiteko.

– Nazioarteko lankidetzaren, Nafarroa klima neutraltasuna sustatzeko klima eta ingurumen foroe-tan egon dadin.

8. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

2. artikulua (Ekintza klimatikoaren eta trantsizio energetikoaren printzipio gidariak) aldatzeko zuzenketa. g) apartatua aldatzen da:

“g) Arduraz jokatzeko fenomenoek, produktuek edo prozesuek eduki litzaketen ondorio arriskutsuen eta gure habitatean eta ingurune naturale-tan eragina duten arrisku potentzian aurrean”.

Zioak: printzipio gidariak hedatzen ditu, orain ezagutzen ez ditugun baina klima aldaketaren ondorioz ager daitezkeen arriskuei ere aplikatuz.

9. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikulua (Ekintza klimatikoaren eta trantsizio energetikoaren printzipio gidariak) testua gehitzeko zuzenketa:

“e bis) Habitata birgaitzea, batez ere basoetak”.

Zioak: ekintza klimatikoa gidatzen duten printzipioetako batek barnean hartu behar luke habitata lehengoratzeko, batez ere basoak, CO₂ -aren hustubide naturalak direlako eta garrantzi berezia dutelako nabarmen eraldatuta dauden zenbait eremutan.

10. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

2. artikuluari (Ekintza klimatikoaren eta trantsizio energetikoaren printzipio gidariak) testua gehitzeko zuzenketa. j) apartatua gehitzen da:

“j) Kutsatzen duenak ordaindu behar du”.

Zioak: kutsatzen duenak ordaindu egin behar duela dioen printzipioaren bidez ingurumen erantzukizunaren esparru bat ezarri nahi da, eta printzipio horrek balio du jardule batek eragin ditzakeen ingurumen kalteei aurrea hartzeko eta egindako kalteak konpontzeko.

11. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

Artikulu bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa.

“4. artikulua. Helburuak: berotegi-efektuko gasak murriztea, energia berriztagarriak, energiaren kontsumoa eta agroekologia.

1. Honako gutxieneko helburu hauek ezartzen dira 2030. urterako, Espainiak bere gain hartutako nazioarteko konpromisoak betetzen laguntzeko, Estatuaren eskumenak eragotzi gabe:

a) 2030. urterako ekonomia osoaren berotegi-efektuko gasen isurketak gutxienez % 55 murriztea 1990. urtekoak erreferentzia hartuta, Nafarroako berotegi-efektuko gasen inbentarioaren arabera.

b) 2030. urterako sistema elektrikoan sortzen den energiaren % 100 gutxienez iturri berriztagarrien bidez sortzea.

c) 2030. urterako Nafarroan kontsumitzen den energia primarioa 2007an kontsumitu zena baino % 40 gutxiago izatea.

d) 2030. urtean nekazaritzaren arloko isurketak 1990ekoak baino % 42 gutxiago izatea, eta 2050. urtean % 64 gutxiago, eta bermeak ezartzea ongari kimikoek eta abereek oxido nitroso eta metano gutxiago sortzeko.

e) 2030erako azalera ekologikoa % 40 izatea, eta 2050erako % 100”.

Zioak: klima aldaketari buruzko Europako eta Espainiako legeek eta Parisko Akordioak berak emisioak murrizteko helburu kuantifikatuak ezartzen dituzte, horixe baita konpromiso klimatikoari sinesgarritasuna emateko modua; beraz, foru legeak energia kontsumoa eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburu bat ezarri behar luke.

12. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. tituluan apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“___. artikulua. Genero ikuspegia klima aldaketan eta trantsizio energetikoan.

1. Nafarroako administrazio publikoek bermatu behar dute emakumeek erabakiak hartzen, planifikatzen eta aplikatu beharreko prozesuetan parte hartzen dutela eta genero politika sartzen dela klima aldaketaren aurka borrokatzeko eta garapen lankidetzako politiketan.

2. Emakumeen ekarpen intelektual eta aktiboa sustatuko da klima politikak sortzeko, izan ere, genero berdintasunean eta emakumeen ahalduntzean ondorio zuzena du gai horrek. Halaber, emakumeek oinarrizko zeregina dute klima aldaketaren arintze eta egokitzapen irtenbideetan.

3. Horregatik, Nafarroako administrazio publikoek genero ikuspegia sartuko dute ingurumen politikak diseinatzean, egikaritzean, jarraitzean, ebaluatzean eta txostenak sortzean. Gainera, bermatuko dute emakumeek osorik eta modu ekitatiboan parte hartzen dutela erabakiak hartzeko maila guztietan, eta batez ere, klima aldaketaren arloan.

4. Bereziki sustatuko dira landa guneetan bizi diren emakumeen zaugarritasunaren aurkako jarduketak, izan ere, klima aldaketaren ondorioak bereziki sufritzen dituzte. Horrez gain, nekazaritza jasangarrirako generoen arabera ezberdindutako inbertsioaren arriskuak jorratzeko beharra azpimarratuko da eta emakumeek lurraren jabe izateko eta lurra erabiltzeko dituzten eskubideak bultzatuko dira.

5. Batez ere guraso bakarreko etxeetako pobrezia egoerak jorratuko dira eta lehentasunak ezarriko dira deitutako laguntza planetan.

6. Generoa kontuan hartzen duten politikak diseinatuko dira, bermatzeko emakumeak energia garbien teknologien ekintzaile eta ezagutza iturri

gisa aintzat hartzen direla, eta horretarako, ekimen berritzailea, enpresakoa eta ikerketakoa sustatzeko jarduerak eginen dira”.

Zioak: urte askoan zehar emakumeek genero diskriminazioa jasan dute askotariko moduetan (e-txeko eta zaintza lanak egiteko erantzukizun desorekatua, soldata arrakala, kristalezko sabaia eta zoru itsaskorra, sexu jazarpena, genero indarkeria, ordezkartza txikia botere organoetan eta espazio politikoetan, ikusezintasuna, eta abar), eta klima aldaketaren arloan ere diskriminazio horiek guztiak gertatzen dira.

Emakume horietako gehienak pobreena den biztanleriaren parte dira, eta gainera, klima aldaketaren ondorioak sufritzeko arrisku eta probabilitate gehien dutenak dira. Kontsumo, birziklapen, mugikortasun eta abarreko jokaerak ere ez dira berdinak emakumeen eta gizonen artean. Hau da, genero ezberdintasuna dago oraindik ere gure gizartean, eta hori emakumeek klima aldaketa sufritzen eta aldaketaren aurka egiteko duten moduan islatzen da.

Beraz, emakumeek arriskuak sufritzeko probabilitate gehiago izateaz gain, erantzuteko gaitasun gutxiago dute. Gainera, orain arte ez dute parte hartu erabakiak hartzeko prozesuetan, izan ere, klimaren arintze eta egokitzapen neurriak planifikatzen diren botere organoetan emakume gutxiago daude. Horregatik beharrezkoa da mekanismoak ezartzea emakumeek klima aldaketarekin lotutako ekintza planak eta jarraibideak sortzen dituzten espazioetan gehiago parte har dezaten, izan ere, aurreko guztiek azken finean lur-planetan bizi garen pertsonen etorkizunean eragiten dute.

Klima aldaketaren erronka handiari eman beharreko erantzunean gizon zein emakumeek partaidetza aktiboa eta inklusiboa izan behar dute. Zenbaiten arabera, maskulinitate berriak ere identifikatu behar dira arazo honen aurreko genero rolen betikotzearen aurka borrokatzeko.

Azken finean, “Gizonak, maskulinitateak eta klima aldaketa” (Men Engage Alliance, 2017) txostenean azaldu moduan, “patriarkatua kaltegarria da gure klimarentzat” izan ere, gizonek natura menperatu nahi izan dute gainerakoengan (emakumeak, beste gizon batzuk, adingabeak, eta abar) boterea izan nahi izan duten moduan. Esfortzu berriak egin behar dira norabide onean aurrera egiteko, eta gizonek gizaki bezala parte hartu behar dute, izan ere, haiek ere zaurgarriak dira klima hondamendien aurrean. Horrekin lotutako beste erronka bat da mutikoek eta gizonek prozesu eraldatzaile honetan parte hartzea maskulinitatearen

tearen ideia zurrunik albo batera utzita, behar baino gehiagotan konkistan, kontrolean eta menperatzean oinarrituta egon baitira.

Zalantzarik gabe emakumeak irtenbidearen parte dira eta erabakiak hartzeaz gain, modu aktiboan jardun nahi dute.

Europako Parlamentuarentzat egin zen 2017ko abenduaren 18ko Emakumei, genero berdintasunari eta justizia klimatikoari buruzko txostenarekin bat (2017/2086(INI)), bermatu behar da emakumeek erabakiak hartzen, planifikatzen eta aplikatu beharreko prozesuetan parte hartzen dutela eta genero ikuspegia sartzen dela klima aldaketaren aurka borrokatzeko eta garapenerako lankidetzaren politiketan.

2020ko martxo hasieran Europako Batzordeak 2020-2025 urteetarako Genero Estrategia berria martxan jarri zuen. Bertan, klima aldaketari erreferentziak egiten zaizkio generoaren mainstreaming-eko estrategiaren parte gisa. Hau da, genero ikuspegia zeharkako moduan aplikatzen da politika eta programa guztietan, eta modu horretan ekitatea sustatzen da eta pertsona guztientzako aukerak sortzen dira: emakume eta gizon, neskato eta mutil guztientzat, aniztasun osoz.

II. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

13. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“5. artikulua. Gobernantza klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan.

1. Klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan, hauek dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organoak:

a) Klima aldaketaren eta energiaren arloan eskumena duen departamentua edo duten departamentuak.

b) Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Batzordea.

c) Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua.

d) Klima Aldaketaren Nafarroako Bulegoa.

e) Nafarroako Energiaren Agentzia”.

Zioak: gure talde parlamentarioak aurkeztutako bestelako zuzenketekin bat, foru administrazioan Klima Aldaketaren bulegoa eta Nafarroako Energiaren Agentzia sartu behar dira klima aldaketaren eta trantsizioaren organo gisa.

14. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluan (Gobernantza klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan) 1. puntua aldatzeko zuzenketa:

“1. Klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan, hauek dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organoak:

a) Klima aldaketaren eta energiaren arloan eskumena duen departamentua edo duten departamentuak.

b) Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Batzordea”.

Zioak: ez dugu uste Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua sortu behar denik, uste dugu egokiena dela Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Batzordea sortzea Nafarroako Parlamentuan, talde parlamentario guztietako ordezkariak osatua.

15. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

5. artikuluan (Gobernantza klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Urtebeteko epean Nafarroako Gobernuak Aldaketa Klimatikoaren eta Trantsizio Energetikoaren Agentzia sortzeko tramiteak hasiko ditu.

Aldaketa Klimatikoaren eta Trantsizio Energetikoaren Agentziak txosten bat egingo du urtero foru lege honen betetze-mailari buruz”.

Zioak: unitate organiko bakar baten esku egon behar du klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloko gobernantzak. Unitate horren egin-kizunetako bat izanen da txostenak ematea foru legearen garapen eta betetze mailari buruz.

16. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluko 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Gobernantza klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan:

“2. Urtebete igaro aurretik Nafarroako Gobernuak Trantsizio Energetikorako Nafarroako Agentzia sortuko du”.

Zioak: uste dugu lehenbailehen sortu behar dela agentzia, klima larrialdian gaudelako.

17. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

5. artikuluari (Gobernantza klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan) testua gehitzeko zuzenketa. 1. apartatuan d) letra gehitzen da:

“d) Klimaren aldeko Nafarroako Herritarren Biltzarra”.

Zioak: Herritarren Biltzarrean ordezkaturako gizartea ahaldundu nahi da, eta lehen pertsonan parte har dezala jarduketetan, ebaluazioetan, adierazleak betetzean eta abarreko ekintzetan.

Ordezkaritasun hori bermatzeko, zozketa egitean, lehendabizi biztanleria banatuko da irizpide demografiko objektibo eta egiaztagarrien arabera (generoa, adina, hezkuntza maila, diru-sarrerak edo jatorria, adibidez), eta gordetako eserlekuen portzentaje bat esleituko zaio azpitalde bakoitzari, Nafarroako gizarte osoan azpitalde horrek hartzen duen portzentajearen arabera. Horretarako, ausazko zozketa estratifikatua egingen da.

Hautaketa prozesu osoa zehatz-mehatz azaldu behar da bera egin aurretik, eta erakunde ofizial batek egin behar du hautaketa, jendaurreko ekitaldian.

Lagina hautatu baino lehen, kanpoko gainbegiratzaile batzuk izendatuko dira, prozesu osoa kontrola dezaten. Horrela Biltzarra orekatua, egokia eta independentea izanen da.

Gobernuak galdera zehatz bat planteatuko du, justizia sozialaren esparru baten barnean emisioak murrizteari buruzkoa. Herritarren Biltzarrak

erantzuna emanen dio berariazko neurrien bitartez, kontuan izanik autonomia-erkidegoaren aurrekontuak eta proiektuak, bai eta klima larrialdia konpontzeko dituen legegintza-aukerak ere.

Biltzarraren prozesuan bost bilkura eginen dira gutxienez; horietan biltzarkideek informazioa jaso ahalko dute Biltzarrak berak aukeratutako adituegandik, proposamenak jaso ahalko dituzte edozein entitateregandik, eta bideratzaile talde baten laguntza izanen dute.

Bilkurak osorik grabatuko dira, eta zuzenean emanen dira departamentuak adierazten duen kanal digitaletik.

18. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. tituluko I. kapituluaren artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa, Gobernantza eta plangintza. Honela idatzita geratuko litzateke:

____.artikulua. Nafarroako Energiaren Agentzia.

1. Nafarroako Energiaren Agentzia sortzen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 59. artikuluan jasotako enpresa-entitate publiko gisa, berezko nortasun juridiko berezituarekin eta energiaren arloan eskumena duen departamentuari atxikita.

2. Agentziak atxikita egonen den eta energiaren arloan eskuduna den Nafarroako Gobernu departamentuaren plangintza eta politika orokorreko jarraibideak beteko ditu, eta departamentu horrek agentziaren gain egikarituko ditu ordenamendu juridikoak esleitutako kontrol eta tutoretza ahalak.

3. Administrazio kontseiluan lehendakaria egonen da, eta lehendakaria izanen da energiaren arloan eskuduna den departamentuko titularra. Gainera, gehienez ere hamar mahaikide egonen dira, eta horiek izendatzeko profesionaltasun eta trebakuntza irizpideak kontuan hartuko dira. Nafarroako Parlamentuak, irizpide bereberekin, bost mahaikide izendatuko ditu, eta izendapenek lau urteko iraupena izanen dute.

4. Hauek dira Agentziaren oinarritzko helburuak:

a) Efizientzia, kudeaketa eta aurrezpen energetikoaren arloan jarduketak sustatzea eta egitea, baita energia berriztagarriak sustatzeko jarduketak ere.

b) Energia merkaturatzea aplikatu beharreko araudiarekin bat.

c) Klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko azterlanak eta analisiak egitea.

d) Eremu instituzional guztietan ekimen energetikoa sustatzeko esku hartzea, bereziki Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan efizientzia energetikoa sustatzeko.

5. Agentziaren estatutuekin bat, hauek izanen dira bere zereginak:

a) Nafarroako Energiaren Plana kudeatzea, horren barne dela haren diseinua eta lanketa, neurriak eta jarduerak proposatzea eta gauzatzea, eta betetze mailaren jarraipena egitea.

b) Nafarroako Gobernuaren departamentuei laguntzea Nafarroako energiaren eta klima aldaketaren planak inplementatzen.

c) Foru Komunitatearen energia mix-a egitea, ebaluatzea eta jarraitzea.

d) Neurriak ezarri eta kudeatzea, hauek barne: finantzaketa sistema berritzaileak, aurrezpena eta efizientzia energetikoa sustatzen duten sistemak eta energiaren, garraio elektrikoaren, energia berriztagarrien, hiri adimendunen—Smart cityak— eta Smart grid-en kudeaketa adimenduna, energia aurrezteko, energia banatua sortzeko, energia banatzen duten sare adimendunak sortzeko eta isurketak gutxitzeko.

e) Nafarroako Energia Azpiegituren Planak diseinatzen eta haien jarraipena egiten laguntzea.

f) Energia aholkularitza ematea eta administrazioei, enpresei, erakundeei eta herritarrei laguntza teknikoa eta profesionali prestakuntza espezializatua eskaintzea.

g) Energiaren agentzien eta erakundeen interesak biltzen dituzten Europako energia proiektuetan eta nazio mailako eta Europako federazio eta elkarteetan parte hartzea.

h) Herritarren parte-hartzea ezartzea erakundeak sustatzen dituen energia proiektuetan, bai diseinuan bai finantzaketan, tokiko energia komunitateak bultzatuz eta aholkularitza emanaz aurreko horiek eratzeko interesa duten pertsonen eta toki erakundeen.

i) Herritarren parte-hartzea eta gizarte berrikuntza sustatzea energia trantsizioan.

j) Energia berriztagarria ekoizteko, energia biltegitratzeko edo kudeatzeko eta ibilgailu elektriko

koak kargatzeko sistemak sustatzea eta kudeatzea.

k) Merkataritza sozietateak sortzea edo horietan parte hartzea, lehia askearen araubidean energia elektrikoa merkaturatzeko, autokontsumo instalazioen energia soberakinen salmenta kudeatzeko, kontsumo datuak jaso eta analizatzeko eta sistema elektrikoaren eskariaren eta beste zerbitzuen kudeaketa adimendunean parte hartzea.

l) Karbono dioxidoa xurgatzeko, karbono-hustubideak babestu eta hobetzeko eta klima aldaketara egokitzeko jarduketak eta inbertsio publikoak eta pribatuak sustatzea.

m) Herritarren artean energiaren demokratizazioa bultzatzea.

n) Herritarrei zuzendutako klima aldaketari eta energiaren erabilerrari buruzko informazio eta sensibilizazio kanpainak egitea.

ñ) Azterketak eta iragarpen ereduak sortzea eta energia teknologiei eta sistemei, energia kontsumo ohiturei, klima aldaketaren bilakaerari, askotariko sektore ekonomikoen ahuleziari eta Nafarroako Energia Planaren helburu eta neurrien betetzeari buruzko txosten teknikoak egitea.

o) Energia arloko ikerketa, garapena, prestakuntza eta berrorientatze profesionala sustatzea.

p) Estatu edo nazioarte mailako lehiaketa proiektuetan parte hartzea, lege honen helburuekin edo Agentziaren zereginekin lotutako ekimenak martxan jartzeko.

q) Laguntza teknikoak ematea Nafarroako administrazio publikoetako energia kudeatzaileei eta kontratazio unitateei, energiaren erabilera arrazionalizatzeko programak sortzea eta sektore publikoan energia baliabide berriztagarrien aprobetxamendua sustatzea.

r) Toki erakundeei laguntza teknikoak ematea, klimaren eta energia jasangarriaren aldeko ekintza planak idatzi, gauzatu eta berrikusteko.

s) Jarduketa eta inbertsio publikoak eta pribatuak bultzatzea I+G+b arloko proiektuetan, energia trantsizioaren arloan.

6. Agentziak bere estatutuekin bat bere zereginak egikaritzeko enpresa erakunde publikoen ahalak, eskumenak eta eskubide propioak izanen ditu, eta, edonola ere, honako hauek eginen ditu:

a) Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzahitzarmenak eta kontratuak sinatzea.

b) Merkataritza sozietateak eratzea edo horietan parte hartzea.

c) Dirulaguntzen programak eta laguntza publikoen lerroak ezartzea edo kudeatzea.

d) Datuen tratamendu estatistikoa egitea.

7. Botere publikoek, herritarrek, enpresek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta enpresa elkarteek Agentziarekin lan egin beharko dute eta klimaren aldeko politikak egikaritzeko estatistika datuak eman beharko dizkiote, ezarriko diren formatuekin eta konfidentzialtasun irizpideekin bat. Estatistiketan sexu aldagaia sistematikoki sartuko da, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 19 a) artikularekin bat.

8. Beste administrazio baten jabetzakoak diren lursailetan energia berriztagarria sortzeko, biltegitzeko edo karbonoa xurgatzeko egin beharreko proiektuetan Agentziak dagozkien proiektuak idatzi eta horien administrazio izapidea eginen du, Administrazioak xede horretarako lursailak eskuragarri jartzeko nahiaren berri izan ondoren, eta albo batera utzi gabe ondoren, hala badagokio, lursailen titulartasunaren lagapena, obrak egiteko titulu gaitzailearen ematea edo administrazioen arteko lankidetzaren mekanismoaren ezarpena egin beharra”.

Zioak: beharrezkotzat jotzen dugu Nafarroako Energiaren eta Klima Aldaketaren Agentzia sortzea enpresa erakunde publiko gisa, modu aktiboa energiaren politika aurrera eraman dezan.

Agentzia Nafarroako energia plangintzaren eta kudeaketaren egikaritze tresna gisa sortu behar da eta toki administrazioekin, enprekin eta eragile sozioekonomikoekin jarduerak koordinatu behar ditu energiaren erabilera adimenduna sustatzeko. Horrez gain, helburuak efizientzia eta energiaren aurrezpena gehitzea eta baliabide garbi eta berriztagarriak sustatzea izan behar dira, arreta berezia eskainiz Foru Komunitate osoaren garapen jasangarriari.

Gure ustez, gainera, beharrezkoa da sektore horretan jarduera ekonomiko publikoa eta teknologia garbiak eta errentagarriak garatzeko ikerketa sakona egitea. Ez dugu ahaztu behar Nafarroa aitzindaria izan dela energia eskuratzeko modu garbiak garatzen, baina, azken urteetan, bestelako herrialde aurreratuetan ez bezala, politika publiko horiek abandonatu egin dira, nagusiki elektrizitate enpresa handiek egindako presioarengatik.

Energia subiranotasunean eta energia berriztagarrien garapenean aurrera egiteko, beharrezkoa da Nafarroako Energiaren Agentzia sortzea sekto-

reko enpresa erakunde publiko gisa. Agentziaren esku egonen da ikerketa egitea eta jarduera guztietan sartzeari energia kontsumitzaileengana iritsi arte. Jarduera errentagarriagoak ezartzeak asko laguntzen ahal du ikerketaren finantzaketan, eta modu horretan, ez da beharrezkoa izanen pisu guztia zerga presioaren gain uztea. Gainera, horrek ez du esan nahi kutsagarriagoak diren energia iturriak ustiatzea, industria pribatuaren zati handi batek egiten duen moduan.

19. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. tituluko I. kapituluaren artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa, Gobernantza eta plangintza (6. artikulua baino lehen). Honela idatzita geratzeko litzateke:

“ ____ artikulua. Klima Aldaketaren Nafarroako Bulegoa.

1. Kima Aldaketaren Nafarroako Bulegoa sortzen da, ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuari atxikia, unitate organikoaren izaerarekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen ezarritakoarekin bat.

2. Klima Aldaketaren Nafarroako Bulegoak eginkizun hauek izanen ditu, foru dekretuaren bidez esleituko zaizkionez gain:

a) Klima aldaketari buruzko arau garapena, estrategiak, planak eta helburuak Nafarroan bultzatu eta koordinatzea, Europar Batasunaren baitan hartutako konpromisoak oinarri harturik.

b) Klima Aldaketaren Departamentu Arteko Batzordeko idazkaritza tekniko eta administratibo gisa jardutea.

c) Aldian-aldian aztertzea BEGen isurketen bilakaera eta karbono merkatuak, baliabide naturalek eta sistemek, sektore ekonomikoek eta lurraldeek klima aldaketaren inpaktuekiko duten zaurgarritasuna eta klima aldaketaren arloko politikak Nafarroan zenbatean ezarri diren ebaluatzea.

d) Txostena egitea klima aldaketari eragiten ahal dioten plan eta programetako ingurumen ebaluazio estrategikoetarako prozeduretan.

e) Gizarte osoa kontzientziatu eta informatzeko jarduerak sustatu eta egitea, bai eta zabalkunde-koak ere, klima aldaketari lotutako aspektu guztiez.

f) Komunitate zientifikoaren ikerketa-jarduerak sustatzea klima aldaketaz, sistema klimatikoaren behaketaz eta eskualde-ereduak sortzeaz.

g) Jarduketak eta proiektuak bultzatzea, klima aldaketak Nafarroan dituen inpaktuen aurrean, egokitzeko gaitasuna hobetzeko eta politika sektorialetan egokitzapena txertatzeko.

h) Berotegi-efektuko gas isurketen inbentarioaren garapena koordinatzea, hustubideak barne, bai eta isurketa proiektzioen sistemena ere, nazioartean onetsi diren metodologiak oinarri harturik.

i) Berotegi-efektuko gas isurketak kalkulatzeko metodologiak garatzea, erakundeetarako, bai eta haien produktu eta zerbitzuetarako ere.

j) Enpresek, administrazioek eta beste instituzio nahiz erakunde batzuek arintze eta egokitzapen arloko borondatezko programa eta proiektuetan parte har dezaten sustatzea.

k) Berotegi-efektuko gas isurketen gaineko eskubideen Europar Batasuneko merkataritza araubidearen arloko eskumenak erabiltzea.

l) Parte-hartzea sustatzea estatuko, Europar Batasuneko eta nazioarteko klimaren arloko batzorde eta sareetan, bai eta ordezkariak, lankidetzaren nahiz erabakiak hartzeko beste organo batzuetan ere.

m) Jarduketa eta inbertsio publikoak eta pribatuak sustatzea, karbono-hustubideak babestu eta hobetzeko, eta klima aldaketara egokitzeko.

n) Udalerriek laguntza tekniko ematea, klimaren aldeko ekintza planak idatzi, gauzatu eta berrikusteko.

o) Jarduketa eta inbertsio publikoak eta pribatuak sustatzea I+G+b arloko proiektuetan, klima aldaketaren aurkako borrokaren arloan.

p) Klima aldaketaren arloko berrikuntza sozialeko, teknikoko eta profesionaleko proiektuen eta negozio eredu berrien alde egitea.

q) Aldian behin Ebroko Konfederazio Hidrografikoekin lankidetzan plubiometriaren bilakaera, inguruko emariak eta nekazaritza, hiri eta industria kontsumoak analizatzea.

r) Herritarrak etengabe informatzea, horrela sentsibiliza daitezten eta egokitzapen eta arintze neurriak susta daitezten.

s) Klima aldaketari buruzko desinformazioaren aurka egiteko ekintzak gauzatzea.

t) Agintzen zaizkion antzeko zereginak”.

Zioak: energia trantsizioarekin lotuta Energiaren Agentzia sortzea proposatu dugun moduan, beharrezkotzat jotzen dugu Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoaren ingurumen arloko departamentu eskuduneari erregulazioa sortzea ere. Bi tresna osagarri dira, baina funtzio propioak dituzte inskribatzen diren alorretan, eta izaera juridiko ezberdina dute.

Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoa Nafarroako Gobernuaren organo teknikoa izan behar da eta ingurumen arloan eskuduna den departamentuari atxikita egon behar da, eta bere ardura izan behar da Foru Komunitatean klima aldaketaren arloko estrategiak, planak eta proiektuak ezartzea.

Europar Batasunaren konpromisoetan oinarrituz, bulegoak sektore politikan klima aldaketaren arintze eta egokitzapena integratzea sustatuko du eta klima politiken arloan beste gobernuekin hitzartutako proiektu eta jarduketak bultzatuko ditu.

Halaber, bulegoak Klima Aldaketaren Departamentu Arteko Batzordeko idazkaritza tekniko eta administratibo gisa jardunen du. Antzeko bulegoak sortu dira estatuan (Trantsizio ekologikorako ministerioaren egitura organikoa garatzen duen apirilaren 28ko 3 500/2020 Errege Dekretuaren 6. artikulua bere funtzioak definitzen ditu https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2020-4814) eta autonomia erkidegoetan (Katalunia, abuztuaren 2ko 277/2016 Dekretuaren 102. artikulua https://noticias.juridicas.com/base_datos/CCAA/580430-d-277-2016-de-2-ago-ca-cataluna-reestructuracion-del-departamento-de-territorio.html#a102).

Gure ustez, bulegoaren kokapen sistematikoa gobernantzaren arloan jaso behar da, ez plangintzaren arloan. Gainera, lege proiektuaren 10. artikuluan ezarritako funtzioei beste bi gehitu dizkiegu eta hura ezabatzea proposatzen dugu.

Hauek dira funtzio berriak:

– Aldian behin Ebroko Konfederazio Hidrografikoekin lankidetzan plubiometriaren bilakaera, inguruko emariak eta nekazaritza, hiri eta industria kontsumoak analizatzea.

– Herritarrak etengabe informatzea, horrela sentibiliza daitezen eta egokitzapen eta arintze neurriak susta daitezen.

– Klima aldaketari buruzko desinformazioaren aurka egiteko ekintzak gauzatzea.

20. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“6. artikulua. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Departamentu Arteko Batzordea.

1. Foru lege honen baitan, honako eginkizun hauek ematen zaizkio Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Departamentu Arteko Batzordeari, klima aldaketaren eta energiaren arloko plangintza ezar dezan:

a) Foru Komunitateko administrazioko departamentuen eta bere erakunde instrumentalen jarduna koordinatzea klima aldaketaren aurkako eta trantsizio energetikoaren aldeko ekintzan.

b) Nafarroan, klima aldaketaren eta energiaren arloko helburuen eta neurri sektorialen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

c) Nafarroako Gobernuari igortzea klima aldaketaren eta energiaren arloko jarraipen memoriak, ebaluazio txostenak eta plangintzarako proposamenak.

d) Lehentasunen proposamena egitea Nafarroako Funts Klimatikoaren baliabideak esleitzeko, erregelamendu bidez ezarritako irizpideekin bat.

e) Informazioaren transferentzia sustatzea, ezagutzaren ekoizpen zentroetatik kudeaketa arduradunetara komunikazio bideak ezarriz.

f) Klima politikak eta sektore planak ebaluatzea, horiek foru lege honen helburu eta printzipioetara egokitzeko.

2. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Departamentu Arteko Batzordeak lantalde edo lan batzordearen izaera izan behar du, eta haren osaketa, antolaketa, beste organismo batzuekiko koordinazioa eta funtzionamendua Nafarroako Gobernuaren erabakiaren bidez ezarriko dira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritakoarekin bat eta irizpide hauek aintzat hartuz:

a) Batzordeko burua izan behar da Nafarroako Gobernuko lehendakaria edo hark eskuordetutakoa.

b) Ingurumenaren arloko eskumenak dituen departamentuko titularra edo hark eskuordetzen duena izan behar da batzordeko buruordea.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa osatzen duten departamentu guztietako ordezkariak osatuko dute, departamentu bakoitzeko titularrak zuzendari nagusien artean izendatuta.

d) Batzordean emakumeek eta gizonen presentzia eta ordezkariak orekatua dutela bermatuko da”.

Zioak: gure ustez ere, Nafarroako Foru Komunitateak, klima aldaketaren aurkako borrokaren konpromisoa indartzeko eta askotariko departamentuen eta komunitatearen jarduketan sustapena eta koordinazioa bideratzeko, Klima Aldaketaren Departamentu Arteko Batzorde bat sortu behar du. Batzordea kide anitzeko organoa izan da eta klima aldaketaren arintze eta egokitzapen neurriak proposatuko ditu eta ezarrita edo egikaritze fasean dauden neurrien jarraipena eta berrikuspenera egiten du.

Klima aldaketaren eta airearen kalitatearen arloek zeharkako eragin multisektoriala dute eta eragin horrek zorrozki ingurumenekoak diren alderdiak gainditzen ditu. Beraz, efizientzia eta eraginkortasuna gehitzeko, beharrezkoa da modu aktiboan barnean sartzea zuzendaritza zentroen arduradunak eta Nafarroako Gobernuak askotariko departamentuen menpeko organismoak.

Antzeko departamentu arteko lankidetzak organoak daude (https://www.caib.es/sites/institutestudisautonomics/ca/n/decret_332020_de_26_doctubre_de_2020_pel_qual_saprova_el_reglament_de_funcionament_i_composicio_de_la_comissio_int_erdepartamental_de_canvi_climatic_del_govern_d_e_les_illes_balears/ --, http://www.bocm.es/boletin/CM_Orden_BOCM/2018/02/12/BOCM-20180212-1.PDF --, <https://www.juntadeandalucia.es/boja/2020/44/1> --, <http://doe.juntaex.es/pdfs/doe/2021/110o/21040003.pdf> --, <https://www.aragon.es/-/comision-interdepartamental-de-cambio-climatico#anchor3> --,), eta izendapen hori hartzen dute. Modu horretan, zeharkakotasunaren ideia nabarmentzen dute eta gobernu departamentu guztiak sartzen dituzte klima politiketan, eta horrela, partaide eta erantzunkide sentitzen dira. Horregatik, izena aldatzea proposatzen dugu eta “departamentu arteko” izatera indartzea; gainera, izen hori jada jasotzen zen foru lege aurreproiektuaren zirriborroetan.

Departamentu arteko batzordearen zereginak osatzeko bi gehiago identifikatu dira:

– Informazioaren transferentzia sustatzea, ezagutzaren ekoizpen zentroetatik kudeaketa arduradunetaraio komunikazio bideak ezarri.

– Klima politikak eta sektore planak ebaluatzea, horiek foru lege honen helburu eta printzipioetara egokitzeko.

21. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

6. artikulua (Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Batzordea) aldatzeko zuzenketa.
b) letraren testua honako hau izanen da:

“b) Aldaketa klimatikoari eta energiari dagokienez foru lege honetan ezartzen diren helburuak lortzeko garrantzitsuak diren alderdiez Nafarroan ezarritako helburuen, neurrien eta plan sektorialen jarraipena egitea eta horiek guztiak ebaluatzea”.

Zioak: klima larrialdiko egoera dela-eta, ikuspegi zabaldu behar dugu eta azaltzen diren gorabehera garrantzitsu guztiak aintzat hartu, foru legearen helburuak eta xedeak erdiesteko.

22. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7. artikulua (Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua) ezabatzeko zuzenketa”.

Zioak: ez dugu uste Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua sortu beharra dagoenik.

23. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“7. artikulua. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren politikarako Gizarte Kontseilua.

1. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren politikarako Gizarte Kontseilua kontsultarako kide anitzeko organoa da eta ingurumen arloko departamentu eskudunari atxikita dago. Bere helburu nagusiak administrazio publikoei klima politikari eta trantsizio energetikoari buruzko aholkularitza ematea, klima aldaketaren arintze eta egokitzapen neurriak proposatzea eta Foru Komu-

nitateko gizarte eta ekonomia sektoreen partaide-tza erraztea dira.

2. Klima aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren politikarako Gizarte Kontseiluak eginkizun hauek ditu:

a) Klima politikei buruzko jarduketa proposamenak egitea.

b) Klima plangintzari, plangintza horren eguneraketa eta berrikuspeni, arintze eta egokitzapen esparru estrategikoei eta karbono aurrekontuei buruzko proposamenak analizatzea eta egitea.

c) Nafarroako klima aldaketari eta energiari buruzko plan estrategikoen proiektuei eta horien aldaketei buruzko aginduzko txostena ematea.

d) Foru lege honen xede diren arloetan, foru dekretuaren maila duten lege- edo arau-xedapenen aurreproiektuei buruzko aginduzko txostena ematea.

e) Klima Aldaketaren Departamentu Arteko Batzordeari proposamenak egitea.

f) Klima aldaketaren arloko politiken garapena eta ezarpena ebaluatzea, eta, hala dagokionean, arlo horretan indarrean dagoen araudian aldaketak proposatzea.

g) Askotariko gizarte eta ekonomia sektoreetan klima aldaketari buruzko informazioa partekatzea sustatzea.

h) Ingurumen eta klima aldaketaren arloan eskuduna den departamentuko titularrak agintzen dizkion bestelako kontsulta zereginak.

3. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Departamentu Arteko Batzordearen eraketa, antolamendua, koordinazioa eta funtzionamendua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritako-arekin bat eginen dira.

Arau horrek bermatuko du Gizarte Kontseiluan toki administrazioko, ikerketako, unibertsitateetako, enpresetako, profesionalen eta bizilagunen arloetako, sindikatu- eta ekologiko eta ingurumen arloetako eta ekonomiako Nafarroako erakunde eta elkarte adierazgarrienetako kideak daudela. Gizarte kontseiluan emakumeek parte har dezaten sustatuko da.

4. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren politikarako Gizarte Kontseilua kide anitzeko organo mistoa izanen da”.

Zioak: Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseiluari

buruzko Foru Lege proiektuaren 7. artikulua- ren edukia gure ustez ez da nahikoa bere funtzioei dagokienez, izan ere, proposatutako organoa ez doa foru agindu bidez sortutako “lantalde edo lanerako batzorde bat” izatetik haratago.

Uste dugu organo hori (bertan gutxieneko partaidetza soziala sortu nahi da) ez dela “lanerako talde huts” bat izan behar, baizik eta kide anitzeko organoa izan behar dela eta organo horrek, klima aldaketari eta energiari lotutako plangintza tresnak onestean, gutxienez ahalmena izan behar duela nahitaezko txosten bat egiteko.

Uste dugu hobeto zehaztu behar direla funtzioak eta gizartearen zein sektore ordezkatuak izan beharko liritekeen azaltzen duen zirriborroa bermatu behar dela: toki administrazioa, ezagutzari lotutakoak (ikerketak eta unibertsitateak), enpresakoak, elkargo profesionalak, bizilagunenak, sindikatuak, ekologistak eta ingurumenaren aldekoak, eta abar.

24. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

7. artikuluan (Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua) 1. puntua aldatzeko zuzenketa:

“1. Ordezkaritza zabaleko gizarte kontseilu baten bidez antolatuko da parte-hartze soziala trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren arloan, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak sustatua eta hari atxikia. Kontseilu hori foru lege hau onesten denetik urtebete igaro aurretik eratu behar da”.

Zioak: klima larrialdiko egoera dela-eta, asko mugatu behar ditugu inplementaziorako epeak, eta gehienez urtebeteko epeak ezarri garapenerako eta jarduketari heldzeko.

25. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

7. artikuluko 3 c) letra aldatzeko zuzenketa. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren politikarako Gizarte Kontseilua.

“c) Ekimenak prestatzea berotegi-efektuko gasen isurketen murrizketa bultzatzeko eta egokitzapen arduratsua sustatzeko klima aldaketaren ondorioen aurrean, eta Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Batzordeari aurkeztea”.

Zioak: Gizarte Kontseilua ahaldundu nahi da; hala, ekimenak eta proposamenak prestatu eta aurkeztuko ditu eta horiek Batzordean baloratuko dira.

26. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

7. artikuluan (Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Jarduera-sektore inplikatu guztien ordezkari diren erakunde publiko eta pribatuetako kideek osatuko dute gizarte kontseilua, administrazio publikoak, enpresak eta gizarte erakundeak, eta elkargoak barne. Ordezkaritza parekatua bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea betez”.

Zioak: asmoa da Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea betetzea eta lanbide elkargo guztien ekarpena biltzea, haien eginkizun bateratzaileak eta ikuspegi profesional zabalak garrantzi nabarmena baitute foru legea garatzeko.

27. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

7. artikuluari (Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua) testua gehitzeko zuzenketa. 3. puntuari d) letra gehitzen zaio):

“d) Manuzko txostenak egitea foru lege hau garatzeko asmoarekin aldaketa klimatikoaren eta trantsizio energetikoaren arloan ezartzen diren araudiei buruz”.

Zioak: Gizarte Kontseilua ahaldundu nahi da; hala, ekimen eta proposamenak prestatu eta aur-

keztuko ditu, eta klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloko nahitaezko txostenak emanen ditu, Batzordean balora daitezten.

28. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

7. artikuluari (Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua) testua gehitzeko zuzenketa. Bi puntu gehitzen dira:

“5. Ehun egun igaro aurretik klimaren arloko herritarren biltzarra eratu beharko da; biltzarreko ehun pertsonak zozketa bidez hautatuko dira, Nafarroako gizartearen ordezkariak izan daitezten. Biltzar hori gardentasunaren eta gobernu irekiaren arloetako eskumenak dauzkan departamentuari atxikita egonen da.

6. Hiru urteko aldiaren Nafarroan sortzen diren berotegi-efektuko gasen isurketak ez badira murrizten planean ezartzen den beste, beste herritar biltzar eratuko da asmo handiagoko proposamenak egiteko”.

Zioak: Herritarren Biltzarrean ordezkarietako gizarte ahaldundu nahi da, eta lehen pertsonan parte har dezala jarduketetan, ebaluazioetan, adierazleak betetzean eta abarreko ekintzetan.

29. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8. artikulua (Plangintza, ezarpen eta ebaluaziorako tresnak) aldatzeko zuzenketa:

“Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behar diren plangintza, ezarpen eta ebaluazio tresnak izanen dituzte foru lege honen 1. artikuluan adierazitako xedea eta helburuak betetze aldera, eta genero ikuspegia txertatuko dute horietan. Honako hauek dira tresna horiek:

a) Plangintza estrategikoa klima aldaketaren eta energiaren arloan, lotura duten plangintza sektorial guztiekin koordinaturik.

b) Trantsizio Energetikorako Nafarroako Agentzia, klima aldaketaren arloko planak betearazteko tresna gisa.

c) Karbono aurrekontuak, bai klima aldaketa bai energia eredu berria plan sektorialetan txertatzeko tresna gisa.

d) Funts Klimatikoa, planak eta ekimenak kofinantzatzeko tresna gisa”.

Zioak: Artikulua aldatu behar da Klima Aldaketaren Bulegoaren ordezkari Nafarroako Energia Agentzia jartzeko, gure iritziz azken horrek izan behar duela klima aldaketaren arloko planak betearazteko erakunde bakarra.

30. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

8. artikulua (Plangintza, ezarpen eta ebaluaziorako tresnak) aldatzeko zuzenketa. b) letra ezabatzen da.

Zioak: artikulu horren arabera, Nafarroako Gobernuak plangintza-, ezarpen- eta ebaluaziotresnak izan ditu foru legearen 1. artikuluan aitortutako xedea eta helburuak betetzeko. Tresnatzat aipatzen dira, besteak beste, Trantsizio Energetikorako Nafarroako Agentzia, energiaren arloko planak betearazteko tresna gisa, eta Klima Aldaketaren Nafarroako Bulegoa, klima aldaketaren arloko planak betearazteko tresna gisa.

Gure iritziz, klima aldaketaren kontrako borroka buruzko politiketan leuntzeko eta egokitzeko araudi eta jarduketegi dagokienez jarraitu beharreko estrategian, energia eta klima aldaketa eskutik doaz; izan ere, gure energia-erabilerak eta energia-ekoizpenak izugarriko eragina dute kliman, eta, aldi berean, klima aldaketak energia ekoizteko gure ahalmena eta gure energia-beharrak aldaraz ditzake. Garatu beharreko politikak energia eta klima plan integratuekin bat etortzea bermatuko duen gobernantza behar dugu; baina ikuspegi koordinatua eta zeharkakoa ere behar dugu, klima aldaketari aurre egiteko egin beharreko eraldaketan parte hartuko duten sektore guztietan jarduteko. Hori horrela izanda, ez dugu ulertzen zergatik proposatzen diren gobernantzarako bi tresna, bereiz eta independente, alegia, Klima Aldaketaren Bulegoa eta Energiaren Nafarroako Agentzia, departamentu banaren menpe (Energia eta Ingurumena).

Beraz, erreferentziako erakunde bakar bat behar dugu, helburu eta xedeak betetzeko jarduketak guztiak zentralizatuko dituen eta klima alda-

ketaren inguruko araudiaren aplikazio uniformeaz arduratuko dena.

31. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

8. artikuluarik (Plangintza, ezarpen eta ebaluaziorako tresnak) testua gehitzeko zuzenketa. e) letra berria erantsen da:

“e) Urtebete igaro baino lehen Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Behatokia sortuko da”.

Zioak: Behatokia sortuz, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko politika publikoen plangintza eta ebaluazioa zaindu nahi dira, bai eta leuntze neurrietan eta plangintzan aurrera egiteko eraldatze-prozesuen azterketa ere.

32. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa: 4. apartatua kentzea.

Zioak: zio hau bat dator beste zuzenketa batekin; bertan, II bis kapitulu berria proposatu dugu “Klima ikuspegia eta bestelako plangintza neurriak” izenburuarekin, eta modu luze eta osoagoan arautzen da ezabatu nahi den apartatuaren gaia.

33. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: beste zuzenketa batekin bat dator; horren bitartez proposatzen dugu Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoaren erregulazioa II. tituluko I. kapituluan sartzea.

34. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10. artikulua (Klima Aldaketaren Nafarroako Bulegoa) ezabatzeko zuzenketa”.

Zioak: ez dugu uste beharrezkoa denik Klima Aldaketaren Bulegoa sortzea; horren eskumenak eta eginkizunak Trantsizio Energetikorako Agentziak har ditzake, edo klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloko eskumena duten departamentuek.

35. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

10. artikulua (Klima Aldaketaren Nafarroako Bulegoa) aldatzeko zuzenketa. Klima Aldaketaren Nafarroako Bulegoa ezabatzen da eta unitate organiko bakarra sortuko dugu: Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentzia.

“10. artikulua. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentzia.

a) Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentzia sortzen da. Erakunde autonomo independentea da, eta beraren helburuak honako hauek dira: Nafarroan klima aldaketaren aurka abian jartzen diren politikak koordinatzea, ebaluatzea eta gainbegiratzea, eta haiei buruzko laguntza tekniko ematea.

b) Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentziak berezko nortasun juridikoa dauka, eta gaitasun publiko eta pribatu osoa. Bere jardueran eta bere helburuak betetzeko, autonomia organiko eta funtzional osoarekin dihardu, eta erabat lokabe Foru Gobernuarekiko eta merkatuko eragileekiko. Beraz, Parlamentuaren eta epaileen kontrolak baino ez zaizkio aplikatuko.

c) Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentzia klima aldaketaren gaineko eskumena daukan departamentuari atxikita dago. Nolanahi ere, foru lege honetan ezartzen zaizkion egitekoetan ari denean beste departamentu batzuekin ere jardun ahal izanen du.

d) Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentzia enpresa edo merkataritza interesekin inolako loturarik eduki gabe ariko da bere jardueran eta bere helburuak betetzeko.

e) Legeriak ezartzen dizkien egitekoetan ari direla, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentziako langileek eta kideek ezin izango dizkiote eskatu jarraibideak ez erakunde publikoei ez entitate pribatuei, eta ezin

izango dute jaso haien jarraibiderik. Nolanahi ere lankidetzan jardun ahal izanen dute beste organo batzuekin, eta Foru Gobernuako politika orokorren zuzendaritzak bere ahalmenak erabili ahal izanen ditu araugintzako ahalaz baliatuz.

f) Horretarako, interes-gatazketarako protokoloa ezarriko da; bertan arlo honetako nazioarteko estandar aurreratuenak aplikatuko dira.

g) Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentziak modu berean aplikaraziko du klima aldaketaren inguruko araudia Nafarroa osoan.

h) Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentziak aldizkako lankidetzaregularra mantenduko du Estatuko Europar Batasuneko erakundeekin, eta denen jarduketan koordinazioa sustatuko du aplikatu beharreko legeriarekin bat etorritik.

i) Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentziak subiranotasun energetikoa bultzatuko du, bai eta tokiko eta erkidegoko esparruetan eredu energetikoa erabakitzeko eduki nahi dugun gaitasun demokratikoa ere”.

Zioak: unitate organiko bakar baten esku egon behar du klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloko gobernantzak. Unitate horren eginkizunetako bat izanen da txostenak ematea foru legearen garapen eta betetze mailari buruz.

36. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. tituluko II. kapituluaren, Plangintzari buruzkoan, artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa, 10. artikulua ondoren. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Klima Aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarra

1. Aurreko artikuluetan azaldutako plangintza formula irekien eta bide eskuragarrien bitartez egiten da; horiek bermatuko dute gizarte eta ekonomia eragile interesdunek eta herritarrek parte hartzen dutela. Foru lege honetan eta aplikatu beharreko estatuko legerian jasotako bestelako partaidetza eta erabakitze formulak albo batera utzi gabe, plangintza egiteko Nafarroako Gobernuak sortuta dauden partaidetza mekanismoak indartuko ditu eta bermatuko du herritarrek egituratuta parte hartuko dutela klima aldaketaren erabakiak hartzeko prozesuan, eta horretarako, Klima

Aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarra ezarriko da.

2. Klima Aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarra herritarren parte-hartzeko foroa da, eta ariketa hori parte-hartzailea eta erabakitzailea da eta hausnarketa eta ezagutza kolektiboa sortzen ditu. Horrez gain, foroari esker, herritarrek informazioa jasotzen dute eta 2050. urtearen aurretik klima neutraltasuna lortzeko eta Nafarroa klima aldaketaren inpaktuen aurrean erresilienteagoa izateko ezarri beharreko eraldaketa handietarako irtenbideei buruzko akordioak erabaki eta sortzen dituzte, eta, hori guztia, modu bidezko eta solidoan.

3. Klima Aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua ingurumen arloan eskuduna den departamentuko titularraren foru agindu bidez onetsiko dira.

Foru agindu horretan honako hauek ezarriko dira:

a) Eraketa: horretarako, errespetatu egin beharko da berdinen politika printzipioa, eta hori bermatzeko zozketa estratifikatu bat egiten da ezinbesteko aldagai soziodemografikoekin (adina, sexua, errenta, kualifikazio profesionala, eta abar).

b) Funtzionamendua: ordezkagarritasun, inpartzialtasun, independentzia, gardentasun eta klima aldaketaren ingurumen informazioaren eskuragarritasun printzipioek arautuko dute, eta hori guztia parte-hartzearen aurretik eta informazio aniztasunarekin.

c) Galdera baten inguruan eztabaidatzeko agintzen den agintaldi zehatza.

d) Batzarren gobernantza tresnak: gutxienez aditu independenteen kontsulta taldea eta koordinazio eta laguntza tekniko-logistikoko taldea egon behar dira. Bermatzaileak ere izendatuko dira; horiek gainbegiratzaile independente gisa jarduten dute eta bermatuko dute prozesua independentzia eta deontologia arauarekin bat etorritik betetzen dela.

e) Lan metodologia, erabakiaren iraupena eta lanak bukatzeko epea.

f) Herritarren Batzarren egindako azken txostenean jasotako proposamenen lotura maila; horrekin lotuta, Nafarroako Gobernuarentzat lotesleak izan behar dituzten gutxienez Batzarreko kideen % 80ren adostasuna jasotzen dutenak”.

Zioak: mundu osoan, eta bereziki Europan, gehitzen ari da klimaren krisiari buruzko erabakiak hartzean herritarren parte-hartzea.

Inor baztertu gabe ekonomia deskarbonizatzeko erronkaren aurrean, hau da, eredu aldaketa-ekin galtzaile izan behar diren kolektiboen gaineko ardura hartuta, geroz eta gobernu gehiagok egin behar dute herritarrek erabakiak hartzearen alde. Horretarako, asanbladak, epaimahaiak eta bestelako antolamendu demografikoko elementuak ezartzen dira, eta horien bitartez, herritarrek zein norabide hartu behar den azaltzen dute. Irlandan, Frantziako, Suedian eta Erresuma Batuan martxan jarri dituzte estatu mailan erabakiak hartzeko mekanismoak, eta horien bitartez bermatzen da trantsizio ekologikoa gizarte justizian oinarrituta egiten dela. Gainera, Eskoziako 2020ko azaroan martxan jarritako ekimena aipatu behar da, izan ere, jatorrian digitala den lehenengo herritarren batzarra izan zen, koronabirusaren pandemiak sortutako egoerarengatik.

Horrelako ekimen asko Europan ezarri diren arren, parte-hartze mota hori mundu mailan gehitzen ari da eta administrazio maila guztietan gertatzen da. 2019an herritarren parte-hartzeko 38 prozesu amaitu ziren mundu osoan zehar eta 26 martxan zeuden. 26 horietatik gutxienez 13tan klimaren krisia jorratu zuten. Gehienak Erresuma Batuko, Australiako eta Kanadako hirietan ezarri ziren.

Horixe azaldu zen 2020an argitaratutako “Innovative Citizen Participation and New Democratic Institutions: Catching the Deliberative Wave” izeneko txostenean. Lan hori gidatu duen Ekonomia Lankidetzako eta Garapenerako Antolakundeko Claudia Chwalisz adituak esan zuen joera bat gertatzen ari dela: “2010etik aurrera, mundu osoan geroz eta agintaritza publiko gehiago ari dira eztabaida ikuspegia erabiltzen herritarrek erabaki publikoak hartzen parte har dezaten. Eztabaidatzearen prozesuak norabide jakin bat du, eta uste dut, finkatu egingo dela.

Nork osatuko du herritarren batzar hori? Zein irizpide aplikatuko dira kideak aukeratzeko? Ordainsariak jasoko dituzte? Adituak egon behar dira edo bakarrik herritar partikularrak? Zein berme dago ziurtatzeko exekutiboak erabaki horiek konfiantza hartuko dituela? Azken finean, zeintzuk dira herritarren batzarra oinarritzen duten oinarriko printzipioak?

Galdera horiek erantzun beharko lituzke administrazioak herritarren batzarren sortzean. Nafarroak, bere Parlamentuarengatik, erronka handi bati aurre egin behar dio arlo horretan, eta foru lege hau eztabaidatu eta onestean, aukera paregabea du horrelako batzarren eraketa arautzeko.

Gure talde parlamentarioak adituen printzipioak partekatzen ditu. Herritarren batzar eraginkorrek kontu handiz diseinatu eta zuzentzen dira. Ezinbestekoa da oinarrizko printzipio batzuk ezartzea:

a) Emaitzak seriotasunez entzuten dituztenek enkargatuko dute. Herritarren batzarra elementu garrantzitsua da: konpromisoa, denbora eta baliabideak behar ditu, eta bere gomendioak argi eta garbi jarduteko boterea dutenengana bideratu behar dira. Kontsulta izaera izan arren, gomendioek herritarrek gai jakin bati buruz duten iritzia garrantzia, edukia eta legezketasuna dute. Ez du axola batzarra zein mailakoa den (estatuakoa, deszentralizatua edo tokikoa), izan ere, dena da egingarria klima aldaketaren arloan.

b) Herritarren batzarreko kideei ausaz egiten zaie gonbidapena, baina hautatzen direnean, biztanleria demografikoki ordezkatzeko irizpideak jarraitzen dira. Batzuetan jarrera irizpideak ere gehitzen dira, besteak beste kideek klima aldaketarekiko dituzten iritziak. Ideia nagusia da herritarren batzar bat biztanleria osoaren bertsio txiki bat izatea: askotan “publiko txikiak” izena ematen zaie batzar horiei. Garrantzitsua da aipatzea kideek ez dutela beren burua hautatzen. Batzarrean parte hartzeagatik ordaindu egiten zaie, eta horrela haien denbora aintzatesten da eta bermatzen da finantzazioa ez dela parte hartzeko oztopoa. Zozketa estratifikatua da kideak hautatzeko metodorik onena.

c) Erabakiak hartzeko denbora. Batzarreko kideek denbora behar dute entzuteko, ikasteko, askotariko gaiak zalantzan jartzeko, eztabaidatzeko eta ondorioak ateratzeko. Nafarroako klima aldaketaren herritarren batzarrak ziurrenik 3 eta 5 asteburutan bilerak egin beharko lituzke. Herritarren batzar guztiek hiru fase nagusi hauek dituzte:

– Ikaskuntza: parte-hartzaileek testiguen entzuten diete. Horien artean daude aditu teknikoak, eta egiazko aurrekari buruzko informazioa ematen dute. Horrez gain, askotariko lehentasun politikoak dituzten ezinbesteko alde interesatuei ere entzuten diete.

– Eztabaidatzea: parte-hartzaileek ikasitakoa kontuan hartzen dute, indibidualki eta beren kideekin hitz eginez.

– Erabakiak hartzea: parte-hartzaileek zenbait gomendio ematen dituzte. Horretarako, bozkatu egiten dute edo adostasuna lortzen dute.

Batzarra dagokion edukiaren erakunde independente batek zuzendu behar du. Erakunde horrek bakarrik batzarraren prozesua eta egitura

lantzen ditu: hau da, zein den kideen inplikazio maila eta nola eztabaidatzen duten. Horren barne, bideratzaile nagusiak eta mahaikoak egon behar dira, eta horiek izanen dira batzarreko kideen gidariak prozesuan zehar, eta bermatuko dute guztiek parte hartzen dutela eztabaida konstruktiboetan.

Prozesu guztia gidatzen du Talde Aholkulari batek. Talde hori osatzen dute halaber, askotariko arloetako adituek eta alde interesdunek. Talde horren zeregina ezinbestekoa da bermatzeko batzarreko kideei aurkeztutako ebidentzia orekatua, osoa eta objektiboki zehatza dela.

Klimaren aldeko herritarren batzarrak edo batzar herrikoiak martxan daude Europako hainbat lekutan. Besteak beste Frantzia, Suedia eta Irlandan —bertan, herritarren batzar bat sortu zuten abortuaren inguruan eztabaidatzeko eta ondoren, batzar berak klima aldaketari buruzko txosten bat sortu zuen— eta tokiko mailan Erresuma Batuko hainbat udalerritan, besteak beste Cambridgen, Oxforden edo Leedsen, eta Londresko hainbat barrutitan.

Esperientzia horietako batzuk azaldu nahi ditugu, izan ere, gure talde parlamentarioaren ustez, erabilgarriak izaten ahal dira Nafarroan klima aldaketaren gai eta trantsizio energetikoaren neurri jakinei buruz eztabaidatuko duen herritarren batzarra sortzeko, eta erabaki horiek gure lurraldean ezartzen ahalko lirateke.

Frantziako esperientzia:

Klimaren Herritarren Batzarra Frantzia aurrekaririk ez duen esperientzia demokratikoa da. Bere helburua herritarrei entzutea da, klima aldaketaren aurkako borroka azkartzeko. Bere zeregina izan da zenbait neurri definitzea 2030erako gutxienez berotegi-efektuko gasen emisioen % 40 murrizteko (1990ekin alderatuta), gizarte justiziaren printzipioa betez. Herritarren Batzar horrek gauza bat argi zuen galdera horri erantzutean: iragazkirik gabe erreferendum prozesua izanen duten, parlamentuko bozketan jorratuko diren edo erregelamenduz aplikatuko diren neurriak definitzea. Lan horretan aritu ziren 150 pertsona, guztiak ere zozketa bidez hautatuak; talde horrek Frantziako biztanleriaren aniztasuna ordezkatzeko. 8 hilabetetan zehar entzunaldiak eta eztabaidak gauzatu ondoren, Klimaren Herritarren Batzarrak proposamenak bidali zituen gobernura.

Herritar bakoitzak egunean 86,04 euro jaso zituen foroan parte hartzeagatik, eta bilerak egin zirenean kanpoan lan egin behar zutenei orduko 10 euroko ordainsaria eman zitzaion. 21 egunetan zazpi saio egin zituzten (saio bakoitza hiru egune-

koa izan zen), eta pandemiarengatik bederatzir hilabete iraun zuen prozesuak. 2019ko urrian hasi zen eta 2020ko ekainean bukatu zen.

Eztabaidatzeko bilerak bukatzean, parte-hartzaileen proposamenak bozkatzeko zituzten eta azken txosten bat idatzi zuten; txosten hori ere bozkatu egin zuten batzarreko kideek, eta 149 gomendio jasotzen ziren bertan. Azkenean, dokumentua onetsi zuten aldeko % 95eko botoekin.

Gobernu frantsesaren hasierako ideia Klimaren Herritarren Batzarrean onetsitako neurriak “iragazkirik gabe” aplikatzea zen, erregelamenduz, legez edo erreferendum bidez. Hala ere, errealitatean, gutxienez zazpi proposamen baztertu zituzte. Horixe gertatu zen besteak beste enpresen dibienduen gaineko zergarekin edo batzarren % 98k onetsitako 5G-ari buruzko luzapenarekin; horren bitartez, herritarrek eskatu zuten Frantzia 5G hedatzeko enpresen lizitazioak egin aurretik, ingurumen eraginaren eta osasun azterketak egiteko.

Horrez gain, autobideetarako gehieneko abiadura gutxitzeko proposamena ere berriz ere programatu da; batzarrean eztabaida gehien sortu zuen gaietako bat izan zen. Batzarreko kideen % 60ren botoekin aurrera atera zen, eta beste gomendio batzuek aldiz, % 95eko aldeko botoak zituzten.

Hala ere, batzar horretan egindako lanak argi uzten du zein garrantzitsua izaten ahal den partaidetza publikoko mekanismo erreala martxan jartzea eta laburpen lana egitea, eta horixe azaltzen da azken oharrean (<https://propositions.conventioncitoyennepourleclimat.fr/pdf/CCC-propositions-synthese.pdf>), eta azken txostenean zehaztu egiten da: “Batzarreko kideen helburua herritarrek kontrolatu mekanismoetan parte-hartze handiagoa izatea da, egungo agintaritzen efizientzia indartzeko eta “ingurumenaren defendatzailea” sortzea aztertzeko. Batzuetan, gainera, konstituzioan ezartzeko aldaketak ere proposatu zituzten”.

Erresuma Batuko esperientzia:

2020 bukaeran Erresuma Batuan antolatzen zen Nazio Batuen Klimaren hurrengo goi-bilera (COP26) —2021eko azaroan egingen da azkenik—, eta Erresuma Batuan antolatu zen baita Europar berriena den nazio mailako klimaren herritarren batzarra ere.

Climate Assembly UK taldearen lana 2020ko irailean bukatu zen, 2050ean klima neutraltasuna lortzeko moduen inguruan eztabaidatzeko ausaz hautatutako herritarren taldeak azken txostena

aurkeztu zuenean Erresuma Batuko parlamentuan aurkezteko hitzartutako proposamenekin.

Batzarra 2019an proposatu zen Komunen Ganberako (Erresuma Batuko Parlamentuaren behe-ganbera) sei batzordek eskaria egin ondoren. Batzarra sortu zen askotariko alderdietako parlamentariak ez zutelako erabaki bateraturik hartzen mende erdialdean herrialdeko CO2 emisio garbiak zero izateko egin beharrekoen inguruan.

108 kidek osatu zuten batzarra eta zozketa bidez hautatuak izan ziren; baldintza bat zen 16 urte baino gehiago izatea, eta hautaketa prozesuan bigarren fase bat gainditu behar zen; bertan, genero, adin, banaketa geografikoko eta bestelako faktoreez gain, hezkuntza maila eta klima aldaketarekiko iritziak ere kontuan hartu ziren.

Prozesuan sei bilera egin zituzten 2020ko urtariletik maiatzera. Bilera guztiak asteburuetan egin zituzten. Lehenengo hirurak presentzialak izan ziren, Birminghamen, baina azken hirurak, pandemiaren ondorioz, birtualak izan ziren.

Batzarreko kide bakoitzak 150 libera jaso zituen bilera bakoitzeko (167 euro inguru asteburu bakoitzean). Parte-hartzaileek une oro eskuragarri izan zuten klima aldatetaren adituek emandako informazioa; azken horiek Involvement enpresak hautatu zituen eta berak antolatu zuen foroa, eta ondoren, talde akademikoak berrikusi zituen; aldi berean, parlamentuan baliozkotu zuen Climate Assembly UKren erakundeak.

Aurrekontuaren zati bat Komunen Ganberak hartu zuen bere gain, 120.000 libera (133.000 euro inguru), eta gainerakoa (200.000 libera, 223.000 euro inguru) Esmée Fairbairn Foundation-ek European Climate Foundation-en Erresuma Batuko programak finantzatu zuten.

Prozesu demokratiko horretan proposamen zehatzak egin zituzten, besteak beste Erresuma Batuan berotegi-efektuko gasen emisio orokorren % 7 sortzen duen hegazkin bidezko garraioari zerga inkrementala aplikatzeko modua. Modu bidezkoan abiazioaren klima inpaktua gutxitzeko hiru aukera hauek proposatu zituzten: hegaldi guztiei ekotasa bat aplikatzea, hegazkinean bidaiatzearen maiztasunaren arabera gehitzen doan zerga gehikorra edo batzarreko kideen % 68k bozkatu zuen zerga, hegazkinez bidaiatzeko maiztasunaren arabera, baina aldi berean, bidaiatutako distantziaren arabera ere gehitzen dena.

Hiritararako mendiko ibilgailuen salmenta debekatzea, ibilgailu elektrikoak ezartzeko prozesua azkartzea edo hezkuntzaren bidez britainiarren haragi kontsumoa % 20 eta % 40 artean

murriztea batzarrean erabakitako beste proposamen batzuk izan ziren.

Azken txostena esteka honetan kontsultatzen ahal da:

<https://www.climateassembly.uk/report/read/financial-report.pdf>

Suediako esperientzia:

Suediako klimaren batzarreko herritarren parte-hartzearen formatua pixka bat ezberdina izan zen Europako beste esperientziekin alderatuta. Suedian Klimaren Parlamentu Herrikoia sortu zuten, ez zuelako gobernuko administrazioak sustatu, baizik eta herritarrek modu organikoan beren ekimenez sortu zuten.

Klimatriksdagen lehen aldiz 2014an sortu zen, hauteskunde orokorretarako denbora gutxi falta zela. Hasieran, bakarrik klimaren krisiaren aurka borrokatu nahi ziren pertsonen osatutako talde txikia zen. Helburua modu kolektiboan alderdi bakoitzeko hautagaiei eskatzeko neurri multzoa sortzea zen. Pixkanaka parte-hartzaileak gehitzen joan ziren eta Stockholm-en antolatu zuten zenbait egunetako ekimen batean 600 pertsona batu ziren.

Berriz ere antolatu zuten 2018an. Orduan, partaidetza are handiagoa izan zen. 1.000 pertsona baino gehiago joan ziren Stockholmeko Unibertsitatera. Bileraren aurretik, Suediako herritar guztiei proposamenak bidaltzeko eskatu zieten. 247 jaso zituzten. Guztiak ebaluatu zituzten eta aditu gonbidatuen aholkularitzarekin defendatu zituzten, bakoitza eztabaidatu zuten eta azkenean bozkatu egin zituzten.

12 neurri hautatu zituzten eta maiatzean Suediako Parlamentuan aurkeztu zituzten. Horietako bat Europako hirietara doazen gaueko trenen konexioa hobetzea zen, karbonoan baxua den garraioa sustatzeko eta hegazkinetan egiten diren bidaiak gutxitzeko.

2019ko apirilean, egungo gobernuak (sozialdemokraten eta berdeen arteko koalizioa) jakinarazi zuen 300 milioi koro suediar emanen zituela (30 milioi euro inguru) gaueko tren zerbitzu berriak sortzeko, eta hori herritarrei karbonoan baxuak diren garraioak erabiliz distantzia luzeetan bidaiatzeko aukera ezberdinak eskaintzeko planaren parte zen.

Klimatriksdagenen bileretan 2018an onetsitako 12 proposamen horiek izan dira, halaber, gaur egun larrialdi plana sortzeko oinarri; plan horren bitartez, politikariei lana erraztu nahi zaie eta podcast bat prestatzen ari dira, eta bertan hurrengo

hauteskunde orokorretako hautagaiek parlamentu herrikoien 12 proposamenen inguruko iritziak emanen dituzte.

Bestalde, boluntario bila dabiltza 2022ko hauteskundeetarako berriz ere elkartzeko. Sei urte daramatza martxan eta Klimaren Batzar Herrikoiko kide batek ere ez du inolako soldatarik jaso bere lanarengatik; lan hori, halaber, martxan dago nahiz eta hauteskunderik ez egon. Bere zeregina botere publikoak presionatzea da, baina, eskari orokorrak egin beharrean, politika zehatzak aurkeztu dira.

Hortik abiatuta, funtzionamendua beste herrialde batzuetan estatuak edo toki administrazioek antolatutako klimaren herritarren batzarren antzekoa da: azpitaldeetan banatuta, parte-hartzaileek gai bakoitza modu independentean eztabaidatzen dute eta adituek datuak kontrastatzen dituzte.

Ondoren, modu kolektiboan erabakiak hartu eta neurriak idazten dituzte. Kasu honetan, batzarreko kideak inork hautatu gabe eta hala nahi dutelako lan egiten duten herritarrek dira. Eta soldata bat edo dieta, ostatu eta garraioarengatik konpentsazioak jaso beharrean, haiek dira urtean 20 euroko kuota sinbolikoa ordaintzen dutenak parlamentuaren parte izateko eta bozkatzeko.

Suediako txostena esteka honetan kontsultatzen ahal da: https://klimatriksdagen.se/wp-content/uploads/2019/05/Call_for_action.pdf?sprak=eng

37. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“11. artikulua. Karbono aurrekontuak.

1. Karbono aurrekontuen helburua da zehaztea, berotegi-efektu gasen isurketen inbentariotik eta etorkizunerako proiektioetatik abiatuta, Nafarroa osorako isurketak murrizteko helburuaren banaketa jarduera ekonomikoaren sektore guztien artean, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuek hura modu koherentean txertatzea politika sektorialetan.

2. Aurrekontu horiek, gainera, adierazi behar dute zein zati dagokien isurketa eskubideen merkataritza-sistema batek estalitako sektoreei, oro har, eta zein zati dagokien sistema horrek estaltzen ez dituen sektoreei, atmosferara egiten

diren isurien eta CO₂-aren ebakutzailen inbentarioen kontabilitatearekin bat.

3. Parlamentuak bost urtean behin karbono aurrekontuak onetsiko ditu Nafarroako Gobernuak proposamena egin ondoren, Klima Aldaketaren Bulegoaren gomendioetan oinarrituz eta aurretik Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren politikarako Gizarte Kontseiluan aurkeztu eta gero.

4. Bost urteko epealdiaren erdian, Nafarroako Gobernuak indarrean diren aurrekontuen bete-tezari buruzko jarraipen txostenak argitaratuko ditu.

5. Karbono aurrekontu bakoitza ezartzeko, besteak beste hartu beharko dira kontuan ezagutza zientifikoa, sektoreen gaineko inpaktuak eta murrizketarako bakoitzak dituen potentzialak, inguruabar ekonomikoak eta sozialak, lehiakortasuna, energia politika, isurketen agertokiak eta nazioarteko itunak.

Zioak: 11. artikulua idazketa hobetzea eta ezartzea Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak proposamena egin eta gero, eskumena duela karbonoaren bosturteko aurrekontuak onesteko.

38. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

11. artikulua (Karbono aurrekontuak) aldatzeko zuzenketa. 1. puntuari esaldi bat eransten zaio amaieran:

“Horretarako, urteko karbono aurrekontuak sartu behar lirateke, guztira baliagarri dauden isurketen berri jakiteko eta horrela ezarritako mugak ez gainditzeko”.

Zioak: zehaztu beharra dago Nafarroak urte bakoitzean guztira zenbat isuri ahalko duen, bestela gerta bailiteke gehiegi isuri eta ezartzen diren mugak gainditzea.

39. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“12. artikulua. Nafarroako Funts Klimatikoa.

1. Nafarroako Funts Klimatikoa sortzen da, izaera publikokoa, nortasun juridikorik gabekoa, zeinaren helburua baita beharrezko finantza tresna izatea klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko politikak eta ekintzak gauzatzeko.

2. Funts Klimatikoak honako jarduketa hauek sustatuko ditu, beste batzuen artean:

a) Energia berriztagarriak eta energia efizientzia sustatzea.

b) Sareak deszentralizatzea eta energia autokontsumoa.

c) Energetikoki efizienteak diren etxebizitzak.

d) Mugikortasun iraunkorra.

e) Uraren efizientzia eta aurrezpena.

f) Biodibertsitatearen kontserbazioa eta biodibertsitatea ez galtzeko borroka.

g) Animalia eta landareen osasunean eta sanitatean sortutako inpaktuak gutxitzea.

h) Herritarrak muturreko meteorologia fenomenoak gertatzeko arriskuaren gehikuntzaren aurrean babestuta daudela bermatzea.

i) Ekipamendu efizienteagoak.

j) Ekoizpen prozesuak aldatzea emisio kutsatzaileak gutxitzeko.

k) Basoen kudeaketa jasangarria.

l) Klima aldaketaren arloko ikerketa eta berrikuntza.

m) Klima aldaketari buruzko sentsibilizazioa, informazioa eta heziketa.

n) Nekazaritza eta industria eredu elikagai subiranotasuna bermatzen duen bestelako eredu batekin ordezkatzea.

o) Nekazaritzaren sektorean berotegi-efektuko gasak murriztea.

p) Sektore ekonomikoen eta sistema naturalen egokitzapena eta zaurgarritasuna murriztea.

q) Foru lege honen helburuak betetzeko behar diren gainerakoak.

2. Nafarroako Gobernuak, bi urteko epean, erregelamendu bidez ezarriko ditu Nafarroako Funts Klimatikoa kudeatu, antolatu eta banatzeko irizpideak, energia eredu berrirako trantsizioaren eta klima aldaketaren arintzearen eta egokitzapenaren arloan proposatutako jarduketak kon-tuak hartuta, ekosistemak monitorizatu eta lehengoratzea barne.

3. Nafarroako Funts Klimatikoak honako baliabide hauek ditu:

a) Ezarrita dauden edo etorkizunean ezarriko diren ingurumen fiskalitate tresnetatik sortutako diru-sarrerak, bakoitzaren sortze arauan zehaztutako zati proportzionalean.

b) Nafarroako Gobernuak ingurumena babesteko gizarte intereseko xedeetarako bideratzen dituen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga esleipenen diru-sarreraren zatia.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontuaren ekarpenak. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sortzean, gutxienez urteko aurrekontuaren ehuneko bat bideratuko du, estatuari eta Tokiko Ogasunen Funtzari dagozkion ekarpen ekonomikoak deskontatu ondoren. Ekarpene hori artikuluko honetako bi apartatuan aurreikusitako erregelamendu garapena onesten denean egiten da.

Foru lege honetan aurreikusitako arau-haustekak egiteagatik ezartzen diren zehapenetatik biltzen den zenbatekoa.

d) Partikularrek, enpresek edo instituzioek berariaz Funtzari bideratzen dituzten dohaintzak, jaraunspenak, ekarpenak eta laguntzak.

e) CO₂ isurketen borondatezko konpentsazioa.

f) Nafarroako Baso Ondareko finketako baso aprobetxamenduetatik heldu diren diru-sarrerak.

g) Funtzionamenduan diharduten haize-parkeek eraginda fauna hiltzeagatik eman beharreko kalte-ordainen zenbatekoa, une bakoitzean indarra duen baremoaren arabera. Era berean, energia berriztagarrietako eta linea elektrikoetako proiektuen ingurumen ebaluazioaren arloan arau-haustekak egiteagatik ezartzen diren zehapenetatik biltzen den zenbatekoa, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen III. tituluko II. kapituluaren eta Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen VI. tituluan ezarritakoarekin bat.

h) Energia eolikoa ekoizten duten instalazioen ekarpenaren zenbatekoa, faunaren hilkortasunaren jarraipenari eta ingurumen arriskuko egoeren analisiari buruzko nahitaezko txostena egitera bideratua, 21.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.

i) Energia eredia aldatzea eta klima aldaketaren efektuak prebenitzea edo konpontzea errazten duten eragiketarako finantzatzeko gainerako ekarpenak.

4. Aurreko apartatuan identifikatutako baliabideak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuko dira, atxikipen espezifikoak duten eta "Nafarroako Funts klimatikoak" izena duten partidetan.

Artikulu honetako bigarren apartatuko g) eta h) letrei dagozkien zenbatekoak erabiliko dira energia berriztagarriak ezartzeak biodibertsitatean eragindako ingurumen eraginak konpentsatzeko eta haien jarraipena egiteko. Bestalde, d) letrari dagozkion zenbatekoak baso kudeaketa jasangarriari dagozkion jarduketetara bideratuko dira.

5. Nafarroako Funts Klimatikoaren baliabide ekonomikoak Funtzari bera kudeatzeko behar diren baliabide tekniko eta giza baliabideez hornitzeko erabiltzen ahalko dira.

6. Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako gastua, Funts Klimatikoari dagozkiona, kasuan kasuko ekitaldian betetzen ez den zatian, diruzaintzako soberakin atxikitatzen joko da eta hurrengo aurrekontu-ekitaldietan sartzen ahalko da.

Zioak: foru lege proiektuaren zioen azalpenean jasota dago Klimaren Funtzari "planen eta ekimenen baterako finantzaziorako tresna dela". Hala ere, 12. artikuluan, hura erregulatzean, sustatzen ahal dituen jarduketak ez dira aipatzen. Horregatik, izaera zorrotz edo itxirik gabe, Funts Klimatikoarekin sustatzen ahal diren jarduketak aipatzen dira.

Gainera, proposatzen dugu funtsa benetan kaudimen ekonomikoa ematen ahal dioten baliabideekin elikatzea, esleitu nahi zaizkion funtzioak garatzeko. Tresna hori funtsez hornitzeko lege proiektuan aurreikusitako baliabideak ez dira nahikoak, eta horregatik proposatzen dugu ezarrita dauden edo etorkizunean erregulatzen ahal diren ingurumen zerga tresnak zati proportzionalean helburu hori lortzeko izatea. Gainera, gure ustez, aurrekontu orokorretatik funtsari urtean egiteko ekarpena ezin da foru legean zehaztu gabeko gaia izan, alderantziz, gutxienezko bat finkatu behar da, eta horren zati handi bat gaur egun modu banatuan askotariko departamentuetako aurrekontuetan jasotzen diren funtsetatik etorriko da, eta beste batzuk hurrengo ekitaldietan ezarri beharko dira, benetan klima aldaketaren aurka egin nahi bada eta benetako energia trantsizioa lortu nahi bada.

7. apartatua ezabatu da, ez duelako inolako legezko konpromisorik ezartzen "fiskalitate berdearen" edo "ingurumen fiskalitatearen" definizioa eta horiek ezartzeko konpromisoa jorratzeko. Fis-

kalitate berdeari buruzko zenbait zuzenketa proposatu dira.

40. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12. artikuluan (Nafarroako Funts Klimatikoa) 7. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Urtebete igaro baino lehen Nafarroako Gobernuak, Foru Ogasunak proposatuta eta ingurumenaren eta energiaren arloetako eskumenak dauzkaten departamentuekin lankidetzan, fiskalitate klimatikoaren foru legearen proiektua aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari”.

Zioak: Fiskalitatea beharrezkoa da trantsizio energetikoa egin ahal izateko. Eurostaten 2019ko datuen arabera, ingurumen-zerga gutxien biltzen dituzten EBko herrialdeetatik bosgarrena da Espainia. Fiskalitate berdeak Espainiako BPGaren % 1,77 egiten du, Europar Batasunaren aldean oso maila apala, EBko batezbestekoa % 2,37 baita 2019ko datuen arabera. Espainiako Bankuak esan du zerga politika “klima aldaketaren kontrako borrokan giltzarri” dela. IPCCren txostenek eta Nafarroako Parlamentuak zein Nafarroako Gobernuak deklaraturako klima larrialdiak justifikatzen dute epe laburra ezar dadila fiskalitate klimatikoari buruzko lege bat aurkezteko.

41. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12. artikuluan (Nafarroako Funts Klimatikoa) 3. apartatuari g) epigrafea gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontuko ekarpenak”.

Zioak: Funts Klimatikorako ekarpenak ez dira aski trantsizio energetikoan eta erresilientzian lider izateko, ez baldin badira elikatzen Nafarroako aurrekontu orokorretako partida mardul batetik, zeinak arlo publikoan trantsizioari ekiteko finantzatresnak bermatu behar baititu.

42. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

13. artikuluan (Analisirako eta ezarpenerako lanabesak) 2 b) puntua aldatzeko zuzenketa:

“b) Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentua:

a’) Berotegi-efektuko gasen isurketen urteko inbentarioa.

b’) Eskualdeetarako agertoki klimatikoak.

c’) Lurralde eta sektore zaurgarritasunaren azterketa.

d’) Ekosistemen egoera eta bilakaeraren jarraipena.

e’) Karbono hustulekuen egoeraren eta bilakaeraren jarraipena.

f’) Ur emarien eta kontsumoen jarraipena”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela jarraipena egitea ur emariei buruz eta karbono hustulekuen egoerari eta bilakaerari buruz, karbono hustulekuak sortzeko ekintzen eboluzioa erakutsiko duen azterketa bat egin ahal izateko.

43. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

13. artikuluari (Analisirako eta ezarpenerako lanabesak) 3. puntua aldatzeko zuzenketa:

“3. Halaber, klima aldaketan inplikazioak dituzten plan sektorialek adierazleen aginte taulak ezarriko dituzte haiekin lotuta, betiere energiarekin, isurketen bilakaerarekin, klima aldaketaren inpaktuekin eta haien denborazko bilakaerarekin lotutako aspektu guztiei buruzko informazioa lortzea ahalbidetzeko, eta, era berean, horri buruzko politika publikoen jarraipena, hedapena eta ebaluazioa errazteko. Adierazle horiek sexuaren, adinaren, okupazioaren, ikasketa mailaren eta lekuaren arabera bereiziko dira, bidezkoa denean, eta horrela, datu bereizietan oinarriturik, planei, hainbat ikuspegiarekin bat, beste norabide bat ematea ahalbidetuko da”.

Zioak: datuak sexuka bereizten dira planak genero-ikuspegitik egiteko, eta uste dugu interesgarria dela datuen bestelako bereizketak ere egitea, haien erabilgarritasuna areagotzeko eta planak hainbat ikuspegitatik bideratu ahal izateko.

44. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. tituluaren II bis kapitulu berria gehitzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Klima ikuspegia eta bestelako plangintza neurriak

10. artikulua. Klima ikuspegia.

1. Foru legeak eta xedapen orokorrak egiteko prozeduretan eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek sustatu edo onesten dituzten plangintzetan klima ikuspegia sartu beharko da, foru lege honetan eta klima aldaketaren eta energiaren arloko plangintza estrategikoan adierazitako estandarrekin edo helburuekin bat.

2. Arau edo plangintza ekimenak izapidetzeko organo arduradunak aginduz klima inpaktuaren ebaluazio bat gehitu beharko du. Horren xedea proiektuak klima aldaketaren arintzean eta egokitzapenean sortutako eragina analizatzea izanen da.

11. artikulua. Klima ikuspegia aurrekontuetan.

1. Klima ikuspegia sartu beharko da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legearen proiektuan eta 2.500 biztanle baino gehiagoko toki erakundeen aurrekontu proiektuetan. Horretarako, organo eskudunek dagozkien memorietan baloratu dute aurrekontu programek klima aldaketaren eta energiaren plangintza estrategikoaren helburretan duten inpaktua.

2. Bereziki, Nafarroako Foru Komunitatearen Aurrekontu Orokorrei buruzko urteroko foru legeek Nafarroan klima aldaketa arintzeko, egokitzapenerako eta energia trantsiziorako partidak jasoko dituzte zeharkako moduan departamentu eta menpeko erakunde publiko guztietan, horrela foru lege honen helburuak betetzera bideratutako politika publikoak gauzatu ahal izateko.

3. Halaber, urteko aurrekontuen memorian aurrekoek klima aldaketak sortutako kalte eta zaurgarritasunekin lotuta duten inpaktua analizatuko da.

4. Nafarroako Gobernuak, urte bakoitzeko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legearen gaineko txostenean, Parlamentuan justifikatu beharko ditu partida horien egikaritze ezak, horrelakorik egonez gero.

5. Nafarroako administrazio publikoek eta sektore publikoko erakundeek beren aurrekontuetan klima ekintza gauzatzeko programak bideratuko dituzte. Eskualdeko BPGaren urteko inbertsioen % 2,5eko adierazlea ezarri da, Nafarroako ekonomian klima ekintzaren neurri publikoak ezartzeko.

12. artikulua. Klima ikuspegia plangintza tresnetan.

1. Sektoreko plan zuzentzaileak, lurralde planak, udal plangintzako tresnak eta ingurumen ebaluazio estrategikoa izan behar duten bestelakoak egitean, egokitzean eta berrikustean klima aldaketaren ikuspegia sartuko da ingurumen ebaluazioaren prozesuan. Horretarako, honako hauek gehituko dituzte:

a) Berotegi-efektuko gas zuzenen edo induzituaren inpaktuari buruzko analisia eta inpaktua saihestezina denean, hura murrizteko edo konpentsatzeko neurriak.

b) Egungo zaurgarritasunaren eta klima aldaketaren ondorioak kontuan hartuta aurreikusitakoaren analisia eta zaurgarritasun hori gutxitzeko neurriak.

c) Bere jarduketa eremuaren energia beharren ebaluazioa eta horiek gutxitzeko eta energia berriztagarriak sortzen direla bermatzeko neurriak zehaztea.

2. Aurreko apartatuan jasotako tresnak aurreikusten dituzten hirigintza garapen berrietan lurzoruaren zati bat gordeko da energia berriztagarria sortzeko eta azalera nahikoa izanen da garapen horren urteko behar energetikoen kopuru balioki-dea sortzeko.

13. artikulua. Klima eta energia jasangarriko udaleko ekintza planak.

1. Foru Komunitateko udalerriek klimaren eta energia jasangarriaren ekintza planak onetsiko dituzte Europar Batasunaren arloan ezarritako metodologiarekin bat.

2. Plan horiek koherenteak izanen dira klima aldaketaren eta energiaren plangintza estrategikoarekin.

3. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek mankomunitatean, eskualdean edo indibidualki onesten ahalko dituzte planak.

4. Planek gutxienez eduki hau izanen dute:

a) Berotegi-efektuko gasen isurketen analisia eta ebaluazioa.

b) Elementu zaurgarriak identifikatzea eta ezaugarritzea.

c) Klima aldaketa arintzeko eta aldaketara egokitzeko helburuak eta estrategiak: horietan gehitu beharko dira hirigintza plangintzaren aldaketa egokiak eta udal ordenantzak.

d) Sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak.

e) Plana ebaluatzeko eta jarraitzeko arauak.

Klima eta energia jasangarrirako udaleko ekin-tza planetan jasotako egokitzapen neurrietan eta arintze ekintzetan herritarrek parte hartuko dute, bai horiek sortzen, bai martxan jartzen, bai ekintza planak ebaluatzen.

14. artikulua. Ingurumen ebaluazioa.

1. Aurrekoari lotutako planen, programen, instalazioen, proiektuen eta jardueren ingurumen ebaluazioko prozeduretan kontuan hartu beharko dira foru lege honen helburuak eta klimaren eta energiaren arloko plangintza estrategikoarenak.

2. Ingurumen arloan eskuduna den departamentuak prozedura horietan egiten dituen txostenetan kontsumo energetikoaren gaineko balizko inpaktu zuzena eta induzitua ebaluatuko da, baita klima aldaketaren eta energiaren arloko plangintza estrategikoarekiko eta klima aldaketaren arloan indarrean dagoen araudiarekiko duen egokitzapena ere.

3. Ingurumen arloan eskuduna den Nafarroako Gobernuako departamentuak isurketak gutxitzeko, energia berriztagarrien erabilera gehitzeko edota klima aldaketarekiko zaurgarritasuna murrizteko baldintzak ezartzen ahalko ditu, justifikatuta eta erregelamenduz ezartzen diren terminoekin bat etorritik.

Zioak: gure ustez, foru lege proiektuan kapitulu bat falta da, I. tituluko II. kapituluako xedapenak osatuko dituzten klima ikuspegia eta bestelako plangintza neurriak ezartzeko beharra zehazten duena. Beraz, modu sistematikoan egungo II. kapituluaren ondoren kokatzea proposatzen dugu.

Argi azaldu behar da ikuspegi hori Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legearen proiektuan eta 2.500 biztanle baino gehiagoko toki erakundeen aurrekontu proiektuetan sartuko dela. Sektoreko plan zuzentzaileetan, lurralde planetan, udal plangintzako tresnetan eta ingurumen ebaluazio estrategikoa izan behar duten bestelakoetan ere klima aldaketaren ikuspegia sartuko da ingurumen ebaluazioaren prozesuan. Eskualdeko BPGaren urteko inbertsioen % 2,5eko adierazlea proposatu da, Nafarroako ekonomian klima ekin-tzaren neurri publikoak ezartzeko.

Bestalde, lege proiektuan ez denez ezer aipatzen Nafarroako udalerriek plangintza sortzeko duten betebeharrari buruz, gure proposamena da udalerriek klimaren eta energia jasangarriaren ekintza planak onesteko betebeharra izatea, baina aukera egonen da 5.000 biztanle baino gutxiagokoek mankomunitateen edo 6/1990 Foru Legean ezarritako eskualdeen bidez egitea, Toki

administrazioa erreformatzeko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak emandako idazketarekin bat.

Halaber, ingurumen ebaluazioa aipatzen da eta ezartzen da ebaluazioak egitean kontuan hartuko direla foru lege honen eta klima aldaketaren eta energiaren arloko plangintza estrategikoaren helburuak.

45. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. tituluko III. kapituluaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“II. kapituluak.

Informazioa, herritarren parte-hartzea, ingurumen hezkuntza, prestakuntza eta ikerketa, garapena eta berrikuntza”.

Zioak: bat dator gure talde parlamentarioak aurkeztutako beste proposamen batekin; bertan, proposatu genuen herritarren parte-hartzea gehitzea klima aldaketaren eta bere ondorioen aurkako borrokan eta orain proposatzen dugu II. titulua- ren III. kapituluaren “herritarren parte-hartzea” sartzea.

46. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“14. artikulua. Informazioaren publizitatea.

1. Nafarroako Gobernuak, ingurumenaren eta energiaren arloan eskumena duten departamentuen bitartez, klima aldaketa eta energiarako planen garapenaren jarraipena egiteko informazioa jarriko du eragile ekonomiko eta sozial inplikatu- en, herritarren eta administrazio publikoen beraien eskura, eta haien parte-hartzea eta erantzukizun partekatua sustatuko.

2. Bide egokiak erabiliz, herritarrei honako informazio hau eman beharko diete toki erakunde- ek: tokiko isurketen bilakaera, klima adierazleen bilakaera, beren lurraldearen zaurgarritasunaz, eta hartan arintze eta egokitze arloan egindako jarduketak.

3. Komunikazioa inklusiboa eta ez sexista dela bermatu beharko da. Horrez gain, kontuan hartu beharko da emakumeen eta gizonen artean dago- en eten digitala, informazioa emakumeengana ere

iristen dela ziurtatzeko, komunikaziorako bide desberdinak erabiliz, eta bermatzeko, halaber, informazioa eskuragarri dutela desgaitasuna dutenen pertsonak.

4 1. Nafarroako administrazio publikoek gauzatu dituzten ekintzen xedea klima aldaketaren arloan herritarrak sentsibilizatzea izanen da. Horri lotuta, herritarrei informazioa eman eta herritarrak sentsibilizatuko dituzte klima aldaketaren efektuen inguruan eta inpaktu horri buruzko eta inpaktua prebenitzeko, zuzentzeko eta inpaktura egokitzeko komunikazio kanpainak eginen dituzte”.

Zioak: foru lege proiektuaren idazketa hobetzea. Administrazio publikoek gauzatu dituzten ekintzen xedea klima aldaketaren arloan herritarrak sentsibilizatzea izanen da. Horri lotuta, gure proposamena da herritarrei informazioa eman eta herritarrak sentsibilizatzea klima aldaketaren efektuen inguruan eta inpaktu horri buruzko eta inpaktua prebenitzeko, zuzentzeko eta inpaktura egokitzeko komunikazio kanpainak egitea.

47. ZUZENKETA

**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

14. artikuluan (“Informazioaren publikotasuna”) 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. Nafarroako Gobernuak, ingurumenaren eta energiaren arloan eskumena duten departamentuen bitartez, klima aldaketa eta energiako planen garapenaren jarraipena egiteko informazioa jarriko du eragile ekonomiko eta sozial inplikatuak, elkargoak, herritarren eta administrazio publikoen beren eskura, eta haien parte-hartzea eta erantzukizun partekatua sustatuko”.

Zioak: asmoa da lanbide elkargo guztien ekarpena biltzea, haien eginkizun bateratzaileak eta ikuspegi profesional zabalak garrantzi nabarmena baitute foru legea garatzeko.

48. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

14 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“14 bis artikulua. Estatistika jarduerak klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan.

1. Ingurumen eta energia arloko departamentu eskudunei dagokie foru lege hau betetzeko informazioaren estatistika tratamendua egitea.

2. Ondorio horietarako, toki erakundeek, enpresa publikoek eta foru sektore publikoko gainerako erakundeek klima aldaketaren arloko datu garrantzitsuak jaso, bildu eta sistematikoki ordenatuko dituzte eta departamentuei eskuragarri duten informazioa emanen diete.

3. Klima aldaketaren eta energia trantsizioaren arloko informazio garrantzitsu horretan honako datu hauek egonen dira, besteak beste:

a) Zerbitzu publikoa ematen duten ibilgailuei buruzkoak.

b) Aragoi egiten diren ibilgailuen azterketa teknikoari buruzkoak.

c) Eraikuntza eta etxebizitza arloetako energia efizientziari buruzkoak.

d) Emisio eskubideen merkataritza araubidean araututa ez dagoen industria sektorearen energia kontsumoa.

e) Nekazaritza eta abeltzaintza arloan isurketak eta klima aldaketaren efektuak ebaluatzen beharrezkoak.

f) Nafarroako Foru Komunitatean onesten diren mugikortasun jasangarriko planei buruzkoak.

g) Erregaiaren eta energia elektrikoaren kontsumoari buruzkoak.

h) Erregelamenduz ezartzen diren gainerakoak.

4. Erregelamenduz ezarriko dira informazio horren irismena, prozedurak eta kalitate betekizunak, biltegiratzea, tratamendua eta hedapena”.

Zioak: beharrezkotzat jotzen dugu foru legean erakunde publikoek klima aldaketari eta energia trantsizioari lotutako informazioaren estatistika tratamenduaren arloan aplikatu beharrek jarraitzea eta betebeharrak finkatzea.

49. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

14 ter artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“14 ter artikulua. Informazioa eta herritarren parte-hartzea klima aldaketaren eta energia trantsizioaren politika publikoak diseinatzean.

1. Informazioa eskuratzeari, herritarrek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeari eta ingurumen arloan justizia izateari buruzko hitzarmenaren esparruan (Aarhus-eko hitzarmena) bermatuko da herritarrek klima aldaketaren arloko informazioa eskuragarri izanen dutela, eta horretarako, Nafarroako administrazio publikoek eta bere menpeko erakundeek arlo horretako informazioa eskuratu eta jasotzeko duten eskubidea egikaritzeko dute; hala, informazioa jasotzeaz gain, hura hedatzeko neurriak ezarriko dituzte.

2. Nafar guztiek izanen dute klima aldaketaren eta energia trantsizioaren gaiei buruzko lege araudia sortzeko prozesuan modu indibidualean edo kolektiboki parte hartzeko eskubidea.

3. Nafar guztiek izanen dute modu indibidual edo kolektiboan isurketak gutxitzeko eta klima aldaketara egokitzeko arloetan Nafarroako administrazio publikoari jarduketak proposamenak egiteko aukera, modu horretan, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko erantzunkidetasuna eraginkor bihurtzeko.

4. Administrazio publikoek, herritarren proposamenak izapidetzeko bideak ezartzeaz gain, Tokiko Agenda 21ekin lotutako udalerrietako parte-hartze sareak indartuko dituzte. Halaber, jada sortuta dauden edo sortzen ahalko diren estamentuen bidez, besteak beste udal batzarren bitartez, herritarren parte-hartze aktiboa sustatuko dute”.

Zioak: foru lege proiektuaren testuan berariaz aipatzea falta da herritarren parte-hartzea klima aldaketaren aurkako politika publikoen eta trantsizio energetikoaren garapenean. Horregatik, zuzenketa hau proposatzen dugu; bertan, proiektuaren 14. artikuluko 2. apartatuaren zati bat jasotzen da, udal batzarrak herritarren parte-hartze aktiborako formula gisa sustatzeari buruzkoa.

50. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

15. artikulua (Klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko hezkuntza) aldatzeko zuzenketa. 15. artikulua testu berria honako hau izanen da:

“1. Hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak behar diren baliabideak eta tresnak ezarriko ditu, klima aldaketa eta trantsizio

energetikoa hezkuntza curriculumetan eta maila guztietako irakasleen prestakuntzan eta gaikuntzan aurreikusteko, bai eta hezkuntza sistemaren kalitatearen ebaluaziorako nahiz eta ebaluazio instituzionalerako prozesuetan ere. Curriculum horietan zeharkakotasunarekin eta ikuspegi ekosozialarekin landuko da larrialdi klimatikoa. Ekarpentzen horiek batxilergoko, derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakaskuntzetako curriculumak ezartzen dituzten foru dekretuetan txertatuko dira HLOALOREn ondoriozko curriculum berriak aplikatzen hasten direnetik aurrera.

2. Hiru urte igaro aurretik, hezkuntzaren arloko eskumenak daukan departamentuak jasangarritasunaren koordinatzailearen figura ezarriko du ikastetxeetan. Dagoeneko ikastetxeetan badaude IKTen koordinatzailea eta elebitasunaren koordinatzailea. Horrez gainera, ikastetxeek jasangarritasunerako plana prestatu beharko dute. Bertan honako arlo hauek antolatu beharko dira: energia, garraio (mugikortasun jasangarria, eskola-inguruak baretzea), hondakinen kudeaketa murrizteko, hurbileko janariak eta sasoiko janariak jantokietan (erosketen politika) eta ultra prozesatuak gutxitzea, airearen kalitatea, CO2 aztarna, ekoauditoretzak ikastetxeetan, ikastetxeetan neurri zuzentzaileak eta eraginkortasun energetikorako jarduketak ezartzea. Horiez guztiez gainera, planean baliabideak zehaztu behar dira ikastetxeen kudeaketa jasangarria izan dadin eta proposamen praktikoak aplikatu ahal izateko jardun-esparru guztietan.

3. Urtebete igaro baino lehen, hezkuntzaren arloko eskumena daukan departamentuak, klima aldaketaren eta energiaren arloko eskumena daukaten departamentuekin elkarlanean, ingurumen hezkuntzari buruzko plan bat prestatuko du esparru formaleko eta ez-formaleko hezitzaileak energiaren eta klima aldaketaren arloko oinarritzko ezagutzaz jantzeko, bai eta behar diren baliabide metodologikoez ere.

4. Orobat sustatuko da hezkuntza proiektu espezializatu eta berritzaileen garapena klimaren eta trantsizio energetikoaren arloan, klima aldaketaren eta energiaren arloko eskumena duten departamentuek kasuan kasuko hezkuntza erakundeekin elkarlanean arituz.

5. Ingurumenaren eta energiaren arloetako eskumena duten departamentuek gidak argitaratu eta informazio, komunikazio eta prestakuntza kanpainak eginen dituzte efizientzia energetikoa sustatzeko eta klima errespetatzen duten bizitza-ohiturak bultzatzeko, biztanleriaren sektore guztiei

zuzenduak. Horrez gain, gai horietan ingurumen arloko boluntariotza sustatuko da.

6. Ingurumenaren eta energiaren arloetako eskumenak dauzkaten departamentuek benetako konpromisoa eduki beharko dute ekintzak horiek sustatzeko, errazteko eta koordinatzeko, beharrezko finantza-baliabideak eta langileak jarritz.

7. Genero ikuspegia sartu beharko da diseinuetan eta edukietan. Halaber, sustatuko da emakumeen artean klima aldaketarekin eta trantsizio energetikoarekin lotutako gaietarako buruzko prestakuntza akademikoarekiko interesa, ingurumenaren arloko lanbideetara emakume gehiago erakartzeko ahaleginean, non, egun, gizonezkoak baitira nagusi”.

Zioak: ardatz nagusietako bat izan behar da hezkuntza komunitate osoa trebatzea klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloko jardunbide egokien sustatzaile izan daitezen, eta, horretarako, ingurumen hezkuntzari buruzko plan bat behar dugu, jasangarritasun arloko koordinatzailearen figurarekin batera.

51. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“15. artikulua. Klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko hezkuntza.

1. Hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak behar diren baliabideak eta tresnak ezarriko ditu, klima aldaketa eta trantsizio energetikoa hezkuntza curriculumetan eta maila guztietako irakasleen prestakuntzan eta gaikuntzan aurreratzeko, bai eta hezkuntza sistemaren kalitatearen ebaluaziorako nahiz eta ebaluazio instituzionalerako prozesuetan ere. Curriculum horiek klima larrialdia zeharkako moduan eta ikuspegi ekosozialarekin landuko dute, eta estatuaren hezkuntza arloko oinarritzko legeria garatuz Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko ikasketen curriculum, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketen curriculum eta Lehen Hezkuntzako ikasketena ezartzen dituzten foru dekretuetan txertatuko dira.

2. Hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak, klima aldaketaren eta energiaren arloko eskumena duten departamentuekin elkarlanean, ingurumen hezkuntzari buruzko plan bat prestatuko du, esparru formaleko eta ez-formaleko hezitzaileak energiaren eta klima aldaketaren arlo-

ko oinarritzko ezagutzaz janzteko, bai eta behar diren baliabide metodologikoez ere. Horretarako, gehienez ere hiru urteko epean ikastetxeetan jasangarritasunaren koordinatzailea izendatuko da.

3. Finantzaketa publikoa jasotzen duten ikastetxe guztiek, bi urteko epean jasangarritasun plan bat sortu beharko dute hauek jasoz: energia, garrarioa (mugikortasuna jasangarria, eskola inguruak baretzea), hondakinak murrizteko kudeaketa, hurbileko eta denboraldiko elikadurarako erosketa politika eta elikagai ultra prozesatuak murriztea, airearen kalitatea, CO2 azterna, ekoauditoretzak ikastetxeetan, eta ikastetxeetan energia efizientzia lortzeko neurri zuzentzaileak eta jarduketak ezartzea. Plan horretan ikastetxeen kudeaketa jasangarria egi bihurtzeko eta jarduketa alor guztietan neurri zehatzak aplikatzeko bitartekoak zehaztuko dira.

4. Orobat sustatuko da hezkuntza proiektu espezializatu eta berritzaileen garapena klimaren eta trantsizio energetikoaren arloan, klima aldaketaren eta energiaren arloko eskumena duten departamentuek kasuan kasuko hezkuntza erakundeekin elkarlanean arituz.

5. Ingurumenaren eta energiaren arloetako eskumena duten departamentuek gidak argitaratu eta informazio, komunikazio eta prestakuntza kanpainak eginen dituzte efizientzia energetikoa sustatzeko eta klima errespetatzen duten bizitza-ohiturak bultzatzeko, biztanleriaren sektore guztiei zuzenduak. Horrez gain, gai horietan ingurumen arloko boluntariotza sustatuko da.

6. Genero ikuspegia sartu beharko da diseinuetan eta edukietan. Halaber, sustatuko da emakumeen artean klima aldaketarekin eta trantsizio energetikoarekin lotutako gaietarako buruzko prestakuntza akademikoarekiko interesa, ingurumenaren arloko lanbideetara emakume gehiago erakartzeko ahaleginean, non, egun, gizonezkoak baitira nagusi”.

Zioak: artikulua edukia hobetzea proposatzen dugu, bi gai hauek sartuz:

a) Curriculumetan klima larrialdia zeharkako moduan eta ikuspegi ekosozialarekin landuko da, eta estatuaren hezkuntza arloko oinarritzko legeria garatuz Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko ikasketen curriculum, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketen curriculum eta Lehen Hezkuntzako ikasketena ezartzen dituzten foru dekretuetan txertatuko da. (LOMLOE, gaztelaniazko siglak)

b) Finantzaketa publikoa jasotzen duten ikastetxe guztiek, bi urteko epean jasangarritasun plan bat sortu beharko dute hauek jasoz: energia, garraioa (mugikortasuna jasangarria, eskola inguruak baretzea), hondakinak murrizteko kudeaketa, hurbileko eta denboraldiko elikadurarako erosketa politika eta elikagai ultra prozesatuak murriztea, airearen kalitatea, CO2 aztarna, ekoauditoretzak ikastetxeetan, eta ikastetxeetan energia efizientzia lortzeko neurri zuzentzaileak eta jarduketak ezartzea. Plan horretan ikastetxeen kudeaketa jasangarria egi bihurtzeko eta jarduketa alor guztietan neurri zehatzak aplikatzeko bitartekoak zehaztuko dira.

52. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15. artikuluan (Klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko hezkuntza) 1. puntua aldatzeko zuzenketa:

“1. Hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak behar diren baliabideak eta tresnak ezarriko ditu, klima aldaketa eta trantsizio energetikoa hezkuntza curriculumetan eta maila guztietako irakasleen prestakuntzan eta gaikuntzan aurreikusteko, bai eta hezkuntza sistemaren kalitatearen ebaluaziorako nahiz eta ebaluazio instituzionalerako prozesuetan ere. Curriculum horietan zeharkakotasunarekin landuko da larrialdi klimatikoa. Ekarpak horiek Nafarroako Foru Komunitatean batxilergoko, derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakaskuntzetako curriculumak ezartzen dituzten foru dekretuetan txertatuko dira HLOALOren ondorioz prestatutako curriculum berriak jasotzen direnetik aurrera”.

Zioak: uste dugu puntu honetan garrantzitsua dela nahitaezko curriculumean nahitaezko ingurumen hezkuntza sartzea, ahalik eta lasterren eta hezkuntzako etapa guztietan.

53. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15. artikuluan (Klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko hezkuntza) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak jasangarritasunaren koordinatzailearen figura inplementatuko du ikastetxeetan

2022-2023 ikasturterako. Koordinatzaile horrek jasangarritasun plana egingen du, gai hauek bilduko dituena: energia, mugikortasun jasangarria, hondakinak murrizteko eta kudeaketa, hurbileko eta garaian garaiko janariak jantokietan, airearen kalitatea, karbono aztarna, auditoretza energetikoak ikastetxeetan, eraginkortasun energetikoa lortzeko behar diren neurri zuzentzaileen eta jarduketaren ezarpena ikastetxeetan”.

Zioak: uste dugu beharrezkoa dela ikastetxeetan pertsona bat jartzea ikastetxeen jasangarritasuna koordinatzen eta jasangarritasun plana prestatzen. Plan horrek zenbait esparru bildu behar ditu, artikuluko berriak azaldu direnak, eta funtsezko garrantzia dutela uste baitugu.

54. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikuluan (Klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko hezkuntza) 2 bis puntua gehitzeko zuzenketa:

“2 bis. Hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak, klima aldaketaren eta energiaren arloko eskumena duten departamentuekin elkarlanean, gehienez ere urtebeteko epean, ingurumen hezkuntzari buruzko plan bat prestatuko du, esparru formaleko eta ez-formaleko hezitzaileak energiaren eta klima aldaketaren arloko oinarritzko ezagutzaz jantzeko, bai eta behar diren baliabide metodologikoez ere”.

Zioak: beharrezkotzat jotzen dugu ingurumen hezkuntzari buruzko plana egin eta bera gauzatzeko epea ezartzea.

55. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

16. artikuluan (Ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea) 4. puntua aldatzeko zuzenketa:

“4. Era berean, sustatzen ahalko dira CO2-a eta berotegi-efektuko beste gas batzuk xurgatzea ahalbidetzen duten teknologiak, industriako eta eraikuntzako beste prozesu batzuetan erabiltzeko”.

Zioak: uste dugu industria prozesuetan ez ezik eraikuntza prozesuetan ere sustatu behar direla CO2-a xurgatzeko teknologia horiek.

56. ZUZENKETA

**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

16. artikuluan (Ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea) 4. puntua aldatzeko zuzenketa. Puntuaren testu berria honako hau izanen da:

“4. Era berean, sustatzen ahalko dira CO₂-a eta berotegi-efektuko beste gas batzuk xurgatzea ahalbidetzen duten teknologiak, industriako eta eraikuntzako beste prozesu batzuetan erabiltzeko”.

Zioak: eraikuntza prozesuetara ere zabaldu nahi da sustapena.

57. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

16. artikuluari (Ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea) puntu bat gehitzeko zuzenketa:

“3 bis. I+G+b arloa sustatuko da hidrogeno berdea bezalako erregai alternatiboak sortzeko eta hainbat aplikaziotan erabiltzeko”.

Zioak: hidrogeno berdea erregai fosilen ordeko aukera berri bat da, eta uste dugu Nafarroako Gobernuak arlo horretako I+G+b jarduera sustatu behar duela.

58. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

16 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“16 bis artikulua. Lanbide Heziketa, unibertsitateak eta ikerketa.

1. Unibertsitate autonomiaren printzipioaren errespetua albo batera utzi gabe, unibertsitate eta ikerketaren arloan ezarritako neurrien xedea klima aldaketaren ezagutza sustatzea eta arlo horretako praktikak sendotzea izanen da. Bereziki hauek izanen dira helburuak:

a) Foru lege honek babestutako arloetan unibertsitate ikasketa espezializatuak sustatzea.

b) Klimarekin, klima aldaketak lurreko eta itsasoko ekosistemetan sortzen dituen efektuekin,

energia efizientziarekin, energia berriztagarriekin, klima aldaketaren arintzearekin eta egokitzapenarekin eta klima aldaketaren eragin zuzena edo zeharkakoa duten tresna ekonomikoekin lotuta azterketa, ikerketa edo analisi jarduerak egiten dituzten nazio mailako eta nazioarteko zentroetan unibertsitate praktikak bultzatzea.

c) Etengabeko prestakuntza, presentziala eta ez presentziala, eskaintzea hezkuntza eragina duten profesional guztientzat eta foru lege honek babesten dituen arlo guztietan.

2. Zentro bakoitzaren autonomia albo batera utzi gabe, unibertsitate ikerketaren arloan ezarritako neurrien xedea klima aldaketaren ezagutza sustatzea eta arlo horretako praktika onak sendotzea izanen da. Bereziki hauek izanen dira helburuak:

a) Zuzenean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko diren urteko deialdietan ikerketako proiektuak sortzea, klima aldaketaren eta arintzearen arloan ezagutza eta teknologia hobetzeko eta gizarte katalanaren eta bere ekoizpen sektoreen moldakortasuna hobetzeko eta ikerketa taldeak, goi mailako zentroak eta ezagutzaren aurrerapenen ondorioz sortutako spin-off enpresak sortzea eta sendotzea.

b) Mezenasgo ekintzak, nazio mailako eta nazioarteko kapital pribatua eta ikerketa, garapen eta berrikuntzako aingeru inbertitzaileak (I +D+I) erakartzeko ekintzak sustatzea, finantzaketa publikoa ziurtatuz.

c) Departamentu arteko ikerketako programa bat ezartzea, Nafarroako ikerketa publikoaren koordinazioa zaintzen duena eta punta-puntako nazioarteko zentro eta institutuekin dauden loturak indartzea sustatzen duena.

d) Ekimen eta patente publiko eta pribatuak sortzea eta ikerketa emaitzak ustiatzea.

3. Unibertsitate eta ikerketa arloan eskuduna den departamentuak eta Nafarroako Ikerketa Zentroak unibertsitateen, zentroen eta enpresen arteko harremanak sustatu eta indartu behar dituzte”.

Zioak: zalantzarik gabe, ikerketa garrantzitsua da klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan.

Nafarroako Gobernuak berak, I+G proiektu estrategiko berriak egiteko azken laguntzen deialdietan (Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren estrategian (RIS3) identifikatutako sektoreekin lerrokatuta dauden eta eragin handia duten proiektuak sustatzeari zuzendutakoak) 8 erronka jasotzen zituen guztira, eta horietatik bi

ikerketa horrekin lotuta daude, honako hauek: 1. erronka: VOLTA. 0 emisio sortzen dituzten, irismen handia eta teknologia aurreratua duten ibilgailuak eta 2. erronka: AERO. Energia berriztagarriak biltegitratzea, haien erabilera optimizatzeko.

Beste legeria batzuetan ere modu espezifikoan garatu dute ikerketaren arloa beren klima aldaketari buruzko legetan.

59. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. tituluan kapitulu berri bat gehitzeko zuzenketa, 16. artikulua ondoan. Hona testua:

“IV. KAPITULUA. Ingurumen fiskalitatea

____.artikulua. Ingurumen fiskalitatearen helburua.

Nafarroako administrazio publikoek zaurgarritasuna edo berotegi-efektuko gasen isurketak gehitzen dituzten jarduketak zergapetu behar dituzte eta pizgarri fiskalak ezarri behar dizkiete klima aldaketara egokitzea edo berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzea errazten duten jarduketari.

____.artikulua. Zerga pizgarriak emateko ekin-tzak

1. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen arloan, zerga pizgarriak emanen dituzte klima aldaketa arintzeko eta aldaketara egokitzeko politikak eraginkorrak izatea sustatzen duten neurri hauen bidez:

- a) Energia berriztagarriak eta sorkuntza bantua sustatzea.
- b) Sareak deszentralizatzea eta energia autokontsumoa.
- c) Energetikoki efizienteak diren etxebizitzak.
- d) Mugikortasun iraunkorra.
- e) Uraren aurrezpena.
- f) Biodibertsitatea hobetzeko edo biodibertsitatea ez galtzeko jarduketak.
- g) Osasunean eragin gutxiago sortzea.
- h) Ekipamendu efizienteenak.
- i) Ekoizpen prozesuak aldatzea berotegi-efektuko gasen isurketak eta bestelako agente kutsatzaileak murrizteko.

j) Ekonomia zirkularerako eta zaharkitze zirkularren aurkako jarduerak sustatzea.

k) Hondakinak sortzearen arloko prebentzioa.

l) Basoen kudeaketa jasangarria.

m) Askotariko sektore ekonomikoen eta sistema naturalen egokitzapena eta zaurgarritasuna murriztea.

2. Ezabatu egin dira jatorri fosileko baliabide energetikoen eta deribatuen eskuratzeari eta kontsumoari buruzko hobariak, itzulketak eta antzeko neurriak. Ez dira ezabatuko lehen sektoreko makinatarako jatorri fosileko baliabide energetikoak lortzeko eta kontsumitzeko laguntzak, bestelako energia iturri alternatibo bideragarriak ez dagoen bitartean.

____.artikulua. Ingurumen zergak

Ingurumen fiskalitatea ingurumenaren aldeko ekintzak eta jokaerak promozionatzeko eta kliman eragin larriak sortzen dituzten jarduketari pizgarriak kentzeko oinarritzeko tresna izanik, Nafarroako Gobernuak foru lege hau onesten denetik gehienez ere 2 urteko epean Nafarroako Parlamentura bidaliko du foru lege proiektu bat edo gehiago, eta horietan jaso beharko dira foru lege honen helburuak betetzeko egokienak diren zerga figurak”.

Zioak: ingurumen zergak eta erreforma fiskal berdeko ereduak erabiltzea babesten dute eragin handiena duten nazioarteko organismoek, besteak beste Munduko Bankuak, Nazioarteko Diru Funttsak eta ELGAK, baina, Europar Batasuna izan da bere erabilera gehien defendatu duena zerga eta ingurumen politiketan tresna zentral gisa erabiltzeko. Neurri handi batean, klima aldaketaren aurkako eta garapen jasangarriko eredu batera aldatzeko estrategia orokorretan eragiteko tresna eta politika horien diseinuari eta ondorioei buruzko eztabaida Europako kontua izan da, eta arlo horretan sortu dira aplikatutako esperientzia gehienak.

Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak da ekarpen gehien egin dituen nazioarteko organismoetako bat, horien bidez ingurumen fiskalitatearen arloan baterako araudi esparrua ezartzeko. Zehazki, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak 1972an ezarri zuen “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa “Nazioarteko ingurumen politiken alderdi ekonomikoari buruzko printzipio zuzentzaileei” buruzko gomendioaren bitartez. Printzipioa honela jasota geratu zen:

“Kutsaduraren prebentzio kostuak eta ingurumeneko baliabide urriak arrazoizko moduan erabiltzea sustatzeko, kontrol neurriak esleitzeko eta nazioarteko merkataritzan eta inbertsioetan eraldaketak saihesteko printzipioa “kutsatzen duenak ordaintzen du” delakoa da”. Printzipio horrek esan nahi du kutsatzen duenak bere gain hartu behar dituela agintaritzaren publikoek erabaki dituzten eta aurretik aipatu diren neurriak gauzatzeko gastuak, horrela bermatzeko ingurua egoera onargarrian dagoela. Hau da, neurri horien kostua ekoizpenean eta/edo kontsumoan kutsadura sortzen duten ondasunen eta zerbitzuen kostuan adierazi behar da. Neurri horiek ez lirerateko nazioarteko merkataritzan eta inbertsioetan aldaketa nabarmenak sortzen dituzten dirulaguntzekin batera egon behar”.

Europar Batasunak hamarkadak daramatza ingurumena jorratzen, eta “kutsatzen duenak ordaindu egiten du” printzipioa aplikatzen. Hasieran 1973ko azaroaren 22ko Europako Komunitateen Kontseiluaren Deklarazioaren esparruan egin zen, eta ondoren, Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Tratatuaren 191.2 artikulua bitartez. Halaber, EBk ingurumen fiskalitateko alderdiak jorratu ditu ingurumen politikako tresna gisa hainbat ikuspegitik; adibidez, ikuspegi orokor batetik, aurrekontu eraketako tresna gisa, edo ikuspuntu espezifikotatik, ingurumen inpaktuak duten kanpo-efektu batzuk zergapetuz edo zergapetze figura zehatzak ezarriz zuzentzarauen bidez (besteak beste, energiaren gaineko zergaren harmonizazioa, 2003/96/EE Zuzentzarauaren bidez bultzatu zena: produktu energetikoen eta elektrizitatearen gaineko EBko zerga sistema berregituratzea).

Ingurumen zergen onura erabakigarrietako bat da merkaturako prezio faltsuen seinaleak zuzentzen dituztela eta prezioetan kutsaduraren eta bestelako ingurumen kostuak gehitzen dituztela (prozesu horretan, prezioak zuzen zehazteaz gain, “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa aplikatzen da). Zerga berdeen onura hori aitortu zuen Europako Kontseiluak 1991ko abenduaren 12ko Ingurumenari buruzko kontseiluaren ondorioetan. Ondorio horiek plataforma komun batean aurkeztu zituen Nazio Batuen 1992ko Ingurumenari eta Garapenari buruzko konferentziarako, Rio de Janeiro antolatutako Lurraren Goi Bilerarako, hain zuzen ere:

“Garapen jasangarria lortzeko baliabideak berriz ere esleitzeko, gizarte eta ingurumen gastu guztiak jarduera ekonomikoetan sartu behar dira, kanpo efektuak barneratu daitezkeen. Horrek esan nahi du ingurumen kostuak eta baliabide

naturalak modu jasangarrian ustiatzearekin lotuta eta herrialde hornitzaileak bere gain hartutako beste kostuak jarduera ekonomikoetan azaldu behar direla. Helburu hori lortzeko erabilitako neurrien artean daude tresna ekonomikoak eta fiskalak”.

Ordutik aurrera gehiago erabiltzen dira zerga zorrak, baina, oraindik ere askoz ere gehiago erabili behar dira.

Ingurumenaren Europako Agentziarentzat (2008ko abenduaren 19an argitaratutako txosten batean) adierazi zen hauek zirela ingurumen zergak erabiltzeko arrazoi nagusiak:

- tresna bereziki eraginkorrak dira kanpo-efektuak barneratzeko, hau da, ingurumen zerbitzu eta kalteen eta horien konponketaren kostuak zuzenean ezartzea horiek sortzen dituzten ondasunen, zerbitzuen eta jardueren prezioan. Horrez gain, kutsatzailearengatik sortzen den ordainketa printzipioa aplikatzea eta ekonomia eta ingurumen politikak integratzea sustatzen da;

- pizgarriak ematen ahal dituzte kontsumitzaileek eta ekoizleek jokaera alda dezaten eta baliabide “ekoeraginkorragoak” erabili dituzten, berrikuntza eta egiturazko aldaketak sustatzeko eta arazuko xedapenak betetzen direla indartzeko;

- errenta fiskala gehitzen ahal dute eta hori ingurumen gastua hobetzeko erabiltzen ahal da eta/edo lanaren, kapitalaren eta aurrezpenaren gaineko zergak gutxitzeko.

- tresna politiko bereziki eraginkorrak izaten ahal dira egungo ingurumen lehentasunak hain “lausoak” diren kutsadura iturrietan oinarrituta jorratzeko, adibidez garraioaren isurketak (aireko eta itsasoko garraioa barne), hondakinak (besteak beste ontziak eta bateriak) eta nekazaritzan erabiltzen diren agente kimikoak (hala nola pestizidak eta ongarririk).

Egungo ekonomia berreskuratzearen eta ingurumenari dagokionez jasangarria den eredurako trantsizioaren esparruan, ingurumen zergak eta erreforma fiskal berdeak oso garrantzitsuak izaten ahal dira kanpo-efektuak zuzentzeko eta diru-sarrerara publikoak eskuratzeko mekanismo gisa. Halaber, diru-sarrera horiek hainbat helburutarako erabiltzen ahalko dira erreforma fiskal berdeen bidez, adibidez, zerga finkapenerako, energia eta klima politikarako, berrikuntzarako edo hazkunde ekonomikorako. Izan ere, horixe da erreforma fiskal berdeen hirugarren belaunaldiak aurrekoekin alderatuta duen ezaugarri ezberdina, hau da, zerga bilketa malguagoa,

heterogeneoa eta egoera berriari egokitutakoa izatea.

Araudirik gabeko egoera batean enpresa batek produktu bat modu kutsatzailean fabrikatzen ahalko luke lur-planetan edo ingurumenean sortzen duen inpaktua kontuan hartu gabe. Ekonomian kanpo efektua izena du horrek. Zerga berdeen xedea da kutsatzaileek derrigorrez tasa bat ordaindu behar izatea “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa betez, eta modu horretan, prezioan kanpo efektu horien kostua ere azaltzen da.

Geroz eta maizago, gobernuek zergak erabiltzen dituzte ingurumen kalteak barnertzeko. Horien artean ugarienak eta garrantzitsuenak energia eta ingurumen zergak dira, baina ez dira bakarrak, izan ere, guztiz ingurumenekoak diren beste figura batzuk ere badaude: isuri solidoen gaineko zergak, pestiziden gaineko zergak, isuri likidoen gaineko zergak, eta abar. Ingurumen zergen kontzeptuak guztiak barne hartzen ditu eta bere egitura eta inpaktuari buruzko ikuspegi zabalean oinarrituta dago. Nazioarte mailan hedatu den definizioa da hain zuzen ere.

Baina, ingurumen kalteak zuzentzeaz gain, ingurumen zergei esker diru-bilketa bat sortzen da eta gobernuek diru hori erabiltzen ahal du distortsioak gutxitzeko, eta, horrela, onura osagarria edo ingurumenekoa ez den ongizatea gehitzea lortzen ahal da. Horrek dibidendu bikoitzen teoria sortzen du; bertan, lehenengo dibidendua lortutako ingurumen hobekuntzak sortzen du eta bigarrenengatik ingurumen bilketak sortutako ongizateko aldaketa osagarri guztiak barne hartzen dira.

Modu horretan, erreforma fiskal berdearen definizio klasikoa hau da: zerga sistemaren aldaketa bat da, eta horren bidez zerga karga aldatu egiten da, ohiko zergetatik (errenta, BEZa, gizarte kotizazioak, eta abar) ingurumena kaltetzen duten jardueretara, besteak beste baliabideak erabiltzea edo kutsatzea.

Aurreko guztiarengatik galdetu beharra dago, Nola da posible Nafarroako zerga sisteman oraindik ere tresna horiek ez aplikatzea egoera ezin hobea baldin bada? Zalantzarik gabe, diru-bilketa gaitasunak, errenta taldeen araberrakoa banaketa, ingurumen onurak eta politika publiko zuzentzaileei buruzko lehentasunak kontuan hartuta, aurrekoak aplikatzeko egoera egokia da. Zerga figura horien ezarpena atzeratu egin da aldaketak ezartzeko oztopoak egon direlako eta erakundeek mugak ezarri

dituztelako. Ingurumen fiskalitateko erreformak ezartzeko egoera fiskala nabarmenki aldatu behar da eta badirudi ez dituztela ezarpenaren kostu politikoak beren gain hartu nahi. Zerga administrazioek oztopoak ezartzen dituzte ohi-tuta dauden tresnak edo prozedurak aldatu nahi direnean, eta horregatik, legegileak dira zerga aldaketa garrantzitsuen arriskuak beren gain hartu behar dituztenak.

Ingurumen zergak eta erreforma fiskal berdea prozesu demokratikoaren hitzarmen fiskalaren parte izan behar direnez, erreferentzia gisa eztabaida politikoan jarri behar dira, izan ere, behar-bada lehenbailehen gainditu behar duten oztopoa horixe da.

Nafarroa ere errealtate horren parte da.

III. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

60. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

17. artikulua (Energia berriztagarrien sustapena eta kudeaketa) aldatzeko zuzenketa:

“Nafarroako Gobernuak, energia ereduaren aldaketa bultzatzeko, sistema energetiko demokratiko, sozial eta justua sustatuko du, lurraldearen kudeaketa integrala eginez uneoro, energia iturri berriztagarrien dibertsifikazioarekin, Espainiak bere gain hartutako nazioarteko konpromisoak betetzera bideratuta.

Energiaren arloan eskumena duen departamentuak sustatuko ditu instalazio eolikoak, eguzki instalazioak, hidraulikoak, geotermikoak eta gas berriztagarrikoak, bai eta energia biltegitratzeko sistemak ere, dagozkien laguntzen eta kenkari fiskalen aplikazioaren bidez. Horrekin batera, energia berriztagarriko instalazioen tramitazio administrazioa ahalik eta errazena izan dadin bultzatuko du, eta horrelako proiektuak foru interesekotzat joko ditu”.

Zioak: uste dugu energia ereduaren aldaketa bultzatu behar dela Europatik iristen zaizkigun konpromisoak betetzeko, horretarako konpromisoa hartu baitute Espainiak eta, ondorioz, Nafarroak. Gainera, garrantzitsua iruditu zaigu bigarren paragrafoan energia hidraulikoa aipatzea, horren azpiegiturek gure Foru Komunitatean duten garrantziagatik.

61. ZUZENKETA

**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

17. artikulua (Energia berriztagarrien sustapena eta kudeaketa) aldatzeko zuzenketa. Testu berria honako hau izanen da:

“Nafarroako Gobernuak, energia ereduaren aldaketa bultzatzeko, monopoliorik gabeko sistema energetiko demokratiko, soziala eta justua sustatuko du. Energiaren arloko eskumena daukan departamentuak ingurumenean eragin txikia duten elektrizitatea sortzeko instalazioak sustatuko ditu; helburua hurbil sortutako energia kontsumitzea izanen da, eta lurraldearen kudeaketa integrala egitea uneoro energia-iturri berriztagarrien dibertsifikazioarekin, Nafarroako energia-beharrei erantzuteko asmoarekin. Gainera, energia hidraulikoa edo minihidraulikoa, instalazio berriztagarriak eta dagoeneko erabiltzen ari direnak sustatuko dira, orain arte bezala”.

Zioak: energia eredu askoz demokratikoago eta zuzenagoa finkatu nahi da, hurbilekoa, toki erakunde bakoitzaren energia beharrak asetzea xede izanen duena, dagoeneko erabiltzen ari garen energia hidraulikoak sustatzeari utzi gabe.

62. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

17 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“17 bis artikulua. Kooperatibak, kontsumo taldeak eta hurbileko ekoizleak sustatzea.

Nafarroako administrazio publikoek jarduera ekonomikoa sustatzeko baldintzak erraztu behar dituzte eta zehazki kooperatibak, kontsumo taldeak edo hurbileko ekoizleak, eta hori guztia karbonoan baxua den ekonomia eta kilometro zero delako kontsumoa bultzatzeko. Arreta berezia jarriko zaie despopulatze handiena duten eskualdeei, gizarte eta lurralde kohesioaren printzipioak aplikatzeko”.

Zioak: trantsizio ekosozialaren esparruan, ez da bakarrik garrantzitsua berotegi-efektuko gasik ez isurtzea, baizik eta gizartean sortzen dugun aberastasuna modu ekitatiboan banatzea. Ikuspuntu horretatik, sortze banatua ezartzeko instalazioak txikiagoak izan eta aberastasun hori kon-

tsumitzen den lekutik hurbil egon behar dira, eta horri esker, herritarrek aukera gehiago dituzte baliabideak modu demokratikoan kontrolatzeko. Sortze banatuak, gainera, garraioko galerak murrizten ditu (kontsumitzen den lekuan sortzen delako) eta, beraz, askoz ere sistema efizientea goa da, are gehiago instalazioak komunitarioak badira indibidualak izan beharrean.

Energia berriztagarriak sustatzeari buruzko kapitulu honetan garrantzitsua da azpimarratzea Nafarroako administrazio publikoek laguntza eta babes handia ematen dutela kooperatiben, kontsumo taldeen eta hurbileko ekoizle taldeen bitartez jarduera ekonomikoa bultzatzeko, eta hori guztia karbonoan baxua den ekonomia eta gehienez ere zero kilometrokoa den kontsumoa sustatzeko. Gehiago lagundu behar zaie despopulatze handiagoa duten eskualdeei gizarte eta lurralde printzipioak aplikatzearen ondorioetarako, izan ere, autokontsumorako lankidetzara modu horri esker bermatuko da sortzen den energia modu bidezko eta demokratikoagoan banatzen dela.

63. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

18. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“18. artikulua. Foru intereseko inbertsioak.

Energia berriztagarrietan inbertitzeko proiektu hauek joko dira foru intereseko inbertsioetat, betiere enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legearen 4. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako:

a) Energiaren erregulazioa edo biltegitratzea jasotzen duten proiektuak, horien erabilera optimizatzeko.

b) Izaera esperimentalak duten proiektuak.

c) Haize-parkeak berrindartzeko proiektuak, betiere kontzejuek berariazko onespina eman ondoren edo, hala dagokionean, eraginpeko parkeak dauden udalerriek onetsi ondoren.

d) Energia berriztagarrien instalazioen hibridazioa jasotzen duten proiektuak.

e) Energia sortzekoak, jabetza publikoan gautatuak, haien partaidetza ekonomikoaren %20, gutxienez, haien eraginpeko toki erakundeena, irabazi-asmorik gabeko erakundeena edo instalazioa kokatu nahi den udalerriko edo udalerrri mugakideetako bizilagunena bada.

f) Energia berriztagarrien komunitateenak, herritarren energia-komunitateenak eta tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriako proiektuak, foru lege honen 25. artikuluan ezarritakoarekin bat.

g) Basoko biomasa eta nekazaritzako azpi produktuak erabilera termikoetarako aprobetxatzen duten enpresa txikien edo kooperatiben proiektuak”.

Zioak: artikularen idazketa hobetzea. Jabetza publikoan gauzatutako energia sortzeko inbertsioek, hau da, potentzia mugarik ez dutenek (horrek biztanleria gutxiko udalerrietako proiektu txikiei onura eginen die), haien partaidetza ekonomikoaren % 20, gutxienez, haien eraginpeko toki erakundeena, irabazi-asmorik gabeko erakundeena edo instalazioa kokatu nahi den udalerriko edo udalerrri mugakideetako bizilagunena bada, administrazio izapidetzearen epeetan onurak jasotzen ahalko dituzte.

Gure proposamena “gas berriztagarria sortzeko eta gasa sartzeko proiektuak” ezabatzea da, izan ere, proiektu horiek zuzen analizatu beharko lirateke, nahikoa denborarekin, jakiteko ea berriztagarrien proiektuak diren edo ez.

64. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

18. artikuluan (Foru intereseko inbertsioak) e) letra aldatzeko zuzenketa:

“e) Energia sortzekoak, jabetza publikoan gauzatuak, haien partaidetza ekonomikoaren % 20, gutxienez, haien eraginpeko toki erakundeena, irabazi-asmorik gabeko erakundeena edo instalazioa kokatu nahi den udalerriko edo udalerrri mugakideetako bizilagunena bada”.

Zioak: kendu egin dugu instalazioak 5 MW-etik gorako potentzia izatearen baldintza, uste dugulako potentzia txikiagoko instalazioak ere foru interesekotzat jotzeko aukera izan behar dela.

65. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

18. artikulua (Foru intereseko inbertsioak) aldatzeko zuzenketa: g) letra kentzen da.

Zioak: gas berriztagarriaren kontzeptua zehatzago definitu behar da, bero-, ingurumen- edo gizarte-balantzea negatiboa izan daitekeelako, kasuen arabera.

66. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

18. artikuluari (Foru intereseko inbertsioak) honako letra hauek gehitzeko zuzenketa:

“i) 5 MW-etik beherako potentziako instalazioak edo, energia eolikoaren kasuan, 6 MW-etik beherakoak; lehentasuna edukiko dute tokiko komunitate energetikoen proiektuek eta herritarren energia-komunitateen proiektuek. Toki-erakundeek Klima Funtsaren finantzabide bigunak lortu ahal izango dituzte energia berriztagarrien proiektuetarako.

j) Nekazaritzaren intentsibotasuna murrizten laguntzen duten proiektuak (murrizketa guztirako energia-kontsumoaren gutxikuntzaren arabera kalkulatu da).

k) Basoko biomasa eta nekazaritzako azpi produktuak erabilera termikoetarako aprobetxatzen duten enpresa txikien edo kooperatiben proiektuak.

l) Erakunde publikoek erregai fosilen ordeztu energia-iturri alternatibo eta jasangarriak erabiltzea sustatzeko edo karbono-hustubideak gehitzeko lehentasunarekin bultzatzen dituzten proiektuak.

m) Ekonomia zirkularreko proiektuak eta ekoizpen eta banaketako ziklo laburreko jarduera ekonomikoaren proiektuak.

n) Hondakinak sorburuan gaika bereizteko, beirazko ontziak berriz erabiltzeko eta materialak berreskuratzeko proiektuak”.

Zioak: eredu jasangarri bat sendotu nahi da, administrazio publikoetatik foru intereseko inbertsioak sustatuz proposatutako irizpideei eusten dieten proiektuetarako.

67. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

18. artikuluari (Foru intereseko inbertsioak) letra berri bat gehitzeko zuzenketa:

“i) Minizentral hidraulikoak berreskuratzeko, hobetzeko edo haien potentzia handitzeko proiektuak”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela energia hidraulikoa sustatzea Nafarroan ugari den energia iturri berriztagarri gisa.

68. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

18. artikuluari (Foru intereseko inbertsioak) letra berri bat gehitzeko zuzenketa:

“j) Sorkuntzarako instalazio esperimentalak edo berritzaileak, eraikinetan edo hiri egituretan txertatuak”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela Nafarroako Gobernuak sorkuntza instalazio berriak sustatzea eraikinetan eta beste hiri eraikuntza batzuetan txertatuta.

69. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

18. artikuluari beste letra bat gehitzea. Foru intereseko inbertsioak.

“k) Hondakinak sorburuan gaika bereizteko, beirazko ontziak berriz erabiltzeko eta materialak berreskuratzeko proiektuak”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela lehengaiak birziklatzea eta berrerabiltzea xede duten ekimenak babestea.

70. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

18. artikuluari (Foru intereseko inbertsioak) letra berri bat gehitzeko zuzenketa:

“l) Nafarroako Foru Komunitatean instalatzen diren eta 2050erako deskarbonizazio helburuak lortzen laguntzen diguten energia berriztagarrieta-ko instalazioak”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela energia berriztagarrien edozein proiektu sartu ahal izatea foru intereseko inbertsioetan baldin eta gure komunitatearen deskarbonizazioa lortzen laguntzen badigute eta dagokien departamentuak baimendu baditu.

71. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

18. artikuluari (Foru intereseko inbertsioak) letra berri bat gehitzeko zuzenketa:

“m) Energia elektrikoa banatzeko sareetan egiten diren jarduketak, Nafarroako Foru Komunitatean haiek hobetzea edo haien edukiera handitzea badute helburu”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela energia berriztagarrien edozein proiektu sartu ahal izatea foru intereseko inbertsioetan baldin eta gure komunitatearen deskarbonizazioa lortzen laguntzen badigute eta dagokien departamentuak baimendu baditu.

72. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“19. artikulua. Energia-banatzailleen betebeharrak.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan lan egiten duten enpresa energia-banatzailleek energiaren arloko eskumena duen departamentuaren esku jarri behar dute, Nafarroako Energiaren Plana garatzeko informazio guztia eskakizuna egin eta hilabeteko epean, baita urte bakoitzeko ekainaren 1a baino lehen produktu energetikoen kontsumoei buruzko informazioa

ere, departamentuak berak ezarriko duen formatuan.

2. Nafarroako Gobernuak elektrizitatea banatzen duten enpresei jakinaraziko dizkie haien egiturak energia berriztagarrien instalazioen eskakizunen arabera egokitzeko bete behar dituzten betebeharrak, haien inbertsio-planetan kontuan izan ditzaten, erabilgarri dauden aurrekontuen baitan.

3. Aurrekoa gorabehera, banatzaileek energia berriztagarria sortzeko instalazioen sarbidea eta konexioa adjudikatuko dute honako lehentasun, potentzia tarte eta konexio puntuen okupazio puntu hauek ezarriz:

a) Hornidura puntua baduten instalazioak.

b) 1.000 kW baino gutxiagoko potentzia duten energia berriztagarria sortzeko instalazioak: konexio puntuak banaketa sarearekiko duen edukiera % 30ekoa izanen da sortutako energia isurtzeko.

c) 1.000 kW eta 5.000 kW arteko potentzia duten energia berriztagarria sortzeko instalazioak: konexio puntuak banaketa sarearekiko duen edukiera % 30ekoa izanen da sortutako energia isurtzeko.

d) 5.000 kW baino gehiagoko potentzia duten energia berriztagarria sortzeko instalazioak: konexio puntuak banaketa sarearekiko duen edukiera % 40koa izanen da sortutako energia isurtzeko.

4. Enpresa banatzaileek ez dute jada eraikita dagoen hornidura puntu batera autokontsumorako konektatzen diren energia berriztagarriko instalazioetarako sarbide edo konexio baimenik eskatuko, betiere sortze potentzia hornidura puntuan eskatzen dena baino gutxiagokoa edo berdina bada eta konexioa behe-tentsioarekin egiten bada.

5. Nafarroako Foru Komunitatean lan egiten duten energiaren enpresa banatzaileek energiaren arloan eskuduna den departamentuari banaketa sare guztien konexioari eta ebakuazio gaitasunari buruzko informazio guztia emanen diote, trazadura, kokapena, ezaugarriak eta transformazio eta tratamendu zentroetatik ezarritako sare guztien sarbide puntuak barne”.

Zioak: Nafarroan energia banatzen duten enpresentzat betebeharrak argiago eta zehatzagoak ezartzea proposatzen dugu, modu horretan, energiaren arloan eskuduna den departamentuaren plangintza eta kontrolerako lanak egoki garatzeko. Halaber, energia berriztagarria sortzeko instalazioen sareko sarbide eta konexioak adjudikazio betebeharrak ezarri dira konexio puntuen lehentasun irizpideekin, potentzia tarteekin eta okupazio kupoekin:

1. Hornidura puntua baduten instalazioak.

2. 1.000 kW baino gutxiagoko potentzia duten energia berriztagarria sortzeko instalazioak: konexio puntuak banaketa sarearekiko duen edukiera % 50ekoa izanen da sortutako energia isurtzeko.

3. 1.000 kW eta 5.000 kW arteko potentzia duten energia berriztagarria sortzeko instalazioak: konexio puntuak banaketa sarearekiko duen edukiera % 30ekoa izanen da sortutako energia isurtzeko.

4. 5.000 kW baino gehiagoko potentzia duten energia berriztagarria sortzeko instalazioak: konexio puntuak banaketa sarearekiko duen edukiera % 20koa izanen da sortutako energia isurtzeko.

73. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

19. artikuluan (Energia-banatzaileen betebeharrak) 1. puntua aldatzeko zuzenketa:

“1. Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan lan egiten duten enpresa energia-banatzaileek energiaren arloko eskumena duen departamentuaren esku jarriko dute, urte bakoitzeko ekainaren 1a baino lehen, produktu energetikoen kontsumoei buruzko informazioa, datu agregatuekin”.

Zioak: enpresa banatzaileek jada informazio hori ematen diote departamentu eskudunari, datu agregatuekin betiere, eta horrela datuen babesari buruzko legea betetzen dute. Beraz, ez dugu ulertzen artikulua honetan ezarritako derrigortasuna.

74. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

19. artikuluan (Energia-banatzaileen betebeharrak) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Energia elektrikoa banatzen duten enpresek haien urteko inbertsio-plana aurkezten dutenean, Nafarroako Gobernuak jakinaraziko dizkie haien egiturak energia berriztagarrien instalazioen eskakizunen arabera egokitzeko bete behar dituzten betebeharrak, haien inbertsio-planetan kontuan izan ditzaten, erabilgarri dauden aurrekontuen baitan”.

Zioak: enpresa banatzaileek jada Nafarroako Gobernuarekin adosten dituzte horrelako beharri-zanak, urtero haien inbertsio planak aurkezten dituztenean.

75. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

19. artikulua (Energia-banatzaileen betebeharrak) aldatzeko zuzenketa. 2. puntuari lerro bat gehitzen zaio:

“2. Nafarroako Gobernuak elektrizitatea banatzen duten enpresei jakinaraziko dizkie haien egiturak energia berriztagarrien instalazioen eskakizunen arabera egokitzeko bete behar dituzten betebeharrak, haien inbertsio-planetan kontuan izan ditzaten, erabilgarri dauden aurrekontuen baitan. Zehaztaper horiek nahitaez bete beharko dira edo nahitaez bete behar direla ezarriko da”.

Zioak: azpiegiturak energia berriztagarrietara egokitzeko urratsak egitea.

76. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

20. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“20. artikulua. Energia hidroelektrikoa.

1. Ureztatzeko, edateko eta industriarako uraren horniketa-zerbitzua ematen duten urtegiei lotuak diren zentral hidroelektrikoen jardueraren jarraipena sustatuko du energiaren arloko eskumena duen departamentuak, emakida-epea amaitzean. Halaber, aipatutako erabilera horietarako dauden ubide eta urtegietan zentral berrien instalazioa sustatuko du. Bereziki, eskudunak diren arro erakundeetan izapidetuko da

emakida epea agortu zaien Nafarroako lurraldean kokatutako jauzi hidroelektrikoak zuzenean kudeatzeko eskaera, ondoren Nafarroako Energiaren Agentziak edo tokiko enpresa publiko batek kudeatzeko”.

2. Nafarroako Energia Planaren bidez ezarriko da arestiko planteamendu hori ezartzea bideragarria den gainerako zentral hidroelektrikoetan, lehendik diren zentraletan edo hemendik aitzina sustatzekoak diren zentraletan, kontuan hartuta

aprobetxamendu energetikoaren potentziala eta hainbat faktore mugatzaile, besteak beste, ingurumenari, paisaiari eta kultur ondarearen kontserbazioari dagozkionak, hala nola hirigintza antolamenduari, lurzoruaren sailkapenari, naturaren arriskuei eta lehendik dauden egituren edo egitekoak diren egituren zortasunari dagozkien faktoreak.

3. Nafarroako Gobernuak sustatuko du jauzi hidroelektriko itzulgarrien ezarpena lehendik dauden ur-bilketarako azpiegituretan. Gainera, lehentasuna izanen dute zaharkituta dauden instalazio hidroelektrikoen eraginpeko tartek egokitzeko eta birgaitzeko jarduketek, instalazio berriak eraiki aurretik.

Zioak: gure ustez, artikulua honetan “eraikuntza berriko” urtegiei egiten zaien aipamena ez da egokia. Uraren arloan klima aldaketara egokitzeko bermerik onena uretako ekosistemak mantentzea da. Urtegi berriak eraikitzean ibaiak larriki kaltezen dira eta horrek etorkizunean urez hornitzen jarraitzeko gaitasunari eragiten dio; beraz, ibaien egoera ona ez da bateragarria eraikuntza horrekin.

Horrez gain, proposatu da foru legean hau jaso dadila: eskudunak diren arro erakundeetan izapidetu behar izatea emakida-epea agortu zaien Nafarroako lurraldeko jauzi hidroelektrikoak zuzenean kudeatzeko eskaera, Nafarroako Energiaren Agentziaren edo tokiko enpresa publiko baten bidez”.

Bestalde, proposatu da gehitzea lehentasuna izanen dutela zaharkituta dauden instalazio hidroelektrikoen eraginpeko tartek egokitzeko eta birgaitzeko jarduketek, instalazio berriak eraiki aurretik.

77. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“21. artikulua. Energia eolikoa.

1. Nafarroako Energia Planean zehaztuko dira modu loteslean baimena eman behar duen Administrazioarentzat lurzoru urbaniza ezinean haize-parkeak ezartzeko lehentasunezko eta erreserbako eremuak, barne direla esperimentalak eta orain dauden parkeen berreraikuntza edo sustapen berria, kontuan hartuta haizearen baliabidea eta hainbat faktore mugatzaile, besteak beste, ingurumenari eta paisaiari dagozkionak, kultur

ondarearen kontserbazioa, lurralde antolamendua eta hirigintza plangintza, naturaren arriskuak eta lehendik dauden egituren edo egitekoak diren egituren zortasuna.

2. Haize-parkeen jabe diren enpresek lagundu beharko dute haien instalazioen gainean faunaren hilkortasunari buruz eta ingurumen arloko arrisku-egoerei buruz ingurumen eskumena duen departamentuak egiten duen jarraipenean. Nafarroako Gobernuak bi urteko epean erregelamenduz garatuko ditu lankidetzak formula horiek”.

Zioak: oso ezberdinak dira 2020-2030 urteetarako Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratuan jasotako helburuak (bertan aurreikusitakoaren arabera, 2030erako 50 GW-eko potentziadun energia eolikoa eta 39 GW-eko potentziadun eguzki energia fotovoltaikoa instalatuta egonena) eta Espainiako Sare Elektrikoko sarbide baimenei buruz izapidetzen ari diren proiektuak (2020ko abenduaren 31n 130,4 GW-eko potentziadun energia eolikoa eta fotovoltaikoa dago sareko sarbide eta konexio eskubideak emanda dituen, gehi beste 45,3 GW izapidetzen). Guztira 175,7 GW. Beraz, potentzia eolikoko eta eguzki potentziako bolumenak argi eta garbi gaintzen du Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratuaren kopurua. Izan ere, 2021-2026 urteetarako sare elektrikoaren plangintza proposamenak dio “sorkuntza berriko sustatzaileen itxaropenak, sarbide eskarien bolumenean islatzen direnak, [...] 2026rako instalatu beharreko energia eolikoaren potentzia hiru aldiz baino handiagoak direla eta energia fotovoltaikoarena hamahiru aldiz baino handiagoak”.

Gainera, ez da kontuan hartzen ezta ere energia eolikoan ezarriko diren teknologia berriak ez dituztela zuzen ebaluatu, eta horien ondorioz jauzi kualitatibo bat sortzen ahal da eta aurreikusi ezinezko ondorioak sortzen ahal dira hegodun faunaren hilkortasunean. Horixe gertatzen da adibidez palen diametroa 100 metro baino gehiagokoa eta 2-3 MW baino gehiagoko potentzia duten aerosorgailu handiekin.

78. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

21. artikuluan (energia eolikoa) 1. puntua aldatzeko zuzenketa:

“1. Nafarroako Energia Planean zehaztuko dira haize-parkeak ezartzeko lehentasunezko eta erre-serbako eremuak, barne direla esperimentalak eta orain dauden parkeen berreraikuntza edo sustapen berria, kontuan hartuta haizearen baliabidea eta hainbat faktore mugatzaile, besteak beste, ingurumenari eta paisaiari dagozkionak, kultur ondarearen kontserbazioa, lurralde antolamendua eta hirigintzako plangintza, lurzuaren sailkapena, naturaren arriskuak eta lehendik dauden egituren edo egitekoak diren egituren zortasuna. Horretarako, Nafarroako Energia Plana berrikusiko da jakiteko zenbat energia beharko den kontsumorako, hiri-lurzuari edo urbanizagarriari lehentasuna emanez”.

Zioak: argindar kontsumoaren eboluzioa ezagutzea funtsezko faktorea da jasangarritasunaren bidean aurrera egiteko, aldaketa ekonomiko eta sozial sakona eginez energia ekoizteko eta kontsumitzeko moldeetan.

79. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

22. artikulua (Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegietan energia berriztagarrien erabilera sustatzea) aldatzeko zuzenketa:

“Abeltzaintza nahiz nekazaritza ustiategiaren eskaera termiko osoa iturri berriztagarrietatik edo beste instalazio batzuen bero-soberakinak erabiltzea hornitu dadila sustatuko da. Horretarako, Nafarroako Gobernuak ustiategi horien deskarbonizazioarako laguntza lerro bat ezarriko du”.

Zioak: artikulua aldatzeko proposatzen den testu berria, gure iritziz, hobeki egokitzen zaie mota horretako ustiategiaren deskarbonizazio betebeharreari, eta funtsezkoa iruditzen zaigu Gobernuak laguntza lerro bat ezartzea helburu horretarako.

80. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

22. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“22. artikulua. Elektrizitatea sortzeko eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiaren erregai fosilak erabiltzea debekatzea.

1. Ez da baimenik emanen erregai fosilak erabiltzen dituzten elektrizitatea sortzeko zentral berriak instalatzeko.

2. 2030eko urtarrilaren 1etik aurrera, abeltzaintza nahiz nekazaritza ustategien eskaera termiko osoa iturri berriztagarrietatik edo beste instalazio batzuen bero-soberakinak erabilia hornitu behar da, honako kasu hauetan:

a) 500 AzLU baino gehiagoko abeltzaintza-ustategiak.

b) 3.000 metro koadrotik goitiko berotegiak.

2. Instalazio bat baino gehiago udalerrri desberdinetan dituzten abeltzaintzako ustategien kasuan, aurreko apartatuko betebeharrak instalazioetako bakoitzari aplikatuko zaió”.

Zioak: beste aurreproiektu batzuen testuetan proposatzen zen moduan, erregai fosilak erabiltzen dituzten energia elektrikoa sortzeko zentral berriak instalatzeko baimena debekatzea.

81. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

23. artikulua aldatzeko zuzenketa:

“23. artikulua. Eguzki-energia

1. Eguzki-energiaren instalazioak hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian kokatuko dira.

2. Aurrekoa gorabehera, lurraldean modu antolatuan ezartzen direla ziurtatzeko eta balio natural nabarmenen kontserbazioa bermatzeko, Nafarroako Gobernuak urtebeteko epean erregelamenduz ezarriko ditu eguzki-energia baliatzeko instalazioak lurzoru urbanizaezinean ezartzeko baldintzak, ingurumenekoak eta hirigintzakoak. Baldintza horien artean kontuan hartuko dira instalazio horiek salbuespenez nekazaritza balio gutxiko eta faunarentzako, bereziki hegaztientzako, garrantzirik gabeko nekazaritza lursailetan ezartzea. Lehentasuna izanen dute zona irisgarriek eta sarbide berriak irekitzea saihestuko da. Gainera, energia elektrikoa ebakutzeko nodoetatik hurbil egonen dira eta ebakuazio lerroen luzera gutxituko da.

Zioak: foru legean zehaztu behar da zein lursailetan kokatzen ahal diren eguzki-energia instalazioak; hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Halaber, erregelamenduzko garapenean lurzoru urbanizaezinean kokatzeko aukera jasoko da eta erregelamendu horretan zehaztu behar dira horiek ezartzeko ingurumen eta hirigintza irizpide-

ak eta baldintzak. Gure proposamena da adieraztea baldintza horien artean kontuan hartuko dela instalazio horiek salbuespenez nekazaritza balio gutxiko eta faunarentzako, bereziki hegaztientzako, garrantzirik gabeko nekazaritza lursailetan ezartzea. Lehentasuna izanen dute zona irisgarriek eta sarbide berriak irekitzea saihestuko da. Gainera, energia elektrikoa ebakutzeko nodoetatik hurbil egonen dira eta ebakuazio lerroen luzera gutxituko da. Beste zuzenketa batean (xedapen iragankor berri bat gehitzeko) zehaztuta dago hau: “gobernuak 23. artikuluan ezarritako erregelamenduzko garapena onetsi arte, ez da baimenduko hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian kokatuko ez den eguzki-energiaren instalaziorik, eta etenda geratuko dira lurzoru urbanizaezinean kokatzeko aurkeztutako proiektu guztiak. Baime-naren izapidetzearen etete horretatik salbuetsita egonen dira nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenei lotutako autokontsumo instalazioak”.

82. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

23. artikulua (Eguzki-energia) aldatzeko zuzenketa:

“1. Eguzki-energiaren instalazioak lurraldean modu antolatuan ezartzen direla ziurtatzeko eta balio natural nabarmenen kontserbazioa bermatzeko, baita diskrezionaltasuna saihestu eta espedienteen tramitaziorako baliabideak ahalik ongien erabiltzeko ere, Nafarroako Gobernuak, urtebeteko epea igaro baino lehen, erregelamenduz irizpideak ezarriko ditu –ingurumenekoak, hirigintzakoak, nekazaritza-ekoizpenekoak eta beste edozein–, energia fotovoltaiakoaren instalazioak ezartzeko baimendutako lurzoruetan, baimentzen ahal direnak eta debeku direnak zehazte aldera. Ezarritako lurzoru kategoriak azalduko dituen mapa bat erantsiko da”.

Zioak: testu berriak artikulua hobetzen duela uste dugu, eta gainera epea ezartzen da erregelamendu bidezko garapenerako.

83. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

23. artikuluan (Eguzki-energia) 1. puntua aldatzeko zuzenketa:

“1. Eguzki-energiaren instalazioak, lehentasunez, hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian kokatuko dira. Lurraldean modu antolatuan ezarzen direla ziurtatzeko eta balio natural nabarmenen kontserbazioa bermatzeko, Nafarroako Gobernuak zerga-neurriak proposatuko ditu lehentasuna emateko hiri-lurzoruko edo lurzoru urbanizagarriko partaidetzako ekimenei edo atzeratzeko urbanizagarria ez den lurzoruko edo partaidetzarik gabeko ekimenak”.

Zioak: hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian partaidetzako ekimenak lehenets daitezzen eragitea zerga-neurrien bitartez.

84. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

23. artikulua (Eguzki-energia) aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. Eguzki-energiaren instalazioak, lehentasunez, hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian kokatuko dira. Lurraldean modu antolatuan ezarzen direla ziurtatzeko eta balio natural nabarmenen kontserbazioa bermatzeko, urtebete igaro baino lehen Nafarroako Gobernuak erregelamenduz ezarriko ditu eguzki-energia baliatzeko instalazioak lurzoru urbanizaezinean ezartzeko baldintzak, ingurumenekoak eta hirigintzakoak”.

Zioak: Irizpideak arautzeko epea ezarri beharra dago, eguzki-instalazioak plangintza publiko ordenatuaren arabera eginen direla bermatzeko.

85. ZUZENKETA

GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

23. artikuluari (Eguzki-energia) apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Eraikitzen diren etxebizitza babestu berrietan iturri berriztagarriko energia-instalazioak ipini beharko dira nahitaez. Baldintzak eta ehunekoak erregelamendu bidez zehaztuko dira, eta honen salbuespenak ere bai”.

Zioak: Nahiz eta Etxegintzaren Kode Teknikoa gero eta zorrotzagoa den eraikinen bizitza baliagarriko kontsumoari eta emisioei dagokienez, beharrezkoa da lurralde urbanizatuan egiten den edozein esku-hartze alferrik ez galdu eta energia elektrikoa sortzeko baliatzea.

86. ZUZENKETA

GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

23. artikuluari (Eguzki-energia) bost apartatu gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. Teilatupean 500 m² baino gehiago (proiektio horizontalean neurtuta) dituzten bizitegi-eraikinetan, eraikin industrialetan, merkataritzako eraikinetan eta zuzkidura-eraikinetan (berrietan zein erabateko birgaikuntza egiten zaienetan edo estalkia aldatzen zaienetan) banakako sistema fotoboltaikoak jarri beharko dira gutxienez solairuko okupazio-azaleraren % 30ean hego, hego-ekialde eta hego-mendebaldeko orientazioetan.

2. Eraikitzen diren zuzkidura-eraikinekin, merkataritzako eraikinekin, hirugarren sektoreko eraikinekin eta eraikin industrialekin lotutako lurgaineko aparkaleku-plazen % 20an gutxienez eguzki-energia sortzeko plaka fotoboltaikoak ipini beharko dira.

3. Eraikineko ondare arkitektonikoa edo kultura-ondarea babesteak artikulua honen 1. puntuan xedatzen dena eragozten badu, betebeharrorik betetzat joko dira 5. puntuan xedatzen denarekin bat etorritik.

4. Eraikitako solairuko okupazio azaleraren % 50 gutxienez zuzkidura, merkataritza edo industria erabilerearako duten eraikinetan:

a) Eraikitako edo teilatupeko guztirako azalera 4.000 m² baino gehiago, toki bereko eraikin eta instalazio guztiak kontuan hartuta; honelakoetan 2030. urterako plaka fotoboltaikoak jarri beharko dira hegoaldean, hego-ekialdean eta hego-mendebaldean, hain zuzen ere urteko elektrizitate-kontsumoaren % 30ari aurre egiteko beste eta solairuko okupazio-azaleraren % 30 okupatuta, estalkiek edo fatxadek horretarako aukera ematen badute.

b) Eraikitako edo teilatupeko guztirako azalera 2.000 m² baino gehiago, toki bereko eraikin eta instalazio guztiak kontuan hartuta; honelakoetan 2040. urterako plaka fotoboltaikoak jarri beharko dira hegoaldean, hego-ekialdean eta hego-mendebaldean, hain zuzen ere urteko elektrizitate-kontsumoaren % 40ari aurre egiteko beste eta solairuko okupazio-azaleraren % 30 okupatuta, estalkiek edo fatxadek horretarako aukera ematen badute.

5. Artikulu honetan ezarritzen diren betebeharrak betetzat joko dira eraikinaren jabeak edo energia-zerbitzua egiten duenak honako hauek egiten dituztenean:

a) Nafarroako administrazio publikoek edo Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentziak bultzatu eta kudeatutako energia iturri berriztagarriez sortzeko proiektu batean parte hartu, baldin eta energia-sorkuntza eta isurketen murrizketa artikulu honetan eskatzen diren bestekoak badira.

b) Urtero ekarpen bat egin Nafarroako Funts Klimatikora, hain zuzen ere instalatu behar lukeen instalazio fotoboltaikoak eragotziko lituzkeen isurketen prezioaren bestekoa, erreferentziatzat hartuta Nafarroako mix elektrikoa eta tona bat CO₂-k Europako isurketen merkatuan (EU-ETS) ordainketa egiten den urteko urtarrilaren 1ean daukan prezioa.

c) Urtero martxoaren 14ko 163/2014 Errege Dekretuaren bidez sortutako karbono-aztarnaren erregistroan ziurtatu eta erregistratutako konpentsazioak eskuratu, hain zuzen ere instalatu behar lukeen instalazio fotoboltaikoak eragotziko lituzkeen isurketen bestekoak. Nazioarteko karbono-kreditu ziurtatuak erabiltzeko ezinbestekoa izanen da Europar Batasunak hartzen dituen betearazpen-erabakiak betetzea.

d) Urtean kontsumitzen duen elektrizitatearen % 30 bere instalazioekin lotutako beste teknologia berriztagarri batzuez sortu.

e) Energia guztia % 100 berriztagarria delako ziurtagiriarekin (saillapena: A) kontratatuta eduki”.

Zioak: Eragotzi egin behar da lurzoru urbanizazioneko eremu gehiago artifizialtzea elektrizitatea sortzeko sistemak instalatuz, eta, horrekin batera, zero isurketako komunitateranzko trantsizio energetikoa bermatu behar da; horretarako, beharrezkoa izanen da jada urbanizaturik dauden lurretan lehendik badiren eraikinetako estalkiak baliatzea, azalera handiena dutenetatik hasita.

87. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

23 bis artikulu berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“23 bis artikulua. Eraikuntzetako energia berriztagarriak.

Etxebizitza babestuak eta libreak eraikitzean derrigorrezkoak izanen dira energia berriztagarria sortzen duten instalazioak eta autokontsumo partekatukoak edo indibidualekoak. Iturri berriztagarrietatik sortutako energia instalazioen baldintzak eta ehunekoak erregelamenduz zehaztuko ditu

energiaren arloan eskuduna den departamentuak bi urteko epean”.

Zioak: betebeharrak gisa ezarri behar da eraikinetan energia berriztagarria sortzeko instalazioak jartzea, bai eta autokontsumo partekatua edo indibidualerako instalazioak ere. Modu horretan, ahalik eta energia gehien sortuko da eta eguzki eta haize parke handiak ezartzea saihestuko da.

88. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

23 ter artikulu berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“23 ter artikulua.

1. Proiektzio horizontalean neurtutako 500 metro karratu baino gehiagoko estalkia duten egoitza, industria, merkataritza eta zuzkidura erabilerako eraikinek, bai eraikuntza berrikoek bai eraberritze integrala dutenek edo erabilera aldatu dutenek edo estalkia berritzen dutenek, hegoaldeko, hego-ekialdeko eta hego-mendebaldeko orientazioetan gutxienez azalera okupazioaren % 40an sistema fotovoltaikoak instalatuko dituzte.

2. Eraikinen ondare arkitektonikoa edo kulturala gorde beharrak 1. apartatuan xedatutakoa oztopatzen badu, betebeharrak betetzat joko dira 4. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

3. Eraikitako solairuko okupazio azalera % 50 gutxienez zuzkidura, merkataritza edo industria erabileretarako duten eraikinetan:

a) Estalkia 4.000 metro karratu baino gehiagokoa bada, 2030 aurretik xafla fotovoltaikoak jarriko dira hegoaldeko, hego-ekialdeko eta hego-mendebaldeko orientazioetan gutxienez elektrizitate eskariaren % 40 betetzeko, betiere estalkien edo fatxaden eskuragarritasunak ahalbidetuz gero.

b) Estalkia 2.000 metro karratu baino gehiagokoa bada, 2040 aurretik xafla fotovoltaikoak jarriko dira hegoaldeko, hego-ekialdeko eta hego-mendebaldeko orientazioetan gutxienez solairuko okupazioaren % 40 betetzeko, betiere estalkien edo fatxaden eskuragarritasunak ahalbidetuz gero.

4. Artikulu honetako betebeharrak betetzat joko dira eraikinen jabeek edo, hala dagokionean, energia zerbitzuen hornitzaileek jarduera hauetakoren bat egiten dutenean:

a) Energia berriztagarria ekoizteko proiektuetan parte hartzen dutenean, artikulu honetan zehaztutako estalduraren baliokide direnak ener-

gia ekoizpenaren eta emisio murrizketaren terminoetan. Gainera, Nafarroako administrazio publikoek, Nafarroako Energiaren Agentziak edo tokiko energia komunitateak sustatu eta kudeatu behar dituzte.

b) Urteko elektrizitate kontsumoaren % 40 bere instalazioari lotutako bestelako teknologia berriztagarriekin sortzea.

5. Eraikinetako eguzki energiaren instalazioa nahitaez sartuko da hirigintzako ordenantzetan ezartzen diren eraikuntza-baldintzen erregulazioan”.

Zioak: foru lege proiektuaren beste apartatu batzuetan egiten den moduan, proposatzen dugu betebeharrak zehatzak ezartzea eraikuntza berriko eraikinen teilatuetan sistema fotovoltaikoak instalatzeko eta eraikinen birgaitze osoak egiteko. Gainera, erregimen osagarri bat arautzen da instalazio horiek jartzea ezinezkoa duten kasuetarako, eta mekanismo alternatiboak ezarriko dira energia berriztagarria ekoizteko helburuak betetzeko.

89. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

23 quater artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“23. quater artikulua. Gainazalean aparkaleku handiak aprobetxatzea.

1. 500 metro karratu baino gehiagoko eremua okupatzen duten, eraikuntza berrikoak diren eta zuzkidura, merkataritza, hirugarren sektore edo industria erabilerekin lotutako titulartasun pribatuko aparkaleku guztien plazak eguzki xafla fotovoltaikoekin estali behar dira, albo batera utzi gabe azalera txikiagoak ere estaltzeko aukera.

2. Eraikita dauden titulartasun pribatuko aparkalekuen kasuan, 1.500 metro karratu edo gehiagoko eremua okupatzen badute eta, gainera, instalazio guztietan kontratatutako potentzia elektrikoa 50 kW-ekoa edo gehiagokoa izanez gero, gutxienez energia kontsumoaren % 50 estaltzeko energia berriztagarria sortzeko instalazioak gehitu behar dira, bai aparkalekuan, bai instalazioen estalkian.

3. Elektrizitate fotovoltaikoa sortzeko eguzki xaflekin estaliko dira hiri lurzoruko titulartasun publikoko aparkaleku guztien plazak, gainazalean kokatuta daudenak eta 1.000 metro karratu baino gehiagoko eremua okupatzen dutenak.

4. Babestu gabeko landa lurzoruan kokatutako aparkalekuetan energia berriztagarria sortzeko instalazioak gehitzeko betebeharrak ezartzen ahalko dituzte.

5. Hiri lurzoruko aparkalekuetan kokatutako energia berriztagarria ekoizteko instalazioak eta euskarriak eta elementu osagarriak ez dira hirigintzako okupazioan, eraikigarritasunean, mugekiko distantzian ezta altueran zenbatuko.

6. Betebeharrak horien eraginpeko titularrek edo, hala dagokionean, ustiatzaileek hirugarrenen bitartez eraikitzen eta kudeatzen ahalko dituzte instalazio horiek.

7. Udalerriek, txosten egokiaren bidez, artikulua honetan jasotako betebeharrak salbuespenak edo aldaketak ezartzen ahalko dizkiete teknikoki bideragarriak ez direlako, ez dagoelako nahikoa baliabide berriztagarriak edo paisaia edo ondarea babesteko. Salbuespen horiek hirigintzako udal planeamenduetan ere ezartzen ahalko dira, baina artikulua honetan jasotakora egokitu behar dira.

8. Artikulu honetako baldintza, betebeharrak eta salbuespenak erregelamenduz zehaztu eta garatuko dira, baina artikulua honetan araututako betebeharrak zuzenean aplikatu behar dira”.

Zioak: gainazaleko aparkalekuek energia fotovoltaikoa sortzeko duten potentziala kontuan hartuta, foru lege honetan titulartasun publiko zein pribatuko lurzoruetarako betebeharrak arautu behar dira. Modu horretan, zuzenean aplikatuko dira legezko arau berria indarrean jartzen denean.

90. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

24. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“24. artikulua. Dendroenergia.

1. Nafarroako Gobernuak bultzatuko du energia termiko berriztagarria sortzeko, erregulatutako eta biltegitratzeko instalazioak, erabilera partekatutakoak etxebizitza blokeetan, tokiko basogintzako biomasa baliatuko dutenak, ezarri eta ustiatzea, landa-ingurune tokiko erakundeen eta enpresen partaidetza ekonomikoaren eta biomasaren autokontsumoaren alde eginez.

2. Biomasa baliatzen duten instalazio termikoak aurrera eramateko eta baso biomasaren hornidura egiteko baimenak erraztuko dira erregelamenduz garatu ahala.

3. Hirigintza ordenantzetan ezarritako eraikuntza baldintzen erregulazioak ez du mugatuko dendroenergiaren instalazioa eraikinetan.

4. Bizitegi eta zerbitzu erabilerako eraikinen biomasaren hornidurak ziurtagiri bat izan behar du, hartan bermatzeko kontsumitzen duten lehengai guztia kontsumo-puntutik 100 km baino hurbilagotik lortu eta sortu dela. Energiaren arloko eskumena duen departamentuak garatuko du Nafarroako jatorriko biomasaren ziurtagiria emateko prozedura.

5. Baso suteak prebenitzeko eta basoak klima aldaketara egokitzeko kudeaketatik sortutakoak energia erabilerarako edo baso hondakinetarako onartuko dira, basoetan erregai karga murriztea eta baso masetan oinen dentsitatea murriztea barne”.

Zioak: hiru aldaketa hauek proposatzen ditugu:

– biomasa ez izatea hirietako barruti handietako energia iturria, baizik eta eraikinen bloke jakinetakoa.

– 100 km baino gutxiagoko distantzian eskuratu eta sortzea, horrela biomasaren kontsumo hurbilekoagoa errazteko eta ez eraginkor bihurtzen duten garraioak saihesteko.

– baso suteak prebenitzeko eta basoak klima aldaketara egokitzeko kudeaketatik sortutakoak energia erabilerarako edo baso hondakinetarako onartuak izatea, basoetan erregai karga murriztea eta baso masetan oinen dentsitatea murriztea barne.

91. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

24. artikuluan (Dendroenergia) 1. puntua aldatzeko zuzenketa.

“1. Nafarroako Gobernuak bultzatuko du energia termiko berriztagarria sortzeko, erregulatzeko eta biltegitzeko instalazioak, erabilera partekatukoak district heating erakoak, tokiko basogintzako biomasa baliatuko dutenak, ezarri eta ustiatzea, landa-ingurune tokiko erakunde eta enpresen partaidetza ekonomikoaren eta biomasaren autokontsumoa alde eginez. Zentralizazioak honako muga hau edukiko du: zentral bat eraikin-bloke bakoitzean”.

Zioak: berokuntza zentralizatuko instalazioek barrutika antolaturik bero galera izugarriak izaten dituzte, batez ere ur beroko sistema zentralizatuetan. Zentralizazioak eraikin-bloke bakoitzean izan behar du gehieneko muga.

92. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

24. artikuluan (Dendroenergia) 4. puntua aldatzeko zuzenketa.

“4. Bizitegi eta zerbitzu erabilerako eraikinen biomasaren hornidurak ziurtagiri bat izan behar du, hartan bermatzeko kontsumitzen duten lehengai guztia kontsumo-puntutik 30 km baino hurbilagotik lortu eta egin dela edo, bestela, lehengai horren garraioaren energia-kontsumoa ez dela iristen lehengaiaren balio energetikoaren % 20ra. Balantze energetikoan biomasaren garraioa ez ezik, ustiapena ere sartu behar da (mozketa, inausketa, ateratzea). Energiaren arloko eskumena duen departamentuak garatuko du Nafarroako jatorriko biomasaren ziurtagiria emateko prozedura”.

Zioak: baso ustiategitik kontsumo gunerainoko horniduraren luzerak gehienez ere 30 kilometrokoa izan behar du balantze energetikoa bideragarria izan dadin. Gainera, balantze energetikoan biomasaren garraioa ez ezik, ustiapena ere sartu behar da (mozketa, inausketa, ateratzea).

93. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

24. artikuluan (Dendroenergia) 5. puntua aldatzeko zuzenketa.

“5. Nekazaritza eta basoetako biomasaz energia sortzeari muga ipiniko zaio: dauden baliabideak soilik erabiltzea. Horrela neurritz edo ingurumeneko irizpideen eta irizpide sozialen arabera bideragarriak ez diren proiektuak ugaritzea eragoztiko da. Halaber, eragotzi behar da lurra labore bioenergetikoetarako erabiltzea, zuhaitz landatzea barne. Onargarriak izanen dira energia sortzeko edo baso-hondar gisa baso-suteak saihesteko

lanetan eta mendiak klima-aldaketara moldatzeko lanetan sortzen direnak hondarrak (lan hauen barruan sartzen dira mendietako erregai-karga murriztea eta baso-masako zuhaitzen dentsitatea arintzea)”.

Zioak: biomasa energia iturri berriztagarria izan daiteke eskala txikian; uste dugu mugak ezarri behar direla jarduera hori modu jasangarrian garatu ahal dadin.

94. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

24. artikulua atzean beste bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“24 bis. Gas berriztagarriak eta erregai alternatiboak

1. Nafarroako Gobernuak foru komunitatean gas berriztagarriak eta erregai alternatiboak sortzea sustatzeko tresnak prestatuko ditu. Gas berriztagarrien artean interes berezikoak izanen dira hidrogeno berdea, biogasa eta biometanoa, eta erregai alternatiboen artean sorburu sintetikoak dutenak. Sustapen-tresna horiek agenda eta bide-orri egokietan gauzatzeko dira.

2. Nafarroako Gobernua lankidetzan ariko da zentro teknologikoekin, unibertsitatearekin eta interesa duten gainera eragileekin gas berriztagarriak eta erregai alternatiboak garatzen eta aurreratzen.

3. Nafarroako Gobernuak gas berriztagarriak sortzeko eta erregai alternatiboak hornitzeko instalazioak sustatuko ditu”.

Zioak: Klima Aldaketari buruzko Foru Lege proiektuak I. kapituluaren (Energia berriztagarriak bultzatzea) zenbait artikulua eskaintzen die energia mota batzuei (energia hidroelektrikoa, eguzki-energia, haize-energia, dendroenergia...), baina etorkizunean garrantzi berezia izanen duten beste energia-bektore batzuk falta dira, hala nola gas berriztagarriak, batez ere hidrogeno berdea eta biometanoa, edota erregai alternatiboak.

Nafarroako Gobernua, beste tresna batzuen artean, Hidrogeno Berdearen Nafarroako Agenda sustatzen ari da, bai eta CENERekiko lankidetzaren ere erregai sintetikoaren arloan. Horregatik, eta etorkizunean izanen duten garrantziagatik, inpaktu handiko energia mota berriztagarri horiek berariaz identifikatu behar lirateke foru legean.

96. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

25. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratzeko litzateke:

“25. artikulua. Sorkuntza berriztagarriko proiektuak tokiko partaidetzarekin.

1. Nafarroako administrazio publikoek pizgarriak emanen dituzte eta sustatuko dute energia berriztagarriko instalazioetan tokiko partaidetza egon dadin eta bultzatzeko dute herritarren, energia berriztagarriko tokiko komunitateen eta gizarte zibileko beste erakunde batzuen komunitateen gaikuntza, energia berriztagarriko sistemen garapenean eta kudeaketan parte har dezaten sustatzeko.

2. Foru lege honen ondorioetarako, sorkuntza berriztagarriko proiektuak, tokiko partaidetza dutenak, izanen dira egiaztatzen dutenak zalan-tzarik gabe parte hartzeko aukera eman dietela instalazioa kokatu nahi den udalerriko edo udalerririk mugakideetako pertsona fisikoei edo juridikoei, publiko edo pribatuei, proiektuaren jabetzaren % 51n gutxienez eta gutxienez % 20ko partaidetza eraginkorra lortu beharko dute.

3. Proiektua merkataritza sozietate baten bidez bideratzen bada, proiektuaren jabetzaren % 40 bideratze-sozietatearen % 51 dela ulertuko da. Proiektu bakar bat sozietate batean baino gehiagotan bideratzen bada, tokiko inbertsioa irekitzen den zatia ez da inoiz izanen proiektua osatzen duten bideratze-sozietateen akzio edo partaidetza guztien balio nominal osoaren % 51 baino txikiagoa.

4. Tokiko partaidetza duten sorkuntza berriztagarriko proiektuak hartuko dira, orobat, herritarren energia-komunitatearen edo energia berriztagarriaren komunitatearen izaera duten erakundeek sustatutakoak, ordenamendu juridikoarekin bat.

5. Aurreko 2. eta 3. apartatuetako tokiko partaidetzarako eskaintza nahitaezkoa izanen da sorkuntza berriztagarriko proiektua lurzoru publikoan dagoenean. Interesa duten pertsona fisiko edo juridikoen kopurua ez bada % 40ra iristen, eskaintza zabalduko da udalerririk mugakideetako pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuentzat. Horrela ere ez bada iristen % 40ra, eskaintza eginen zaie Nafarroako pertsona fisiko edo juridiko publiko eta pribatuei.

6. Nafarroako Gobernuak, urtebeteko epean, ekintza plan bat sustatuko du Nafarroan herritarren energia-komunitateak edo energia berriztagarriak

rrien komunitateak ezar daitezzen bultzatzeko, toki erakundeekin elkarlanean, energiaren sorkuntza hurbilekoa garatzearen, sorkuntza banatua eta nafarrak “prosumitzaile” bihurtzea sustatuz.

7. Nafarroako Gobernuak bere kontura edo lurralde eremuko toki erakundeekin elkarlanean lursailen poltsa bat sortuko du eta lursailen jabeek eskuragarri jartzen ahalko dituzte artikulu honetan araututako energia berriztagarrien proiektuak garatzeko. Foru lege honen erregelamenduzko garapenak prestakuntzarako eta sarbiderako irizpideak eta betekizunak arautuko ditu”.

Zioak: idazketa hobetzeko eta ehunekoak aldatzeko proposatzen dugu; horiek erabiliko dira egiaztzeko proiektuaren jabetzan parte hartzeko aukera izan dutela instalazioa kokatu nahi den udalerrian edo ingurukoetan edo merkataritza sozietateetan (horien bitartez bideratzen badira) dauden pertsona fisiko eta juridikoei, publiko zein pribatuei. Modu horretan, tokiko partaidetzadun energia berriztagarria sortzeko proiektuak bezala kontuan hartuko dira. Ehuneko hori gehitzean, proiektua kokatuko den gizarte inguruarekiko konexioa eta harremana handituko dira eta energia sortzearen “demokratizazioa” ere handiago izanen da, izan ere, egungo oligopolio elektrikoaren kontrolatik aldentzeko da.

Proposatzen dugu artikuluan 5. paragrafoa ezabatzea, izan ere, bere edukia 18. artikuluan araututa dago eta sistematikoki hobe da artikulu horretan kokatzea eta ez 25.artikuluan.

7. apartatuan sorkuntza banatua sustatzeari eta Nafarroako herritarrek “prosumitzaile” bihurtzeko laguntzari erreferentzia egiten zaie. Sorkuntza banatua alternatiba teknologiko berri bat da, eta bere elkarreragitea handiagoa da, izan ere, eredu proaktiboagoa da eta erabiltzaileek, kontsumitzaiez gain, kontsumitutako ondasuna ekoizti edo bere konfigurazioan eragiten ahal dute. Horrek esan nahi du kontsumitzaile pasiboak prosumitzaile bihurtuko direla, hau da, ez dute bakarrik energia modu pasiboan kontsumituko, baizik eta energia propioa sortzen ahalko dute hornitzaileekin eta beste erabiltzaile batzuekin elkarreraginez. Rol berri horrekin autosufizientzia lortzen da, hau da, prosumitzaileak bere horniduran modu aktiboan jokatzeko du eta energia sortzeko modu berri horrek zehazten du iraunkortasuna eredu berriaren ezaugarri nagusia izatea. Orain dela hamarkada batzuk “prosumitzaile” terminoa erabili zuen Alvin Toffler-ek “Hirugarren olatua” liburu futuristan, eta ingelesezko producer (produktorea) eta consumer (kontsumitzailea) hitzak batuz sortutako hitza da.

Beste proposamen bat da Nafarroako Gobernuak bere kontura edo lurralde eremuko toki erakundeekin elkarlanean lursailen poltsa bat sortzea eta lursailen jabeek poltsa hori eskuragarri jartzen ahal izatea artikulu honetan araututako energia berriztagarrien proiektuak garatzeko. Erregelamenduzko garapenaren bidez arautuko dira prestakuntzarako eta sarbiderako irizpideak eta betekizunak.

97. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

25. artikuluan (Sorkuntza berriztagarriko proiektuak tokiko partaidetzarekin) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Foru lege honen ondorioetarako, sorkuntza berriztagarriko proiektuak, tokiko partaidetza dutenak, izanen dira egiaztatzen dutenak parte hartzeko aukera eman dietela instalazioa kokatu nahi den udalerriko edo udalerrri mugakideetako pertsona fisikoei edo juridikoei, publiko edo pribatuei, proiektuaren jabetzaren % 20an gutxienez”.

Zioak: gure iritziz, garrantzizkoa da ez mugatzea pertsona fisikoak eta juridikoak, baita publikoak eta juridikoak ere, izateko aukera.

98. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

25. artikuluan (Sorkuntza berriztagarriko proiektuak tokiko partaidetzarekin) 6. puntua aldatzeko zuzenketa:

“6. Aurreko 2. eta 3. apartatuetako tokiko partaidetzarako eskaintza nahitaezkoa izanen da sorkuntza berriztagarriko proiektua lurzoru publikoan dagoenean. Interesa duten pertsona fisiko edo juridikoen kopurua ez bada % 20ra iristen, eskaintza zabalduko da udalerrri mugakideetako pertsona fisiko eta juridiko publiko edo pribatuentzat. Horrela ere ez bada iristen % 20ra, eskaintza eginen zaie Nafarroako pertsona fisiko edo juridiko publiko eta pribatuei”.

Zioak: uste dugu potentzia muga bat ezartzeak ez duela zentzurik eta potentzia txikiagoko proiektuek ere tokiko partaidetzarako aukera izan behar luketela.

99. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

25. artikuluan (Sorkuntza berriztagarriako proiektuak tokiko partaidetzarekin) 7. puntua aldatzeko zuzenketa:

“7. Urtebete igaro baino lehen Nafarroako Gobernuak ekintza plan bat sustatuko du Nafarroan herritarren energia-komunitateak edo energia berriztagarrien komunitateak ezar daitezzen bultzatzeko, udalerriekin elkarlanean, energiaren sorkuntza hurbilekoa garatzearen”.

Zioak: kontuan izanda zein epe ditugun deskarbonizazioa lortzeko, garrantzitsua da administrazioek ekintza plan bat garatzea, arin garatu ere, autokontsumoa sustatzeko.

100. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

25 bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“25 bis artikulua. Kooperatibak, kontsumo taldeak eta hurbileko ekoizleak sustatzea.

Nafarroako administrazio publikoek jarduera ekonomikoa sustatzeko baldintzak erraztu behar dituzte eta zehazki kooperatibak, kontsumo taldeak edo hurbileko ekoizleak, eta hori guztia karbonoan baxua den ekonomia eta kilometro zero delako kontsumoa bultzatzeko. Arreta berezia jarriko zaie despopulatze handiena duten eskualdeei, gizarte eta lurralde kohesioaren printzipioak aplikatzeko”.

Zioak: proiektuaren 25. artikuluan arautzen diren komunitate energetikoez gain, beharrezkotzat jotzen da berariaz aipatzea hurbileko ekoizletzat jotzen diren energia kooperatiben sustapena. Horietan, “prosumitzaileak” izanen dira benetako protagonistak.

101. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

27. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“27. artikulua. Sistema termikoak bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikinetan.

1. Nafarroako Gobernuak ezarriko ditu behar diren bitartekoak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikin berrietan ezar ez dadin erregai fosilez hornitutako sistema termikorik.

2. 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera debekatuta egonen da hodi bidezko gas naturala banatzeko azpiegitura duten herrietan kokatuta dauden bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko egoitza eraikinetan gasolioa hornitzea. Nafarroako Gobernuak laguntza sistema ezarriko du errenta baxuak dituzten jabeek klimatizaziorako energia iturria aldatzeko aukera izateko.

3. 500 metro karratu baino gehiagoko oinplanoa duten eraikin berriek edo guztiz eraberritzen direnek edo erabilera aldatzen dutenek berokuntza edo ur bero sanitarioko sistemak instalatu behar dituzte; sistema horiek energia berriztagarrietan oinarrituta egonen dira eta gutxienez eskari bateratuaren % 50 beteko dute. Apartatu honetako betebeharrak betetzat joko dira eraikinen jabetzak foru lege honen 23 bis b) artikuluko 4. apartatuan ezarritako betekizunak betetzen dituztenak. Betebeharrak eta artikuluko honetako ezarritako kontsumo eta emisioen kalkuluak erregelamenduzko garapen bitartez ezarriko dira.

4. Bizitegi kolektiboko erabilerako eraikinetako galdara guztien gutxieneko errendimenduak, karga osoan, % 80koa izan behar du 2025ean, eta % 85ekoa 2030ean, goiko berotze ahalmena dela erreferentzia.

5. Debekaturik dago sarrerako ateak etengabe zabalik izatea aire-girotze artifiziala duten hirugarren erabilerako lokaletan.

6. Espazio irekietan, aire-girotzea baimenduta egonen da bakarrik jarduera orokorraren parte izan eta horretan dagoen energia kontsumo guztia egiten bada autokontsumoaren bidez edo energia berriztagarri ziurtatua kontratatuz”.

Zioak: beharrezkoa da trantsizio energetikoan nahi gehiago adieraztea, eta horretarako proposatzen dugu gasolioaren hornidura 2027rako debekatzea kanalizazio bidez gas naturala banatzeko azpiegitura duten biztanleria eremuetako egoitzazko eraikinetan eta hirugarren sektoreko eraikinetan. Horrez gain, proposatzen dugu laguntzak onestea errenta baxuak dituzten jabeek klimatizaziorako energia iturriak aldatzen ahal izateko. Beste proposamen bat da 500 metro karratu baino gehiagoko oinplanoa duten eraikin berriek, guztiz eraberritzen direnek edo erabilera aldatzen dutenek berokuntza edo ur bero sanitarioko sistemak instalatu beharra izatea; sistema horiek ener-

gia berriztagarrietan oinarrituta egonen dira eta gutxienez eskari bateratuaren % 50 beteko dute.

102. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27. artikuluan (Sistema termikoak bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikinetan) 1. puntua aldatzeko zuzenketa.

“1. Nafarroako Gobernuak ezarriko ditu behar diren bitartekoak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera bizitegi-erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikin berrietan ezar ez dadin erregai fosilez hornitutako sistema termikorik”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela eraikitzen diren etxebizitza berrietatik erregai fosilak ezabatzeko epeak laburtzea, klima larrialdian baikaude.

103. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27. artikuluan (Sistema termikoak bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikinetan) 1. apartatuaren paragrafo bat aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria.

“2030eko urtarrilaren 1etik aurrera bizitegi-eraikin eta hirugarren sektoreko eraikin berrietan ezin instalatu izanen da erregai fosilik darabilen sistema termikorik”.

Zioak: Badugu jada energia berriztagarriaren iturriak baliatzeko teknologia eskuragarria, bizitegi eta zerbitzuetarako erabilera duten eraikinek energia fosilik erabil ez dezaten. Epe nahiko luzeak ezarri behar dira, energia fosilen iturrietan oinarritutako eraikinak diseinatzea saihesteko.

104. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27. artikuluan (Sistema termikoak bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikinetan) 2. puntua aldatzeko zuzenketa.

“2. Nafarroako Gobernuak bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikinetan gasolioaren horniduraren ordezkari aukerak sustatuko ditu, energia berriztagarrietan oinarritutakoak. Horretarako, laguntza lerro bat ezarriko du, erregai fosilak

erabiltzen dituzten sistema guztiak 2030a baino lehen aldatzea lortzeko”.

Zioak: garrantzitsua da Nafarroako Gobernuak herritarrei laguntzea erregai fosiletan oinarritutako sistemen ordezkari energia berriztagarrietan oinarritutako beste batzuk jartzen; kasu honetan, gas naturala erregai fosiltzat jotzen dugu.

105. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

27. artikuluan (Sistema termikoak bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikinetan) 2. puntua aldatzeko zuzenketa.

“2. 2025etik aurrera debekatuta egonen da gasolioa hornitzea hodi bidezko gas naturala banatzeko azpiegitura duten herrietako bizitegi-eraikinei eta hirugarren sektoreko eraikinei. Nafarroako Gobernuak sistema bat ezarriko du laguntzak emateko errenta baxuko jabeek klimatizazioaren energia-iturria aldatu ahal izateko”.

Zioak: denbora mugak edo epeak ezarri behar dira bizitegitarako eta hirugarren sektoreko eraikinetan gasolio-hornidura debekatzeko.

106. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

27. artikulua (Sistema termikoak bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikinetan) aldatzeko zuzenketa. 5. apartatua kentzea.

Zioak: espazio irekietan aire-giroitzeak ez du zentzurik eta baliabideak alferrik xahutzen ditu. Ez da energia alferrik kontsumitu behar, energia iturri berriztagarrietatik ekoitzia izan arren.

107. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA
GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK,
ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

27. artikuluar (Sistema termikoak bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikinetan) apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2023ko urtarrilaren 1etik aurrera berokuntzako, ur bero sanitarioko edo hozkuntzako instalazio zentralizatua ez duten bizitegi-eraikinetan honako hauek egon beharko dira:

a) Kalaria-kontagailua galdara-aretoaren irteeran.

c) Eguzki-instalazio termikoa badago, eguzki-kolektore termikoen ekarpenak erregistratzen dituen kalaria-kontagailua”.

Zioak: Bizitegi eta zerbitzu sektorean, energia kontsumoa eta berak eragiten dituen isurketak murriztea lortzen da eraikinak isolatuz eta sistema termikoen efizientzia sustatuz. Derrigortasun honek erraztu egingen ditu ikuskapen lanak, sistema termikoen kudeaketa efizientea bermatzeko eta, azken batean, efizientzia energetikoaren maila hobek lortzeko.

108. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

28. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“28. artikulua. Efizientzia energetikoa eraikuntzan.

1. 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen, bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko Nafarroako eraikin guztiek izan behar dute kalifikazio energetikoaren ziurtagiria, Nafarroako ziurtagirien Erregistro publikoan erregistratua. Horretarako, energia-ziurtagirien gaitasunaren eskumena duen departamentuak laguntza-ildo bat zabalduko du, ziurtagiriak egiteko 2022an, 2023an eta 2024an.

2. Nafarroako Gobernuak erregelamenduz ezarriko du eraikuntza berrien eta egungoen efizientzia energetikoaren ziurtagiriek jaso beharreko informazio osagarria, estatuko oinarriko legeriarekin bat, horiek eskatzen ahal direnean. Edonola ere, efizientzia energetikoaren ziurtagiriek eraikinaren eraikuntza gastuaren informazioa eta gutxienez efizientzia energetikoa hobetzeko

hiru proposamen jaso beharko dituzte eta horien barne egonen da inbertsioa berreskuratzeko epeen edo bizi erabilgarriko zikloaren errentagarritasunaren estimazioa.

3) 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen Nafarroako Gobernuak bitartekoak ezarriko ditu 2030eko urtarrilaren 1etik aurrera Nafarroako bizitegi kolektiboko eraikinek B mailako edo goragoko kalifikazio energetikoa izan dezaten.

4. 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen, Nafarroako Gobernuak Nafarroako etxebizitzak birgaitzeko plan bat onetsiko du, aurreko apartatuan aurreikusten den helburua erdiesteko. Plan hori bat etorriko da Eraikuntzaren Sektorerako Birgaitze Energetikoaren epe luzeko Espainiako 2020ko Estrategiarekin eta Energia eta Klimarako Plan Nazional Bateratuarekin (2021-2030)”.

Zioak: apartatu berri bat gehitu da efizientzia energetikoaren ziurtagiriaren edukiari buruz, eta halaber beharrezkotzat jotzen dugu Nafarroako Etxebizitzen Birgaitze Plana onesteko epeak are gehiago aurreratzea, helburu hau lortzeko: 2030eko urtarrilaren 1etik aurrera Nafarroako etxebizitza kolektiboen eraikinek B mailako energia ziurtagiria edo handiagoko izatea.

109. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

28. artikuluan (Sistema termikoak bizitegi erabilerako eta hirugarren sektoreko eraikinetan) 2. puntua aldatzeko zuzenketa.

“2. Nafarroako Gobernuak laguntza lerroa ezarriko du 2030eko urtarrilaren 1etik aurrera Nafarroako bizitegi kolektiboko eraikinek C mailako edo goragoko kalifikazio energetikoa izan dezaten”.

Zioak: garrantzitsua da Nafarroako Gobernuak herritarrei laguntzea eraikinen efizientzia energetikoa hobetzen.

110. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

28. artikuluan (Efizientzia energetikoa eraikuntzan) 3. puntua aldatzeko zuzenketa:

“3. 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen Nafarroako Gobernuak Nafarroako etxebizitzak birgaitzeko plan bat onetsiko du, aurreko apartatuan aurreikusten den helburua erdiesteko. Plan hori bat etorriko da Eraikuntzaren Sektorerako Birgai-

tze Energetikoaren epe luzeko Espainiako 2020ko Estrategiarekin eta Energia eta Klimarako Plan Nazional Bateratuarekin (2021-2030)”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela izapide guztiak bizkortzea, klima larrialdian gaudelako.

111. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

28. artikuluari (Efizientzia energetikoa eraikuntzan) bi puntu gehitzeko zuzenketa:

“4. Nafarroako Gobernuak pizgarriak ezarriko ditu efizientzia energetikoa hobetzeko eta iturri berriztagarriko sistema energetikoak ipintzeko Nafarroako eraikin guztietan, bai birgaitzen direnentan, bai eraikitzen diren berrietan.

5. Eraikin berri guztietan estalkiaren azalera-aren, orientazioaren eta aurreikusten den kontsumoaren arabera autokontsumo elektrikoa ezarriko da, helburua izanik autokontsumo berriztagarria % 50ekoa izatea”.

Zioak: estalkien erabilera bermatzea, autokontsumoa eta energia-efizientzia sustatzeko.

112. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

28. artikuluari (Efizientzia energetikoa eraikuntzan) 4. puntua gehitzeko zuzenketa:

“4. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera eraikin berri guztiek autokontsumo elektrikoa izan behar dute, estalkiaren azalera-aren, orientazioaren eta aurreikusten den kontsumoaren proportzionala. Helburua da ahalik eta estaldura handiena lortzea energia berriztagarrien autokontsumoaren bitartez”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela urratsak egitea eraikin berrietan autokontsumo sistemak instalatzeko.

113. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

28 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“28 bis artikulua. Eraikuntzetako energia berriztagarriak.

Etxebizitza babestuak eta libreak eraikitzean derrigorrezkoak izanen dira energia berriztagarria sortzen duten instalazioak eta autokontsumo partekatukoak edo indibidualekoak. Iturri berriztagarrietatik sortutako energia instalazioen baldintzak eta ehunekoak Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoekiko koherenteak eta osagarriak izanen dira eta erregelamenduz zehaztuko ditu energiaren arloan eskuduna den departamentuak bi urteko epean”.

Zioak: beharrezkoa da derrigorra izatea etxebizitza babestuak eta libreak eraikitzean energia berriztagarria sortzen duten instalazioak eta autokontsumo partekatukoak edo indibidualekoak instalatzea.

114. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

28 ter artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“28 ter artikulua. Lizentziak ematea.

1. Ez da lehen okupazioko lizentziarik emanen eraikin berrientzat aurretiaz 29. artikuluan adierazitako efizientzia energetikoaren ziurtagiririk izan gabe; ziurtagiria, halaber, zuzen inskribatuta egon behar da.

2. Horrez gain, ez da teknikariaren obra bukarako ziurtagiririk emanen birgaitze, erreforma edo erabilera aldaketa obretarako aurretiaz zuzen inskribatutako efizientzia energetikoaren ziurtagiririk izan gabe.

3. Aurreko puntuetan ezarritakoa estatuko oinarriko legeriarekin bat efizientzia energetikoaren ziurtagiria izan behar duten kasuetan aplikatu da.

4. Araudi honek ez die eraginen obren udal lizentziei, lehen okupazioko lizentziei, eraberritze, erreforma edo erabilera aldaketa lizentziei eta foru lege hau indarrean jarri aurretik eskatutako efizientzia energetikoaren ziurtagirien inskripzioari”.

Zioak: artikulua berri bat gehitu da, foru legea indarrean jartzen denetik aurrera egiten diren obren efizientzia energetikoaren ziurtagiriei buruzkoa. Horren arabera, ziurtagiriak inskribatu arte ez da posible izan lehen okupazioko lizentzia edo obraren azken ziurtagiria ematea.

115. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

29. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“29. artikulua. Efizientzia energetikoa kanpoko argiztapenean.

1. Nafarroako administrazio publikoek, dagozkien eskumenak egikaritzuz, energia kontsumoa gutxitzen duen argiteria publikoa izanen dute.

2. Kanpoko argiteria publiko eta pribatuari dagokionez, kanpoko argiteriako instalazio berriak honako helburu hauekin diseinatu eta instalatuko dira:

a) Gaueko orduen baldintza naturalak mantentzea ekosistemen onurarako, bereziki balio astronomiko eta natural handiagoa duten eremuetan.

b) Kanpoko argiteriaren efizientzia energetikoa sustatzea energia aurreztuz eta argiteria kudeatzeko sistema adimendunak garatuz eta instalazio berriztagarrietan sortutako energia hornitzea, lehenetsunez titulartasun publikokoak.

c) Etxe inguruetan argiteria intrusioa saihestea, herritarrentzako enbarazuak eta kalteak gutxituz eta osasun publikorako arrisku posibleak murriztuz.

d) Argi-kutsadurak zerua ikusteko sortzen dituen ondorioak prebenitzea eta zuzentzea.

3. Aurreko apartatuko ondorioetarako, Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenak egikaritzuz eta kanpoko argiteriaren efizientzia energetikoaren araudiak ezarritakoarekin bat, honako hauek bermatzeko jarduketak gauzatuko dituzte:

a) Indarreko erregelamenduen araudian eta jarraibide teknikoetan ezarritako betekizun teknikoak betetzea, kanpoko argiteria instalazioen diseinuarekin, egikaritzearekin, zerbitzuan jartzearekin eta mantentzearekin lotuta.

b) Energia efizientzia eta aurrezpena kanpoko argiteria instalazioetan. Horretarako, argiteria publikoko sareak modu arrazional eta arduratsuan diseinatzeko laguntza eta sustapena emanen dira, baita ezarpenerako edo sare horietako ekipo eta instalazio zaharkituak ordezkatzeko ere.

c) Erregelamenduzko betebeharrak betetzea kanpo argiteriako instalazioen kalifikazio energetikoarekin lotuta, gutxienez A kalifikazio energetikoa izateko sektorearen araudi espezifikoren arabera.

d) Erregelamenduzko mugak betetzea gaueko argi-distirari eta kanpoko argiteria-instalazioetatik datorren argi sarkor edo gogaikarriari dagokienez.

e) Erregelamenduzko gehieneko argiztapen eta iluminantzia mailak eta kanpoko argiteria moten arabera baimendutako gutxieneko uniformetasuna betetzea.

f) Ezartzen diren kanpoko argiteria instalazioen funtzionamenduko araubideak betetzea.

g) Kanpoko argiteriaren instalazioak hasieran eta aldian-aldian ikuskatzea eta egiaztatzea eta mantentzea egokia dela ikuskatzea.

h) Zehapen araubidea ezartzea administrazio publikoei eta/edo betebeharrak betetzen ez dituzten arduradunei, indarreko legerian jasota daudenak eta horretarako justifikaziorik izan gabe.

4. Nafarroako udalek argi kutsaduraren aurreko babeserako maila zorrotzagoak ezartzen ahalko dituzte udalerrietan balio astronomiko edo natural berezia duten eremuetan. Bestalde, 4 urteko epean foru lege honen xedapenei eta erregelamenduz ezarriko direnei egokitzeko plan bat onetsiko dute, udalerriko kanpoko argiteria publikoarekin lotuta.

5. Aurreko apartatuan aipatutako egokitzapen planak, beste batzuen artean, alderdi hauek izan behar dituzte:

a) Udalerriko kanpoko argiteria publikoaren analisia.

b) Argiteria publikoko sareen egokitzapena eta modernizazioa errazteko jarduketa zehatzak.

c) Aipatu sareak egokitzeko jarduketan aurreikusitako egutegia, argi kutsaduraren intzidentzia eta energia kontsumoa murriztea lehenetsiz.

6. Aurreko apartatuak betetzea errazteko, erakunde eta administrazio eskudunek idatzitako zehaztapen teknikoen laburpena argitaratuko da.

7. Kanpoko argiteria instalazio berriek eta jada instalatuta dauden eta handitzen edo aldatzen diren instalazioek beti erabiliko dute merkatuan eskuragarri dagoen teknologia efizienteena energia elektrikoa argi energia bihurtzeko. Modu horretan, aldaketa horiek bermatu beharko dute argi errendimendua aldatzen denarekin alderatuta berdina edo handiagoa dela.

8. Apainketarako, publizitaterako edo merkataritzako argiztapen guztiek itzalita egon beharko dute gauez, jarduera gutxitzen den garaian. Salbuespenak eta ezinbesteko egoerak salbu, ordutegi murriztu hori gauerdia baino lehen hasi beharko da. Salbuespenak erregelamenduz

ezarriko ditu energiaren arloko eskumenak dituen departamentuak.

9. 2030eko urtarrilaren 1a baino lehen, instalazio berezi guztietan, esaterako segurtasun-instalazioetan, oinezkoen pasabideen errefortzurako instalazioetan, eta, beharrezkoa denean, hiri arteko bideetako bidegurutzeetako eta autobide nahiz autobietako sarbideetako instalazioetan, horietan guztietan, presentzia detektatzeko gailuak ezarri beharko dira, merkatuan diren sistemarik fidagarrienak erabiliz (eskuzko eragingailuak barne). Instalazio horiek, berez une puntualetan bakarrik erabiltzen direnak, itzalita egon beharko dute, haien erabilera beharrezkoa ez denean. Argiztapeneko arau hauek Nafarroako Errepide Sarean baizik ez dira nahitaez bete beharko.

10. Erregelamenduz ezarriko dira foru lege honek ezartzen dituen betebeharrak betetzeko salbuespenak eta gaueko ordutegia.

11. Artikulu honetan aipatutako helburuak Nafarroa osoan betetzeko, Nafarroako Gobernuko departamentuek argiteria publikoko sistemak ordeztu edo egokitzea errazteko laguntzen deialdiak, azterketak, kanpainak eta plan publikoak onetsiko dituzte, eta bereziki baliabide gutxiago eta efizientzia energetikoko edo argi kutsadura arazoak dituzten udalerrientzat”.

Zioak: proiektuan 29. artikulua idazketa osatu behar da, izan ere, gai horretan administrazio publikoek jarduteko eskumen osoak dituzte, besteak beste energiaren aurrezpenean, erabilera egokian eta aprobetxamenduan. Kanpo argiteriaren energia efizientziarekin lotuta administrazio horiek bete beharreko helburuak zehaztu dira.

116. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

29.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Kanpoko argiteria instalazio berriek eta jada instalatuta dauden eta handitzen edo aldatzen diren instalazioek beti erabiliko dute merkatuan eskuragarri dagoen teknologia efizienteena energia elektrikoa argi energia bihurtzeko. Modu horretan, aldaketa horiek bermatuko dute argi errendimendua aldatzen denarekin alderatuta berdina edo handiago dela”.

Zioak: proiektuaren 29. artikulua 2. apartatuan jaso bezala, potentziaren edo argien % 50 baino gehiagori eragiten dieten aldakuntzen mugarekin, arautu gabe geratzen ahal dira poten-

tzia % 50 baino gutxiagori eragiten dieten aldaketak, eta ondorioz, etorkizuneko aldakuntza azpioptimoak gertatzen ahalko dira. Gure proposamena da apartatu hori errendimendua kontuan hartuta idaztea eta aipatzea aldaketa guztiek (potentziaren edo argien frakzioa albo batera utzita) bermatu beharko dutela argiaren errendimendua ordezkatzeko denaren berdina edo handiago dela.

117. ZUZENKETA

29. artikuluan (Efizientzia energetikoa kanpoko argiztapenean) 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. Kanpoko argiztapeneko instalazio berriak, argiztatzeko gailuak eta gainazaleko materialak diseinatu eta instalatzean lehentasunezko helburuak honako hauek izanen dira: energia aurreztea, energia modu egokian erabiltzea eta aprobetxatzea, argi-kutsadurarik ez sortzea, basa faunaren gaineko eragina eta gizakiaren osasunerako balizko arriskuak ahalik eta txikiak izatea. Betiere, araudia eta indarreko erregelamenduetako jarraibide teknikoak beteko dira”.

Zioak: garatu behar litzateke nola saihestuko den argi-kutsadura, eta ez kanpoko ohiko argiztapenean bakarrik, zeren hiri eremuetan erabiltzen diren gainazaleko material mota guztiei eragiten baitie.

118. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

29. artikuluan (Efizientzia energetikoa kanpoko argiztapenean) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Kanpoko argiztapeneko instalazio berriek, bai eta handitzen diren lehengo instalazioek, edo aldatzen diren instalazioek, energia elektrikoa argi-energia bihurtzeko, beti erabili beharko dute merkatuan eskura dagoen teknologiarik efizienteena. Irizpide hau bermatzeko, gutxienez 'A' kalifikazio energetikoa izan beharko dute, sektoreko berriazko arautegiaren arabera”.

Zioak: uste dugu beti erabili behar dela ahalik eta teknologiarik onena energia elektrikoa argi energia bilakatzeko, egiten den aldaketa edozein dela ere.

119. ZUZENKETA

**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

29. artikuluan (Efizientzia energetikoa kanpoko argiztapenean) 3. eta 4. puntuak aldatzeko zuzenketa. Hona testu berriak:

“3. Apainketarako, publizitaterako edo merkataritzako argiztapen guztiek itzalita egon beharko dute gauez, jarduera gutxitzen den garaian. Salbuespenak eta ezinbesteko egoerak salbu, ordutegi murriztu hori gauerdia baino lehen hasi beharko da. Salbuespenak erregelamenduz ezarriko ditu energiaren arloko eskumenak dituen departamentuak. Neguko solstizioko apaindurariak ez dira salbuespentzat hartuko.

4. 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen”.

Zioak: hirugarren puntuak zehatz definitu behar luke gaueko ordutegia, eta gaueko hamarretatik egunsentira artekoa izan behar luke. Gainera, salbuespenen zerrendatik kendu behar litzateke neguko solstizioko edo Eguberrietako argiztapen apaingarria.

Laugarren puntua betetzeko epea laburtu egin behar litzateke, eta 2025eko urtarrilaren 1a proposatzen da mugaegun gisa.

120. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

30. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“30. artikulua. Mugikortasun jasangarria bultzatzea.

Nafarroako administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, mugikortasun jasangarria sustatzeko neurriak hartuko dituzte, horien bidez erdietsi ahal izateko zenbait helburu, mugikortasunaren eta garraioaren sektorean, berotegi-efektuko gasen isurketen murrizketari dagokionez, foru lege honetan jasotzen diren helburuekin bat datozenak.

2. Nafarroako administrazio publikoek mugikortasun eta garraioaren arloan beteko dituzten politiken oinarriko printzipioak hauek dira:

a) Desplazamenduen banaketa modalean mugikortasun pribatu eta motordunaren pisua gutxitzea.

b) Motorrik gabeko mugikortasuna, bereziki hiriguneetan.

c) Hiriko eta hiri arteko garraio publiko kolektibo eta partikularren artean partekatutako ibilgailuak eta intermodalitatea sustatzea.

d) Oinezkoen eta bizikleten mugikortasun aktiboak sustatzea.

e) Bidaiarien eta salgaien errepidetik trenbiderako aldaketa modala sustatzea.

f) Irisgarritasuna hobetzea.

g) Segurtasuna hobetzea.

h) Energiaren kontsumoa murriztea eta zero isurketako ibilgailuetarako trantsizioa.

3. Administrazio publikoek koordinatuta jardunen dute. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio jarduteko lerro estrategikoak ezartzea eta koordinatzea. Horretarako, Nafarroako Mugikortasun Jasangarriko Plan Zuzentzailea onetsi eta egikaritu du. Plan horretan gehituko dira foru lege honetan ezarritako printzipioak eta isurketak gutxitzeko eta itxaroten diren helburuak betetzeko neurri espezifikoak zehaztuko dira. 10.000 biztanle baino gehiagoko biziguneak bidegorrien bitartez konektatuta egonen dira 10 km-ra arteko distantziara dauden hurbileko biztanleria nukleoekin.

4. Garraio arloan eskuduna den departamentuak bi urtean behin mugikortasun jasangarriko helburuen jarraipen txostena egingen du.

5. Mugikortasun jasangarriari bultzada eman beharko zaio genero ikuspegia kontuan hartuz, hau da, emakumeen eta gizonen mugikortasun eredu desberdinak aintzat hartuta”.

Zioak: artikulua testua hobetzea eta testu osagarriak gehitzea joan-etorrien banaketa modalaren mugikortasun pribatuaren eta motorizatuaren pisua murriztearekin eta motorizatu gabeko mugikortasunaren mugarekin lotuta, bereziki hiri barneetarako. Horrez gain, 10.000 biztanle baino gehiagoko biziguneak bidegorrien bitartez konektatuta egonen dira 10 km-ra arteko distantziara dauden hurbileko biztanleria nukleoekin, eta modu horretan sustatuko da bizikleta erabiliz hirigune horiekin konektatzeko aukera.

121. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

30. artikuluan (Mugikortasun jasangarria bultzatzea) 2. puntuko b) letra aldatzeko zuzenketa:

“b). Hiriko eta hiri arteko garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea, arreta berezia jarriz landa eremuko herriei”.

Zioak: uste dugu landa inguruneen berezitasuna aintzat hartu behar dela ingurune horietan garraio publikoa sustatzeko garaian.

122. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

30. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Mugikortasun jasangarria bultzatzea.

“3. Administrazio publikoek koordinatuta jarduten dute. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio ezartzea eta koordinatzea jarduteko ildo estrategikoak eta lortu beharreko helburuak, 2019an onetsitako Nafarroako Mugikortasun Jasangarrirako Plan Gidaria betearaziz, behar berriei egokituta, hala behar den guztietan”.

Zioak: ez dugu ulertzen zergatik puntu honetan Nafarroako Mugikortasun Jasangarrirako Plan Gidaria onestea aipatzen den, 2019an onetsi baitzen; hura betearazi besterik ez da egin behar, eta eguneratu, beharrezkoa bada.

123. ZUZENKETA

**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

30. artikuluari (Mugikortasun jasangarria bultzatzea) bi puntu gehitzeko zuzenketa:

“5. Zerga-zehapena ezarriko zaie 1.000 kilometrotik beherako aireko ibilbideei. Hiru urtetik beherako tren-bidaiaren aukera duten aire-zubiak eta aireko ibilbideak ezabatuko dira.

6. Garraio publiko kolektiboa edukiko dute 100 biztanletik gorako herrigune guztiek. Behar izanez gero, eskola garraioa, kirol garraioa eta eskualdeko garraio publikoa bateratzeko sinergiak bultzatuko dira”.

Zioak: aireko garraioa garraio mota kutsaizailenetakoa da, eta oraingoz, behintzat, ez du ordezeko erregairik; beraz, gutxiago kutsatzen duten garraio bideak erabiltzeko pizgarriak eman behar dira. Europako iparraldean, Frantzia, Holanda eta beste herrialde batzuetan bezala, flygskam edo hegazkinez bidaiatzeko lotsa sustatu behar da.

Bestalde, landa aldeetako jendegabetzearen eragile nagusietako bat garraio publikoaren gabezia da. Jendegabetzeak ondare material nahiz immaterialaren eta giza kolektiboaren nortasunaren galera dakar, eta biztanleak behartzen ditu banakako garraio bideak erabiltzera, ahal badute. Bazterrean gelditzen dira haurrak, minusbaliatuak, zaharrak eta kolektibo behartsuak.

124. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

31. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“31. artikulua. Mugikortasun jasangarrirako planak.

1. 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek, banaka nahiz beste udalerririk mugakide batzuekin batera, mugikortasun jasangarrirako planak egin edo orain dituztenak eguneratuko dituzte foru lege hau indarrean jarri eta bi urteko epean gehienez. Plan horietan edonola ere kutsadura atmosferikoko eta berotegi-efektuko gasen emisioen adierazleak, azpiegituren zaurgarritasuna, horiek gutxitzeko helburuak eta helburuok betetzeko neurri espezifikoak sartuko dira.

2. Iruñerriko bidaiarien garraio publiko erregularraren zerbitzuan sartuta dauden udalerririk, ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legean xedatutakoaren arabera, eta Iruñerriko Mankomunitateak, batera eta koordinatuta, mugikortasun jasangarrirako plan bat eginen dute, gutxienik ere zerbitzu horren lurralde esparrua hartzen duena, edo orain dutena eguneratuko dute, bi urteko epean foru lege honek indarra hartzen duenetik.

Beti ere, plan hori egin eta onetsiko da inplikaturako administrazioek dituzten eskumenak errespetatuz, eta administrazio bakoitzak aurreikusten dituen neurriak bultzatu eta betetzea kontrolatzeko bideak ezarri beharko dira.

3. Eskualdeek, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 361. artikulua emandako eskumenen esparruan, eskualdeko mugikortasun planak egiten

ahalko dituzte eskualdearen parte diren udalerriekin dituzten eskumenen esparruan, betiere bat etorrita mugikortasun jasangarrirako udal planekin, 1. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

4. Mugikortasun jasangarrirako planetan jaso beharko dira mugikortasunak eragindako isurketen murrizketarako arintze neurriak, gutxienik ere honako hauek:

a) Isurketa gutxiko eremuak ezartzea 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan.

b) Oinez eta bizikletaz egiten den mugikortasun aktiboa sustatzeko neurriak.

c) Erabilera orokorreko bidaiari-garraio publikoaren zerbitzuak sustatu eta hobetzeko neurriak, eta intermodalitatea sustatzekoak.

d) Garraio publikoaren zerbitzuak elektrifikatzeko neurriak, bai eta berotegi-efektuko gasen isurketa baxuko erregaiak erabiltzekoak ere.

e) Mugikortasun elektrikoa bultzatzeko neurriak.

f) Salgaien banaketan isurketak murrizteko arintze neurriak 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan.

g) Lanerako mugikortasun jasangarria bultzatzeko neurriak.

5. Mugikortasun jasangarrirako planen indarraldia zortzi urtekoa izanen da eta bi urtean behin betetzearen jarraipena egiten da. Izapidetze prozesua erregelamenduz garatuko dute mugikortasun eta garraio arloan eskudunak diren departamentuek.

6. Udalek bermatu egiten dute hirigintzako udal plangintzaren eta mugikortasun jasangarrirako planen arteko koordinazioa”.

Zioak: artikulua idazketa hobetzea. Proposatzen dugu planak bi urteko epean egitea, izan ere, premiazkoa da alor horretan ere neurriak ahalik eta azkarren ezartzea. Ez gaude ados (eta horregatik proposatu dugu ezabatzea) udalerririk bat baino gehiagoko eremua duten planen kasuan, edukia onetsi aurretik foru administrazioaren kontsulta organoek aztertu beharrezkin, izan ere, gure ustez horrek udal autonomia mugatzen du eta autonomia horretan esku-hartzen da.

Mugikortasun jasangarrirako planetan emisio baxuko zonak ezartzeko udalerririk biztanleria gutxi da, 25.000tik 10.000ra. Nafarroako udalerririk biztanleria tamainara egokitu da.

Proiektuaren artikulua horren 4 d) apartatuan jasota dago klima aldaketa arintzeko neurri bat

dela berotegi-efektuko gasen emisiorik sortzen ez duten erregaiak erabiltzea, “besteak beste biometanoa”. Biometanoaren errekuntzak bai, sortzen ditu BEGak, tartean CO2-a. Testua aldatzea proposatzen dugu eta biometanoa gehitu nahi bada, “berotegi-efektuko gasen emisio gutxi sortzen dituzten erregaiak” idaztea.

125. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

31. artikuluan (Mugikortasun jasangarrirako planak) 1. puntua aldatzeko zuzenketa:

“1. Udalerririk, banaka nahiz beste udalerririk mugakide batzuekin batera, mugikortasun jasangarrirako planak egin edo orain dituztenak eguneratuko dituzte bi urteko epean gehienez”.

Zioak: uste dugu udalerririk guztiek izan behar dituztela mugikortasun jasangarrirako planak, biztanle kopurua gorabehera.

126. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

31. artikuluan (Mugikortasun jasangarrirako planak) 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerririk mugikortasun jasangarrirako planak egiten dituzte, banaka nahiz beste udalerririk mugakide batzuekin batera, edo badituztenak eguneratuko dituzte, eta bi urteren buruan, gehienez, planean ezarritako neurrien eta helburuen jarraipena egiten dute”.

Zioak: klima larrialdiko egoera ikusirik, epeak laburtu behar dira, are gehiago hiri mugikortasun jasangarrirako planak baditugularik dagoeneko; plan horiek ebaluatu eta berrikusi behar lirateke, inplementatzen jarraitzeko.

127. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

31. artikuluan (Mugikortasun jasangarrirako planak) 3. puntua aldatzeko zuzenketa:

“3. Nafarroako Gobernuak laguntza lerro bat ezarriko du udalerriek beren mugikortasun jasangarrirako planak prestatu edo eguneratu ditzaten 1. apartatuan ezarritako epean”.

Zioak: jatorrizko 3. puntuak ez zuen zentzurik, ez zelako aplikatzen ari uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen 361. artikulua, eta haren ordeze beste testu bat jarri dugu, alegia, Nafarroako Gobernuak udalerriei lagundu behar diela beren mugikortasun jasangarrirako planak egiten.

128. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

31. artikuluan (Mugikortasun jasangarrirako planak) 4 a) puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“a) Isurketa gutxiko eremuak ezartzea 15.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan”.

Zioak: 25.000 biztanletik gorako udalerrien atalasea ez da egokia (nahiz eta Estatuko legeak ezarritakoaren erdia izan), bi udalerriri bakarrik eragiten dielako: Iruñari eta Tuterari (Nafarroako biztanleria osoaren % 36,5).

129. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

31. artikuluan (Mugikortasun jasangarrirako planak) 4. puntuko d) letra aldatzeko zuzenketa:

“d) Garraio publikoaren zerbitzuak elektrifikatzeko neurriak, bai eta berotegi-efektuko gasen isurketa txikiko erregaiak erabiltzekoak ere, biometanoa, adibidez”.

Zioak: biometanoaren errekuntzak sortzen ditu, bai, berotegi-efektuko gasak eta ondorioz CO2-a. Beraz, ez da zuzena paragrafo hori, eta pixka bat aldatu da errealitatearekin bat etor dadin.

130. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

31. artikuluan (Mugikortasun jasangarrirako planak) 4 d) puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“d) Garraio-zerbitzuak elektrifikatzeko eta biometanoa erabiltzeko neurriak”.

Zioak: biometanoak erretzen denean berotegi-efektuko gasak aireeratzen ditu; are gehiago, ezin da neutrotzat jo energiaren balantze globalean.

131. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

31. artikuluan (Mugikortasun jasangarrirako planak) 4. puntuko f) letra aldatzeko zuzenketa:

“f) Salgaien banaketan isurketak murrizteko arintze neurriak”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela arintze neurriak ezartzea berotegi-efektuko gasen isurketa murrizteko udalerriri guztietan, biztanle kopuruaren baldintza kenduta.

132. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

31. artikuluan (Mugikortasun jasangarrirako planak) 5. puntua aldatzeko zuzenketa:

“5. Mugikortasun jasangarrirako planek lau urteko indarraldia izanen dute. Bi urtetik behin, haien betetzearen gaineko jarraipena egingen da eta, behar izanez gero, eguneratu egingen dira. Tramitaziorako prozesua erregelamenduz garatuko dute mugikortasunaren eta garraioaren arloko eskumenak dituzten departamentuek.

Mugikortasun jasangarrirako planaren esparrua udalerriri batena baino handiagoa denean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako kontsulta organoek, garraio eta mugikortasun arlokoek, txostena egin beharko dute, hura onetsi aurretik”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela epeak erdira laburtzea, mugikortasun jasangarriranzko eboluzioa izugarri azkar egiten ari delako eta zortzi

urteren buruan balitekeelako plan horiek guztiz zaharkituta egotea; nola betetzen diren berrikusi behar da eta bi urtean behin gutxienez eguneratu behar dira.

133. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

31. artikuluari (Mugikortasun jasangarria bultzatzea) puntu bat gehitzeko zuzenketa:

“7. Garraio motordunaren sektorea (pertsonekin zein salgaiak) berariazko murrizketa-helburuak ezarriko dira. Isurketak epe laburrean (2025), ertainean (2030) eta luzean (2040) murrizteko helburuak ezarri behar dira, azken xedea 2040an deus ez isurtzea dela. Murrizketa-joera etengabea izan behar da eta asmo handikoa epe laburrean eta ertainean; ez da utzi behar epe luzearako ahalgin handiak eraginen dituen asmorik. 2030erako hiriko eta metropoliko turismoen joan-etorrien ondoriozko isurketak 2015eko % 80 gutxiago izan behar dira”.

Zioak: mugikortasunaren inguruko neurri interesgarriak planteatzen diren arren —hala nola mugikortasun jasangarrirako udal eta eskualde planak sortu beharra— ez da garraioan BEG emisioak murrizteko helburu argirik ezartzen.

134. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

31 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“31 bis artikulua. Barne errekontzako ibilgailuak.

1. Arlo horretan sinatutako nazioarteko tratatuak eta akordioak betetzeko plangintzaren esparruan, Aragoiko administrazio publikoek behar diren neurriak ezarriko dituzte 2050. urtean Aragoiko errepide saretik zirkulatzen duten motordun ibilgailu guztiek emisiorik ez sortzeko.

2. Aurreko apartatuan ezarritako helburua lortzeko, Nafarroako Gobernuak foru dekretu baten bidez Foru Komunitatearen lurraldean mugatzen ahalko du airearen gehieneko kalitate balio finkatuak gainditzen dituzten isurketak sortzen ahal dituzten ibilgailuak sartu eta zirkulatzea, airearen

kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko estatuko legeriaren esparruan. Erregelamenduz salbuespenak ezartzen ahalko dira zerbitzu publikoko ibilgailuekin lotuta.

3. Airearen gehieneko kalitate balio finkatuak gainditzen dituzten eremuak kokatuta dauden udalerriek zirkulazio mugak ezarri beharko dituzte, ibilgailuen emisioen arabera”.

Zioak: bat dator gure talde parlamentarioak aurkeztutako beste proposamen batekin; bertan, proposatu genuen herritarren parte-hartzea gehitzea klima aldaketaren eta bere ondorioen aurkako borrokan eta orain proposatzen dugu II. titulua-ren III. kapituluan “herritarren parte-hartzea” sartzea.

135. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

III. tituluko III. kapituluan artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“___ artikulua. Gizarte trena

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenak egikaritzuz, tren modernoak, azkarra, efizientea eta nafarren ekonomia eta gizarte, mugikortasun eta garraio behar errealei erantzuten diena sustatu eta bultzatuko du, bai bidaiariak bai salgaiak garraiatzeko eta horretarako, egungo trenbide tradizionala Nafarroako tren beharrei egokitu zaio”.

Zioak: mugikortasun jasangarriari buruzko 30.1 c) artikuluan zehaztuta dago hau izan den dela Nafarroako administrazio publikoek garatutako mugikortasun eta garraio politiken oinarriko printzipioetako bat: bidaiari eta salgaien errepidetik trenbiderako aldaketa modala sustatzea”. Salgaien garraibide-aldatze hori ez da posible izan abiadura handiko trena egin dadila defendatuz, Espainiako Estatu osoan dagoen abiadura handiko sare ia osoan gertatzen den bezala. Nafarroako mugikortasun jasangarriko beharrezan ez dira abiadura handiko trenetik pasatzen, baizik eta bidaiari- nahiz salgai-garraioa ahalbidetzen duen tren sozial batetik, Nafarroaren lurraldea kohesio-natuko duena. Hori egitea posible da, izan ere, badaude AHTaren obren bezalako xahutzerik sortzen ez duten irtenbideak.

Orain dela gutxi, trenbide arloan ordezkariak duten ia sindikatu guztiek, CCOO, UGTk (Nafarroa eta Burgos), CGTk (estatuko konfederazioa, Araba, Burgos eta Nafarroa), Sindicato Ferroviario (SF), SCFk (Trenbide zirkulazioko sindikatua)

eta SEMAFek proposamen argi bat aurkeztu zuten eta "Nafarroako trenbide bidezko garraioaren akordioa" argitaratu zuten. Gainera, proposamen horrek aldeketasuna jaso du Arabako Lautadako eta ibarretako herri-plataformengandik, Nafarroako plataformarengandik, Miranda, Burebako plataformengandik eta Madril-Aranda-Burgos zuzenekoaren aldeko Burgosko plataformarengandik.

Proposamen horren edukia jaso dugu gure zuzenketa arrazoitzeko:

"Akordio honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatearentzako trenbide sare modernoa eta efizientea lortzea, bidaiariak eta salgaiak garraiatzen dituen eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren tren politika berriarekin bat datorrena. Modu horretan, kokatuta gauden Kantauri-Mediterraneo Igarobidearekin eta Europako gainerako lekuekin ezarritako konexioa malgua eta eraginkorra dela bermatuko da.

Garraio Ministerioari eskatzen diogu Castejón-Logroño eta Teruel -Zaragoza tarteetarako iragarritako antzeko jarduketaren bat egitea Nafarroan; azken bi horiek Kantauri-Mediterraneo Igarobidearen barne daude, Nafarroako tarte bezala.

Bi proiektu horiek egungo tren-trazaduren egokitzapen eta hobekuntzan oinarriturik eta ardazturik daude, eta modua emanen dute, Ministerioak berak baieztatzen duen bezala, prestazio handiko lineak epe laburrean irits daitezten hiri-tara, horrek bidaiari-garraioari ekarriko dion hobekuntzarekin.

Aipatu tarteetan ezarriko den ereduari esker, alde batetik geltokiak eta geralekuak berriz ere irekiko dira eta horrekin eskualdeko garraioa hobetuko da, eta beste alde batetik, trenbide bidezko salgaien garraioa gehituko da errepide bidez egindakoekin alderatuta.

Ekintza horien egite-epeak nabarmenki laburragoak dira orain arte asmotan hartuak zeuden proiektuenak baino, eta gainera inbertsio-kostu txikiagoa dute. Modua ematen dute gure lurraldera ahalik epe laburrean irits dadin tren moderno bat, eta horrela lor dadin beste erkidego batzuen atzetik ez geratzea. Gainera, behar diren inbertsioak orain asmotan hartuak daudenak baino nabarmenki txikiagoak izateak, azpiegituraren ahalmenaren gorakadari eutsiz ere, justifikatu egiten du proposamen hau, eta argiro errentagarri egiten.

Nafarroarentzako proposamena da egungo errai bakarra bikoiztea eta linea osoa zorroztasunez birgaitzea. Horretarako, egokitzapenak egingen

dira saihesbideetan, puntu gatazkatsuak kenduko dira, baita tunelak ere, eta abar. Horri esker, linearen trenak eramateko gaitasuna % 150 gehituko da eta 140 km/h-ko abiadura egiten diren ibilbideak 200 km/h-an edo batzuetan 250 km/h-an egiten ahalko dira.

Halaber, ekintza horiek beren horretan uzten dituzte egungo geltoki eta geralekuak, halatan erkidegoa egituratzen lagunduz. Gainera, modua dago zerbitzuak, maiztasunak, prestazioak, abiadurak eta bidaia-denborak hobetzeko. Lanpostuak ere sortuko lirateke, baita tren-sektorean ere, eta horrela indarberrituko litzateke krisiak eta iragane-ko tren-politikek bortizki astindutako lanbide-jardura bat.

Bestalde, etorkizuneko tren-azpiegiturak erantzuna eman behar diote Nafarroarentzat funtsezkoa den gai bati: salgai-garraioa. Alde horretatik, ekintza hauek tren-sare efiziente eta lehiakor bat ahalbidetzen dute, ekoizpen-faktoriekin eta industrialdeekin konektatua.

Horri guztiari gehitu beharko litzaioke ingurumen-inpaktuaren murriztapena. Kasu batzuetan oharkabean geldituko litzateke inpaktu hori, azpiegituraren zatirik handiena korridore antropizatu baten barruan mantenduko bailitzateke, non paisaiak jada barneratu egin baitu trenaren egungo trazadura, zeina haren parte bilakatu baita jadanik.

Oro har, Estatuko beste eskualde batzuetan ere abian diren jarduketa hauek soluzioa emanen liekete aipatu aferei, eta lortuko lukete Nafarroako trenbide-sareak honakoa eskaintzea:

a) trazadura bidaiarien eta salgaien garraiora erabiltzea.

b) trazadura bidaiarien mota guztietako trenak erabiltzea: eskualdekoak, distantzia luzekoak, abiadura handiko trenak edo prestazio handiak dituztenak, beste batzuen artean.

c) lurraldea egituratzea eta herriak, hiriak eta industrialdeak lortzea eta isolatutako zonarik ez egotea.

d) ekonomikoki bideragarria eta jasangarria den azpiegitura izatea, bai gaur egun, bai etorkizuneari.

e) Nafarroak epe motzean azpiegitura lehiakorra izatea".

136. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

32. artikulua (Salgaien hiri barneko banaketan isurketak murrizteko plana) aldatzeko zuzenketa:

“Udalek bi urteko epean prestatu beharko dute, garraio-enpresen elkartean eta gainerako eragile interesdunen lankidetzarekin, salgaien hiri barneko banaketan isurketak murrizteko plan bat, eta bertan lehentasunez bultzatuko dituzte ibilgailu elektriko edo zero isurketako ibilgailuen bidezko banaketa helburu dituzten jarduketak.

Udalek frogatzen badute ez dutela isurketak murrizteko planak prestatzeko baliabiderik, Nafarroako Gobernuak eginen ditu plan horiek udalekin elkarlanean”.

Zioak: uste dugu udal guztiek egin behar litzaketela jarduketak hiri barneko salgai-banaketaren ondoriozko berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko, biztanle kopurua gorabehera. Baliteke udal txikiak baliabide teknikorik edo aurrekontu baliabiderik ez izatea jarduketa horiek gauzatzeko, eta halakoetan Nafarroako Gobernuak gauzatu ditu. Horrela bermatuko da udalerrri guztiek ekarpena egitea isurketak murrizteko.

137. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

32. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“32. artikulua. Salgaien hiri barneko banaketan isurketak murrizteko plana.

10.000 biztanle baino gehiagoko hirietako udalek, bi urteko epean, prestatu beharko dute, garraio-enpresen elkartean eta gainerako eragile interesdunen lankidetzarekin, salgaien hiri barneko banaketan isurketak murrizteko plan bat, eta bertan lehentasunez bultzatuko dituzte ibilgailu elektriko edo zero isurketako ibilgailuen bidezko banaketa helburuak dituzten jarduketak”.

Zioak: Nafarroako udalerrien egoera berezia da, izan ere, biztanleriaren banaketa berezia da. Horregatik, gure ustez ezarri beharko litzateke 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek (25.000 biztanle baino gehiagokoek beharrean) emisioak gutxitzeko plan bat sortzeko betebeharra izatea salgaien hiri barneko banaketari dagokionez. 10.000 biztanle baino gehiagoko Nafarroako udalerrietan arazoak dituzte hiri barneetan, izan

ere, emisio asko sortzen dira salgai horien banaketa garraioarengatik.

138. ZUZENKETA

**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

32. artikulua (Salgaien hiri barruko banaketaren isurketak murrizteko planak) artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

Bi urte igaro aurretik 15.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan salgaien hiri barneko banaketaren isurketak murrizteko plana prestatu beharko da garraio-enpresen elkarteekin eta gainerako eragile interesdunekin lankidetzan. Plan horretan lehentasunez bultzatuko dira ibilgailu elektrikoaren edo isurketarik gabeko ibilgailuen bidezko banaketa xede duten jarduketak.

Zioak: 25.000 biztanletik gorako udalerrien atalasea ez da egokia (nahiz eta Estatuko legeak ezarritakoaren erdia izan), bi udalerriri bakarrik eragiten dielako: Iruñari eta Tuterari (Nafarroako biztanleria osoaren % 36,5).

139. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

II. tituluko III. kapituluaren 33. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“33. artikulua. Enpresa eta instituzioen garraio jasangarrirako planak.

1. Hiru urteko epean, garraio jasangarrirako planak nahitaez egin beharko dituzte honako hauek:

a) Lantoki batean 100 langile baino gehiago dituzten enpresa nahiz erakundeak.

b) Azalera handiko saltokiek, Nafarroako merkataritza arautzen duen legediaren definizioaren arabera.

c) 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan kokatuta dauden eta 200 langile baino gehiago biltzen dituzten industrialdeek. Haien kasuan, bertan kokatutako enpresek eginen dituzte planak, dagozkien udalen elkarlanarekin.

2. Enpresa eta instituzio horien garraio jasangarrirako planek zehaztu beharko dituzte lantokira

joateko pertsona horien mugikortasun jasangarria sustatzeko behar diren neurriak, joan-etorriak murriztea lortzeko neurriak, eta orobat, erabil-tzaileen oinezko joan-etorriak, zero isurketako ibilgailu autonomoen bidez eta garraio publiko kolektiboan egindakoak ahalbidetu eta lehenesteko neurriak. Era berean, neurri eta helburuen jarrai-penerako funtsezko adierazleak jaso beharko dituzte.

3. Gehienez ere bi urteko epean garraioaren arloko eskumena duen departamentuak erregelamendu bidez garatuko ditu enpresen eta instituzioen mugikortasun jasangarrirako planen edukia eta izapidetzea”.

Zioak: idazketa hobetzea. Gainera, gure ustez industrien ardura izan behar da eta ez udalena 5000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan kokatuta dauden eta 200 langile baino gehiago dituzten industrialdeetan garraio jasangarriko planak sortu beharra. Hala ere, udalek planak idazteko aholkularitza zerbitzuak ematen dituzten toki edo eskualdeetako enpresa edo elkarteekin elkarlanean jardun beharko dute.

Gure ustez, gainera, epe jakin bat ezarri behar da erregelamenduzko garapenerako, izan ere, enpresek planak idazteko 3 urte badituzte, egokia litzateke aurretik erregelamendu hori onetsita ego- tea, horrela, planen edukia eta izapidea finka- tzeke, izan ere, bestela ezin bailirateke egin.

140. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

33. artikuluan (Enpresa eta erakundeen garraio jasangarrirako planak) 1. puntua aldatzeko zuzen- keta. Hona testu berria:

“1. Bi urte igaro baino lehen enpresek eta era- kundeeek garraio jasangarrirako plana eduki behar- ko dute honako hauetarako:

Zioak: epeak laburtzea.

141. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

33. artikuluari (Enpresa eta erakundeen garraio jasangarrirako planak) puntu batzuk gehitzeko zuzenketa:

“1. Moratoria bat ezartzen da erostetxe handi berriak egiteko eta daudenak zabaltzeko.

2. Urtebete igaro baino lehen erregelamendu bidez garatu beharko dira enpresa eta erakunde- en (hezkuntzakoak barne) mugikortasun jasanga- rrirako planak”.

Zioak: hiri inguruetan saltoki handiak egoteak ibilgailu pribatuen trafiko handia eragiten du. Moratoria bat ezarri behar da horrelako erostetxe berriak garraio publikoa bermatu gabe ezartzeko.

Ibilgailu motordunen trafikoaren beste eragile bat eskola garraioa da, bai Lehen Hezkuntzako, bai Lanbide Heziketakoa eta unibertsitatekoa. Mugikortasun jasangarria erraztu eta ibilgailu motordunen beharra gutxitzeko bitarteko bat da eskola unitarioak sustatzea, eskola kon- tzentrazioak murriztuz, bereziki landa eremuetan. Irakaskuntzaren arlo horrek barnean hartzen ditu erakunde pribatuak ere.

142. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

34. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela ida- tzita geratuko litzateke:

“34. artikulua. Ibilgailu elektrikorako edo zero isurketako ibilgailurako trantsizioa bidaiarien erre- pide-garraio publikoan.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administra- zioak, bere eskumenak egikaritzuz eta bereziki kontratazio publikoari dagozkionak, hiriko eta hiri arteko errepide bidezko bidaiarien erabilera oroko- rreko garraio publiko ohikoan erabiltzen diren ibil- gailuak ordezkatzeko sustatuko du eta egungoen orde- z ibilgailu garbiak eta emisiorik sortzen ez dutenak erabiltzea. Trantsizio prozesuan erreferentziazko helburuak izanen dira kasu bakoi- tzean aplikatu beharreko Europako eta estatuko araudian zehaztutakoak.

2. Taxien kasuan, dagozkien baimenei atxikita- ko ibilgailuek, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera,

22.000 bizilagun baino gehiago duten udalerrietan edo Prestazio Elkartuko Lurralde Eremuetan, zero isurketako edo ECO katalogazioa izan beharko dute, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren unean-uneke indarreko sailkapenaren arabera, salbu eta eurotaxi ibilgailuen kasuan, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legean ezartzen denari jarraikiz. 2030eko urtarrilaren 1etik aurrera, berriz, baimenei atxikitako ibilgailuek zero isurketakoa edo baliokidea den katalogazioa izan beharko dute udalerrri edo Prestazio Elkartuko Lurralde Eremu guztietan; baldintza horrek ibilgailu guztientzat edo batzuentzat indarra hartzeko data aurreratzen ahalko da kasuan kasuko ordenantzek xedatuaren arabera.

3. Ibilgailu gidaridunen alokairu-baimenei atxikitako ibilgailuen kasuetan, Nafarroan helbideratutako baimenei atxikitako ibilgailuek, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, zero isurketako edo ECO katalogazioa izan beharko dute, unean-unean indarra duen Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren sailkapenaren arabera. 2030eko urtarrilaren 1etik aurrera, baimen horiei atxikitako ibilgailuek zero isurketakoa edo baliokidea den katalogazioa izan beharko dute.

4. Lehen apartatuan planteatutako trantsizio-prozesua ibilgailuen ordezte progresiboa jasoko duen plangintza operatibo baten baitan garatu beharko da. Trantsizio-prozesu horretan, gainera, kontuan hartuko da, gehien kutsatzen duten ibilgailuen ordeze, era progresiboan, tradizionalak baino garbiagoak diren bulkada-teknologiak erabiltzen dituzten ibilgailuak jartzea. Ondorio horietarako, bidaiarien hiri barneko eta hiri arteko errepide-garraio publikoaren kudeaketaren arloan eskumena duten administrazio publikoek eta bidaiarien errepide-garraio publikoan aritzen diren enpresen elkarteek eratu beharko dute, bi urteko epean, trantsizio energetikorako plan bat, ibilgailuak era progresiboan ordezteko, isurketak murrizteko helburuarekin, zero isurketen helburura iritsi arte, 2050ean”.

Zioak: lehenengo paragrafoan “bereziki kontratazio publikoaren arloan” gehitu da; izan ere, hau xedatzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1161 (EB) Zuzentarauaren 1. artikuluan, Errepideko garraio ibilgailu garbiak eta energetikoki eraginkorrak direnak sustatzeari buruzko 2009/33/EE Zuzentaru aldutzen duenean:

«Zuzentaru honek agintzen du estatu kideek bermatu behar dutela botere eta erakunde adjudikatzaileek errepide bidezko garraioko zenbait ibilgailuren kontratazio publikoan kontuan hartu behar dituztela ibilgailuen bizi erabilgarrian

sortzen diren energia eta ingurumen inpaktuak eta CO₂-aren eta bestelako kutsatzaileen emisioak, eta hori guztia garbiak eta energetikoki eraginkorrak diren ibilgailuen merkatua sustatu eta estimulatzeko eta garraioaren sektoreak Europar Batasunaren ingurumen, klima, eta energia politiketan egiten duen ekarpena hobetzeko».

Espainiako ordenamendu juridikoan aplikatu da azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez, Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioa egiten duena bermatutako bonuen arloan, inbertsio kolektiboko erakundeen mugaz haraindiko banaketan, sektore publikoko informazioaren datu irekietan eta sektore publikoko informazioaren berrerabilpenean, egile-eskubideen erabilera eta antzeko eskubideetan, lineako transmisio jakin batzuei eta irrati- eta telebista-programen emanaldiei aplika dakizkiekeenak, inportazio eta hornidura jakin batzuetarako aldi baterako salbuespenetan, kontsumitzaileetan eta errepide bidezko garraiorako ibilgailu garbi eta energetikoen sustapenean. ELD horren zazpigarren liburuaren izenburua hau da: “Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1161 (EB) Zuzentarauaren transposizioa, 2019ko ekainaren 20koa”.

86. artikulua xedeari eta helburuari buruzkoa da eta hau xedatzen da bertan:

«Errege lege dekretu honetako liburu honen xedea da bermatzea 88. artikuluan definitutako botere adjudikatzaileek eta erakunde kontratatzaileek beren aplikazio eremuan errepide bidezko garraioko zenbait ibilgailuren kontratazio publikoan kontuan hartuko dituztela ibilgailuen bizi erabilgarrian sortzen diren energia eta ingurumen inpaktuak eta CO₂-aren eta bestelako kutsatzaileen emisioak, eta hori guztia garbiak eta energetikoki eraginkorrak diren ibilgailuen merkatua sustatu eta estimulatzeko eta garraioaren sektoreak nazio mailako eta Europar Batasuneko ingurumen, klima eta energia politiketan egiten duen ekarpena hobetzeko».

Xedapen horiek hauen bidez egiten diren kontratazio publikoetan aplikatuko dira:

a) errepideko garraio ibilgailuak erosteko, finantza errentamendurako, alokatzeko edo erosteko aukerarekin alokatzeko hornidura-kontratuak, botere adjudikatzaileek edo erakunde kontratatzaileek adjudikatutakoak, erregulazio harmonizatutako kontratuak direnean.

b) zerbitzu publikoko kontratuak.

c) hurrengo CPV kodeetan jasotako zerbitzu kontratuak:

Bukatzeko, aipatuko dut errege lege dekretuan ezarritako helburuak 2021eko abuztuaren 2aren ondorengo kontratazioetan aplikatu behar direla.

Nafarroak eskumenak ditu kontratazio eta legeria propioaren arloan, eta eskumen horiek Kontratu publikoen apirilaren 13ko 2/18 Foru Legean jasota daude. Beraz, aipatu zuzentarauaren eta ELDaren aurreikuspenak egin beharko dituzenez, zehaztaper hori gehitu da.

Arlo horretako erronka norainokoa den ikusteko, ELDaren 3. eranskinean hauei buruz ezarritakoa aztertu behar da:

A) 88.4 a) artikuluko 2. taularen arabera ibilgailu arin garbien kuotarako kontratazio publikoaren gutxieneko helburuak, 87. artikuluan aurreikusitako kontratuen xede diren ibilgailu arinen guztizko kopuruari dagokionez, estatu mailan.

B) Ibilgailu astun garbien kuotarako kontratazio publikoaren gutxieneko helburuak, 87. artikuluan aurreikusitako kontratuen xede diren ibilgailu astunen guztizko kopuruari dagokionez, estatu mailan (*)

143. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

34. artikuluari (Ibilgailu elektrikorako edo zero isurketako ibilgailurako trantsizioa bidaiarien errepide-garraio publikoan) testua gehitzeko zuzenketa. Hona hau gehitzen zaio 1. puntuari:

“2023an erosten diren honako ibilgailu hauek zero eta ECO etiketadunak izan beharko dira: hiri-ko garraioko ibilgailuak, taxiak, eta gehienez 5 pertsona eraman ditzateketen erakunde publikoan garraio-ibilgailuak”.

Zioak: garraio jasangarrirantz jo behar dugu, eta bi urteren buruan hala frogatzen duen etiketa izan behar dute.

144. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

34. artikuluari (Ibilgailu elektrikorako edo zero isurketako ibilgailurako trantsizioa bidaiarien erre-

pide-garraio publikoan) puntu bat gehitzeko zuzenketa:

“5. Garraioa errepidez gabe trenez egitea bultzatuko da”.

Zioak: ibilgailu elektrikorako trantsizio onena errepideko garraiotik trenbideko garraiora aldatzeko sustapena da.

145. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

35. artikuluari (Trantsizio energetikoa salgaien errepideko garraio publikoan) puntu bat gehitzeko zuzenketa:

“3. Garraioa errepidez gabe trenez egitea bultzatuko da”.

Zioak: ibilgailu elektrikorako trantsizio onena errepideko garraiotik trenbideko garraiora aldatzeko sustapena da.

146. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

36. artikuluan (Trantsizio energetikoa salgaien errepide-garraio publikoan) 1. puntua aldatzeko zuzenketa:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Mugikortasun Plan Gidariaren esparruan, mugikortasunaren arloko trantsizio energetikoa sustatuko du, besteak beste, karga-instalazioen estaldura bermatuz lurraldean, eta ibilgailu elektrikoak eta zero isurketakoak erosteko eta erabiltzeko kanpainak eginez eta dirulaguntzak eta hoberi fiskalak eskainiz, partikularrentzat eta enpresentzat. Bereziki sustatuko da taxiaren, garraio eta zerbitzu publikoaren eta enpresetako ibilgailuen aldatzea”.

Zioak: uste dugu Mugikortasun Plan Gidaria esparru orokorra dela eta barnean bildu behar dituela Administrazioak egin beharreko jarduketak partikular guztiak.

147. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

36. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“36. artikulua. Mugikortasun elektrikoaren eta zero isurketen sustapena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak mugikortasunaren arloko trantsizio energetikoa sustatuko du, besteak beste, karga-instalazioen estaldura bermatuz lurraldean, eta ibilgailu elektrikoak eta zero isurketakoak erosteko eta erabiltzeko kanpainak eginez eta dirulaguntzak eta hobari fiskalak eskainiz, partikularrentzat eta enpresentzat. Bereziki sustatuko da taxien, garraio eta zerbitzu publikoaren eta enpresetako ibilgailuen aldaketa eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak eskuratu eta erabiltzea.

2. Udalek ordainketatik salbuetsitako espazioak edo ordainketa murriztekoak erreserbatuko dituzte ibilgailu elektriko edo zero isurketakoen zat, aparkatzeko eremu publikoetan. Mugikortasunaren arloko eskumenak dituen departamentuak erregelamenduz ezarriko ditu baldintza horiek”.

Zioak: foru lege proiektuan ez dira behin ere aipatzen bizikletak edo mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak, eta horregatik, proposatzen dugu herritarren artean horiek eskuratu eta erabiltzea sustatzea.

148. ZUZENKETA**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

36. artikuluari (Mugikortasun elektrikoaren eta isurketarik gabeko mugikortasuna bultzatzea) lau puntu gehitzeko zuzenketa:

“3. Erreferentzia gisa, honako helburu hauek ezartzen dira ibilgailu elektrikoaren (turismoak) salmentarako: guztira saltzen direnetatik % 3 2020an, % 25 2025ean, % 70 2030ean eta % 100 2040an.

4. Halaber, ibilgailu elektrikoaren erosteko programan bat ezarriko da erregelamendu bidez. Programa horretan honako elementu hauek uztartuko dira:

a) Ibilgailu elektrikoaren erosteko laguntzak: ibilgailua erosi ahal izateko behar den gutxieneko pizgarria baizik ez da emanen; pizgarriok honelako laguntza-neurriak izanen dira, besteak beste: zuzeneko laguntzak eta kreditu bigunak. Ibilgailu elektrikoaren erosteko laguntzaren gradua honako hauen arabera izanen da: eroslearen errenta-maila, eta ibilgailu berriaren potentzia eta pisua; izan ere, lehentasuna emanen zaie potentzia txiki eta pisu urriko ibilgailuei. Kasu batzuetan kontuan hartu ahal izanen dira ibilgailu zaharraren adina eta isurketak ere.

b) Matrikulazioaren eta zirkulazioaren gaineko zergak aldatzea.

5. Ibilgailu elektrikoaren kargatzeko puntuak hedatzeko eta sustatzeko programa ezarriko da: karga azkarrekoak, karga-puntu publikoak, eta sarrera mugatuko karga-puntuak. Funts publikorik erabiliz gero ibilgailu elektrikoaren kargatzeko puntuak sustatzeko, funts horiek toki-erakunde publikoari emanen zaizkie batez ere, eta berak izanen dira karga-puntuen titularrak.

6. Zeinahi pertsona fisikok zein juridikok eman dezake ibilgailu elektrikoaren kargatzeko zerbitzua, aurretik baimenik eskuratu gabe; horretarako erregistro-prozesua egiten da, ahalik laburrena, zerbitzua ongi eman ahal izateko”.

Zioak: mugikortasun elektrikoaren sustatzeko berariazko neurriak proposatzen dira.

149. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

36. artikuluan (Trantsizio energetikoa salgaien errepide-garraio publikoan) 3. puntua gehitzeko zuzenketa:

“3. Udalek zirkulazioaren gaineko zergaren tasa murriztu edo kenduko dizkiete ibilgailu elektriko guztiei, eta Nafarroako Gobernuak konpentsazio lerro bat ezarriko du, ukitutako udalek arrazoi horregatik eskuratu ez dituzten zenbatekoak konpentsatzeko”.

Zioak: uste dugu toki erakundeek ibilgailu elektrikoaren erabilera babestu behar dutela toki zergeetan hobariak jarritz; herriek eta toki erakundeek zerga honen bidez mantentzen dituzte beren azpiegiturak, eta ibilgailu elektrikoaren erabilera babestu eta berotegi-efektuko gasen isurketak murriztearen zerga hau biltzeari uzten badiote, Nafarroako Gobernuak diru-sarrera falta hori konpentsatu beharko du.

150. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

36 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“36 bis artikulua. Tokiko produktuak kontsumitzea sustatzeko kanpainak.

Nafarroako administrazio publikoek kanpainen eta askotariko sektore ekonomikoekin egindako akordioen bidez toki produktuen kontsumoa sustatuko dute, distantzia luzeko salgaien garraioa murrizteko”.

Zioak: tokiko produktuak kontsumitzearen alde egitea garrantzitsua da distantzia handietako salgaien garraioa gutxitzeko. Modu horretan, salgai horien sorkuntzako karbono aztarna ahalik eta txikiena izanen da eta gainera, tokiko ekoizleei laguntzen zaie.

151. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

36 ter artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“36 ter artikulua. Aparkalekuak erreserbatzea.

1. Nafarroako administrazio publikoek beren titulatasuneko bide publiko eta aparkaleku publikoetan, kudeaketa modua edozein izanda ere, emisiorik gabeko ibilgailuek soilik erabiltzeko plazak gordeko dituzte.

2. Aparkatzeko zerbitzu publikoaren administrazio titularrek, hala dagokionean, neurri egokiak hertsatuko dituzte enpresa emakidadunak aurreko apartatuan ezarritako betebeharrak bete dezan.

3. Jarduera ekonomiko bati lotutako aparkaleku pribatuek 40 plaza baino gehiago dituztenean, % 10 baino gutxiagokoa ez den plazen ehuneko gordeko dute soilik emisiorik gabeko ibilgailuentzat, eta ehuneko hori modu progresiboan gehituko da erregelamenduz ezarritako terminoetan”.

Zioak: beharrezkoa da berariaz arautzea emisiorik sortzen ez duten ibilgailuek bakarrik erabiltzeko aparkalekuen erreserba, bai bide publikoetan, aparkaleku publikoetan edo enpresa emakidadunek kudeatutako espazioetan.

152. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

37. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“37. artikulua. Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa arintzea lehen sektorean.

Lehen sektoreko nekazaritza politikek klima aldaketaren arintze eta egokitzapen aurrerapausoak ematen jarraitu behar dute. Halaber, oinarritzko baliabide naturalen kudeaketa efizientea bultzatu behar da, besteak beste ura, lurzorua eta airea. Era berean, biodibertsitatea babesteko, zerbitzu ekosistemikoak sustatzeko eta habitata eta paisaiak kontserbatzeko nekazaritza praktikak bultzatuko dira”.

Zioak: bat dator lehenengo sektoreko jarduketa lerro zehatzak arautzen dituen beste zuzenketa batekin, eta horregatik ezabatu dira artikulua honetako 2. eta 3. apartatuak.

153. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

37. artikuluan (Trantsizio Energetikorako eta Klima Arintzeko jarduketa ildoak lehen sektorera-ko) 3. puntua aldatzeko zuzenketa:

“3. Nafarroako Gobernuak, sei hilabeteko epean, gehienez, laguntza lerro bat ezarriko du, lehen sektorean hartzen diren konpromiso klimatikoetarako, orain dauden programa komunitarioen osagarriak izanen direnak”.

Zioak: ez zaizkigu egokiak iruditzen laguntzak jasotzeko egiten diren ñabardurak.

154. ZUZENKETA**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

37. artikulua (Trantsizio Energetikorako eta Klima Arintzeko jarduketa ildoak lehen sektorera-ko) aldatzeko zuzenketa. 1. puntua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“1. Lehen sektoreko nekazaritzako politikek klima-aldaketa moteltzea eta haren ondorioetara egokitzea bultzatu behar dute. Halaber, oinarritzko

baliabide natural batzuk (ura, lurra eta airea) eraginkortasunez kudeatzea sustatu behar da, eta bultzatu behar da klima-aldaketak ekarriko duen egoerarako egokia den janaria sortzeko, eraldatzeko eta banatzeko sistema bermatzen duen nekazaritza ekologikorako trantsizioa, tokiko ekoizpena eta hurbileko kontsumoa sustatzen dituen, Foru Komunitatearen elikadura-subiranotasuna sendotzeko eta lurralde-garapen orekatua ziurtatzeko”.

Zioak: klima aldaketaren inguruneari egokitutako nekazaritza eta abeltzaintza eredu ekologikorantz jotzea.

155. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

37. artikulua (Trantsizio Energetikorako eta Klima Arintzeko jarduketa ildoak lehen sektorera-ko) aldatzeko zuzenketa. 2 b) puntua aldatzen da:

“b) Azienden kopurua egokitzea udalerrri bakoitzaren ingurumen-kargak duen gaitasunaren arabera, eta azien den gorozkietatik sortzen diren isurketak minimizatzea teknika erabilgarri onenak aplikatuz, energia sortzea barne, eta ongarrirako emanez lurrean. Moratoria bat ezarriko da abeltzaintza intentsiboko ustiategi berriak jartzeko eta badaudenak hedatzeko, harik eta erregelamendu bidez udalerrri bakoitzaren gehieneko karga finkatu arte”.

Zioa: udalerrriak babestea abeltzaintza intentsiboaren mehatxuaren kontra.

156. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

37. artikuluan (Trantsizio Energetikorako eta Klima Arintzeko jarduketa ildoak lehen sektorera-ko) 3. puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“3. Bi urte igaro aurretik Nafarroako Gobernuak laguntza-lerro bat ezarriko du lehen sektorean hartzen diren konpromiso klimatikoetarako, orain dauden programa komunitarioen osagarri. Laguntza horiek konpromiso jakinak hartzen dituztenei

emanen zaizkie nekazaritza-abeltzaintzako ustiategi bakoitzaren intentsibotasunaren arabera eta ustiategiaren tamaina kontuan hartuz, halako moldez non ustiategi txikiak gauza izanen baitira klimaren inguruko konpromisoei aurre egiteko baliabide-eskasiak kalterik egin gabe”.

Zioak: asmoa da laguntzak ematea konpromisoak har daitezten, eta laguntzak ematea nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi bakoitzaren intentsibotasun mailaren arabera, eta haren tamaina kontuan hartuta.

157. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

37. artikuluan (Trantsizio Energetikorako eta Klima Arintzeko jarduketa ildoak lehen sektorera-ko) 2. puntuari letra batzuk gehitzeko zuzenketa:

“r) Sustatzea nekazaritzaren intentsibotasuna murriztea (murrizketa guztirako energia-kontsumoaren gutxikuntzaren arabera kalkulatuta) eta ongari nitrogenatu eta mineral gutxiago eta erabilerora orokorreko belar-hiltzaile eta pestizida gutxiago erabiltzea.

s) Plan bat prestatzea abeltzaintza eta nekazaritza bateratzeko oinarritzat hartuta abeltzaintza intentsiboaren edo monolaborantzaren kontzentrazioa eragozteko landa-lurretako ekoizpen-eredua aldatzeko bidean aurrera egiteko.

t) Ekoizpen ekologikoaren helburu zenbagarriak ezartzea 2030erako, 2040rako eta 2050erako, baina kontuan edukita 2030erako ekoizpenaren % 25 ekologikoa izan behar dela.

u) Ekoizpen Ekologikoaren Estrategia 2020-2030 ezartzea. Horren bidez ekoizpen ekologikoa eraldatu eta sendotuko da dauden finkak eta abeletxeak sendotzeko neurrien eta nekazaritza konbentzionala ekologiko bihurtzeko neurrien bidez, eta tokiko produktu ekologikoak kontsumitzea sustatuz eta merkaturatzeko sareei lagunduz.

v) Nekazaritzako lur-estalkietan % 100 biodegradagarria den plastikoa erabiltzeko neurriak ezartzea, konpostatzeko bilketa egiteko azpiegiturarekin eta ontzi eta garraio-kutxa berrerrabilgarriak erabiliz.

w) Ez handitzea Nafarroako lursail ureztatuen azalera, eta dauden baliabideak egungo laborantza hobetzeko erabiltzea; izan ere, lursail gehiago

ureztatzeak zortasuna ekarriko du ur gutxiago dagoenean, eta ondorioz lurraldea zaurgarriago izango da klima-aldaketaren aurrean.

x) Abeltzaintza-karga helburua 1,5 ALU/ha/urtean izatea, abeltzaintza intentsiboa eragozteko ustiategi berrietan.

y) Egunean jartzea ongarri inorganikoen eta organikoen nitratoei buruzko Nafarroako zuzentzaraua (fosforoa, metal astunak, desinfektatzaileak, antibiotikoak...).

z) 2020. urtea erreferentziatzat hartuta, pestizida eta ongarri sintetikoaren erabilpena 2025erako % 50 murrizteko eta 2030erako SAUen % 50 teknika eta metodo agroekologikoez kudeatzeko behar diren laguntza teknikoak eta laguntza publikoak baldintzak ezartzea”.

Zioak: ekoizpen ekologikoaren helburu estrategikoetarantz aurrera egitea, ehuneak eta epeak zehaztuz.

158. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

37 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“37 bis artikulua. Nekazaritza eta abeltzaintzarako jarduketako leerroak.

1. Administrazio publikoek sustatutako nekazaritza, baso eta abeltzaintza ustiapen ereduak isurketak murrizten lagunduko duten ekoizpen baldintzak eta irizpideak beteko ditu. Horrez gain, artikulua honen 2. apartatuan zehaztatutako baldintzak betetzen dituzten ustiapenetako produktuak kontsumitzea bultzatuko da.

2. Horrekin lotuta, hauek lortzeko helburuak finkatuko dira:

a) Abeltzaintza ekoizpenaren areagotzea murriztea bultzatzea, ekoizpenean inbertitutako energia kontsumo osoa eta gas metanoaren eta berotegi-efektuko beste gas batzuen isurketak murriztean oinarrituta eta minden tratamendua eta mindak ustiatzean bertan eta nekazaritzan modu egokian aplikatzea, ekoizpen zikloa ixteko.

b) Nekazaritza ekoizpenaren areagotzea murriztea sustatzea, energia guztiaren kontsumoa, oxido nitrosoaren (N₂O) isurketak, ongarri nitrogenatuen eta ongarri mineralen erabilera eta herbizida eta pestizida arrunten erabilera gutxituta.

c) Efizientzia energetikoa sustatzea nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatzean, ekoizpen zikloa osatzen lagunduz, hau da, ekoizpenetik banaketaraino.

d) Klima aldaketaren egoeretara hobeto egokitutako nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen ereduak sustatzea.

3. Zehazki, nekazaritza, baso eta abeltzaintza ustiapenak hauek lortzeko neurriak bultzatuko dira:

a) Nafarroako elikagai subiranotasuna lortzeko nekazaritza elikagaien jarduera sustatzea.

b) Ongarri kimikoak modu arrazionalen erabiltzea eta horien ordez ustiapenetik edo ingurutik lortutako ongarri organikoak erabiltzea, ahal den heinean behar diren laguntza teknikoak neurriak ezarriz, eta laguntza publikoak jasotzeko baldintza hau ezarriz: 2020rekin alderatuta, 2025ean plagizida eta ongarri sintetikoaren erabilera % 25 gutxitzea, eta, horrela, 2030ean erabiltutako nekazaritza azaleraren % 50 nekazaritza ekologikoko teknika eta metodoekin kudeatzea, eta 2050ean % 100.

c) Produktuak sortzean isurketak gutxitzen eta ziklo biologikoak ixten dituzten ekoizpen irizpideak betetzea.

d) Inguru naturala mantendu eta kontserbatzea, ingurumen zerbitzuak edo zerbitzu ekosistemikoak emanez.

e) Baliabide naturalen erabilera arrazionala sustatzea, eta bereziki lurzorua, bere eman-kortasun mailak mantenduz eta materia organiko maila hobetuz.

f) Nekazaritza, abeltzaintza eta baso praktika kontserbatzaileak aurrera eramatea, higadura murrizteko eta lurzorua materia organikoa gordetzeko, besteak beste gutxieneko laborantza edo landare estalkiak.

g) Ura modu efizientean erabiltzea, bai uraren kontsumoa bai energia kontsumoa murrizteko edo ura berrerabiltzeko sistemak ezartzea.

h) Ustiapenen barnean lehengai propioen edo hurbileko inguru geografikoetako lehengaien kontsumoa sustatzea.

i) Animalien elikadurako praktika onenak erabiltzea eta lehentasuna ematea animalien digestioa hobetzen dutenei, horrela, jatorri enterikoko BEGen isurketak gutxitzeko.

j) Biodibertsitatearen babesa hobetzea, haren eta paisaiaren kontserbazioa edo lehengoratzea laboratzen duten kudeaketa-konpromisoak atxikitako nekazaritza-eremuen gehikuntza sustatuz.

k) Laguntzea eta sustatzea baldintza hauek betetzen dituzten nekazaritza ekologikoko ekoizpen sistemak: baliabide naturalak zaintzea (ura, lurzorua, biodibertsitatea), zikloak ixtea, isurketak murriztea eta ekoizpen osasungarriak, kalitatekoak eta jasangarriak bermatzea.

l) Berariaz sustatzea nekazaritza eta abeltzaintzako produktu ekologikoak eta hurbilekoak.

m) Lurraldeari lotutako nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen estentsiboko sistemak sustatzea, abeltzaintzaren dimentsioa lurraldeko ingurumen kargaren edukierara mugatuz.

ñ) Elikadura osasungarria bultzatzea, garaian garaiko produktu kalitatekoak eta hurbilekoak baliatuz.

o) Efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzea nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan, ekoizpen-zikloa osatzen lagunduz, hau da, ekoizpenetik banaketaraino.

p) Nekazaritzako makineriaren berrikuntza bultzatzea, teknologia berriak baliatzen has daitezen, energia aurreztu eta berotegi-efektua duten gasen isurketak gutxitzen dituztenak eta kutsadura gutxiago sortzen dutenak.

q) Nekazaritzako lur-estalkietan %100 biodegradagarria den plastikoa erabiltzeko neurriak sustatzea, konpostatzeko bilketa egiteko azpiegiturarekin, bai eta ontzi eta garraio-kutxa berrera-bilgarrien erabilera ere.

r) Basoko biomasa eta nekazaritzako azpi produktuak erabilera termikoetarako aprobetxatzea bultzatzea, baldin eta horrekin karbono aztarna murrizten bada, baliabidearen kudeaketa jasangarria eginez.

s) Eraikin, etxebizitza eta altzari publikoetan zuraren erabilera areagotzea, eta basoko biomasa, energia iturri gisa.

t) Basoen kudeaketa jasangarria bultzatzea, suteen arriskua murrizten eta karbonoa atzitzen laguntzeko, eta orobat, enplegua sortzen landa-inguruetan, basoek iragazki berdearen lana betetzen, eta ekonomia zirkularra bultzatzeko.

u) Jendez hustutako zonetan ibai lurralde egoia erraztea, bidegabeko eragozpenak murriztu eta erregimen gorabeheratsu horietara egokitzu, naturaltasuna irabaz dezaten eta hiri eta herrietan inpaktua murriztu dadin.

u) Genero ikuspegia gehitzea nekazaritzako proiektuetan, kontuan hartuz emakumeek eta gizonek esparru honetan dituzten eginkizun, erantzukizun eta inguruabar desberdinak.

4. Nafarroako administrazio publikoek hurbileko edo «0 km-ko» produktuak kontsumitzea sustatuko dute askotariko neurrien bitartez, nekazaritza eta abeltzaintza produktuak merkaturatzeko garraioan sortutako BEG isurketak saihesteko. Halaber, familia ustiapenak bultzatuko dituzte.

5. Nekazaritza eta abeltzaintzako neurriak Nafarroako nekazaritza sistemaren zaugarritasuna eta BEG isurketak gutxitzeko helburua izan behar dute. Horrenbestez, nekazaritza, abeltzaintza eta baso kudeaketako Foru Administrazioak honako aldagai hauek kontuan hartuko ditu bere plangintza tresnak, erregelamenduak, aginduak eta/edo bere eskumeneko gainerako legeria tresnak diseinatzeko:

a) Nekazaritza erregistroan Nafarroan ikusi eta proiektatutako klima aldaketaren inpaktuak saritzea eta arreta berezia jartzea ureztatzeko uraren erabilgarritasunaren bermatzea nahikoa ez izatearen arriskuari plangintza hidrologikoan ezarritakoarekin bat. Beraz, ureztatzeko azalera berriak handitzean, zortasunak sortzen ahalko dira ur eskuragarritasun gutxiagorekin, eta horrela, lurraldearen zaugarritasuna gehituko da.

b) Ura ahalik eta efizientzia energetiko handienarekin aprobetxatzea dakarten ureztatzeen modernizazioak areagotzeko neurriak lehentasunez sustatzea, uraren kontsumoa aurreztuz eta emari zirkulatzaillean mantentugaien kontzentrazioa saihestuz.

c) Lehorreko laboreei laguntzeko ureztatzea sustatzea, horien iraupena eta produktibitatea ziurtatzeko.

d) Lan genetiko eta ekofisiologikoekin ingurumen baldintza berrietara egokitutako espezie edo barietate propioak edo kanpokoak baliozkotzea.

e) Modu progresiboan ongari bio-organikoak erabiltzea eta ekoizpen eta erabilpen fasean BEG emisio asko sortzen dituzten ongari kimikoak gutxiago erabiltzea.

f) Askotariko kudeaketen bidez

abeltzaintzako gorozkien isuriak minimizatzea.

6. Nekazaritza eta abeltzaintzan eskuduna den departamentuak Abeltzaintza erabileren plan bat eginen du lurralde batek jasaten ahalko duen emisioen gehieneko karga ezartzeko, zehazki gehienez ere 1,5 AzLU/ha urtean.

Foru Administrazioak minden tratamendurako Talka Plana sustatuko du askotariko teknologien bitartez. Horri esker, hiru urtean abeltzaintza ekoizpen zona kontzentratuetako minden gehiegizko ekoizpenari aurre eginen zaio.

Lehentasuna izanen dute tratamendu biologikoek eta teknikoki tratamenduok ezarri ezin daitezkeen instalazioetan biogasaren ekoizpenak.

7. Nafarroako gobernuak gehienez ere bi urteko epean komunitate programen osagarri izanen den laguntza lerroa ezarriko du lehen sektorean klima konpromisoak hartzeko. Laguntza horien helburua izanen da hartzen diren konpromisoetan harago joatea, eta nekazaritza eta ingurumenaren aldetik nahitaezkoak diren baldintza egokien araudiak eta kudeaketaren legezko baldintzak gainditzeari; laguntzak banatzeko aintzat hartuko da nekazaritza-abeltzaintzako ustiategi bakoitzaren tamaina, ustiategi txikiek ere aukera izan dezaten konpromiso klimatikoari aurre egiteko, bitarteko faltak kaltetu gabe.

Horretarako, laguntza programa bat diseinatu da eta sektorea isurketak minimizatzeko helburuetara egokituko da; helburu horiek, halaber, Nafarroako Klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren plangintza estrategikoan egonen dira”.

Zioak: lege proiektuaren 37. artikuluko testua osatzea proposatzen dugu nekazaritzako eta abeltzaintzako klima aldaketarekin eta trantsizio energetikoarekin lotutako jarduketara larri egokien.

159. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

37 ter artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“37 ter artikulua. Baliabide hidrikoak.

1. Uraren arloko neurrien xedea izanen da Nafarroako sistema hidrikoaren zaurgarritasuna gutxitzea, eta bereziki kontuan hartuko dira honako hauek:

a) Nafarroako barne arroetako ibai ibilguetan emari ekologikoak ezartzea eta horiek berrikustea klima aldagaien bilakaeraren arabera. Erkidego barneko arroetan, neurriak dagozkien arro organoekin erabakitako terminoetan garatuko dira.

b) Uraren zikloa kudeatzeko ekosistemen eraberritze progresibo osorako neurri ekonomikoak aplikatzea.

c) Hornidura sareak elkarrekin konektatzea; neurri horrek hornidura sistemari segurtasuna, malgutasuna eta sendotasuna ematen dio.

d) Aurrezpen eta efizientzia neurrien bitartez lortutako baliabide hidrikoak lehentasunez deribatzea ur ekosistemetak kalitate helburuak lor-

tzeko, eta muturreko lehorte kasuetan, hiri hornidurarako.

e) Askotariko ur masa kontinentalen eta lur azpikoaren zaurgarritasuna ebaluatzea kudeaketa hidrologikoko planen inpaktuen eta presioen agiriaren diagnostikoan oinarrituz eta behar diren egokitzapen neurriak ezartzea.

f) Lurpeko uraren kalitatearen degradazioan maila geologikoan biltegitratutako CO₂-aren ihes prozesuak monitorizatzea.

g) Sistema hidrikoetan giza inpaktudun azterketak egokitzea ISO (International Organization for Standardization) araudira, ur urdina, berdea eta grisa zehaztuz.

h) Eskari hidrikoaren eta eskala handiko laborantza komertzial bioenergetikoetan sortutako ondorioen azterketa sakona.

2. Administrazio publiko eskudunak Nafarroako lurzoruen askotariko erabilera eta ziklo hidrologikoa osatzen duten prozesuekin dituzten loturak aztertzea sustatuko du, azterketa horien emaitzak etorkizuneko planetan, proiektuetan, programetan, inpaktu azterketetan eta lurraldeari lotutako antzeko plangintza tresnetan kontuan har daitezkeen.

3. Klima aldaketaren ondorioz baliabide hidrikoak gutxitzetik eratorritako ondorioak murriztu eta arintzeko, Nafarroako administrazio publikoek, dagozkien eskumen mailetan, hiru urtean behin berrikusiko diren lehorte planak sortuko dituzte.

4. Nafarroa osoko gizakien kontsumorako hornidura altan izatea giza eta herritar eskubidea izanen da eta publikoa eta lehentasunezkoa izanen da bestelako erabilera alternatiboen aurrean.

5. Nafarroako araudia berrikusi eta eguneratu da eta bere helburuen barne ibai erregulazioko, hornidurako eta arazketako politikak egonen dira, Nafarroan proiektzio klimatologikoak eta Nafarroako egoera klimatiko posibleekin bat datozen eskaeriak gehitzen dituzten testu berriak sortzeko”.

Zioak: beharrezkoa da mota honetako foru lege batean alor hau arautzea, ikusirik klima aldaketak baliabide hidrikoetan nola eragiten duen.

160. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

38. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“38. artikulua. Basoetako zuraren eta biomasa-ren erabilera sustatzeko plana. Karbono hustubideak

1. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak Baso kudeaketa jasangarriko plan bat landuko du basoetako zuraren, biomasa-ren eta gainerako produktuen erabilera sustatzeko, eta bertan jasoko ditu planaren ezarpenak berotegi-efektuko gasen murrizketan lortu nahi dituen helburu zenbakarriak. Planean jasoko da, halaber, baliabidearen aprobetxamendurako eta oinarrizko eraldaketarako enpresa txiki eta ertainen sarea sortzea, batez ere despoblazioak zuzenean jo dituen eskualdeetan eta langile tekniko-koen prestakuntza sustatzea, lanbide heziketa bereziki bultzatuz.

2. Gainera, planean karbono hustubideak kudeatzeari lotutako jarduketak jaso beharko dira hauek lortzeko:

a) Karbonoaren finkatze gaitasuna sustatzen duten landarediari lotutako ekintzak gauzatzea.

b) Basoen kudeaketa jasangarria sustatzea, hustubide-efektua moldatzeko eta hobetzeko, eta bertako espeziak erabiltzea basotzeetan.

c) Narriatutako lurzoruak berreskuratzea basoberritzeko edo tokiko abeltzaintza larreetan erabiltzeko.

d) Lurzoruan dagoen karbonoaren bilakaeraren kontrola, atzipena handitzeko neurriak sustatuz, esaterako nekazaritzako jardunbide jasangarriak ezarritik.

e) Suteak prebenitzeko eta basoak garbitzeko programak hobetzea.

f) Plangintza tresnetan txertatzea klima aldaketa kontuan hartzen duten ekosistema naturalen kontserbazio eta lehengoratzeko irizpideak.

g) Higaduraren, lixibiazioaren eta lurzoru gale-raren aurka lan egitea, estalki eta hesi begetal-ak erabiliz gun-ek maldatsuetan, edo lurzoruaren gai organikoa kontserbatzeko aukera ematen duen beste edozein estrategia.

3. Nafarroako Gobernuak baso eta baso kude-aketari buruzko neurriak ezarriko ditu Nafarroako baso kudeaketaren zaugarritasuna gutxitzeko eta hustubide gisa duen egungo gaitasuna hobetzeko, bereziki hauek kontuan hartuta:

a) Baso masen klima aldaketaren inpaktuen aurreko erresistentzia eta erresilientzia gehitzeko baso kudeaketa definitzea eta sustatzea.

b) Klima aldaketaren arriskuak eta bere kudea-keta ebaluatzea.

c) Sute arriskua gutxitzea eta nekazaritza eta baso mosaikoak eta larreak berreskuratzea ahalbidetzen duen baso kudeaketa erraztea.

d) Baso kudeaketa aktiboko neurriak egikari-tzea hauek lortzeko: biodibertsitatea kontserba-tzea eta baso ekosistemen bizitasuna, eskuragarri dauden baliabide hidrikoetara egokitzeko duten gaitasuna eta ziklo hidrojologikoa erregulatzeko eta higaduraren aurka eta euri jasa handien gainerako ondorio kaltegarrien aurrean babesteko duten funtzioa hobetzea”.

Zioak: artikularen testuaren idazketa hobetu da eta planari Baso Kudeaketa Jasangarriko Plana izena jarri zaio eta plan horretan askotariko jarduketak ezarri dira karbono hustubideen kudea-kearekin lotuta eta azpimarratu da plan horrek sustatuko duela aprobetxamenduko enpresa txiki eta ertainez osatutako sarea sortzea eta baliabi-dearen oinarrizko eraldaketa, eta lehenetsunez despoblazio zuzena jasaten duten eskualdeetan kokatuko dela eta “teknikarien prestakuntza susta-tuko dela, bereziki jorratuz lanbide prestakuntza”.

161. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

38. artikulua (Basoetako zuraren eta biomasa-ren erabilera sustatzeko plana) aldatzeko zuzen-keta. Hona testu berria:

“1. Aldaketa Klimatikoaren eta Trantsizio Ener- getikoaren Agentziak basoetako biomasari buruz- ko txostena eginen du: zenbatekoa den beraren potentzial energetikoa, zenbateko isurketak era- gingo lituzkeen beraren erabilerak, eta onuragarria ote den isurketak murrizteko.

2. Bi urte igaro aurretik basoen arloko eskume- na daukan departamentuak plan bat landuko du basoetako zuraren, biomasa-ren eta gainerako produktuen erabilera sustatzeko. Plan horretan zehaztu behar da planaren bidez zenbat nahi den murriztu berotegi-efektuko gasen isurketa.

3. Basoen arloko eskumena daukan departa- mentuak baliabidearen aprobetxamendurako eta oinarrizko eraldaketarako enpresa txiki eta ertai- nen sarea sortzea sustatuko du, batez ere despo- plazioak zuzenean jo dituen eskualdeetan.

4. Gobernuak neurri egokiak ezarriko ditu ziur- tapenez baliatu ahal izateko basoetako zura modu jasangarria aprobetxatzeko, helburua dela Nafa-

rroan 2040. urterako erabiltzen den zuraren % 100 iturri jasangarrietatik sortzea.

5. Debekatuta dago basoetako biomasa erabilteza elektrizitatea sortzeko zentral handietan”.

Zioak: neurriak gehiago zehaztea.

162. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

39. artikuluan (Energia berriztagarriak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegietan txertatzea) 39. artikulua aldatzeko zuzenketa:

“1. Sustatuko da nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegiak energia berriztagarriak paratzea beren instalazioetan edo eraikinetan, 2050erako deskarbonizazio helburuak lortzeko.

2. Foru lege honek indarra izanen duen lehenbiziko bost urteetan, Nafarroako Gobernuak laguntza lerro bat ezarriko du, energia berriztagarriak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegietan integratzea errazteko”.

Zioak: ez epeak ez urteko kontsumoaren mugak ez zaizkigu egokiak iruditzen legean sartzeko. Proposatu dugun testua, gure ustez, askoz hobeki egokitzen zaie sektorearen beharrei, eta EBk ezarritako helburuekin lerrokatzen da.

163. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

39. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“39. artikulua. Energia berriztagarriak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegietan txertatzea.

1. Foru lege hau onetsi eta bost urteko epean, urtean 1.000 kWh-tik gorako kontsumoa duten nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi guztiek energia berriztagarriak ezarri beharko dituzte beren instalazioetan edo eraikinetan, haien kontsumo elektrikoaren % 90 autokontsumoa dela bermatzeko moduan. Aurreko helburua lortzeko epe hauek ezarri dira: % 15 foru lege hau indarrean jarri eta hiru urtera, % 25 sei urtera, % 50 hamar urtera eta % 90 hogeita bost urtera.

Titularraren ohiko etxebizitza barne hartzen duten instalazioetan edo eraikinetan urteko kontsumoa 4.000 kWh baino gehiagokoa izan behar da auto-kontsumoko iturrietatik sortutakoa dela bermatu behar izateko.

2. Artikulu honetan ezartzen diren betebeharrak betetzen direla ulertuko da nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegien jabeek, edo kasua bada, haien energia-zerbitzuen hornitzaileek, energia berriztagarriak ekoizteko proiektuetan parte hartzen badute eta proiektu horiek energia-sorkuntzaren eta isurketen murrizketaren arloetan artikulu honetan eskatzen den estaldurak lortuko lituzkeen emaitzen baliokideak lortzen badituzte, eta Nafarroako administrazio publikoek edo, kasua bada, Nafarroako Energiaren Agentziak sustatu eta kudeatzen badituzte.

3. Foru lege honek indarra izanen duen lehenbiziko bost urteetan, Nafarroako Gobernuak laguntza lerro bat ezarriko du, energia berriztagarriak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegietan integratzea errazteko”.

Zioak: proposatu dugun idazketarekin lortu nahi duguna da cup bera jasotzen duten abeltzaintza instalazioei irtenbidea ematea, hau da, instalazioari berari eta bere titularraren ohiko etxebizitzari. Abeltzaintza ustiapenetan energia berriztagarriak integratzeari dagokionez, gure ustez, nahia izanez gero, instalazio horiek energetikoki % 90-100ean independenteak izaten ahal dira egungo teknologia gehiegi aldatu gabe, izan ere, haien lurralde kokapena dela-eta, jatorri ezberdineko energia berriztagarriak kokatzeko espazioak erabiltzen ahal dira. Modu progresiboan ia autosufizientzia osoa lortzeko epeak proposatu dira.

Gainera, betebeharren salbuespena mugatuko da nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegien jabeek, edo kasua bada, haien energia-zerbitzuen hornitzaileek, energia berriztagarriak ekoizteko proiektuetan parte hartzen badute eta proiektu horiek energia-sorkuntzaren eta isurketen murrizketaren arloetan artikulu honetan eskatzen den estaldurak lortuko lituzkeen emaitzen baliokideak lortzen badituzte, eta Nafarroako administrazio publikoek edo, kasua bada, Nafarroako Energiaren Agentziak sustatu eta kudeatzen badituzte. Ez instalaziotik urrun dagoen eta ekimen pribatukoa den edozein proiektutan.

3. apartatuan “existitzen dena” gehitu da, izan ere, ez litzateke zentzuduna izanen kontsumo handiko instalazio berriei dirulaguntzak ematea (adibidez, Ebroren eskuinaldean ureztatu nahi diren terraza handiak, eraldaketan sartu behar ez liratekeenak).

164. ZUZENKETA

**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

39. artikuluan (Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan energia berriztagarriak erabiltzea) 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. Bost urte igaro aurretik urtean 1.000 kWh-tik gorako kontsumoa duten nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi guztiek energia berriztagarriak paratu beharko dituzte beren instalazioetan edo eraikinetan, kontsumitzen duten elektrizitatearen % 40 gutxienez berek sortua izan dadin”.

Zioak: bizitegietan dagoeneko % 40ra iritsi dira; beraz, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan ere ehuneko hori bete behar da.

165. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

40. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“40. artikulua. Lurzoruaren nutrizioa.

1. Lurzoruari ongarriak eta nutrienteak edo onuragarriak zaizkien beste ezaugarri batzuk zuzenean nahiz zeharka ematen dizkioten beste-lako materialak erabiltzean, laborearen beharrei zorroztz egokitzen zaizkien kantitateak erabili beharko dira, haien jardueran eragin dezaketen berotegi-efektuko gasen isurketak eta, eguratsean bezala, lurpeko uretan eragin dezaketen kutsadura murrizteko.

2. Bi urtean onetsiko da lurzoruaren ongarritzea, abereen gorozkiak eta lurzoruari ematen zaizkien gainerako materialak kudeatzeko baldintzak erregulatzen dituen garapena, kudeaketa hori optimizatzeko eta izan ditzakeen ondorio kaltegarriak minimizatzeko; neurriak garatuko dira bereziki babesteko ur-ibilguak eta hezeguneak, eta neurri bereziak hartuko dira nitratoen pilaketak kutsatutako alubioi-lurak lehengoratzeko.

3. Erregelamenduzko garapen horretan, Nafarroako Gobernuak honakoak kontuan hartuko ditu aurreko apartatuan zehaztutakoak erregulatzeko:

a) Lurzoruak ikertzeko unitate organiko espezi-fiko bat sortzea. Horren menpe egonen da lurzoruaren egoeraren lurralde monitorizazio sarea, eta

bere xedea lurzoruaren degradazio egoera eta lurzoruak arintze edo egokitzapen estrategien aurrean duten erantzuna zehaztea izanen da.

b) Birsortze teknika efizienteak eta lurraldeko geografia eta nekazaritza berezitasunei egokitutakoak sustatzea.

c) Lurzorua birsortzeko teknikei buruzko prestakuntza sustatzea nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako praktikekin lotutako sektoreetan, arlo publiko eta pribatuan.

d) Unibertsitateko goi-mailako irakaskuntzetako eta Lanbide Heziketako programa akademikoetan lurzoruaren birsortze tekniken ezagutzari buruzko ikastaro espezifikoak sartzeko nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako sektorearekin lotutako gaietan.

e) Administrazioak sustatzea lurzoruaren birsortzeko teknikak erabiltzea eta nekazaritza, abeltzaintza eta baso sektoreei lotutako profesionalen lurzoruarekin lotutako dinamikak aldatzea ere bultzatzea.

f) Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak guztiak karbono aztertaren eta aztarna hidrikoaren arabera integratzea eta kontuan hartzea BEG emisioetan duten garrantzi kuantitatiboa, araudiak baimentzen duen neurrian, emisio eskubideen merkataritza erregimenean, eta modu horretan sustatu edo zigortzea jarduerak bakoitzaren karbono balantzea.

g) Administrazio publikoek bultzatzea teknika horrekin bateragarriak diren eta hurbileko nekazaritza ekologikoan sortutako elikagaiak kontsumitzea, bereziki zentro publikoetan, ikastetxeetan, osasun zentroetan edo espetxe publikoetan”.

Zioak: epe jakin bat zehaztu da arlo horretako erregelamenduzko garapenerako, izan ere, une honetan mantenugaiak oker erabiltzen ari dira eta lurzoru larriki kaltetzen ari da. Adibidez, Caparrosoko makro abeltzaintzaren mindak tratatzen dituen biogas instalazioak sortutako digestatoaren erabilerak agerian uzten du erregelamenduzko garapen horren premia. Gainera, bertan jorratu beharreko askotariko gaiak proposatzen dira.

166. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

40. artikuluan (Lurzoruaren nutrizioa) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Urtebeteko epean, gehienez, erregelamenduz garatuko dira lurzuaren ongarritzea, abereen gorozkiak eta lurzuari ematen zaizkion gaineko materialak kudeatzeko baldintzak, kudeaketa hori optimizatzeko eta izan ditzakeen ondorio kaltegarriak minimizatzeko; neurriak garatuko dira bereziki babesteko ur-ibilguak eta hezeguneak, eta neurri bereziak hartuko dira nitratoen pilaketak kutsatutako alubioi-lurak leheneratzeko”.

Zioak: uste dugu beharrezkoa dela gai hau erregelamendu bidez garatzeko epea jartzea, funtsezkoa dela uste baitugu.

167. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

40. artikuluan (Lurzoruaren nutrizioa) 2. apartuaren paragrafo bat aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“2. Bi urteko epealdian nekazaritza eta abeltzaintzaren gaineko eskumena daukan departamentuak honako hauek arautzen dituen erregelamendua garatuko du: lurzuaren ongarritzea, abereen gorozkiak eta lurzuari ematen zaizkion gainerako materialak kudeatzeko baldintzak, kudeaketa hori optimizatzeko eta izan ditzakeen ondorio kaltegarriak minimizatzeko; neurriak garatuko dira bereziki babesteko ur-ibilguak eta hezeguneak, eta neurri bereziak hartuko dira nitratoen pilaketak kutsatutako alubioi-lurak leheneratzeko”.

Zioak: Nafarroan berotegi-efektuko gasen isurketen % 12 inguruk zerikusia dute lurzoruaren eta simaurren kudeaketarekin; beraz, lehenbailehen ezarri behar dira lurzuaren nutriziorako eta simaurrak kudeatzeko baldintzak.

Gainera, neurri horrek beste onura bat dakar, alegia, lurzoru eta akuiferoak kutsatzea saihestea.

168. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

40. artikuluari (Lurzoruaren elikadura) testua gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau gehitzen da hasieran:

“Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Nafarroako Agentziak txostena eginen du sin-

tesi kimikoaz sortutako ongarrri nitrogenatuen eta pestiziden erabilpena murrizteari buruz, erreferentziatzat 1990. urtea hartuta eta helburuak 2030erako, 2040rako eta 2050erako ipinita. Horien murrizketa adierazteko, berotegi-efektuko gasen murrizketak edukiko duen eragina ere zehaztu behar da. Hona lortu beharreko pestiziden eta ongarrrien erabilpenaren murrizketa-helburuak: 2030erako ongarrrien % 20 eta pestiziden % 50 gutxiago, 2040rako ongarrrien % 40 eta pestiziden % 80 gutxiago, eta 2050erako ongarrrien % 60 gutxiago eta pestizidarik bat ere ez (% 100)”.

Zioak: sintesi kimikoko ongarrri nitrogenatuak eta pestizidak murriztu beharra nabarmentzen da epe laburrera, ertainera eta luzera begira.

169. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

40. artikuluari (Lurzoruaren elikadura) bost puntu gehitzeko zuzenketa:

“3. Nekazaritzako dirulaguntzak sintetizatutako ongarrri nitrogenatuen eta pestiziden erabilpenaren murrizketarekin lotzeko neurriak aztertu eta ezarriko dira, Nekazaritza Politika Erkideak horretarako ematen dituen aukeren arabera.

4. Neurriak aztertu eta ezarriko dira laguntza publikoak nekazaritzako eta abeltzaintzako espazioak birgaitzeko, nitrato eta pestiziden kontzentrazioek kalte egindako ekosistemak lehengoratzeko.

5. Neurriak ezarriko dira fertirrigazioan aplikatzen ahal diren ongarrri berriak sustatzeko eta ongarrriak aplikatzeko ekipoak sartzeko.

6. Bultzatuko da abeltzaintza eta nekazaritza uztartzea abeltzaintza intentsiboaren kontzentrazioa saihestuz. Helburua da onuragarria izatea mindaren elikagai nitrogenatuak inguruko nekazaritzan erabiltzea.

7. Neurriak ezarriko dira babes berezia emateko hezeguneei, eta neurri bereziak nitratoen erretentzioek kutsatutako alubialak lehengoratzeko”.

Zioak: beharrezkotzat jotzen da zer neurri garatuko diren aztertu eta zehaztea.

170. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

41. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“41. artikulua. Arintzea hondakinen sektorean.

1. Nafarroako Gobernuak Ekonomia Zirkularreko Agenda bat izanen du, ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuak egina, funtsezko tresna izanen dena arlo honetako plangintzarako eta bat etorriko dena Europar Batasunak ezarritako printzipio eta helburuekin.

Ekonomia Zirkularreko Agendak abian jarri beharko du bertan jasotzen dituen neurrien ezarpena, bereziki kontuan hartuz zenbait arlo, besteak beste, baliabideen kudeaketa efizientea, ekoizpena, kontsumoa, hondakinak, ekoberrikuntza eta ekodiseinua, berrikuntza sustatzeko ekimenak eta ezarritako helburuak lortzeko aplikatu beharreko mekanismoak.

Jardun esparrua ezagutzeko edo sensibilizazio kanpainak diseinatzeko egiten diren azterketetan genero ikuspegia txertatuko da analisiaren kategoria gisa, ondoren presentzia izan dezan hondakinak gutxitu eta kudeatzeko ekintzetan, batez ere etxean, hondakinen sorburu nagusietako bat baita.

2. Ekonomia zirkularren agendan hondakinen arloan jasotako neurrien xedea izan behar da herritarren zaugarritasuna eta berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzea, zero hondakinen estrategia lehenetsiz materiala aurrezteko eta prozesamendua gutxitzeko, eta bereziki, erregai fosil asko erabilita ontziratutako produktuak murriztea eta zigortzea; zehazki, xedea izan behar da honakoak lortzea:

a) Hondakinen kudeaketako berotegi-efektuko gasen isurketak ebaluatzea. Urtean behin hondakinen kudeaketa hobetzearen ondorioz sortutako berotegi-efektuko gasen emisioen gutxitzeen jarraipena eginen da.

b) Europako hierarkia aplikatzea hondakinak kudeatzeko aukerei dagokienez.

c) Jatorrian gaikako bilketa ezartzea, materia organikoa aprobetxatzea eta horren balorizazio materiala digestio anaerobikoaren eta konpostajearen bitartez egitea, horrela saihesteko zabortegietan uztea.

d) Zabortegietako berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzeko eta hondakinetatik sortutako erregai erabiltzeko neurriak aplikatzea.

e) Eraikuntzaren arloan neurriak ezartzea jarduera horretako hondakinak gutxitzeko, eta bereziki agregakinen eskaria gutxitzea sustatzeko eta eraikuntza materialak berrerabili eta birziklatzea bultzatzeko.

3. Ekintza gako gisa, lehentasuna emanen zaio ekonomia zirkularreko berrikuntza proiektuen sustapenari, era berezian bultzatuz produktuen ekodiseinua, teknologien erakuspena, ekoizpen-prozesuen ekoberrikuntza eta osagai eta materialen berrerabilpena. Horretarako, berrikuntzarako laguntza ekonomikorako zehaztuko diren programetan, garapenaren eta heldutasun teknologikoaren askotariko mailak kontuan hartuko dira.

4. Berotegi-efektuko gasen isurketen murrizketak gidatuko ditu Foru Komunitateko legerian aurreikusitako Hondakinen Plana eta hondakinen arloan hartzen diren neurriak, ekonomia zirkularren garapena oinarri hartuta”.

Zioak: testua hobetzea, gehituz ekonomia zirkularren agendan hondakinen arloan jasotako neurrien xedea izan behar dela herritarren zaugarritasuna eta berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzea, zero hondakinen estrategia lehenetsiz materiala aurrezteko eta prozesamendua gutxitzeko, eta bereziki, erregai fosil asko erabilita ontziratutako produktuak murriztea eta zigortzea; zehazki, xedea izan behar da honako hauek lortzea:

a) Hondakinen kudeaketako berotegi-efektuko gasen isurketak ebaluatzea. Urtean behin hondakinen kudeaketa hobetzearen ondorioz sortutako berotegi-efektuko gasen emisioen gutxitzeen jarraipena eginen da.

b) Europako hierarkia aplikatzea hondakinak kudeatzeko aukerei dagokienez.

c) Jatorrian gaikako bilketa ezartzea, materia organikoa aprobetxatzea eta horren balorizazio materiala digestio anaerobikoaren eta konpostajearen bitartez egitea, horrela saihesteko zabortegietan uztea.

d) Zabortegietako berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzeko eta hondakinetatik sortutako erregai erabiltzeko neurriak aplikatzea.

e) Eraikuntzaren arloan neurriak ezartzea jarduera horretako hondakinak gutxitzeko, eta bereziki agregakinen eskaria gutxitzea sustatzeko eta eraikuntza materialak berrerabili eta birziklatzea bultzatzeko.

Artikuluaren izenburua ere aldatu da, izan ere, ez daude helburuak finkatuta.

171. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

42. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“42. artikulua. Karbono aztarnaren kalkulua eta energia eta karbono aztarna murrizteko planak.

1. Nafarroako Gobernuak foru lege hau indarrean jarri eta hamazortzi hilabeteko epean ezarriko du zer enpresa motak, Foru Komunitatean jarduera dutenen artean, kalkulatu eta argitara eman beharko duten beren karbono aztarna, oinarritzko araudian ezarritakoaren osagarri, eta, era berean hasierako zer kopurutatik aurrera exijitzen ahalko den betebeharrak, zer maiztasunarekin eta betebeharra eratzeko beharrezkoak diren beste elementu guztiak. Erregelamenduzko garapen horretan aintzat hartuko da genero ikuspegia, emakumeen eta gizonen kontsumo ohiturek atxikiak dituzten karbono aztarna desberdinak aztertuz.

2. Orobat, aurreko apartatua xedatutakoaren arabera, karbono aztarna kalkulatu behar duten subjektuek berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko plan bat prestatu eta eman beharko dituzte argitara.

3. Berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko planean horretarako helburu kuantifikatu bat jaso beharko dute bost urteko epeari begira, bai eta hori lortzeko neurriak ere. Enpresek beren karbono aztarna konpentsatzen ahalko dute hala nahi badute.

4. Murrizketa plan horietan, oinarritzko araudian ezartzen denaz gain, honakoak ere zenbatzen ahalko dira isurketen murrizketa gisa:

a) Energia berriztagarriak ekoizteko proiektuetan egindako inbertsioei atxikitako murrizketak, proiektu horiek Nafarroako administrazio publikoek edo, kasua bada, Nafarroako Energiaren Bulegoak edo foru lege honetan jasotako tokiko energia komunitate batek sustatu eta kudeatutakoak badira.

b) Martxoaren 14ko 163/2014 Errege Dekretuaren bidez sortutako karbono aztarnaren erregistroan erregistratu eta ziurtatu diren konpentsazioak”.

Zioak: beharrezkoa da epe bat finkatzea Nafarroako Gobernuak foru komunitatean jarduten duten enpresen tipologia ezartzeko; enpresa horiek, oinarritzko araudian ezarritakoaz gain, haien karbono aztarna kalkulatu eta argitaratu

beharko dute. Estatu legean gobernu zentralari urtebeteko epea ematen zaionez, Nafarroako Gobernuak geroago finkatu beharko luke, baina lan egiten hasi beharko litzateke foru legea onesten denetik aurrera.

Gainera, gure ustez ezin da emisioen murrizketarik eza klimaren funtsaren ekarpen batean oinarritu, izan ere, diru-bilketaren helburuari iruzur egitea litzateke, kaudimen ekonomikoa dutenei eskudiruz konpentsatzea erraztuz. Gainera, gure ustez emisioen murrizketa gisa energia berriztagarrien proiektuetan parte hartzea zenbatzeko, proiektu horiek administrazio publikoek edo tokiko energia komunitateek sustatu beharko litzateke.

172. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

42. artikuluan (Karbono aztarnaren kalkulua eta energia eta karbono aztarna murrizteko planak) 1. puntua aldatzeko zuzenketa:

“1. Nafarroako Gobernuak ezarriko du zer enpresa motak, Foru Komunitatean jarduera dutenen artean, kalkulatu eta argitara eman beharko duten beren karbono aztarna, oinarritzko araudian ezarritakoaren osagarri, eta, era berean hasierako zer kopurutatik aurrera exijitzen ahalko den betebeharrak, zer maiztasunarekin eta betebeharra eratzeko beharrezkoak diren beste elementu guztiak. Erregelamenduzko garapen horretan aintzat hartuko dira, besteak beste, genero ikuspegia, maila sozioekonomikoa, bizilekua eta talde demografikoa, kontsumo ereduak atxikiak dituzten karbono aztarna desberdinak aztertuz”.

Zioak: uste dugu ez dela genero-ikuspegia soilik garrantzitsua karbono aztarnaren kalkulurako; badira ikuspegi gehiago garrantzitsuak direnak hainbat eredu ezartzeko.

173. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

42 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“42 bis artikulua. Produktu eta zerbitzuen karbono aztarnaren erregistroa.

1. Nafarroako produktu eta zerbitzuen karbono aztarnaren erregistroa sortu da. Ingurumen arloan eskuduna den departamentuari atxikita dago eta bere xedea modu boluntarioan produktu eta zerbi-

tzuen karbono aztarna inskribatzea izanen da. Erregistroa produktu edo zerbitzu bati lotutako berotegi-efektuko gasen emisio guztiak kalkulatu eta jakinarazteko tresna izanen da. Karbono aztarnaren kalkulua arautuko dute nazioartean onartutako estandarrek.

2. Erregistroan inskribatzen ahalko dira Nafarroako Foru Komunitatean produktu edo zerbitzuren bat ekoizten, banatzen edo merkaturatzen duten pertsona fisiko edo juridiko publikoak eta pribatuak.

Enpresak erregistroan inskribatuko dira eta gutxienez honako datuak jasoko dituzte bertan, erregelamenduz zehaztuko diren terminoetan:

a) Nafarroan gauzatzen dituzten jardueren karbono aztarnaren urteko kalkuluak.

b) Nafarroan egikaritu beharreko emisio murrizketa planei buruzko datuak.

c) Isurketak konpentsatzeko mekanismo boluntarioari lotutako karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuak.

3. Erregelamenduz zehaztuko dira erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua. Inskribatze prozedura eta produktu eta zerbitzuen kategoriararen arabera erregistroko altak eta bajak ebazteko departamentu eskudunak ere arautuko dira.

4. Erregelamenduz arautuko dira logotipoa eta erabilera baldintzak, erabilerari lotutako betebeharrak, ziurtagirirako betekizunak, produktuaren kategoria araurako betekizunak, karbono aztarna kalkulatzeko metodologia eta berritze edo kentze prozedura.

5. Erregistroan inskribatzean, establezimenduan edo produktuaren etiketan karbono aztarnaren logotipoa erabiltzeko eskubidea jasoko da.

6. Produktuen etiketan eta bilgarrietan karbono aztarnaren ebaluazioa jaso beharko da. Aztarnaren emaitzak irakurgarriak eta erraz ikusteko modukoak izanen dira. Erregelamenduz zehaztuko dira zerbitzuaren edo erakundearen etiketek edo merkataritza publizitateak produktua fabrikatzeko edo zerbitzu prestazioa egiteko sortu den karbono aztarna erakusteko bete beharreko baldintzak.

7. Erregistroko inskribatzeak gutxienez bi urteko baliozkotasuna izanen du eta erregelamenduz ezarritakoaren arabera luzatzen ahalko da.

8. Ingurumen arloan eskuduna den departamentuak bi urte igaro aurretik Nafarroako karbono aztarna sortu beharko du berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioan oinarrituta”.

Zioak: Nafarroako produktu eta zerbitzuen karbono aztarna gehiago hedatzeko eta aztarna eskuratzen ahal izateko, dagokion erregistroa sortu beharko da eta erregistro hori baliagarria izanen da, halaber, herritarrek jakiteko zein den kontsumitzera doazen produktuen edo jasoko dituzten zerbitzuen aztarna. Horrela, aztarnaren arabera aukeratzen ahalko dute.

174. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

42 ter artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“42 ter artikulua. “Nekazaritza eta abeltzaintza ustiatuegi karbono aztarna kalkulatzeko.

1. Foru lege hau onesten denetik bi urteko epean karbono aztarnaren kalkulua aurkeztu beharko dute hauek:

a) 800 AzLU baino gehiagoko abeltzaintza ustiatuegiak.

b) Laborantza baliokideko azalera osoa 800 ha baino gehiagokoa duten nekazaritzako ustiatuegiak.

2. Laborantza baliokideko azalera kalkulatzeko, mota bakoitzeko azalera dagokien faktorearekin biderkatuko dira.

3. Titularra sozietate kooperatiboa edo eraldaketarako nekazaritza-sozietatea duten nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiapenak direnean, artikulua honen 1. puntuan azaldutako betebeharrak aplikatzeko azalera eta/edo AzLU kopuruari dagokion kalkulua bazkide kopuruarekin zatikatu da”.

Zioak: klima aldaketa ingurumen erronka handienetakoa da bere espazio eta denbora dimentsioak direla-eta. Sektorean geroz eta nabariagoa da nekazaritzaren eta ingurumenaren arteko lotura, eta klima aldaketa horren adibide garbia da, izan ere, nekazaritzaren sektorea da zaurgarrientako bat.

Nafarroako nekazaritza sektorea nagusiki Nekazaritza Politika Komunitate eratorritako araudiak arautzen du, eta urteetan zehar Europar Batasuneko aldaketa sozioekonomikoetara eta ingurumen aldaketetara egokitzen joan da. Modu horretan, nekazaritzaren multifuntzionalitatea eta nekazaritzaren eta ingurumenaren arteko lotura aintzatetsi dira, bai eta, ondorioz, klima aldaketan duen eragina eta klima aldaketak nekazaritza jardueretan sortzen dituen ondorioak ere.

Araudi testuinguru horri esker, urteetan zehar aldaketa oso garrantzitsuak sustatu dira ingurumenaren eta klimaren arloetan, eta halaxe gertatu da azken erreforman ere; bertan, ildo horri jarraituz, eko-eskemak proposatu dira eta ingurumen erronkaren garrantzia azpimarratu da.

Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea eta aurreikusitako klima aldaketaren agertoki berrietara egokitzea dira hurrengo urteetan Nafarroako nekazaritza sektoreak jorratu beharreko erronka nagusiak.

Karbono aztarna ingurumen jasangarritasuneko adierazle bat da eta karbono dioxidoaren (CO₂) eta bestelako berotegi-efektuko gasen zuzeneko eta zeharkako emisioak zenbatzen ditu; emisio horiek atmosferara botatzen dira jarduera baten ondorioz (erakunde bat, produktua, ekimena edo zerbitzua) eta masa unitateetan adierazten dira.

Landa inguruan lan egiten duten pertsonentzat karbono aztarna tresna berri bat da eta ekoizle jasangarri gisa ezberdintzeko baliogarria da. Kalitatezko produktu eta zerbitzuek (arduraz eta arretaz sortutakoek) dituzten abantailak baieztatzen dituzte haien karbono aztarnaren balioa kalkulatzeko denean. Karbono aztarna neurtzearen helburua da gizarte sektore guztiak inplikatzeko ingurumen inpaktu horren aurkako borrokan. Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak sortzen duten ingurumen inpaktua gutxitzea, ingurumenarentzat beharrezkoa eta onuragarria izateaz gain, prozesuen, animalien eta landareen zaintzarako eta errentagarritasunerako ere onuragarria da. Sektoreko profesionalen karbono aztarna gutxitzen dutenean, ongarrien eta beharrezkoak ez diren bestelako produktuen erabilera gehiegizkoa gutxitzen dute eta kostu materialak aurrezten dituzte. Etorkizun garbi eta karbonorik gabean pentsatuta, jasangarritasuneko neurri hau tresna berri bat da ekoizpen eta erakunde jasangarriak ezberdintzeko eta sustatzeko.

Edonola ere, une honetan karbono aztarna kalkulatzeko hainbat eragozpen daude, baina hala ere, tresnak ez du klima aldaketaren gaineko inpaktuaren adierazle gisa duen garrantzirik galtzen, eta bereziki, biztanleria sentsibilizatzeko duen bektore gisa.

175. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

42 quater artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“42. quater artikulua. Produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono aztarna kontratazio publikoan.

1. Foru Komunitateko Administrazioak eta foru sektore publikoaren gainerako erakundeek egindako lizitazioetan, administrazio klausula partikularren peguetako prozeduraren edozein fase-tan gehitzen ahalko da lizitazioen xede diren produktuetan, zerbitzuetan eta horniduretan karbono aztarna izatearen beharra, kontratazio publikoaren araudian adierazitako moduan. Ondorio horietarako, lizitatzailerak karbono aztarna justifikatzen ahalko dute Nafarroako produktu, zerbitzu eta erakundeen karbono aztarnaren erregistroan inskribatu izanaren indarraldia ziurtatuz edo ingurumen kudeaketako neurri baliokideen gainerako frogabideak erabiliz.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa nahitaezkoa izanen da foru lege hau indarrean jarri eta bi urte igarotzen direnean”.

Zioak: Foru Komunitateko Administrazioak ere kontratazio publikoan gehitu behar du lizitatuko diren produktuek, zerbitzuek eta hornidurek haien karbono aztarna egiaztatu beharra.

Karbonoaren aztarnaren, konpentsazioen eta karbono-dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroa sortzeko martxoaren 14ko 163/2014 Errege Dekretuak ezarri zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako SPKLren testu bateginean xedatutakoaren ondorioetarako, kontratazio organoak ingurumeneko kontsiderazioetan gehitzen ahalko lukeela karbono aztarna. Xedapen horixe bera aplikatu behar da Nafarroako araudian ere.

IV. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

176. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

43. artikulua (Klima-aldaketara egokitzea) aldatzeko zuzenketa. b), c), d), e) eta f) apartatuak ezabatzen dira eta haien ordeztu bost puntu gehitzen dira

“3. I+G+b arloa sustatuko du, klima-aldaketak ingurumenean, azpiegituretan, jarduera ekonomikoan, osasunean eta ongizatean dituen inpaktuak

hobeki ezagutzeko eta jarduketa eraginkorragoak eta berdintasunezkoagoak diseinatu ahal izateko.

4. Administrazioen arteko koordinazioa ezarriko du klima-aldaketaren ondorioen aurkako borrokan.

5. Inpaktuak minimizatzeko neurriak aplikatuko ditu.

6. Gizarte eragileei informazioa, sentibilizazioa eta laguntza emanen dizkie haien eraldaketarako, Nafarroako Komunitatea lurralde erresilienteagoa izan dadin.

7. Jarduera-sektoreen planen berrikuspena ezarriko du klima-aldaketara egokitzeko neurriak jaso ditzaten.

Zioak: beharrezkoagoak dira neurriak eta apustu politikoa klima aldaketari aurre egiteko egokitzapenean.

177. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

43. artikuluan bi letra berri gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testua:

“g) Behar diren neurriak sustatuko ditu gutxitzearen, aurrezpenaren eta efizientzia energetikoren arloan, 2030eko energiaren azken kontsumoa joerazkoa baino % 39,5 txikiagoa izateko gutxienez, energiaren arloko estatuko oinarritzko araudiaren esparruan.

h) Uraren kontsumoa gutxitzeko neurriak sustatuko ditu”.

Zioak: energiaren eta uraren kontsumoa murrizteko neurriak sustatzea klima aldaketaren aurkako borrokaren ezinbesteko elementuetako bat izan behar denez, proposatzen dugu Nafarroako Gobernuak ere Nafarroako gizartea eta ingurua prestatu behar dituela klima baldintza berrietarako. Horrekin lotuta, g) eta h) letra berriak gehitu dira.

178. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

43. artikuluari (Klima-aldaketara egokitzea) puntu bat, bigarrena, gehitzeko zuzenketa:

“2. Nafarroako Gobernuak zaugarritasunaren txostenean bilduko du Nafarroako udalerrietako zaugarritasunari buruzko txostenetan azaltzen dena. Zaugarritasunaren txostena txosten teknikoa da; bertan gertatzen ahal diren arriskuak eta eraginak zehaztuko dira zenbait irizpideren arabera xehatuta: lurralde tipologiak, ekosistemak, populazioak eta sektore sozioekonomikoak), eta egungo eta etorkizuneko zaugarritasun-graduak ezarriko dira, genero-ikuspegia txertatuta, behar denean. Txostenean eraginpeko eremuak bilduko dira, eta arriskuan dauden udalerrak zehaztuko dira. Udalerrak horiek lankidetzan jardun beharko dute plangintzarako eskumena duten administrazioekin eta konfederazio hidrografikoekin txostena egiteko fenomeno natural gaitzen arriskuaren aurreko zaugarritasuna murrizteko egokitze-neurriak buruz: babes-azpiegiturak eraikitzea, lurzoruaren erabilera aldatzea, etab.

Zaugarritasun txostenak bost urtean behin eguneratuko dira; edukia honako hau izan behar da:

a) Klima-gertari latzenen eragin erregistratuaren berri ematen duten adierazleak: azken aldiko bilakaera, eragin ekonomikoa, haien aurreko prestakuntzaren balorazioa, eta ezarritako neurriak eta saihestutako kalteen kostua/onura analisia.

b) Klima-aldaketaren zenbait kasu Nafarroako zona agroklimatikoetan eragingo lituzketen aldatketen mapak.

c) Dauden baliabideen (ingurunearen jasate-ahala barne) eta ekoizpen eta janari beharizanen analisia.

d) Nekazaritza eta abeltzaintzako sistemak sortutako zerbitzu ekosistemikoen eta klima-aldaketa moteltzeko duten gaitasunaren ebaluazioa.

e) Aurreikusten diren animalien jasate-ahala eta lurraldearen estres hidrikoaren bilakaeraren berri ematen duten adierazleak.

f) Klima-iragarpenak laborantzaren etekinekin, biomasaren sorkuntzarekin, eta uraren eta hidrogenoaren balantzearekin lotzen dituzten eragin-ereduak lantzea.

g) Honako hauek azaltzen dituzten ereduak sortzea: nola jokatzeko ahal duten agente patogeenok klimaren arabera, nolako ahala duten agenteok biotopora egokitzeko, eta nolako den prozesuen dinamika urtaroen arabera.

h) Labore-sailak ureztatze beharko den uraren bilakaera zenbait klima-gertakariren arabera.

i) Abeltzaintza industrialak uren, lurren eta airearen kutsaduran daukan eraginaren bilakaera.

j) Nekazaritzarako balio handia duten lurren inbentarioa eta katalogoa; karbono kopuruaren arabera sailkatuta azaldu behar dira.

k) Narriadura eta desertizazio arriskuan dauden lurren inbentarioa eta katalogoa.

l) Antzemandako arriskuen arabera eraikitzen, mugikortasunean eta azpiegiturretan egin beharreko egokitzapenak”.

Zioak: beharrezkotzat jotzen da zaurgarritasunari buruzko txostena egitea eta bertan biltzea Nafarroako udalerrietako zaurgarritasunari buruzko txostenetan azaltzen dena. Zaurgarritasunaren txostena txosten teknikoa da; bertan gertatzen ahal diren arriskuak eta eraginak zehaztuko dira zenbait irizpideren arabera zehaztuta: lurralde tipologiak, ekosistemak, populazioak eta sektore sozioekonomikoak), eta egungo eta etorkizuneko zaurgarritasun-graduak ezarriko dira, genero-ikuspegia txertatuta, behar denean.

179. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

44. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“44. artikulua. Klima aldaketara egokitzea ingurune naturalean.

1. Nafarroako Gobernuak eta, oro har, Nafarroako administrazio publiko guztiek koherentziaz jokatuko dute, aintzat hartuz prebentzio eta zuhertasun irizpideak, eta lehenetsiz Nafarroako biodibertsitatearen eta baliabide naturalen kontserbazioa klima aldaketaren inpaktuaren ondorioak minimizatzeko eta hori guztia ingurune naturala eta biodibertsitatea ingurumen politikaren egiturazko elementu gisa babestea erraztuz.

2. Nafarroako Gobernuak koordinatu eta bermatuko ditu bere lurralde plangintzaren finantzazioa, babes zibilerako planak, naturaguneak eta espezie mehatxatuak kudeatu, babestu eta leheneratzeko planak, suteen eta beste hainbat arriskuren prebentzio planak, eta laguntza eta ikerketa lerroak, klima aldaketara egokitzeko irizpideak jasotzen dituztela bermatuz, eta hauek faboratuz:

a) Klima aldaketarako prestatzea eta aurreratzeari, ekosistema zaurgarrienak, espezie inbadi-tzaileak, klima aldaketara hobekien egokitutako espezieak eta sentikorrenak monitorizatzeko eta

haien jarraipena eta identifikazioa egiteko sistemak erabiliz, espezie edo ekosistema horietako bakoitzean izan dezakeen inpaktua saihesteko eta ahalik eta gehien gutxitzeko neurriak sustatuz.

b) Ekosistemak kontserbatzeko eta leheneratzeko ahaleginak areagotzea, barne direla basosistemak eta baso-nekazaritza sistemak, lurzoruen eta hezeguneen kontserbazioa aintzat hartuz, karbonoaren bahiketarako funtsezko portaera den aldetik.

c) Uretako ekosistemen kontserbazioa eta leheneratzea, ibai-gune, ibaiertzen eta ibaien uholde-lautadak leheneratzeko lanak bultzatuko ditu, nekazaritzaren sektorearekin ahalik adostasun zabalena lortuta, laboreen aldaketak eta ureztatzeak azpiegituren egokitzapena sustatuz, uholdeek nekazaritzan eragiten dituzten kalteak minimizatzeko.

d) Arroko organismoekin batera, emari ekologikoen diseinu egokia egitea, prozesu biologiko naturalei ongi eustea bermatu dezaten.

e) Hezeguneen kasu berezian, biodibertsitatean eta migrazioan eta karbonoaren bahiketetan duten garrantzi estrategikoagatik, haien erregimen hidrikoa mantentzea haien ziklo espazial eta denbora-ziklo osoan, eta, beharrezkoa bada, beste erabilera batzuk murriztea, arriskuan jartzen ahal badituzte.

f) Larrialdi klimatikoaren aurrean prebentzioa hobetzea, esaterako lehorteak, udako idorraldi luzeagoak, uholdeak, bero-boladak edo suteak, naturan oinarritutako konponbideak lehenetsiz.

g) Lurraldeko osagai desberdinen arteko interakzioa ahalbideratzen duen lurralde-eredua, konektibitate ekologikoa errazten duena, azpiegitura berdea eta korridore ekologikoak ezarri, sare ekologiko integral eta koherente bat osatzea sustatzeko helburuarekin, iragazkortasun ekologikoa zainduz eta habitatak eta sistema naturalak zatikatu gabe eta lurralde intzidentzia duen plangintzan habitaten eta sistema naturalen arteko konektibitatea bermatuz.

h) Basoen kudeaketa jasangarria sustatzea eta dinamizatzea, lagundu dezan baliabide berriztagarriak identifikatzen eta eskuratzen, lurzoruen kudeaketa moldakorrean eta karbonoaren bahitze-potentziala handitzen, ahal den neurrian.

i) Basogintzako ziurtagiriak sustatzea eta, horrekin batera, basogintzako espezie tolerantetagoen eta iraunkorragoen ikerketa, klima aldaketari, izurriari eta gaitzei aurre egiteko; basogintzako jarduketan hobekuntza eta ikerketa, zaintza,

detekzioa eta ikerketa, basoko izurriei eta gaitzei aurre egiteko tratamenduetan.

j) Inpaktua minimizatzeko neurriak espezie bakoitzari, bere babes kategoriaren eta onetsitako ekintza planen arabera, dagokion plangintzan oinarrituta, ex situ kontserbazioa barne, posible denean.

k) Nafarroako biodibertsitate aberatsarentzat eta toki ekosistemen funtzionamenduarentzat arriskutsuak izaten ahal diren espezie exotiko inbaditzaileak ingurune naturalean ugaritzea saihesteko beharra.

i) Klima aldaketaren inpaktuen ebaluazioa babestutako espazio naturalen eta Natura 2000 Sareko espazioen planifikazioan eta kudeaketan, biodibertsitatearen kontserbazioa bermatzeko.

3. Energia berriztagarrien iturrietan oinarritutako ekoizpen energetikoko instalazio berriek biodibertsitatean eta bestelako balio naturalean inpaktu larriarik sortzen ez dutela bermatzeko, ingurumen arloan eskuduna den departamentuak foru lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean zonifikazio bat aurkeztuko du. Bertan, zona sentiberak eta bazterketa zonak identifikatuko dira biodibertsitaterako, konektibitaterako, zerbitzu ekosistemikoen hornidurarako eta gainerako ingurumen balioetarako duten garrantziarengatik. Horretarako, aipatu departamentuak aldi behin zonifikazio hori azaltzen duen tresna kartografikoa sortu eta eguneratuko du eta zainduko du energia berriztagarrien proiektuen hedapena zonifikazio horretatik kanpoko lekuetan egiten dela”.

Zioak: testua hobetzea eta lehenengo paragrafoan ingurune naturala eta biodibertsitatea ingurumen politikaren egiturazko elementu gisa babestearen aldeko aipamena gehitzea. Azpiegitura berdea eta igarobide ekologikoak ezartzeari buruzko apartatuan hau ere gehitu da: “iragazkortasun ekologikoa eta habitatak eta sistema naturalak zatikatu gabe babestea eta lurralde intzidentzia duen plangintzan habitaten eta sistema naturalen arteko konektibitatea bermatzea”.

2. c) apartatuan gehitu da “posible bada”, izan ere, uholde lautaden diseinua eta eraberritzea ezin dira kasu guztietan nekazaritza sektorearen oniritziaren menpe egon, horien helburua baita kalte gehiagorik ez sortzea eta ezin dira orokorrean lur gehiago nahi dituztenen eta oso garestiak diren defentsa azpiegiturak eskatzen dituztenen menpe egon. Gainera, askotan azpiegitura horiek ez dira erabilgarriak uholdeak gertatzen direnean eta arriskutsuak izaten ahal dira. 2 e) apartatuan gehitu da hezeguneen beste puntu estrategiko bat “karbono bahiketa dela”.

Halaber, 2. apartatuan bi letra berri gehitu dira, eta gure ustez modu horretan apartatua osatzen da eta honakoak jaso beharko lirateke:

– Nafarroako biodibertsitate aberatsarentzat eta toki ekosistemen funtzionamenduarentzat arriskutsuak izaten ahal diren espezie exotiko inbaditzaileak ingurune naturalean ugaritzea saihesteko beharra.

– Klima aldaketaren inpaktuen ebaluazioa babestutako espazio naturalen eta Natura 2000 Sareko espazioen planifikazioan eta kudeaketan, biodibertsitatearen kontserbazioa bermatzeko.

3. apartatu berria gehitu da. Zonifikazio bat ezartzea eta horren bidez identifikatzea sentzibilizazio eta baztertze eremuak biodibertsitatearentzat, konektibitatearentzat eta zerbitzu ekosistemikoen hornidurararentzat eta bestelako ingurumen balioentzat duten garrantziarengatik; horregatik, tresna eraginkorra da bermatzeko energia berriztagarrien iturrietatik sortutako energia ekoizteko instalazio berriek ez dutela inpaktu larriarik sortzen biodibertsitatean eta bestelako balio naturalean. Irizpide horiekin bat zonifikazioa ezarri ondoren, derrigorrezkoa izanen da administrazio eskudunentzat, eta modu horretan, ez da bete behar denari buruzko zalantzarik egonen. Ez lirateke izanen lehenetsunez errespetatu beharreko zonak, baizik eta jardule guztiek jakin beharko dute “baztertze” zonak direla.

180. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

44. artikulua (Klima-aldaketara egokitzea ingurune naturalean) aldatzeko zuzenketa. 1. puntuaren testu berria honako hau izanen da:

“1. Nafarroako Gobernuak gobernantza ardurasuarekin kudeatuko ditu Nafarroako lurraldeko lurra, ura, balibide genetikoak eta basoak, ezinbesteko osagaiak baitira garapen jasangarriari eusteko. Horretarako, landa-ingurunearen gaineko eskumena daukan departamentuak sustatuko du klima-aldaketak lehen sektorean duen eragina monitorizatzeko eta jarraipena egiteko sistemak ezartzea planak eta estrategiak klimaren bilakarearen eta esposizioaren eta zaurgarritasunaren analisisen arabera bideratzeko, eta eragin hori moteltzeko neurriak ezartzeko”.

Zioak: gure baliabideen gaineko gobernantza arduratsuaren figura behar dugu klima aldaketaren jarraipena egiteko lehen sektorean, besteak beste.

181. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

44. artikuluan (Klima-aldaketara egokitzea ingurune naturalean) 2 e) puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“e) Hezeguneen kasu berezian, biodibertsitatean eta migrazioan duten garrantzi estrategikoagatik, haien erregimen hidrikoa mantentzea haien ziklo espazial eta denbora-ziklo osoan, eta, beharrezkoa bada, beste erabilera batzuk murriztea, arriskuan jartzen ahal badituzte. Gainera, hezeguneetan atxikitako karbonoa aztertu behar da”.

Zioak: hezeguneen beste puntu estrategiko bat da karbonoa atxikitzea; beraz, komenigarria litzateke atxikitako karbonoaren azterketa.

182. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

44. artikuluan (Klima aldaketara egokitzea ingurune naturalean) 2 e) puntua aldatzeko zuzenketa:

“e) Hezeguneen kasu berezian, biodibersitatetarako, klima aldaketa leuntzeko eta karbonoa xurgatzeko duten garrantzi estrategikoagatik, haien araubide hidrikoa mantentzea haien ziklo espazial eta denbora-ziklo osoan, eta, beharrezkoa bada, beste erabilera batzuk murriztea, arriskuan jartzen ahal badituzte”.

Zioak: hezeguneen beste funtzio bat gehitu da, karbonoa xurgatzekoa.

183. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

44. artikuluari (Klima-aldaketara egokitzea ingurune naturalean) puntu batzuk gehitzeko zuzenketa:

“3. Nafarroako Gobernuak gobernantza arduratsurekin kudeatuko du ura, babestu beharreko denon ondasun urria baita. Horretarako, arduraren eta zuhurtziaren printzipioari jarraikiz, ur-eskaria murriztea sustatuko du, eta uraren erreserba estrategikoa bermatuko du (edateko eta industria-rako) etorkizuneko hornidura bermatzeko.

Honako oinarrizko irizpide hauek ezartzen dira laborantzako uraren hornidura ziurtatzeko:

a) Lehenetsuna edukiko dute uraren kudeaketa publikoa den interes orokorreko ureztatutako laborantza-sailek.

b) Ez da urik eramango arro batetik beste batera, ez eta ibaietatik urtegietara ere.

c) Bertan behera geldituko da emakida-eskubi-deen salerosketa.

d) Ez da urtegi gehiago eraikiko.

e) Ureztatutako laborantza-sailak modernizatu dira, bai berriak, bai tradizionalak, uraren erabilera arrazionalizatzeko.

f) Energia berriztagarria erabiliko da ureztatzeko azpiegituretan, eta ez da sustatuko ureztapena ura jaso behar den tokietan, kostu energetikoa handia da eta.

g) Emari ekologikoak sartuko dira ibaiak kudeatzeko planetan.

h) Ureztatzeko uragatik ordaindu beharrekoa benetan kontsumitutako uraren proportziozkoa izanen da. Horretarako, ureztatzaileen erkidegoek ureztatzaile bakoitzak erabiltzen duen uraren bolu-mena neurtzeko instalazioak jarri beharko dituzte.

4. Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko lurren inbentario katalogatua egingen du; bertan klima dela-eta babestuta dauden lurra erregistratuko dira honako kategorian hauen arabera sailkatuta:

a) Nekazaritza parkeak.

b) Babestutako landa paisaiak eta nekazaritza paisaiak.

c) Balio agrologiko handiko lurak (BAHL).

d) Desertizazio-arriskuan dauden lurak.

5. Nafarroako Gobernuak estrategia bat pres-tatuko du balio agrologiko handiko lurak babeste-ko. Hain zuzen ere, kontuan edukiko ditu klima-ereduek erakusten duten ustezko bilakaerarekin lotutako faktoreak, eta horien arabera neurriak ezarriko ditu baliabide edafikoak suspertzeko eta haien zaurgarritasuna murrizteko, lurretan ahalik karbono gehien gelditu dadin atxikita.

6. Nafarroako Gobernuak lurretako karbonoa gehitzeko urteko helburuak ezarriko ditu.

7. Nafarroako Gobernuak nekazaritzako jar-dunbide egokien gida bat eginen du, eta web orrian ipiniko du. Doakoa izanen da, eta etengabe eguneratuko da. Bertan berotegi-efektuko gasen murrizketan laguntzen duten nekazaritzako jar-dunbideak azalduko dira, eta argituko da zein diren gutxitu edo desagertu behar direnak.

8. Nafarroako Gobernuak balio ekologiko han-diko baso-larreetako paisaia eta ekosistema enblematikoak artatuko ditu luraren narriadura eragozteko. Horretarako, lurraldearen kudeaketa integratua sustatuko du: abeltzaintza, nekazaritza, basogintza eta baso-aprobetxamenduak.

9. Nafarroako Gobernuak transhumantzia eta transtermiantzia-mugimenduak berreskuratzea sustatuko du, funtzio ekologiko garrantzitsua bai-tute ekosistemak orekatzeko eta suspertzeko, eta haziak eta material begetatiboa hedatzeko.

10. Nafarroako lurralde osoan debekatuta dago genetikoki aldatutako organismoak lantzea, oso arriskutsua baita ingurumenerako eta labore autoktonoentzat.

11. Lurralde-antolamenduko planetan hiri peri-feriako nekazaritza-lurzoruaren eremuak, nekazaritza paisaiaren kalifikazioa duten zonak eta hirietako mugetan dauden baratze eta ibar eremuak zehaztuko dira. Horiek guztiak babestuta egonen dira, eta haietan lurzoru artifizialak ezin izanen dira gehitu.

Zioak: laburrago zehazten dira gure ingurune naturaletako jarduketak eta gure baliabideen era-bilera arduratsu eta jasangarria.

184. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

45. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela ida-tzita geratuko litzateke:

“45. artikulua. Klima aldaketara egokitzea landa ingurunean.

1. Landa ingurunearen arloko eskumena duen departamentuak klima aldaketak lehen sektorean duen eraginaren monitorizazio eta jarraipenerako sistemak ezartzea faboratuko du, planak eta estrategiak berbideratzeko aukera izateko, klima-ren bilakaeraren arabera eta esposizio eta zaurgarritasun azterketen arabera, eta inpaktua apal-tzeko neurriak ezartzeko, kasua bada.

2. Nafarroako Gobernuak, bere plangintza estrategikoaren bidez, ur baliabideen erabilera efi-zientea bultzatuko du, prezisioko nekazaritzaren sustapena barne, eta halaber, labore tolerantetia-koen ikerketa lehorreko laboreetan, tenperatura aldaketaren aurrean eta lehortearen aurrean; nekazaritzako jardunbideen hobekuntza bul-tzatuko du lurzoruei dagokienez, ongarrien erabi-laren erregulazioa eta lurzoruaren degradazioa-ren prebentzioa zainduz (higadura, gazitzea...); eta orobat, lurzoruaren mikrobiotaren kontserbazio egokia,

abereak elikatzeko irizpideak eta bertako barie-tate eta arrazen kontserbazioa, landa-ingurunea-ren dibertsitatea hobetzen baitute, etorkizuneko baldintza klimatikoetara ongi moldatzen diren espezieekin. Horiez gain, izurri edo gaixotasun emergenteen jarraipena ere sustatuko ditu.

3. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, administrazio eta sustapen neurriak ezarriko ditu 2030ean Europako Hitzarmen Berde-an finkatutako helburuak lortzeko “Baserritik mahaira” strategiaren esparruan, hau da, Nafa-rrako nekazaritza lurren % 25 nekazaritza ekolo-gikoaren bitartez lantzea. Abeltzaintza ekologikoa eta hurbileko merkatuak ere sustatuko dira.

4. Nafarroako Gobernuak nekazaritzako jar-dunbide egokien gida bat eginen du, doakoa eta etengabe eguneratua, bertan biltzeko berotegi-efektuko gasen murrizketan laguntzen duten nekazaritzako jardunbideak, eta horrekin batera adierazteko zein diren gutxitu edo desagertu behar direnak”.

Zioak: landa ingurunean klima aldaketara egokitzeke ekintzen artean garrantzitsua da lurzo-ruaren mikrobiota kontuan hartzea, eta artikulua honetan ez da aipatzen. Lurzoruaren mikrobiotak askotariko mikroorganismoak ditu: materiaren pro-zesu biogeokimikoetan funtsezko rola betetzen duten lurzoru-gramo bakoitzeko milaka eta milioi-ka bakterio, aktinomizeto, onddo, protozoo eta abarrez osatutako nahasketa mikroskopiko batek eratzen du. Orokorrean, uste da lurzoruaren mikrobiota oso garrantzitsua dela lurzoruaren

ugalkortasunean, mantenugaien birziklapenean, bilakaeran, egituran eta kontserbazioan. Errizosferaren mikrobiota (landareen sustraietatik gertu dagoen eta mikrobioen bizitza garatzen den luraren eremua) funtsezkoa da laborantzek ura eta mantenugaiak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko, baliabide hidrikoak eta ongariak optimizatzen lagunduz. Lurzorua klima aldaketaren arazoren eta irtenbidearen parte da. Ezinbestekoa da lurzorua materia organikoa mantentzen eta ahal den heinean gehitzen duten praktikak babestea. Babes juridikoaren eta ekintza politikoen ikuspegitik, lurzorua gutxietsitako baliabide naturala izan da. Hala ere, elementu konplexua da, milaka urteetan zehar sortu den ekosistema aberatsa eta anitza, eta kutsadura eta degradazio prozesuak sufritzen dituena. Lurzorua bestelako balio eta baliabideen oinarria da, besteak beste hura ezaltzen duten ekosistemen gaitasun metabolikoarena. Hala ere, une honetara arte ez du basoen eta kalen bezainbesteko garrantzirik izan eta ez du mehatxatutako espezieen edo ekosistemen "karisma" bera. Urte askoan zehar pentsatu izan da lurzorua beti hor egonen zela, betirako izanen balitz bezala. Klima aldaketatik haratago, lurzorua degradazioak inpaktu handia sortzen du EB osorako intereseak diren bestelako faktoreetan, besteak beste ura, gizakien osasuna, naturaren babesa, biodibertsitatea eta elikagai segurtasuna.

Bestalde, bere garrantzia kontuan hartuta, nekazaritza ekologikoarekin lotutako apartatu espezifiko bat eta Europako Hitzarmen Berdearen helburua gehitzea proposatu da, hau da, 2030ean, "Baserritik mahaira" strategiaren esparruan, gutxienez Nafarroako nekazaritza lurren % 25n nekazaritza ekologikoa egitea.

Baserritik mahaira estrategia Europako Hitzarmen Berdearen muina da, eta bere helburua da elikadura sistemak bidezkoak, osasungarriak eta ingurumena errespetatzen dutenak izatea. Elikadura sistemak ez dute covid-19aren pandemia bezalako krisien aurkako erresistentziarik izanen jasangarriak ez badira. Gure elikadura sistemak berriz ere diseinatu nahi ditugu, izan ere, gaur egun BEGen mundu mailako emisioen ia herena osatzen dute, baliabide natural asko kontsumitzen dituzte, biodibertsitatea galarazten dute, osasunean ondorio kaltegarriak sortzen dituzte (desnutrizioaren eta gehiegizko nutrizioaren ondorioz) eta ez dute eragile guztientzako itzulera ekonomiko bidezkorik eta bizi bitartekorik baimentzen, bereziki, lehen mailako ekoizleentzat.

Gure elikadura sistemak jasangarriagoak izatean aukera berriak sortzen dira elikakateko operadoreentzat ere. Teknologia eta aurkikuntza

zientifiko berriek eta kontzientzia publikoa eta elikagai jasangarrien eskaria gehitzeak onurak ekarriko dizkie eraginpeko alderdiei.

Baserritik mahaira strategiaren helburua da elikadura jasangarriko sistemarako trantsizioa azkartzea, eta honakoak lortu beharko dira:

- ingurumen inpaktu neutroa edo positiboa izatea
- klima aldaketa arintzeko eta inpaktuetara egokitzeko laguntza ematea
- biodibertsitatearen galera lehengoratzea
- elikadura segurtasuna, nutrizioa eta osasun publikoa bermatzea eta ziurtatzea guztiek elikagai nahikoak, ez kaltegarriak, nutritiboak eta jasangarriak eskuragarri dituztela
- elikagaien eskuragarritasuna babestea eta aldi berean onura ekonomiko bidezkoagoak sortzea, EBko hornidura sektorearen lehiakortasuna sustatzea eta bidezko merkataritza bultzatzea

Europako Batzordeak 2021eko apirilaren 19an Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari eta Eskualdeen Lantaldeari bideratutako ekoizpen ekologikoa garatzeko ekintza planari buruz esan zuen moduan:

"Green Deal delakoak nabarmentzen du 'ezinbestekoa' dela elikadura sistema jasangarriagoa lortzeko trantsizioa kudeatzea eta bereziki klimaren aldaketa jorrazteko nekazariaren esfortzuak indartzea, ingurumena babestea eta biodibertsitatea mantentzea. Nekazaritza komunitateak ezinbesteko zeregina du helburu horiek lortzeko. Nekazariak klima aldaketaren ondorioen eta biodibertsitatearen galeraren aitzin-aitzinean daude, eta jasangarriak ez diren nekazaritza jarduerak oraindik ere oso garrantzitsuak dira biodibertsitatearen galeran. Nekazari organikoak aitzindariak dira etorkizuneko nekazaritza jasangarriaren arloan. Nekazaritza ekologikoan eta ekoizpen teknika berritzaileetan bide berriak sortzen dituzte eta horiek ingurumena errespetatzen dute eta zirkulartasuna eta animalien ongizatea sustatzen dute. Organikoaren logotipoek nekazarietako ekoizpen estandar handiekiko dituzten konpromisoak azaltzen dituzte eta kontsumitzaileek ziurtasunez dakite produktu jakin bat oso espezifikoak eta zorrotzak diren jasangarritasun arauak betez sortu dela. Are gehiago, nekazaritza organikoak natura askoz ere gehiago ekartzen du gure larretara eta nekazariak erresistenteagoak dira aldaketa ekonomikoekiko eta geroz eta ustekabeagoak diren naturak eta klimak sortutako aldaketekiko".

EBren % 8,5eko batez bestekoak ez ditu erakusten estatu kideen arteko ezberdintasun nabarmenak nekazaritza ekologikoa egiten duten lursailen proportzioari dagokionez, izan ere, gutxieneko kopuruak % 0,5ekoak dira eta gehienekoak % 25ekoak. Nekazaritza ekologikoa egiten den azalera ia % 66 gehitu da azken 10 urteetan, izan ere, 2009an 8,3 milioi hektareatan egiten zen eta 2019an 13,8 milioi hektareatan. Gaur egun, EBren “erabiltzen den nekazaritza azalera” osoaren % 8,5 da. Azalera handitzearekin batera, txikizkako salmentak ere nabarmenki gehitu dira. Azken 10 urteetan balioa bikoiztu dute azken horiek, izan ere, 2010ean 18 000 milioi eurokoak ziren eta 2019an 41 000 milioi euro baino gehiagokoak.

Nafarroan, gaur egun ziurtatutako nekazaritza ekologikoaren azalera % 6,7koa da. 9 urte falta dira 2030ean azalera ekologikoa % 25ekoa izateko. Nola lortu dezakegu? Albo batera utzi behar ez dugun erroka dugu aurrean, izan ere, Europak 2030etik aurrera eskakizun handiagoak egiten ditu. Ezin gara atzean geratu.

Europako helburuak betetzeko ezinbestekoa da Nekazaritza Politika Komunaren neurri berrietan integratzea eta Nekazaritza Politika Komuna eta EBren Ekintza Ekologikoaren Plan berria tresna eraginkor bihurtzea nekazariak sustatzeko eta horiei laguntzeko nekazaritza ekologikoko jarduerak jasangarriagoak egin ditzaten eta produktu ekologikoen eskaria haz dadin. Hori lortzeko helburu kualitatiboak eta zehatzak ezarri behar dira eta epe jakin batzuk izanen dituzte eta ebaluatu egiten dira, eraginkortasuna egiaztatzeko eta beharrezkoa denean zuzentzeko.

Europak eskualdeetako gobernuztat eskuragarri jartzen duen tresnetako bat da Nafarroan Landa Garapeneko Departamentuko Nekazaritza Ekologikoa Sustatzeko eta Nekazaritza Sektoreko Zeharkako Ekintzetarako Bulegoa zuzentzen duen ekoizpen ekologikoa sustatzeko plana.

Nekazaritza ekologikoko azalera nabarmenki gehitu nahi badugu, argi dago ekoizleentzako askoz ere pizgarri gehiago eman behar direla, kontsumitzaileak gehiago sentibilizatu behar direla, administrazioa gehiago inplikatu behar dela eta ekologikoaren eskaintza eta eskaria egituratzen duten ekimenak martxan jarri behar direla. Covid-19ak sortutako krisiak agerian utzi du premia dela elikagaien ekoizpena eta kontsumoa birkokatzea.

185. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

45. artikuluan (Klima aldaketara egokitzea landa ingurunean) 3. puntua aldatzeko zuzenketa:

“3. Nafarroako Gobernuak, urtebeteko epean, gehienez, nekazaritzako jardunbide egokien gida bat egiten du, doakoa eta etengabe eguneratua, bertan biltzeko berotegi-efektuko gasen murrizketan laguntzen duten nekazaritzako jardunbideak, eta horrekin batera adierazteko zein diren gutxitu edo desagertu behar direnak”.

Zioak: gida hori noizko egin behar den jaso da, ahalik eta lasterren egon dadin sektorearen eskuara.

186. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

46. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“46. artikulua. Klima aldaketara egokitzea hiri ingurunean.

1. Nafarroako Gobernuaren jarduketak, hiri ingurunean, hauetara bideratuko dira:

a) Zaintza eta alerta goiztiarra emateko sistemak hobetzea, eta orobat muturreko gertakarietan jarduteko protokoloak, esaterako uholde edo beroboladetan eta klima aldaketak sortutako eratorritako beste hainbat arrisku egoeratan, eta beste gai batzuetan: gaixotasun inbaditzaileen bektoreak, polinizazioa, airearen kalitatea edo patogeno emergenteak. Protokolo horiek aintzat hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonen behar bereziak.

b) Klima aldaketarekiko esposizioa murriztea, klima-agertoki berrietara egokitutako hirigintza eta hiri plangintza bultzatuz.

c) Lurralde eta hirigintza plangintzarako tresnek, haien esparruaren arabera, zedarritu beharko dituzte hiri periferiako nekazaritza-lurzorua eremuak, nekazaritza paisaiaren kalifikazioa duten zonak eta hirietako mugetan dauden baratze eta ibar eremuak, babestu behar direnak, non lurzoru artifiziala handitzeko mugak egonen baitira.

d) Zerbitzu publikoen eta azpiegituren zaurgarritasuna gutxitzea, batez ere garraio, eraikin eta, oro har, hiri-sistemari dagozkionak, adibidez, diseinu bioklimatikoko konponbideak eta naturan

oinarritutakoak bilatuz, esate baterako orientazioak, itzalpean jartzea, azpiegitura berdea eta drainatze jasangarriak, espero diren baldintza klimatiko berrietara egokituz.

e) Bermatzea urbanizazio berriek eta berrurbanizazio proiektuek hiri espazioa birnaturalizatzeko neurriak eta drainatze sistema jasangarriak sartu beharko dituztela erregelamenduz ezarritako terminoetan.

f) Lortzea 2.000 biztanle baino gehiagoko toki erakundeek (horretarako komunitate konpostajeko tokiak lotuz) hirian edo hiri inguruan alokairu erregimenean baratza publikoen sistema bat izatea”.

Zioak: sektore eta udal plangintzaren alderdiak arautzen dituzten beste bi zuzenketekin bat, proiektuaren artikuluko 1. apartatuaren b) letraren zati bat ezabatzea proposatzen dugu. Gainera, Nafarroako Gobernuak hiri eremuan honakoak lortzearekin lotutako beste bi letra berri gehitu dira:

– Bermatzea urbanizazio berriek eta berrurbanizazio proiektuek hiri espazioa birnaturalizatzeko neurriak eta drainatze sistema jasangarriak sartu beharko dituztela erregelamenduz ezarritako terminoetan.

– Lortzea 2.000 biztanle baino gehiagoko toki erakundeek (horretarako komunitate konpostajeko tokiak lotuz) hirian edo hiri inguruan alokairu erregimenean baratza publikoen sistema bat izatea.

187. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

46. artikuluari (Klima aldaketara egokitzea hiri ingurunean) e) letra gehitzeko zuzenketa:

“e) Hiri ingurune handietan bero-uharte efektua murrizteko ekimenak sustatuko dira. Horretarako, laguntza lerro bat ezarriko da, eraikin berrietan edo zaharberritzen diren eraikinetan estalki laua, berdea eta ibiltzeko modukoa jartzeko”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela hirigune handietako bero-uharte efektua arintzea, eta estalki berdeen inguruko ekimenek helburu hori dute.

188. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

46. artikuluari (Klima-aldaketara egokitzea hiri-ingurunean) lau apartatu gehitzeko zuzenketa:

“e) Urbanizazio berri guztietan eta berrurbanizatzeko proiektu guztietan hiri-eremua birnaturalizatzeko neurriak eta drainatzeko sistema jasangarriak ezarri beharko dira (baldintzak erregelamendu bidez finkatuko dira).

f) 2.000 biztanletik gorako herri guztiek baratze publikoak eduki beharko dituzte herrigunearen barruan edo inguruan. Baratzeak alokatu eginen dira, eta horretarako baldintzak erregelamendu bidez finkatuko dira. Baratzeekin batera erkigoarentzako konpostatze-sistemak ere ezarriko dira.

g) Sustatuko da lurzorua gainean landare-tza-estaldura egotea eta hiri-basoak klima-egoera berrira egokitzea.

h) Neurriak ezarriko dira bero-uhartearen efektua txikitzeko Nafarroako esparru handietan (hiriaren berokuntza murrizten duten zoladurak eta gainazalak, esaterako)”.

Zioak: hiri ingurunea iragazkortzeko neurriak behar dira; esaterako, landare estaldurak, ibiltzeko moduko estalki lauak, bero uhartearen efektua leuntzeko.

189. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

46 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“46 bis artikulua. Sektore plangintza eta klima aldaketa.

Nekazaritza, abeltzaintza, baso-kudeaketa, arrantza, energia, garraioa, hondakinen kudeaketa, baliabide hidrikoen kudeaketa, turismoa, hiri-eta landa-lurraldearen antolamendua, edo lurzorua erabileren sektore arloetako plangintzaren sustatzaileek eta Nafarroan garatzen diren azpiegitura berrien, lurreko eta trenbideko garraioaren, energiaren, hondakinen eta uraren eraikuntza-proiektuen sustatzaileek, planen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren esparruan eta proiektuen

ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren esparruan honakoak gehitzea:

a) Egungo ezagutza zientifikoarekin bat, klima aldaketaren inpaktuen aurrean duten zaugarritasunaren analisia. Zaugarritasunaren analisiak hala zehazten duenean, planen ingurumen azterketa estrategikoei eta proiektuen ingurumen inpaktuaren azterketek klima aldaketaren inpaktuei egokitzeko neurriak eta jarraipen eta monitorizaziorako neurriak aurreikusi beharko dituzte. Azpiegitura berrien eraikuntza proiektuen kasuan, analisi horrek gutxienez muturreko fenomeno meteorologikoen maiztasunaren gehikuntzak azpiegitura berrian sortutako inpaktua ebaluatu behar du, bai eta, azpiegituraren tipologiaren arabera beharrezkoa denean, hornidura faltaren inpaktua ere.

b) Berotegi-efektuko gasen emisioari egiten dion ekarpenaren ebaluazioa, karbono stock-ean duen inpaktua eta eraginpeko lurraldearen ebaluazio gaitasuna barne. Ebaluazio horrek kontuan hartutako irtenbide bakoitzerako berotegi-efektuko gas emisioen estimazio bat jaso beharko du. Azpiegitura berrien eraikuntza proiektuei dagokienez, ebaluazio horrek kontuan hartu behar ditu eraikuntza eta ustiapen faseak.

c) Nafarroako lurraldearen barneko irismena duten planen kasuan, planetan erreferentziazko oinarri-urtearekin alderatutako berotegi-efektuko gas emisioen murriztapen helburua ere jaso beharko da. Betebehar hori lurralde irismentxiagoa duten, baina aldi berean Nafarroa osoko emisioetan ekarpen handia egiten duten planetan ere aplikatu behar da”.

Zioak: nekazaritza, abeltzaintza, baso-kudeaketa, arrantza, energia, garraioa, hondakinen kudeaketa, baliabide hidrikoen kudeaketa, turismoa, hiri- eta landa-lurraldearen antolamendua, edo lurzorua erabileren arloekin lotutako sektore planek, plangintzaren sustatzaileek eta Nafarroan garatzen diren azpiegitura berrien, lurreko eta trenbideko garraioaren, energiaren, hondakinen eta uraren eraikuntza-proiektuen sustatzaileek, planen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren esparruan eta proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren esparruan klima aldaketarekin eta trantsizio energetikoarekin lotutako alderdiak jaso behar dituzte.

190. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

46 ter artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“46 ter artikulua. “46 bis b) artikulua. Udal planak eta klima aldaketa.

Nafarroako udalerriek klima aldaketara egokitzeko eta trantsizio energetikoa sustatzeko, udal plan orokorrak onestean edo berritzean eta garapen plangintzetan gai hauek sartu beharko dituzte:

a) Udalerriko berotegi-efektuko gasen emisioen analisia eta ebaluazioa, eta, bereziki azpiegiturenak, ekipamenduenak eta udal zerbitzuak.

b) Elementu zaugarriak eta udal lurraldean klima aldaketak sortutako inpaktua identifikatu eta ezaugarritzea Nafarroako Klima Agertokien analisian oinarrituta, muturreko gertakari meteorologikoen analisia barne.

c) Klima aldaketa arintzeko eta aldaketara egokitzeko helburuak eta estrategiak eta energia trantsizioa sustatzea.

d) Isurketak gutxitzeko jarduketak, bereziki kontuan hartuta hiri barnean airearen kalitatea gehien hobetu dezaketenak, Nafarroan onesten den plangintza estrategikoaren zehaztapenen esparruan.

e) Ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+b) sustatzeko jarduketak, arintze eta egokitzapen neurriak aplikatzeko eta energia trantsizioa bere eskumeneko arloan.

f) Toki mailan klima aldaketaren eta energia trantsizioaren arloetan sentibilizazio eta prestakuntza jarduketak egitea eta genero berdintasuneko printzipioak gehitzea.

g) Udalaren erregai fosilen kontsumoa modu progresiboan ordeztzeko jarduketak, eta horien ordez in situ ekoiztutako energia berriztagarriak erabiltzea.

h) Udal eraikinen eraikuntza eta birgaitze energetikoa egiteko jarduketak, udal planean ezarritako efizientzia eta energia aurrezpeneko helburuak lortzeko.

i) Hiri mugikortasun planetan energia trantsizioa sustatzeko neurriak.

j) Aurreikusitako jarduketaren denborazko programazioa, horien ebaluazio ekonomikoa eta egikaritzea”.

Zioak: udalerrriak eragile garrantzitsuak izan behar dira baita klima aldaketari eta trantsizio energetikoari aurre egiteko ere. Horregatik, egokia da foru legean bertan ezartzea udaleko plan orokorrak eta garapen plangintzak onesten edo eraberritzen direnean alor horretan kontuan hartu beharreko gaiak.

191. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

47. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“47. artikulua. Klima aldaketara egokitzea hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plangintza eta kudeaketaren arloan.

1. Nafarroako Gobernuak ur baliabideen arloan hartzen diren neurrien gidari izanen da klima aldaketa txertatzea planifikazio hidrologikoan, horien zaugarritasuna gutxitzeko. Aintzat hartu beharreko alderdiak, gutxienez, hauek izanen dira:

a) Klima aldaketak ur baliabideetan dituen ondorioek sortutako inpaktu eta arrisku ekologikoak eta sozialak ebaluatzea.

b) Klima aldaketa kudeaketa eta plangintza hidrologikoan txertatzeko lana areagotzea, bereziki lehenetsiz muturreko gertaeren kudeaketa, hala nola lehorteena edo uholdeena.

c) Egokitzeko jardunbide jasangarriak identifikatu eta sustatzea, uraren erabileraren eta kudeaketaren arloan helburu askotarikoak dituztenak, bai eta muturreko gertaeretan ere.

d) Klima aldaketak ziklo hidrologikoan eta uraren erabileran dituen inpaktuen jarraipenerako funtsezkoak diren parametroen bilketa indartzea.

e) Uraren zikloa kudeatzeko eta ekosistemen eraberritze progresibo eta osorako neurri ekonomikoak aplikatzea.

f) Aurrezpen eta efizientzia neurriak hobetzearen bitartez lortutako baliabide hidrikoak lehentasunez deribatzea ur ekosistemetako kalitate helburuak lortzeko, eta muturreko lehorte kasuetan, hiri hornidurarako.

g) Nitratoz kutsatutako alubialen hiri uren iturriak berreskuratzea lehenestea ongarrien erabilerara kontrolatzearen bitartez eta industria helburuetarako erabiltzea sustatzea.

2. Nafarroako Gobernuak, toki erakundeekin elkarlanean, sustatu beharko du hiriko ur-zikloak lagundu dezan garapen ekonomiko eta sozialean,

zaindu dezan giza osasuna eta ekosistemen gaineko inpaktua txikiena izan dadin murriztu dezan, klima aldaketa kontuan hartzen duten konponbide sendo eta dibertsifikatuak emanez, eta bereziki lehenetsiz hornidura eskariaren kudeaketa, bere murrizketan oinarrituta.

3. Plangintza hidrologikoaren eta hiriko erabilerarako uraren ziklo integralaren kudeaketaren arloko eskumena duen departamentua arduratuko da Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Gidaria prestatu, haren jarraipena egin eta eguneratzeko lanaz, helburu nagusi batekin, alegia, hornidura eta saneamenduko oinarritzko zerbitzu egokia izatea, Nafarroako bizilagun guztien eskubide unibertsala delako. Plan horretan kontuan hartuko da Itoizko urtegitik hasten den 60 hektometro kubikoko erreserba (bere titulartasuna Herri horniduraren erabiltzaileen partzuergoak du Nafarroako ubidearen bitartez) estrategikoa dela, eta ezin izanen da lehentasun gutxiagoko bestelako erabileretarako bideratu.

Oinarritzko beharrak betetzeko giza kontsumorako ur bolumen jakin baten prestazio eta eskuratze eskubidearen (eskuratzea unibertsala da, etxekoa eta prezio onargarri eta unitarioan) baldintzak eta saneamendua izateko baldintzak erregelamenduz garatuko dira administrazio xedapen orokor batean; aurrekoek gain, hiri erabilerarako uraren ziklo osoa osatzen duten zerbitzuak ematen dituzten erakundeek eta erabiltzaileen arteko harremanak ere jasoko dira.

Ziklo osoaren zerbitzuak kudeatzeko administrazio arduraduneari pobrezia eta gizarte bazterketa egoeran daudela egiaztatzen dutenek hobariak jasoko dituzte uraren gutxieneko bizi horniduran eta oinarritzko saneamenduan, erregelamenduz zehaztutako terminoetan edo zerbitzua ematen duten tokiko erakunde eskudunek dagozkien ordenantzetan araututakoa betez.

4. Nafarroako Gobernuak jarraipen eta monitorizazio sistema bat ezarriko du toki erakundeekin elkarlanean, bertan jasotzeko, batetik, Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Gidariaren inguruan, estatistika nagusiak eta jarraipen adierazleak, gauzatutako ekintzak eta haren betetze-maila, eta, bestetik, plan gidari hori gauzatzeko zailtasunak, jatorritzko jarduketa planean aldaketa edo egokitzapen teknikoak egitea proposatzeko, batez ere klima aldaketara egokitzeari dagokionez”.

Zioak: Nafarroako Gobernuak klima aldaketa plangintza hidrologikoan gehitzeko neurriak ezartzean kontuan hartu beharreko hiru alderdi gehitu

dira, betiere baliabide hidrikoen zaurgarritasuna murrizteko:

– Uraren zikloa kudeatzeko eta ekosistemen eraberritze progresibo eta osorako neurri ekonomikoak aplikatzea.

– Aurrezpen eta efizientzia neurriak hobetzearen bitartez lortutako baliabide hidrikoak lehentasunez deribatzea ur ekosistemetako kalitate helburuak lortzeko, eta muturreko lehorte kasuetan, hiri hornidurarako.

– Nitratoz kutsatutako alubialen hiri uren iturriak berreskuratzea lehenestea ongarrien erabilera kontrolatzearen bitartez eta industria helburuetarako erabiltzea sustatzea.

2. apartatuan gehitu da Nafarroako Gobernuak, toki erakundeekin elkarlanean, sustatu beharko duela hiriko ur-zikloak laguntzea garapen ekonomiko eta sozialean, giza osasuna zaintzeko eta ekosistemen gaineko inpaktua ahalik eta txikiena izateko murrizteko, klima aldaketa kontuan hartzen duten konponbide sendo eta dibertsifikatuak emanez, eta bereziki lehenetsiz hornidura eskariaren kudeaketa, bere murrizketan oinarrituta”.

3. apartatuan gehitu da Hiri erabilerarako uraren ziklo osoaren plan zuzentzailean kontuan hartuko dela Itoizko urtegitik hasten den 60 hektometro kubikoko erreserba (bere titulartasuna Herri horniduraren erabiltzaileen partzuergoak du Nafarroako ubidearen bitartez) estrategikoa dela, eta ezin izanen dela lehentasun gutxiagoko bestelako erabileretarako bideratu.

Gainera, ura izateko giza eskubidea gehitzen du; hau da, giza kontsumorako ur bolumen jakin baten prestazio eta eskuratze eskubidea (eskuratzeari unibertsala da, etxekoa eta prezio onargarri eta unitarioan) oinarritzeko baldintzak eta saneamendua izateko; gainera, ezarri zen ziklo osoaren zerbitzuak kudeatzeko administrazio arduradunen pobrezia eta gizarte bazterketa egoeran daudela egiaztatzen dutenek hobariak jasoko dituzte uraren gutxieneko bizi horniduran eta oinarritzeko saneamenduan. Hobariak jasotzeko eskubide hori arautuko du dagokion erregelamenduzko prozedurak, bai Nafarroako Gobernuak onetsita bai zerbitzu horren prestazioan eskudunak diren toki erakundeek onetsita. Gainera, azken kasu horretan, dagokien ordenantzak arautu beharko dira.

192. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

47. artikuluan (Klima aldaketara egokitzea hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plangintza eta kudeaketaren arloan) 1. puntuari e) letra gehitzeko zuzenketa:

“e) Bultzada ematea azterlanak eta ikerlanak egin daitezkeen klima aldaketak uraren kudeaketan eta herritarrengan edukiko dituen ondorioei buruz”.

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela klima aldaketak uraren kudeaketan duen eraginaren ikerketa ere jasotzea, zuzeneko eragina duelako biztanleengan.

193. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

47. artikuluari (Klima-aldaketara egokitzea hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plangintza eta kudeaketaren arloan) testua gehitzeko zuzenketa. e) letra berria gehitzen da:

“e) Azterlanak eta ikerlanak egiten dira klima-aldaketak uraren kudeaketan eta herritarrengan edukiko dituen ondorioei buruz”.

Zioak: datu zehatzak emanen lizkigukete, etorkizuneko hiri diseinuei ezarri beharreko eskakizunak justifikatzen lagunduko luketenak, ura biltzearen kontuetan, adibidez.

194. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

48. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“48. artikulua. Pobrezia energetikoa.

1. Administrazio publikoek zaurgarritasun ekonomikoan dauden pertsonak eta familia unitateak babesteko bitartekoak ezarri behar dituzte edateko ura, elektrizitatea eta gasa hornitzen duten enprekin, hornidura horien jarraipena bermaturik egon dadin edozein dela ere egoera. Bitarteko horiek hornidura enpresen beraien ekimenez ezarri ahalko dira, eta, halakoetan, administrazio

publiko eskudunak baliozkotu beharko ditu. Ulertuko da pertsonak eta familia unitateak zaurgarritasun ekonomikoan daudela erregelamendu bidez ezarriko denaren arabera errenta eta ondare ekonomiko nahikorik ez dutenean.

2. Nafarroako Gobernuak foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean onetsiko du gizarte gaien eta energiaren arloko eskumena duten departamentuek proposatuta eta toki erakundeekin elkarlanean, erregelamenduzko garapen bat, zeinean ezarriko baitira populazioaren sektore zaurgarrienen pobrezia energetikoari aurre egiteko beharrezkoak diren konpentsazio eta berme bitartekoak. Pobrezia energetikoaren ezaugarriak zehazterakoan aintzat hartu beharko dira bai haien egoera ekonomikoa dela-eta kontsumoa ordaindu ezin dezaketenak bai neurri gabeko gastu energetikoaren kasuak, eraikuntzako akatsen ondoriozkoak.

3. Elektrizitatea, edateko ura eta gasa banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresek ezin izanen diete hornidura eten zaurgarritasun ekonomikoaren egoeran dauden familiei, erregelamenduz ezartzen diren baldintzekin.

4. Energia elektrikoa banatzen eta merkaturatzen duten enpresek, autokontsumoko kontratuen konpentsazio sinplifikatua aplikatu ondoren, soberrako energia erabiliko dute klima funtsean, pobrezia energetiko egoeran dauden pertsonen energia beharrei erantzuteko”.

Zioak: pobrezia energetikoari ematen zaion erantzuna indartzeko apartatu berri bat gehitu da, izan ere, energia elektrikoa banatzen eta merkaturatzen duten enpresek, autokontsumoko kontratuen konpentsazio sinplifikatua aplikatu ondoren, "soberako energia erabiliko dute klima funtsean, pobrezia energetiko egoeran dauden pertsonen energia beharrei erantzuteko”.

195. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

48. artikuluan (Pobrezia energetikoa) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Nafarroako Gobernuak onetsiko du, urtebeteko epean, gizarte gaien arloko eskumena eta energiaren arlokoa duten departamentuek proposatuta eta toki erakundeekin elkarlanean, erregelamendu bat, zeinean ezarriko baitira konpentsazio eta berme bitartekoak, populazioaren sektore zaurgarrienen pobrezia energetikoari aurre egiteko beharrezkoak direnak. Pobrezia

energetikoaren ezaugarriak zehazterakoan aintzat hartu beharko dira bai haien egoera ekonomikoa dela-eta kontsumoa ordaindu ezin dezaketenak bai neurri gabeko gastu energetikoaren kasuak, eraikuntzako akatsen ondoriozkoak”.

Zioak: uste dugu gehieneko epe bat jarri behar dela erregelamendu hori egiteko, pobrezia energetikoaren kontrako borroka garrantzitsua delako eta lehentasuna izan behar duelako artikulua horretan aipatzen diren departamentuentzat.

196. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

48. artikuluan (Pobrezia energetikoa) 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“2. Urtebete igaro baino lehen Nafarroako Gobernuak onetsiko du, gizarte gaien arloko eskumena eta energiaren arlokoa duten departamentuek proposatuta eta toki erakundeekin elkarlanean, erregelamendu bat, zeinean ezarriko baitira konpentsazio eta berme bitartekoak, populazioaren sektore zaurgarrienen pobrezia energetikoari aurre egiteko beharrezkoak direnak. Pobrezia energetikoaren ezaugarriak zehazterakoan aintzat hartu beharko dira bai haien egoera ekonomikoa dela-eta kontsumoa ordaindu ezin dezaketenak bai neurri gabeko gastu energetikoaren kasuak, eraikuntzako akatsen ondoriozkoak”.

Zioak: Erregelamenduzko garapenerako epea ezarri beharra dago. Eperik gabe, ez dago betebeharririk. Klima larrialdian gaude.

197. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

48. artikuluan (Pobrezia energetikoa) 3. puntua aldatzeko zuzenketa:

“3. Urtebeteko epean, gehienez, erregelamenduz ezarriko da zer baldintzatan eten ahalko zaizkien argindar, ur eta gas hornidurak zaurgarritasun ekonomikoaren egoeran dauden pertsona edo familiei”.

Zioak: uste dugu ordezkotestua hori argiagotzeko dela jatorrizkoa baino.

198. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

48. artikuluan (Pobrezia energetikoa) 3. apartatuaren paragrafo bat aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“3. Elektrizitatea, edateko ura eta gasa banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresek ezin izanen diete eten hornidura baztertuta geratzeko arriskuan edo zaurgarritasun ekonomikoan dauden familiei, aurretik erreferentziazko gizarte zerbitzuen aldeko txostena eduki ezean.

Zioak: Zioen azalpenak dioenez, “administrazio publikoetan gizarte gaiez arduratzen diren unitateek zaurgarritasun ekonomikoan dauden pertsonak eta familia unitateak babesteko bitartekoak ezarri behar dituzte, hornidura energetikoa bermaturik egon dadin edozein dela ere egoera”. Bada, testu berri honek araura ekartzen du adierazpen hori.

Legeak erregelamendu gehiegi ditu. Erregelamendu bat saihestu daiteke nahitaezko txostenaren derrigortasuna ezarriz.

199. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

49. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“49. artikulua. Egokitzea osasunaren eta gizarteko sektore zaurgarrien arloan.

1. Nafarroako Gobernuak beste plan eta estrategia batzuekiko sinergiak ezarriko ditu, esaterako zahartze aktiboko eta gizarte eta genero arloetako politikekiko, hau da, zaurgarrienak izan daitezkeen populazio sektoreei eragiten dietenekin, neurriak bideratuz hauetara:

a) Klima aldaketak pertsonen osasunean eragiten dituen ondorioak identifikatzea, ebaluatzea eta prebenitzea.

b) Klima aldaketak osasunean dituen eraginen prebentziorako behar diren neurriak hartzea, espezifikoki, tenperatura altuek bizilagun guztien gain duten eraginarena, eta modu berezian, haien lana dela-eta ingurunearen eragina gehien jasotzen duten pertsonen kasuan.

c) Patogenoen agerpena dela eta, gaixotasun bektore bihurtzen ahal diren espeziei buruzko ezagutza sustatzea, haien jarraipen espezifikoa egiteko eta inpaktu hori saihestu edo apaltzeko

behar diren neurriak aurreikusteko. Espezie exotikoak direnean, arloari buruzko legeriarekin bat, haien egoeraren monitorizazioa eginen da eta behar diren neurriak ezarriko dira desagerrarazteko edo, hori ezinezkoa bada, murrizteko.

d) Populazioari informazioa ematea arriskuez eta prebentzio neurriez, desgaitasuna dutenentzat eskuragarriak diren bideak bermatuz.

e) Ingurumen baldintza txarrek eta klima aldaketak osasunean dituzten ondorioei buruzko azterketak eta ikerketak bultzatzea. Bien aurka borrokatzeko neurri eraginkorrak ezarri ahal izateko, azterketa horiek berezita landuko dituzte emakumeen eta gizonen ezaugarriak eta beharrak.

2. Nafarroako Gobernuak bi urteko epean prestatuko du trantsizio justurako eta klima justiziarako estrategia bat, trantsizio energetikoak ukitzen dituen sektore ekonomikoaren eta sozialen diagnostikoa egin eta haren ondorio kaltegarriak arintzeko neurriak ezar ditzan.

Estrategia hori izanen da Nafarroaren egokitzapen sozioekonomikorako tresna, eta trantsizio ekologikotik sortutako ekonomia ereduaren aldaketaren ondorioz eginen da eta xedea zaurgarritasun egoeretan nabarmenki kaltetutako arloak, sektoreak, kolektiboak edo lurraldeak identifikatzea izanen da, une oro justizia klimatikoaren printzipioa eta energia pobrezia egoerak kontuan hartuta. Gainera, behar den plangintza izanen du trantsizio ekologikoak gizarte eta enpleguaren ikuspegitik izaten ahalko dituen inpaktu negatiboak aurre egiteko neurriak jorratu eta ezartzeko.

Determinazioak onetsi ondoren, derrigorrez bete beharko dira”.

Zioak: estrategia bidezkoan klima justiziaren kontzeptua gehitu da. Kontzeptu hori, definizioen I. eranskinean jaso bezala, hau da:

justizia mota bat da, garapena giza eskubideekin lotzen duena, gizakiarengan oinarritutako ikuspegia lortzeko moduan, klima-aldaketari aurre egiteko, pertsona ahulenen eskubideak babesteko, eta klima aldaketaren eta haren inpaktuen kargak eta onurak modu ekitatibo eta inpartzialean banatzeko.

“Klima aldaketa” kontzeptua sortu den unean ikusi da klima aldaketak mundu osoan ezberdin eragiten duten ingurumen eta gizarte ondorioak dituela eta izanen dituela.

Bestalde, klima aldaketak gizarte ondorioak sortzen ditu, besteak beste osasun arazoak (adibidez tenperatura altuekin lotutako gaixotasunak

edo arnasteko zailtasunak, airearen kutsadura arazoengatik areagotuak), finantza kargak gehitzea (energia garestiagoa delako) edo bestelako kultura eta gizarte aldaketak. Modu horretan, berotze globala giza eskubideekin eta justiziarekin lotutako gaia bihurtzen da.

Trantsizio ekologikoaren onurak gehitzeko eta jardueran, langileengan eta komunitatean sortzen diren inpaktu negatiboak gutxitzeko, aldaketa guztiak “trantsizio bidezkoarekin” egin behar dira. Eraldatze ekologikoarekin batera “gizarte programa” bat ezarri behar da eta azken horrek trantsizioa eta enplegu aukera berrietako inbertsioak bermatu behar ditu.

Klima justizia ingurumen justiziaren moduetako bat da, eta bere xedea pertsona eta herrialde guztiak bidezko moduan tratatzea eta zenbait erabakirengatik eta proiektorengatik sortzen ahal diren diskriminazioak saihestea da, izan ere, horien helburua klima aldaketaren arazoa jorratzea baita. Bereziki garrantzitsua den kontzeptua da, are gehiago klima aldaketa antropikoaren kalte gehien jasaten dituztenak arazoa sortu duten berotegi-efektuko gasen emisio gutxien sortzen dutenak direnean. Alderantziz, berotze globalak sortu dituen bizitza mailak izanen lirakeke ondorio zuzenak gutxien sufrituko lituzketenak, baina, zeharka sufrituko dituzte.

Justizia klimatikoak giza eskubideak beti errespetatzen dituen garapena defendatzen du. Bere ikuspegiak pertsonak erdigunean jartzen ditu eta bereziki babesten ditu klima aldaketarekiko zaurgarriagoak direnak.

200. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

49. artikuluan (Egokitzea osasunaren eta gizarteko sektore zaurgarrien arloan) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Nafarroako Gobernuak urtebeteko epean prestatuko du trantsizio justurako estrategia bat, trantsizio energetikoak ukitzen dituen sektore ekonomikoen eta sozialen diagnostikoa egin eta haren ondorio kaltegarriak arintzeko neurriak ezar ditzan”.

Zioak: ahal dela, epeak bizkortu egin behar dira, batez ere osasunaren eta gizarteko sektore zaurgarrien alorretan.

201. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

49. artikuluari (Klima-aldaketara egokitzea osasunaren arloan eta gizarte-sektore zaurgarrietan) hiru apartatu gehitzeko zuzenketa:

“3. Nafarroako Gobernuak airearen kalitatearen plana eginen du ozono troposferikoari aurre egiteko. Plan horretan kutsatzaile hori atmosferan gutxitzeko neurriak ezarriko dira.

4. Nafarroako Gobernuak txosten bat egin eta argitaratuko du urtero ingurumeneko kutsadurak gizakion osasunean daukan eraginaz eta klima-aldaketak sortzen dituen ondorioez, bai eta horiek eragiten dituzten osasun-kostuez ere. Txostenean genero-ikuspegia txertatuko da, eta arreta berezia emanen zaie haurrei.

5. Nafarroako Gobernuak honako neurri hauek ezarriko ditu osasun-arloa klima-aldaketara egokitzeko:

a) Klima-aldaketak gaixotasun infekzioso berrietan eta horiek hedatzeko bektore diren animalietan duen eragina kontrolatzeko plana. Plan honetan klima-aldaketara egokitzeko beharko diren neurriak azalduko dira: alerta goiztiarreko sistemak, espezie inbaditzaileen aurkako borroka, etab.

b) Animalien osasunerako programak sendotzea. Animalien osasunerako programak klima-aldaketara egokitu behar dira, gaixotasun berririk agertu ez dadin, agertzen direnak mozteko edo ezabatuta zeuden gaixotasunen agerraldirik egon ez dadin.

c) Osasunerako sarbide unibertsala bermatuko du gaixotasun horiek ez hedatzeko. Horrela ez da egonen herritarri babesik gabe”.

Zioak: beharrezkotzat jotzen ditugu airearen kalitatearen plana, klima-aldaketak gaixotasun infekzioso berrietan duen eragina kontrolatzeko plana eta animalien osasunerako programak.

202. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

49 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“49 bis artikulua. Turismoaren arloan egokitzzea.

Nafarroako Gobernuak eta toki erakundeek, beren eskumenak egikaritzuz eta turismoaren sektorean garatzen diren politikekin eta jarduketekin lotuta, eredu jasangarriagoa, baliabide gutxiago erabiltzen dituena, lurraldea gehiago errespetatzen duena eta klimaren aldaketaren efektuekiko hain zaugarria ez dena sustatuko dute, beste batzuen artean hauek gehituz:

a) Jasangarritasun irizpideak sartzea turismoa promozionatzeko estrategian.

b) Klima aldaketak sektorean eragiten ahal dituen arriskuak ebaluatzea.

c) Turismoaren sektorean lan egiten duten langileen eta turistaren sentsibilizazioa eta informazioa klima aldaketaren inpaktuari eta baliabideen erabilerari jasangarriari buruz.

d) Ingurumen ziurtagiriak sustatzea turismoko jarduerara eta establezimenduetarako.

e) Birgaitze energetikoa, energia eta uraren kontsumoa murriztea eta turismo instalazio eta jardueretan energia berriztagarrien ekarpena gehitzea sustatzen duten neurriak bultzatzea”.

Zioak: turismoaren jarduerak ere eragina du klima aldaketan, eta beraz, foru lege proiektu honetan jaso behar da nola jardun behar duten administrazio publikoek sektore horri zuzendutako politikak garatzeari dagokionez.

V. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

203. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

51. artikuluan (Administrazio publikoen betebeharrak eta baliabide-mobilizazioa) 3. puntua aldatzeko zuzenketa:

“3. Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko erakundeek, bai eta toki erakundeek eta haien menpeko erakundeek ere, ezarri eta onetsi behar dute dagokion organoaren bidez, bi urteko epean, isurketak murriztu eta konpentsatzeko konpromisoaren bide-orria, haien jardueraren esparruan karbono neutraltasuna 2040ko abenduaren 31rako lortzeko, beranduenez”.

Zioak: uste dugu epe berak ezarri behar zaizkiela udalerrri guztiei, biztanle kopurua gorabehera. Izan ere, guztiok ekarpen berdina egin behar dugu

geure gain hartutako neutraltasun-konpromisoa betetzeko.

204. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA **FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA** **IZQUIERDA-EZKERRA** **TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK** **AURKEZTUA**

51. artikuluari (Administrazio publikoen betebeharrak eta baliabideak jartzea) puntu bat gehitzeko zuzenketa:

“5. Europar Batasunaren urte anitzeko finantza-esparruan ezarritako ehuneko bera ezarri behar da Nafarroako aurrekontu orokorretan klima-aldaketaren arloko eta trantsizio energetikaren arloko helburuak betetzeko. Metodoak eta epealdiak erregelamenduz ezarriko dira. Ehuneko hori gutxienez % 5 gehituko da urtero harik eta klima-aldaketaren plangintza estrategiko eguneratua ezarritako isurketen murrizketaren helburuak lortu arte (gaur egun KLINAn ezartzen da 2030erako isurketak 2005ekoak baino % 45 gutxiago izan behar direla)”.

Zioak: beharrezkotzat jotzen dugu EBren urte anitzeko finantza-esparruan adostutakoaren pareko ehunekoa adostea Nafarroako aurrekontu orokorretan; ehuneko hori urtero handituko da harik eta emisio murrizketaren arloko helburuak bete arte.

205. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA **FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA** **IZQUIERDA-EZKERRA** **TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK** **AURKEZTUA**

52. artikuluari (Karbono-hustubideak) testua gehitzeko zuzenketa. m) letra gehitzen da:

“m) I+G+b arloa sustatzea karbono-hustubideen azterketan”.

Zioak: beharrezkotzat jotzen dugu I+G+b jarduerara sustatzea karbono-hustubideak ikertzen jarraitzeko.

206. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

52 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“52 bis artikulua. Nafarroako emisioen eta hustubideen inbentarioa.

1. Ingurumen arloan eskuduna den departamentuak urtean behin Nafarroako atmosferako emisioen eta CO₂ hustubideen inbentarioa sortuko du. Bere irismena, edukia eta aplikatu beharreko kalitate irizpideak erregelamenduz arautuko dira. Inbentario horretan jasoko dira gizakien osasunean, materialen degradazioan, izaki biziengan eta ekosistemen funtzionamenduan eragiten ahal duten eta iturri natural eta antropogenikoetatik sortzen diren substantzien atmosferarako isurketak.

2. Nafarroako atmosferako emisioen eta CO₂ hustubideen inbentarioan jasotako berotegi-efektuko gasen emisioek eta hustubideek karbono dioxidoa jasotzeko duten gaitasunaren bilakaerak osatuko dute Nafarroako berotegi-efektuko Gasen Emisioen Inbentarioa. Inbentario hori Europar Batasunak eta Klima aldaketaren adituen gobernu arteko taldeak definitutako irizpideekin bat sortuko da.

3. Inbentarioa publikoa izanen da eta ingurumen arloan eskuduna den departamentuaren webgunean eta Nafarroako Gobernuaren gardenetasun atarian eskuratzen ahalko da”.

Zioak: gaur egun urtean behin Nafarroako Gobernuaren Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuak, Nafarroako Industriaren Elkartearen laguntza teknikoarekin, Berotegi Efectuko Gasen Emisioen Inbentarioa egiten du. Gure proposamena da ekintza hori foru legean jasotzea eta Atmosferara egiten diren Nafarroako emisioen eta CO₂ hustubideen inbentarioa izena ere jartzeari. Modu horretan, inbentario berean jasoko da BEG emisioei eta karbono hustubideei buruzko informazioa.

207. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

54. artikuluan (Inbentarioa eta karbono aztarna) 3. puntua aldatzeko zuzenketa:

“3. Urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko erakundeek karbono aztarnaren ebaluazioa egin beharko dute, bakoitzak bere

jardueraren esparruan, gutxienik ere 1. eta 2. mailakoak. Karbono aztarnaren kalkulua eta egiaztapena estandar nazionalekin edo nazioartekoekin bat eginen da, edo Nafarroako Gobernuak zehaztu duen metodologiaren arabera, zehaztu badu”.

Zioak: karbono aztarnaren ebaluaziorako epeak laburtu beharra dago, klima larrialdian gaudelako.

208. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

55. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“55. artikulua. Auditoretza energetikoak administrazio publikoetan.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek eta haien organismo publikoek beren auditoretza energetikoak aurkeztu beharko dizkionte energiaren arloko eskumena duen departamentuari, hark ezartzen duen maiztasunez eta moduan, ondasun hauei dagokienez:

a) 400 kW baino gehiagoko potentzia termiko instalazioa duten eraikinak, energiaren edo CO₂ emisioetan C katalogazioa baino apalagoko ziurtagiri energetikoa dutenean.

b) 400 kW baino gehiagoko potentzia termiko instalazioa duten eraikinak, energiaren edo CO₂ emisioetan B katalogazioa baino apalagoko ziurtagiri energetikoa dutenean.

c) Udalerrietako argiteria publikoak, zeintzuen potentzia agregatuek kontratatutako potentzia elektrikoaren 50 kW gainditzen dutenak.

c) Kontratututako potentzia elektrikoak 50 kW-etik gorakoa duten azpiegiturak. Auditoretzak aurkezteko bi urteko epea izanen dute, gehienez.

a), c) eta d) hizkietan aurreikusitako lehenengo auditoretzak bi urteko epean aurkeztu beharko dira eta b) hizkian aurreikusitakoa lau urteko epean, foru lege hau indarrean sartzen denetik aurrera.

2. Orokorrean, auditoretza energetikoek zortzi urteko indarraldia izanen dute ematen diren egunetik, 10.000 biztanle baino gehiagoko toki erakundeentzat salbu. Horien kasuan, lau urteko epea izanen dute.

Erakunde publikoen jabetza edo okupazioko eraikinen sarreretan modu ikusgarrian jarriko da energia ziurtagiria foru lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean. Ziurtagiriaren eguneraketek ener-

gia ratioa eta CO2 isurketak hobetu beharko dituzte.

3. Auditoretza energetikoek kontuan hartu beharko dituzte, halaber, eraikinetako funtzionamenduko barne baldintza errealei dagozkien alderdiak eta haien haztaperen errealista egin proposatzen dituzten hobekuntza neurrietan.

4. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publiko bakoitzean ezarriko da kudeatzaile energetikoaren figura, energiaren kontsumoaren jarraipena egin eta hobekuntzak proposa ditzan, eraikinetan efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien ekoizpena lortzeko. Era berean, kudeatzaile energetikoari dagokio auditoretza energetikoek eragindako neurriak ezartzeko proposatzea eta haien jarraipena egitea, eta laguntzea kontratazio publikoan txertatzen kontratazio ekologikoaren printzipioak.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan, gutxienez kudeatzaile bat egonen da departamentu bakoitzean eta haren organismo publikoetan. Horretarako, elkarlanean aritzen ahalko dira baliabide nahikorik ez dutenean.

6. Kontsumoa, azalera, eredugarritasuna edo bertarutzen den pertsona kopurua dela eta, gomendagarria denean, administrazio publikoaren eraikinetan, sarreratik gertu eta ongi ikusteko moduan kartel bat paratuko da eraikinean energia aurrezteko, efizientzia energetikorako eta energia berriztagarriak ekoizteko aplikatu diren neurriak azalduz, energiaren arloko eskumena duen departamentuak xedatzen dituen baldintzekin.

7. Foru lege hau onetsi ondoren gehienez ere hiru urtean onetsiko den erregelamenduzko garapenaren bitartez ezarriko da zer prozedura erabiliko den Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak, energiaren arloko eskumena duen departamentuaren laguntzarekin, bere gain har dezan auditoretza energetikoa egin eta energia-kudeatzailea izendatzeko eginkizuna 5.000 biztanle eskubidedun baino gutxiago duten udalerrietan, udalak eskatu ondoren eta eginkizun horiek mankomunatuta betetzen ez badituzte”.

Zioak: idazketa hobetzea eta 3 urteko epea zehaztea ezartzeko zer prozedura erabiliko den toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak, energiaren arloko eskumena duen departamentuaren laguntzarekin, bere gain har dezan auditoretza energetikoa egin eta energia-kudeatzailea izendatzeko eginkizuna 5.000 biztanle eskubidedun baino gutxiago duten udalerrietan, udalak eskatu ondoren eta eginkizun horiek mankomunatuta betetzen ez badituzte.

Entzunaldiak 8 urteko iraupena izanen du, salbuetsiz 10.000 biztanle baino gehiagoko toki erakundeak; horien kasuan, lau urteko indarraldia izatea proposatu da.

Horrez gain, administrazio publikoek eta haien menpeko erakundeek betebeharrak hau ere badutela ezartzen da: “erakunde publikoen jabetzakoak diren edo horiek okupatzen dituzten eraikinen sarreretan, leku ikusgarri batean ziurtagiri energetikoa erakusteko betebeharrak, urtebeteko epean foru lege hau indarrean jartzen denetik aurrera zenbatzen hasita”, eta ziurtagiriaren eguneraketek energia ratioa eta CO2 isurketak hobetu beharko dituzte.

209. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

55. artikuluan (Administrazio publikoaren auditoretza energetikoak) 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Auditoretza energetikoak 8 urtean egonen dira indarrean egiten direnetik. 10.000 biztanletik gorako herrietan indarraldia ___ urtekoa izanen da”.

Zioak: beharrezkotzat jotzen dugu epeak laburtu eta mugatzea 10.000 biztanletik gorako herrietan.

210. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

55. artikuluan (Administrazio publikoaren auditoretza energetikoak) 6. puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“6. Kontsumoa, azalera, eredugarritasuna edo bertarutzen den pertsona kopurua dela eta gomendagarria denean, administrazio publikoaren eraikinetan, sarreratik gertu eta ongi ikusteko moduan kartel bat paratuko da eraikinean energia aurrezteko, efizientzia energetikorako eta energia berriztagarriak ekoizteko aplikatu diren neurriak azalduz, energiaren arloko eskumena duen departamentuak xedatzen dituen baldintzekin.

Foru lege hau indarrean jartzen denetik urtebete pasatu baino lehen ziurtagiri energetikoa erakunde publikoen jabetzako edo haiek okupatuta dituzten eraikinen sarreran jarriko da, ongi ikusteko moduan.

Gainera, eraikinetan esku hartuz gero, kontuan eduki beharko da Dagoen Eraikinaren Liburua aplikatzea”.

Zioak: uste dugu ziurtagiri energetikoez kontsumoaren eta emisioen ratioa hobetzea izan behar dutela helburu. Gainera, Dagoen Eraikinaren Liburua aplikatuz gero, eraikinetan diagnostikoak egin ahalko dira; Nafarroako Gobernuak figura hori garatuko du Next Generation funtsak inplementatzeko.

211. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

55. artikuluan (Auditorretza energetikoa administrazio publikoetan) 7. puntua aldatzeko zuzenketa:

“7. Bi urteko epean, erregelamenduz garatu eta ezarriko da zer prozedura erabiliko den toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak, energiaren arloko eskumena duen departamentuaren laguntzarekin, bere gain har dezan auditorretza energetikoa egin eta energia-kudeatzailea izendatzeko eginkizuna 5.000 biztanle eskubidedun baino gutxiago duten udalerrietan, udalak eskatu ondoren eta eginkizun horiek mankomunatuta betetzen ez badituzte”.

Zioak: erregelamendua prestatzeko epeak ezarri beharra dago, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan departamentuak bere gain hartu ahal dezan auditorretza energetikoa egiteko ardura.

212. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

56. artikuluan 2. apartatuko c) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako hau izanen da:

“c) Beren eraikinetan energia berriztagarrien aprobeixamendurako sistemak instalatzeko egutegi bat, helburua izanik 2030a baino lehen administrazio bakoitzaren eraikinen energia-kontsumo guztiaren % 35 izatea, 2035 baino lehen % 65era iristea, eta %100 izatea 2040 baino lehen. Horretarako ezarriko dituzte energia fotovoltaikoa sor-

tzeko instalazioak, administrazio bakoitzaren eraikinen estalkien azaleraren % 40an, 2030 baino lehen, % 65 estaliz 2035 baino lehen, eta % 100era iritsiz 2040erako.

Zioak: modu handinahiago baina errealistan hobetzea eraikinetan energia berriztagarrien aprobeixamenduzko sistemen bitartez estaltzeko helburuak, horretarako energia fotovoltaikoa instalatuta.

213. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

56. artikuluan (Erregai fosilekiko menpekotasuna murrizteko jarduketa-plan energetikoa) 3. puntua aldatzeko zuzenketa:

“3. Birgaitzen diren eraikin publikoek, Etxegin-tzaren Kode Teknikoak zehazten duenaren arabera, gutxienez, 'B' kalifikazio energetikoa lortzeko behar diren lanak egin beharko dituzte, salbu eta ondare-eraikinek, ezin badute kalifikazio hori lortu beren ondare-balioari kalterik egin gabe”.

Zioak: salbuespena ezarri beharra dago balio handiko eraikin katalogatuetan eta ondarekoetan.

214. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

56. artikulua (Erregai fosilekiko menpekotasuna murrizteko jarduketa-plan energetikoa) aldatzeko zuzenketa. 3. puntuaren testu berria honako hau izanen da:

“3. Kontsumo-efizientzia D mailakoa baino txarragoa duten eraikin publiko guztiak birgaitu behar dira 2025erako”.

Zioak: uste dugu D kalifikazio energetikoa duten eraikinek lehentasuna izan behar dutela, eta 2025ean ezartzen dugu epemuga.

215. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

56. artikulua aldatzeko zuzenketa: 4. apartatua kentzea.

Zioak: kontratazio publikoari buruzko V. tituluaren kapitulu berri bat gehitzea proposatzen duen zuzenketarekin bat.

216. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

56. artikuluko 5. apartatua aldatzen duen zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“5. 2025etik aurrera, Foru Komunitateko Administrazioak, toki erakundeek eta haien organismo publikoek kontsumitzen duen energia elektrikoaren erdiak izan beharko du A sailkapeneko ziurtagarria, jatorria, osotara berriztagarrietan duela dioena, eta 2030etik aurrera, berriz, kontsumitutako energia elektriko guztiak berriztagarria izan beharko du osotara (A sailkapena). Energia elektriko horretatik % 25 autoekoiztua izanen da, eta modu horretan herritarrek eta energia komunitateek ekoizpenean parte hartzeko aukera izanen dute, gutxienez urteko ekoizpenaren % 51n”.

Zioak: asmoa da administrazioa derrigortzea bera ere energia elektrikoaren prosumitzaile izatera, eta aldi berean, herritarrek ekoizpenean parte hartzen ahal izatea.

217. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

57. artikuluan (Erabilera orokorreko ibilgailu elektrikoaren karga puntuak) 1. puntua aldatzeko zuzenketa:

“1. Toki erakunde guztiek, bi urteko epean, beren udalerrian izan beharko dute 22 kW edo gehiagoko karga puntu bat, gutxienez, automobila eta ibilgailu komertzialak kargatzeko, eta 7,4 kW edo gehiagoko beste karga puntu bat ziklotorrorak, bizikleta elektrikoak eta mugikortasun pertsonaleko beste ibilgailu batzuk kargatzeko.

Prozedura publiko baten bidez instalatuko dira, norgehiagoka librea eta eskaintzen arteko lehia bermatuta. Irisgarritasun unibertsal eta librea egonen da haiek erabiltzeko. Eta operadore adjudikaziodunak bermatuko du haien mantentzea.

Nafarroako toki erakundeek bermatuko dute lurzoru publikoak erabili ahal izatea artikuluko honetako eskakizunak betetzeko behar diren instalazioak egin ahal izateko.

Nafarroako Gobernuak urtero aurrekontu partida bat gaituko du, egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik

artikuluko honetako betebeharrak bete ezin dituzten herrietan instalazio hori finantzatzeko”.

Zioak: klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloko helburuak betetzea biztanle guztiei dagokie eta, beraz, biztanleria duten administrazio entitate guztiei, zenbat biztanle dituzten alboratu. Gainera, Europako araudiak eskatzen du artikulukoaren testuan azaltzen diren printzipioei lotuta bete daitezela helburuak.

218. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

57. artikulua (Erabilera orokorreko ibilgailu elektrikoaren karga puntuak) aldatzeko zuzenketa. 1. puntuaren testu berria honako hau izanen da:

“1. Bi urte igaro aurretik 1.000 bizilagunetik goitiko toki erakunde guztiek gutxienez erabilera orokorreko 7,4 kW-ko (karga motela) karga-puntu publiko bat jarri beharko dute mila biztanleko eta 40 kW-ko (karga azkarra) karga-puntu bat 1.000 biztanleko, eta gutxienez ziklotoreak, bizikleta elektrikoak eta mugikortasun pertsonaleko beste ibilgailu batzuk kargatzeko puntu bat 1.000 biztanleko. Betebehar hau erabilera publikoko karga-puntuei dagokie, publikoei nahiz pribatuei”.

Zioak: 7,4 kW-eko karga-puntuak karga motelekoak direnez, saturatu egin daitezke, eta horrek gutxi laguntzen du mugikortasun elektrikoaren sustatzen; horregatik, 40 kW-eko karga-puntuak ere sustatu nahi ditugu karga azkarretarako.

219. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

57 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“57 bis artikulua. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak.

1. Nafarroako administrazio publikoek ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen sarea planifikatu eta ezarriko dute; sarea egokia eta nahikoa izanen da lurralde osoan foru lege honen helburuak betetzeko.

Horretarako, gutxienez estatu, foru, eskualde eta toki errepideetarako 50 kilometrotik behin karga puntuak dituen sarea diseinatuko da.

2. Horretarako, sektore pribatuan karga elektrikoak puntuak ezartzea ere sustatuko dute.

Nahikoa karga puntu pribaturik ez badute, Nafarroako administrazio publikoek zuzenean beteko dute behar hori zerbitzu publiko gisa.

3. Ibilgailu elektrikoentzako karga puntuen garapenak kontuan hartuko du banaketa sarearen gaitasuna; gaitasun hori, halaber, modu progresiboan indartuko da artikuluko honetako 1. apartatua betetzeko”.

Zioak: foru legean jaso behar da gehitu nahi dugun artikuluko edukia, izan ere, karga puntuak ezinbestekoak dira mugikortasun jasangarriaren aurrera egiteko, eta bereziki, bermatzeko errekuntza ibilgailuetatik ibilgailu elektrikoetarako trantsizioa bidezko moduan egiten dela.

220. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

V. tituluaren kapitulu berri bat gehitzeko zuzenketa, 58. artikulua baino lehen. Hona testua:

“___KAPITULUA. Kontratazio publikoko neurriak

___artikulua. Kontratazio publikoaren xedapen orokorrak.

1. Kontratuei buruzko foru legeriaren esparruan, Nafarroako administrazio publikoek, beren erakunde instrumentalak barne, energia eta ingurumen jasangarritasuna sustatuko dute kontratazio publikoko tresnen bidez, foru lege honen helburuekin bat.

2. Ondorio horietarako, kontratuaren xedek ahalbidetzen duen heinean, kontratazioan jasangarritasun eta energia efizientziako irizpideak gehituko dira. Bestela, pleguak arrazoituta justifikatu beharko du irizpide horiek gehitu ez izana.

3. Nafarroako administrazio publikoek balorazio irizpide gisa sartuko dute lizitatzailerik karbono aztarnaren eta aztarna hidrikoaren erregistro publikoetan inskribatu izanaren balorazioa, erregistro horren bidez egiaztatzen dutenean isurketak gutxitu edo konpentsatu dituztela eta erosketak berdearen kontzeptua.

4. Administrazio kontratazio organoek Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoaren eta Energiaren Agentziaren aholkularitza jasotzen ahalko dute kapitulu honetako xedapenak betetzeko.

___artikulua. Kontsumo elektrikoaren jatorri berriztagarria bermatzea.

Nafarroako administrazio publikoek bermatuko dute foru lege hau indarrean jarri ondoren lizitazioen dituzten hornidura elektrikoak kontratuen energia ziurtatuaren % 100 berriztagarria dela, albo batera utzi gabe foru lege honen 56.5 artikuluan finkatutako irizpideak.

___artikulua. Karbono aztarna eta produktu eta zerbitzuen aztarna hidrikoa kontratazio publikoan.

Nafarroako Gobernuaren erakunde publikoak gauzatzen dituzten lizitazioetan:

a) Administrazio klausula berezien pleguetan eskaintzak baloratzeko irizpide gisa jasotzen ahalko da lizitazioen xede diren produktuen edo zerbitzuen karbono aztarna eta/edo aztarna hidrikoa izan beharra, Kontratu publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearekin bat.

b) Eskaintza aurkeztean, lizitatzailerik egiaztatu beharko dute indarrean dutela Karbono Aztarnaren eta Aztarna Hidrikoaren Erregistroko inskripzioa.

___artikulua. Obra publikoak.

1. Nafarroako administrazio publikoek hauek jasoko dituzte:

A) Xedapen hauek obra publikoko kontratu edo emakidei zuzendutako lizitazioen pleguetan:

a) Estatuko araudiaren eskakizunekin bat, instalazioen eraikuntza berrien energia kontsumoa ia hutsala izanen da.

b) Aipatu eraikuntza eta instalazioek energia berriztagarriko iturriak izanen dituzte bertan edo lursail mugakideetan edo ondokoetan, horien bideraezintasun teknikoak justifikatzen ez bada.

c) Eraikin eta instalazio horiek ingurumen inpaktu baxuko eraikuntza materialen erabilera jasoko dute, lehentasunez, toki jatorrikoak.

d) Eraikinak eraikitze edo eraberritzeko proiektuetan beti sartuko da eraikuntza jasangarriko ziurtagiri bat; horren bitartez bermatuko da eraikitze, erabiltze edo eraisteko berotegi-efektuko gasen isurketak gutxituko direla, energia efizientzia, uraren aurrezpena eta hondakinen murrizketa edo hondakinak berrerabili edo birziklatzeko aukera.

B) Proiektuak idazteko kontratuen lizitazioen pleguetan:

a) Birgaitze proiektuak edo obra berriko proiektuak direnean, obraren autosufizientziako goreneko mailak bermatzen dituzten baldintzak edo bete-kizunak gehituko dira, behin zerbitzuan sartu

ondoren. Horretarako, modu berezian jorratuko dira betekizun bioklimatikoak, betiere kontratuaren xedeari lotuta badaude. Irizpide bioklimatikoak bete ezin direnean, arrazoituta justifikatu beharko da.

b) Proiektuek obren eraikuntzan erabilitako espazio publikoen energia ekoizpenaren eta energia biltegitratzearen potentziala maximizatuko dute.

c) Eraikuntza material eta teknika jasangarriak erabiltzea proiektuaren obra edo instalazioa egikaritzeko.

d) Proiektu teknikoetan nahitaez aurkeztu beharko dira honako agiri hauek, betiere proiektuaren izaerak hala eskatzen duenean:

a) Aurreko informatika aplikaziotik ateratako efizientzia energetikoaren ziurtagiria.

b) DB HR K1 fitxa (isolamendu akustikoa).

c) Hondakinen kudeaketako azterketa.

Aurreko xedapenak Administrazio Publikoko langileek edo bitarteko propioek idatzi edo egikaritutako proiektuei ere aplikatuko zaizkie.

C) Obra egikaritzeko kontratuen lizitazio pleguetan:

1. Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak eta obra egikaritzean erabiltzen ahalko diren bestelako hondakinak erabiltzea, betiere ahal denean eta obraren izaerak ahalbidetzen badu; horrela ez bada, horiek ez erabiltzea justifikatu beharko da. Horiek ez erabiltzeko justifikazio arrazoi gisa ezin izanen dira alegatu irizpide ekonomikoak.

2. Hondakinen kudeaketa planek modu justifikatuan maximizatu beharko dute horien berrerabilpena.

3. Aurreko xedapenak Nafarroako administrazio publikoek, sektore publikoko erakundeek edo horien bitarteko propioek zuzenean egindako proiektu eta obrei ere aplikatuko zaizkie”.

Zioak: lege proiektuak ia ez du erreferentziarik egiten administrazio kontratazioan klima aldaketari eta trantsizio energetikoari eman behar zaion garrantziari buruz, eta beraz, alor horretarako hainbat proposamen egin ditugu.

221. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

V. tituluko I. kapituluan artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa, 58. artikulua baino lehen. Hona testua:

“ ____ artikulua. Karbono aztarna eta produktu eta zerbitzuen aztarna hidrikoa kontratazio publikoan.

Nafarroako Gobernuak eta foru sektore publikoak egindako lizitazioetan:

a) Administrazio klausula berezien pleguetan eskaintzak baloratzeko irizpide gisa jasotzen ahalko da lizitazioen xede diren produktuen edo zerbitzuen karbono aztarna eta/edo aztarna hidrikoa izan beharra, Kontratu publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearekin bat.

b) Eskaintza aurkeztean, lizitatuzaileek egiazta-tu beharko dute indarrean dutela Karbono Aztarnaren eta Aztarna Hidrikoaren Erregistroko inskripzioa”.

Zioak: beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak eta bere menpeko erakundeek egiten dituzten lizitazioetan balorazio irizpide gisa gehitzea karbono aztarnaren eta aztarna hidrikoaren xedapena, eta lizitatuzailea Karbono Aztarnaren Erregistroan inskribatzea.

222. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

58. artikuluan (Modu jasangarrien eta erregai alternatiboen erabilera administrazioaren ibilgailuetan) 4. puntua aldatzeko zuzenketa.

“4. Foru lege honek indarra hartu eta bi urteko epean, administrazioek eta haiei lotutako organismo publikoek lanera joateko eta lanak eragindako joan-etorrietarako mugikortasun-planak prestatu beharko dituzte. Haietan sustatuko dituzte langileen artean oinezko joan-etorriak, bizikleta eta antzekoen erabilera, garraio partekatua eta garraio kolektiboa autobusean edo garraio publikorako bonuak, eta minimizatuko ibilgailu motordunetan egiten diren joan-etorriak”.

Zioak: uste dugu klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloko helburuak betetzea biztanle guztiei dagokiela eta, beraz, biztanleria duten administrazio entitate guztiei, zenbat biztanle dituzten albora utzita.

223. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

58. artikuluar (Modu jasangarrien eta erregai alternatiboan erabilera administrazioaren ibilgailuetan) 5. puntua gehitzeko zuzenketa:

“5. Urtebete igaro aurretik Nafarroako Gobernuak telelanerako plana prestatu behar du administrazio publikoetarako, eta behar diren legeria-aldaketak proposatuko ditu lanpostuan etengabe nahitaez egon behar ez duten langileek etxetik lan egin ahal izan dezaten”.

Zioak: uste dugu beharrezkoa dela telelana bultzatzea Administrazio Publikoan, BEGen emisioak murrizteko.

224. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

58. artikuluar (Modu jasangarriak eta erregai alternatiboak erabiltzea norberaren ibilgailuan) puntu bat (bosgarrena) gehitzeko zuzenketa:

“5. Administrazioaren jardunean, 500 kilometrotik beherako ostera egin behar izanez gero, garraio kolektiboa erabiliko da, egonez gero. Aireko garraioa gabe tren erabiliko da bidaia hiru urtetik beherakoa izanez gero”.

Zioak: ingurumen inpaktuaren ikuspegitik, lehentasunezkoa da garraio kolektiboa erabiltzea banakakoaren orde, eta, kasu honetan, tren erabiltzea errepideko garraioaren orde.

225. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

58. artikuluar (Modu jasangarriak eta erregai alternatiboak erabiltzea norberaren ibilgailuan) puntu bat (seigarrena) gehitzeko zuzenketa:

“6. Urtebete igaro aurretik Nafarroako Gobernuak telelanerako plana prestatu behar du administrazio publikoetarako, eta behar diren legeria-aldaketa proposatuko ditu lanpostuan nahitaez egon behar ez duten langileek etxetik lan egin

ahal izan dezaten eguneko lanaldiaren % 75ean gutxienez”.

Zioak: telelanaren helburua da langile publikoek gogobetetze maila handiagoa izatea lanean eta, horrela, eraginkortasun handiagoa lortzea zerbitzuak ematean. Oro har, Nafarroako Gobernuak aurreikusten du telelaneko modalitatean lanaldia hiru eguneko ia izanen dela gehienez astean, beste hiru egunak lanaldi presentzialeko modalitatean eginen dituztela, eta ezin izanen dela eguneko lanaldia zatitu bi modalitateetan aritzeko.

VI. TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

226. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

59. artikuluan (Kontrola eta ikuskapena) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Trantsizio Energetikorako Nafarroako Agentziak beteko ditu ikuskapenaren eginkizunak foru lege honetan ezartzen den moduan”.

Zioak: uste dugu Trantsizio Energetikorako Nafarroako Agentziak hartu behar duela bere gain ikuskapen funtzioa, arlo horretan espezializazioak garrantzi handia duelako.

227. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

3. artikuluar 3. apartatua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Ikuskaritza zereginak hauek izanen dira, besteak beste: in situ bisitak, isurketak neurtzea, barne txostenak eta jarraipen agiriak egiaztatzea, autokontrolak egiaztatzea, erabilitako teknikak frogatzea, eta neurriak araudira egokitzen diren edo ez zehaztea”.

Zioak: artikuluararen edukia hobetu da eta horretarako 3. apartatu berria gehitu da. Bertan, ikuskaritza funtzioaren barne dauden jarduerak deskribatzen dira.

228. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

59 bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“59 bis artikulua. Administrazioaren jarduketaren helburua.

1. Ingurumenaren arloan eskuduna den departamentuaren ikuskaritza zerbitzuei dagokie honakoak egitea:

a) Administrazio publikoen, enpresen eta herri-tarren jarduketa bideratzea klima politiken helburuak lortzera.

b) Aholkularitza ematea lege honetan eta berau garatzen duen araudian ezarritako betebeharrak juridikoak betetzeko.

c) Ingurumen arloan indarrean dagoen legeria betetzen dela kontrolatu eta egiaztatzea.

d) Kautelazko neurriak ezartzea eta zehapen prozedurak hastea ahalbidetzen duten jarduketak formalizatzea.

2. Baimena duten kontrol erakundeei dagokie ingurumen apartatuko b) eta c) letretan aipatutako eskudantziak egikaritzea indarreko legeriaren terminoetan.

3. Ikuskapen batean ondorioztatzen bada posible dela beste organo edo administrazio publiko batzuen zehapen eskumenei eragiten ahal dieten arau-hausteak egotea, ingurumen arloko departamentu eskudunak egindako aktak jakinaraziko dizkie, eta, hala dagokionean, baita eskuragarri dituen txosten osagarriak ere”.

Zioak: artikulua berri horren bidez foru lege proiektuan ikuskaritza jarduerari buruz egiten den erregulazio urria indartzen da eta ikuskaritzaren bitartez lortu beharreko helburuak, zenbait eskudantzia baimendutako kontrol organismoen uzteko aukera eta beste administrazio baten eskumeneko jarduketaren lekualdatzea jasotzen dira.

229. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

59 ter artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“59 ter artikulua. Ikuskaritzako zerbitzu publikoak.

1. Funtzio publikoaren araudiaren arabera, horretarako behar bezala gaituta dauden funtzionarioek osatzen dute ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuko ikuskaritza zerbitzua. Ikuskaritza funtzioa gauzatzen duten funtzio publikoko langileek agintaritza publikoaren izaera izanzen dute.

2. Ikuskaritza lanak gauzatzen dituztenek, besteak beste honako ahalak egikaritzen ahalko dituzte:

a) Etxebizitzak ez diren eta energia kontsumitzaile edo sortzaile diren higiezin, establezimendu edo instalazioetara sartzea.

b) Arrazoituz eskatzea establezimenduaren edo instalazioaren titularra, arduraduna edo ordezkaria eta ekipoen eta gailuen instalazioan, mantentzean edo kontrolean parte hartu duten langile teknikoak Administrazioaren bulegoetan agertu beharra.

c) Ikuskaritza funtzioak betetzeko beharrezkoa den dokumentazioa eta informazioa aurkezteko eskatzea.

d) Aplikatu beharreko araudia betetzen dela egiaztatzeko ikerketa eginbideak, funtzionamendu kontrolak edo probak egitea.

3. Artikulu honetako 1. apartatuan aipatzen diren langileak behar bezala identifikatuko dira, sekretu profesionala gordeko dute eta ikuskaritza jarduketaren konfidentzialtasuna errespetatuko dute”.

Zioak: artikulua berri honekin lortu nahi da foru legeak ikuskaritza jardueraren inguruan duen erregulazio urria indartzea, kasu honetan ikuskatzaileen eskumenei dagokienez, eta ondorio juridiko guztietarako aitortzen zaie agintaritza publikoaren izaera, betiere ikuskaritza jarduera gauzatzen ari direnean.

230. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

59 quater artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“59. quater artikulua. Kontrol erakundeei ikuskaritza lanak egitea.

1. Indarreko legeriarekin bat, Administrazioak baimendutako kontrol erakundeei ikuskaritza lanak eginen dituzte ingurumen arloan eskuduna den departamentuak edo pertsona edo erakunde interesdunek hala eskatzen dutenean.

2. Energia kontsumitzen edo sortzen duten jarduera eta instalazioen pertsona edo erakunde titular edo arduradunek kontrol erakundeetako langileei instalazioetan sartzen utziko diete eta beren lana egiteko eskatutako informazioa eta dokumentazioa emanen diete.

3. Gehienez ere hilabeteko epean, kontrol erakundeek ingurumen arloan eskuduna den departamentura bidaliko dute beren jarduketan emaitza, dagozkien txostenen bidez.

4. Txosten horiek azaltzen dutenean indarreko araudia urratu dela edo akatsak egon direla, ingurumen arloan eskuduna den departamentuak bere zerbitzuei ikuskaritza lanak egiteko aginduko die, eta, hala dagokionean, detektatutako akatsak edo ez-betetzeak zuzendu edo konpontzeko.

5. Erregelamenduz arautuko dira efizientzia energetikoaren eta klima aldaketaren arloan baimena duten kontrol erakundeen erregistroa, baimena, erregimena eta funtzionamendua”.

Zioak: artikulu berri horretan baimendutako kontrol organismoek egiten ahal duten jarduera ikuskatzailea arautzen da, bai ingurumen departamentuak bai erakunde interesdunek eskatuta.

231. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

59 quinquies artikulu berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“59. quinquies artikulua. Zuhurtasunezko neurriak.

1. Ikuskapenetan argi ondorioztatzen denean foru lege honetako betebeharrak bete ez direla eta kalte larriak sortzen ahal direla pertsonen eta ondasunen segurtasunean edo ingurumenean, ikuskaritzako zerbitzu publikoek kautelazko neurriak ezartzen ahalko dituzte eta neurri horiek ingurumen arloan eskuduna den zuzendari nagusiak baieztatu, aldatu edo indargabetu beharko ditu hiru eguneko epean.

2. Halaber, instrukzio organoak kautelazko neurriak ezartzen ahalko ditu zehapen prozeduran, aurreko apartatuko terminoetan.

3. Kautelazko neurrien iraupena eta irismena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoekin bat zehaztuko dira”.

Zioak: ikuskapenetan detektatzen bada foru lege honetan ezarritako betebeharrak argi eta

garbi betetzen ez direnaren zantzuak daudela eta ez betetze horiek kalte larriak sortzen ahal badiuzte pertsonen eta ondasunen segurtasunean edo ingurumenean, zehapen prozedura batean bezala jardunen da. Beraz, beharrezkoa da arautzea inguruabar horietan kautelazko neurriak ezartzeko aukera.

232. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

59 sexies artikulu berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“59. sexies artikulua. Efizientzia energetikoko ikuskapenak..

1. Efizientzia energetikoaren betekizunak betetzen direla egiaztatzeko, ingurumen arloan eskuduna den departamentuak energia kontsumitzen edo sortzen duten instalazioen hasierako eta aldizkako ikuskapenak planifikatuko ditu estatu erregelamenduan edo foru erregelamendu espezifikoan ezarritako terminoetan.

2. Ikuskapenetan idatziz jasoko dira instalazioaren sailkapen eta kalifikazioarekin lotuta indarrean dagoen araudiaren betetze maila”.

Zioak: artikulu berri horretan energia kontsumitzaile edo sortzaile diren instalazioen hasierako eta aldian aldiko ikuskapenen plangintza arautzen da estatu edo foru erregelamendu espezifikoan ezarritako terminoetan.

233. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

63. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“63. artikulua. Arau-haustekak.

Foru lege honen ondorioetarako, eta legedi sektorialak xedatzen duena galarazi gabe, honakoak arau-hauste administratiboak izanen dira:

1. Oso astunak:

a) Ez betetzea energia eta karbono aztarna murrizteko planetan ezarritako helburuak, berotegi-efektuko gasen isurketen murrizketakoak, isurketa horiek baimendutako adierazlea baino %100 handiagoak badira.

b) Baimendutako kontrol erakundeek egindako ikuskapenek, probek edo entseguek nahita osatu

gabe edo emaitza faltsu eta okerrekin adierazten badituzte klima aldaketaren arloko beren funtzioak betetzean egiaztatutako egitateak.

c) Subjektu pribatuek, foru lege honen arabera, egin edo aurkeztu behar dituzten ziurtagiri, txosten, akta, memoria, proiektu tekniko edo beste edozein dokumentu ematea, haien edukiak, nahitara, errealitatea islatzen ez duenean, edo datu faltsuak jasotzen dituenean.

d) Arau-hauste astunak behin eta berriz egitea, horiek egin aurreko bi urteetan zigortuak izan direnean.

2. Astunak:

a) Ez betetzea energia eta karbono aztarna murrizteko planetan ezarritako helburuak, energia kontsumoak eta berotegi-efektuko gasen isurketen murrizketakoak, isurketa horiek baimendutako adierazlea baino %50 handiagoak badira.

b) Sistema elektrikoaren edo erregai fosilen operadoreek energia kontsumoei buruzko informazioak ez ematea edo informazioa eskuratzea oztopatzea eta banaketa sareen konexioari eta ebakuazio gaitasunari buruzko informazioa falta izatea (horien trazadura, kokapena eta eraldaketa eta tratamendu zentroen ezaugarriak barne), foru lege honen eskakizunen arabera.

c) Instalazioetara sartzea edo informazio eta zaintza zereginak egitea ukatzea ikuskapen-zerbitzu publikoei edo baimendutako kontrol-organismoek, foru lege honek edo honen erregelamendu bidezko garapenak ematen dizkieten eginkizunak galarazten edo eragozten direnean eta datuak ematea ukatzea.

d) Arau-hauste astuna izanen da mugikortasuna sortzen duten zentro handiek foru lege honen 33. artikuluan beren langile, bezero eta erabiltzaileentzat ezarritako mugikortasun plan jasagarrien betebeharrak ez betetzea.

e) Foru lege honek eta berau garatzen duten erregelamenduzko arauak zehaztutako betebeharrak ez betetzea energia berriztagarrien eta energia efizientziaren arloetan eraikinak eraiki eta birgaitzeari dagokionez.

f) Energia zaurgarritasun egoeran dauden kontsumitzaileei oinarritzko energia hornidurak moztea, foru lege honen 48.3 artikuluan ezarritakoa urratuz.

3. Arinak:

a) Ez betetzea energia eta karbono aztarna murrizteko planetan ezarritako helburuak, energia kontsumoak eta berotegi-efektuko gasen isurketen

murrizketakoak, isurketa horiek baimendutako adierazlea baino % 50 handiagoak ez badira eta erantzuleak jaso baldin badu aurretik ikuskapeneko zerbitzu publikoen ohartarazpena.

b) Ez betetzea karbono aztarnaren kalkuluak, energia eta karbono aztarna murrizteko planak eta haien jarraipena, agintaritza eskudunek zehaztu bezala, aurkezteko betebeharra.

c) Apainketa, publizitate edo merkataritzako argiteria piztuta izatea fluxu murriztuko ordutegian.

d) Auditoretza energetikoak eta jarduketa energetikoaren planak ez aurkeztea, foru lege honetan ezartzen diren moduan eta epeetan.

e) Laguntza ez ematea funtsezko datuak aurkezterakoan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan estatistikaren eginkizuna betetzeko eskumena duten erakundeei.

f) Ikuskapen zerbitzu publikoei laguntza ez ematea eta administrazio publikoek eskatutako informazioa emateari uko egitea, arau-hauste astuna ez denean.

g) Administrazio publikoek ez betetzea 56.4 artikuluan ezarritako betebeharra, hau da, ia kontsumo hutsalik ez duten higiezinak alokatzea foru lege honetan ezarritako epean.

h) Administrazio publikoek eta horiekin lotutako erakundeek ez betetzea % 100eko jatorri berriztagarria duen elektrizitatea kontratatzeko betebeharra foru lege honen 58.5 artikuluan ezarritako ehuneko eta epeetan.

i) Foru lege honetan edo haren garapenerako arauetan ezarritako beste edozein eskakizun, betebeharrak edo debeku ez betetzea, arau-hauste astuna edo oso astuna ez denean”.

Zioak: gure ustez falta oso astun gisa sailkatu beharko lirake lege proiektuan falta astun gisa jasota daudenak, eta gainera, proposatzen dugu bi urteko epean behin eta berriz egitean, falta astun bihurtzea. Horrez gain, hiru sailkapen berri gehitu dira falta astun gisa:

– Arau-hauste astuna izanen da mugikortasuna sortzen duten zentro handiek foru lege honen 33. artikuluan beren langile, bezero eta erabiltzaileentzat ezarritako mugikortasun plan jasagarrien betebeharrak ez betetzea.

– Foru lege honek eta berau garatzen duten erregelamenduzko arauak zehaztutako betebeharrak ez betetzea energia berriztagarrien eta energia efizientziaren arloetan eraikinak eraiki eta birgaitzeari dagokionez.

– Arau-hauste arin bat behin baino gehiagotan egitea, eta arau-hauste berarengatik zehapena jaso izana hura berriz egin aurreko bi urteetan.

Halaber, arau-hauste astunen b) letra osatu da “banaketa sare guztien konexioari eta ebakuazio gaitasunari buruzko informazio falta, trazadura, kokapena eta transformazio eta tratamendu zentroen ezaugarriak barne” esaldiarekin, beste zuzenketa batean operadore horien betebeharren barne jaso zena.

Falta arinetan bi sailkapen berri hauek gehitu dira:

– Administrazio publikoek ez betetzea 56.4 artikuluan ezarritako betebeharra, hau da, ia kontsumo hutsalik ez duten higiezinak alokatzea foru lege honetan ezarritako epean.

– Administrazio publikoek eta horiekin lotutako erakundeek ez betetzea % 100eko jatorri berriztagarria duen elektrizitatea kontratatzeke betebeharra foru lege honen 58.5 artikuluan ezarritako ehu-neko eta epeetan.

234. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

63. artikulua (Arau-hausteak) aldatzeko zuzenketa. 63. artikuluan 1. apartatuari d) letra gehitzen zaio:

1. Oso astunak:

“b) Subjektu pribatuek edo publikoek foru lege honen arabera egin edo aurkeztu behar dituzten ziurtagiri, txosten, akta, memoria, proiektu tekniko edo beste edozein dokumentu ematea, haien edukia, doloz, errealitatea islatzen ez duenean, edo, nahitara, datu faltsuak jasotzen dituztenean”.

Zioak: klima aldaketaren arazoak hainbestearinoko garrantzia izanik, uste dugu lege honetan ezarritako helburuak betetzeko aintzat hartu behar diren datuak nahita faltsutzea arau-hauste oso astuntzat jo behar dela.

235. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

63. artikulua (Arau-hausteak) aldatzeko zuzenketa. 63. artikuluan 2. apartatuko d) letra kentzen da.

Zioak: gai hau artikuluan 1. apartatura (arau-hauste oso astunak) aldatu da.

236. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

63. artikuluan (Arau-hausteak) 1. apartatuari c) letra gehitzeko zuzenketa:

“1. Oso astunak:

“c) Bost urteko epean falta astunak errepikatzea”.

Zioak: klima aldaketaren arazoak hainbestearinoko garrantzia izanik, uste dugu oso epe laburrean falta astunak behin baino gehiagotan egitea falta oso astuntzat jo behar dela.

237. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

63. artikuluan (Arau-hausteak) 2. apartatuari f) letra gehitzeko zuzenketa:

“1. Astunak:

f) Bost urteko epean falta arinak errepikatzea”.

Zioak: klima aldaketaren arazoak hainbestearinoko garrantzia izanik, uste dugu oso epe laburrean falta arinak behin baino gehiagotan egitea falta astuntzat jo behar dela.

238. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

64. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“64. artikulua. Zehapenak.

1. Foru lege honetan aurreikusten diren arau-hausteak egiteagatik, honako zehapen hauetako bat ezarriko da:

a) Arau-hauste oso astunak, 250.001etik 2.500.000 eurora bitarteko isuna.

b) Arau-hauste astunak: 25.001etik 2500.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste arinak: 600etik 25.000 eurora bitarteko isuna.

2. Halaber, egintzen ezaugarrien arabera, edo trantsizio energetikorako eta klima aldaketaren aurkako borrokarako jarduketak gauzatzean izan dezaketen eraginagatik, isunaz gain, honako zehapen hauetako bat ezartzen ahalko da:

a) Energia ekoizten duen edo berotegi-efektuko gasen isurketak eragiten dituen jardueraren edo instalazioaren behin betiko itxiera, hiru urtez gehienez, arau-hauste oso astunen kasuan, eta urte bat gehienez, gainerako kasuetan.

b) Ibilgailuak edo makineria geldiaraztea, gehienez urte batez.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren dirulaguntza edo laguntza publikoak hartzeko eskubidea kentzea urte bat eta hiru urte bitarteko epe batez.

d) Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea arau-hauslearen identitatea eta ezarritako zehapena.

3. Zehapenen mailaketa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 29. artikuluan xedatutakoarekin bat eginen da.

4. Artikulu honetan aurreikusitako isunak jarzteak berez zehapenari dagokion helburu prebentiborako bide ematen ez badu, arrazoi aski bada, eta arau-hauslearen gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta, honako zehapen hauek ezartzen ahalko dira:

a) Arau-hauste oso astunetan, subjektuaren azken ekitaldi ekonomikoan izandako negozio-bolumenaren %10erainoko isuna.

b) Arau-hauste astunetan, subjektuaren azken ekitaldi ekonomikoan izandako negozio-bolumenaren %5erainoko isuna.

5. Foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteengatik ezartzen diren zehapenek murrizketa izaten ahalko dute, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

6. 63.1 a), 2 a) eta 3 a) artikuluetako arau-hausteen kasuan, zehapena ordaintzeak ez du salbuesten isurketak murrizteko betebeharririk”.

Zioak: gehitu egin dira zehapenen kopuruak, sailkatutako egitateen larritasunaren arabera. Horrez gain, jarduera bukatzea falta oso astunetako zehapen gisa ezarri da, ez bakarrik partziala edo aldi baterakoa.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da arau-hauslearen identitatea eta isunaz gain ezarritako zehapena.

Ezarrita ez egoteagatik interpretaziorik ez egiteko, foru legean jasota dago arau-hauste bat egiteagatik ezarritako zehapena ordaintzeak ez duela

salbuesten emisioen murriztapena eraginkor egitearen betebeharririk.

239. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

65. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“65. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1. Arau-hauste oso astunek bost urtera preskribatuko dute, astunek hiru urtera eta arinek urtebetera; arau-hauste oso astunengatik ezarritako zehapenek bost urtera preskribatuko dute, arau-hauste astunengatik ezarritakoek hiru urtera eta arau-hauste arinengatik ezarritakoek urtebetera.

2. Arau-hausteen preskribatze-epea zenbatzen hasiko da arau-haustea egin den egunetik aurrera.

3. Arau-hauste jarraituak egiten direnean, preskripzio-epea jarduera bukatzen denetik edo arau-haustearen azken egiteetik aurrera zenbatzen hasiko da. Arau-hausteak iraunkorrak direnean, epea legez kontrako egoera ezabatzen den egunean zenbatzen hasiko da. Arau-haustearen egitate edo jarduerak ezezagunak direnean kanpoko zeinurik ez dutelako, epe hori zeinuok azaltzen direnetik aurrera zenbatzen hasiko da.

4. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioari dagozkion gainerako gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoak aginduko du”.

Zioak: horrelako arau-hausteen inguruabarretarako egokia da zehaztea noiz hasten den zenbatzen preskripzioaren epea eta modu egokian zehaztu behar dira arau-hauste jarraituak, iraunkorrak edo preskripzioaren hasieraren kanpo zeinurik ez dutenak.

240. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

68. artikuluan (Zehapen prozedura) 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

“2. Zehapen prozeduran ebazpen espresa eman eta jakinarazteko epea, gehienez, sei hilabetekoa izanen da espedientea irekitzeko ebazpen administratiboa ematen den egunetik hasita”.

Zioak: uste dugu klima aldaketaren arlo erabat premiazko honetan, ezarritako epeak laburrak eta

nahitaezkoak direlarik, zehapen prozeduren tramitazioak ez duela sei hilabete baino gehiago iraun behar.

241. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat gehitzeko zuzenketa:

“70. artikulua. Fiskalitate klimatikoa.

1. Klima-aldaketaren aurkako borrokarako eta trantsizio energetikorako baliabideak direla-eta, erakundeek eta adituek adierazi dute tresna ekonomikoak eta tresna fiskalak eraginkorrak direla ingurumenaren arloko politiketan.

Ingurumenaren arloko politikan “kutsatzen duenak ordaindu behar du” printzipioa funtsezko estrategietako bat da, eta halakoak dira karbono gutxiko eta klimarekiko erresilientea den ekonomia bultzatzen duten politikak, bai eta energiaren erabilera eta berotegi-efektua duten jardura ekonomiko nagusietan sortzen diren ingurumen-kostuak barneratzeko aukera ematen dutenak. Gainera, horiei esker trantsizio ekologikorako baliabide ekonomikoak sortuko lirateke.

Oso garrantzitsuak izanzen lirateke honako hauen inguruko neurri fiskalak ezartzea: CO₂ -aren eta berotegi-efektuko beste gasen gaineko zergak; elektrizitatea; erregaiaren gaineko tasa bat (erregai fosilen gaineko zergak / zerga bereziak) edo zeharkako zergak isurketa handiko hiru-garren herrialdeetatik inportatutako produktuen gainean.

2. Klima fiskalitateari buruzko legeak honako hauek bildu beharko ditu:

a) “Kutsatzen duenak ordaindu behar du, eta gehien kutsatzen duenak gehien ordaindu behar du” printzipioa aplikatzeko neurriak.

b) Diru-sarrera urriko herritarrei konpentsazioak emateko sistema.

c) Konpentsazio-sistema bat garraio publikoaren sistema eskasa den eremuetan eta lantokitik urrun bizi diren herritarrentzat joan-etorrietan beren ibilgailua pribatua erabili behar izateagatik.

d) Garraioaren arloko eta lehen sektoreko profesionalei konpentsazioak emateko sistema.

e) Zerga finalistak, biltzen den dirua klima-aldaketa moteltzeko eta hartara egokitzeko neurrietan aplikatzeko.

3. Hiru hilabete igaro baino lehen zergen arloko eskumena daukan departamentuak batzorde independentea eratuko du zirriborroa egiteko. Bertan zergen arloko aditu ospetsuak ariko dira, eta proposatzen duten legea asmo handikoa izan beharko da ingurumenaren zein gizartearen ikuspegietatik”.

Zioak: Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak bezala, honako foru lege honek ere ingurumen-eta klima-fiskalitatearen arloei ekin behar lieke, besteak beste.

242. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria (Ebaluazioa) aldatzeko zuzenketa:

“Nafarroako Gobernuak bi urtean behin egiten du foru lege honen garapenari buruzko ebaluazio txosten bat, zeina Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Batzordera igorriko baita, eztabaidatu eta baloratu dezan, eta ondoren Nafarroako Parlamentura”.

Zioak: xedapen gehigarri hori aldatu egin da, legetik ezabatu delako Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseiluaren sorrera; eta epeak laburtu dira, klima larrialdian gaudela kontuan izanda.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

243. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Lehen xedapen gehigarria. Ebaluazioa.

1. Nafarroako Gobernuak, bost urtean behin batzorde independente bati eskatuko dio Foru Administrazioak eta bere menpeko erakundeek foru lege hau garatuz martxan jarritako helburu eta neurrien efizientzia mailaren ebaluazio txostena. Batzorde independente horren txostenarekin batera legeria proposamenak aur-

kezten ahalko dira eta guztia Nafarroako Parlamentura bidaliko da.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak lau urtean behin eginen du foru lege honen garapenari buruzko ebaluazio txosten bat, zeina Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Batzordera eta Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikari buruzko Gizarte Kontseilura igorriko baita, eztabaidatu eta baloratu dezaten, eta ondoren Nafarroako Parlamentura bidaliko da”.

Zioak: foru legearen helburuen betetze mailaren kanpo ebaluazioa, nahiz eta tarteko faseetan egitea komeni den jarduera izan, nagusiki ez-betetzen desbideratze kasuetan neurriak azkarrago ezartzeko, eta are gehiago akatsak egiten ahal direnean edo erabaki egokiak hartzen ez direnean. Batzorde independente batek ebaluazioa egitean, autokonplazientziatik urrundutako inpartzialtasuna bermatzen du, zeina, kasu askotan administrazioak berak egindako balantze txostenetan egiten den. Horrek are gehiago indartzen ahalko luke Nafarroako administrazio publikoen klima politiken legezotasuna eta konpromiso politikoa, bereziki, foru administrazioarena.

244. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona edukia:

“ ____ .xedapen gehigarria. Oinarrizko baliabideak diren energia eta ura eskuragarri izateko bermea.

1. Nafarroako Gobernuak eta, hala badagokie, tokiko erakunde eskudunek, beren eskumenen eremuan eta biztanleria osoak zenbait oinarrizko baliabideren gutxieneko nahitaezko kontsumoa eskuragarri duela bermatzeko, behar diren prestazio mekanismoak sustatuko dituzte energia elektrikoaren, motorrentzat ez diren erregaien eta uraren hornidurari dagokionez.

2. Lehen apartatuarekin bat, behar diren prestazio mekanismoak diseinatuko dira pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuan dagoen biztanleriak energia elektrikoaren, motorrentzat ez diren erregaien eta uraren gutxieneko eta ezinbesteko hornidurak izan ditzan.

3. Gizarte eskubideen, energiaren eta uraren arloetan eskudunak diren departamentuek eta, hala badagokio, toki erakundeek pobrezia eta gizarte bazterketa egoeran dauden biztanleen gu-

txieneko ezinbesteko hornidura bermatzeko energia eta ur kontsumo minimoak ezartzeko baldintzak eta metodologia definitu beharko dituzte”.

Zioak: pobrezia edo gizarte bazterketa arrisku egoeran daudenentzat berme bat ezartzea proposatzen dugu, eta horren bitartez, herritar guztiak zenbait oinarrizko baliabideen (energia elektriko, gasa eta ura) ezinbesteko gutxieneko kontsumoa bermatuta izanen dute.

245. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona edukia:

“ ____ . xedapen gehigarria. Zerga pizgarriak ingurumen mezenasgoarentzat

1. Dohaintzak jasotzen dituzten erakunde onuradunek xedapen gehigarri honetan aurreikusitako araubidearen aintzatespena jaso badute ingurumen arloan eskuduna den departamentuarengandik, dohaintza horiek xedapen gehigarri honetan ezarritako zerga-onurak izanen dituzte.

2. Ondorio horietarako, baldintza hauek betetzen dituztenak izanen dira erakunde onuradunak:

a) Irabazi-asmorik gabeko erakundeak izatea. Horiek izanen dira arloan eskuduna den ministerioaren gobernuz kanpoko erakundeen erregistroan inskribatutako ingurumeneko fundazioak, elkar-teak eta gobernuz kanpoko erakundeak, Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribatuta dauden energiarekin lotutako kontsumo kooperatibak eta aurreko guztien federazioak eta elkarteak.

b) Haien helburuen artean natura kontserbaztea eta ingurumena babestea eta/edo ingurumen hezkuntza, ingurumen boluntariora, klima aldaketaren aurkako borroka eta trantsizio energetikoa egon beharko dira, eta, horregatik, Nafarroako Foru Komunitateko Elkarte, Fundazio eta Lanbide Elkargoen erregistroan inskribatuta egon beharko dira.

c) 3. apartatuan aipatzen den eskariaren aurreko lau urteetan Nafarroan b) letran aipatutako arloetako batean jarduerak gauzatu izana. Edonola ere, azken lau urteetan Nafarroan jarduerak egin dituztela kontuan hartuko da erakundeek Nafarroako administrazio publikoen dirulaguntzaren bat jaso dutenean ekitaldi guztietan.

d) Gutxienez jasotako errenta eta diru-sarrerren % 70 bideratzea, horiek lortzeko gastuak kenduta, interes orokorreko helburuetara, eta gainerakoa

ondare-zuzkidura edo erreserbak gehitzera, jaso direnetik gehienez ere lau urteko epean.

e) Dirulaguntza publikoen erakunde onuradunentzat ezarritako gardentasun betebeharrak betetzea.

3. Erakunde interesdunek ingurumen arloan eskuduna den departamentuari xedapen gehigarri honetan aurreikusitako araubiderako sarbidea eskatuko diote, departamentu horretako titularrek onetsitako ereduaren arabera. Hala dagokionean, eskariarekin batera 2. apartatuan aurreikusitako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute.

Ez da beharrezkoa izanen betekizun horiek betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea baldin eta administrazio publiko baten menpekora den erregistroko inskripzio bat, Nafarroako administrazio publikoen dirulaguntzak jaso izana edo edozein prozedura edo izapidetzeetan administrazio publikoan aurkeztutako dokumentazioa izatea egiaztatzen bada. Kasu horretan, nahikoa izanen da dagokion prozedura edo erregistroa zein den adieraztea.

4. Xedapen gehigarri honetan ezarritako araubidea aplikatu ondoren, dohaintzen erakunde onuradunek ingurumen arloan eskuduna den departamentuari hurrengo ekitaldiko lehenengo zortzi hilabeteetan araubide horren mantentzea eskatu beharko diote, departamentu horren titularrak onetsitako ereduarekin bat. Gainera, epe horretan, erakunde horien ordezkariak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko dute esanez 2. apartatuko betekizunak betetzen jarraitzen dutela. Adierazpen horrekin batera erakundearen kontuak aurkeztuko dituzte, salbuetsiz zerga araudia betez horiek jada zerga arloan eskuduna den departamentuan aurkeztu izana.

Ingurumen arloan eskuduna den departamentuak egiaztatuko du betekizunak betetzen diren edo ez, erakunde eskatzaileek jarduten duten arloaren arabera.

5. Eskuduna den ingurumen arloko departamentuko Zuzendaritza Nagusiaren titularrak 3. eta 4. apartatuetan aipatutako eskariak ebatziko ditu.

Horiek ebatziko dituzte halaber, hala dagokionean, xedapen gehigarri honetan ezarritako araubidea izateko baliogabetzea, betekizunen bat betetzen ez dutela egiaztatzen denean.

Ebazpen hori gehienez ere hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da. Berariazko ebazpenik jakinarazi gabe gehieneko epea igarozten bada, eskaria aurkeztu duten erakunde esku-

dunek eskaria administrazio isiltasunarengatik onetsi dela ulertuko dute.

Ebazpenaren errebokatze prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da. Berariazko ebazpenik eman gabe gehieneko epea igarozten denean, iraungi egingen da.

6. Erakunde onuradunei dohaintzak egiten dizkieten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek eskubidea izanen dute zergaren kuotatik dohaintzan emandako lehenengo 150 euroen % 80 kentzeko, ezeztaezinak, garbiak eta sinpleak diren "inter vivos" dohaintzetan. Gainera, 2. apartatuan aipatzen diren erakundeekin egindako lankidetzak hitzarmenekin bat horiek finantzatzeko edo, hala dagokionean, horien jarduerak finantzatzeko ordaindutako zenbatekoekin gauza bera egiten ahalko dute. 150 euro baino gehiagoko zenbatekoei % 35eko kenkaria aplikatzen ahalko zaie. 150 euroko muga subjektu pasibo bakoitzarengatik eta zergaldi bakoitzean aplikatuko da.

Zerbitzu emateak doan egiten direnean, kenkariaren oinarria gastuen kostua izanen da, mozkinen tarteak kontuan hartu gabe.

Kenkariaren oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 64.1 artikuluan aipatutako mugaren ondorioetarako zenbatuko da.

7. Aurreko apartatuan ezarritako kasuetan, betekizunekin eta helburuetarako erakunde onuradunei dohaintzan edo ordainduta ekarpenak egiten dizkieten sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek honako zerga-onura hauek izanen dituzte:

a) Zerga-oinarria zehazteko, dohaintzan emandako zenbatekoak partida kengarriak izanen dira.

b) Gainera, dohaintzan emandako zenbatekoen % 20ko kenkaria aplikatzen ahalko dute zergaren kuota likidoan.

Zerga-oinarrian kengarria den partidaren zenbatekoak ezin izanen du honako muga hauetatik handiena gainditu:

– Murriztapen horren aurreko zerga-oinarriaren % 30, eta, hala dagokionean, foru lege honen 37., 42. eta 47. artikuluetan aipatutakoak.

– Negozio zifraren zenbateko garbiaren milako 3.

Bestalde, kuotaren murriztapena sozietateen gaineko zergaren araudian ezarritakoarekin bat aplikatuko da eta Sozietateen gaineko Zergari

buruzko 26/2016 Foru Legearen 67.4 artikuluan ezarritako mugaren ondorioetarako zenbatuko da.

8. Xedapen gehigarri honetan ezarritako zerga-onurak ez dira zenbateko beretan bateragarriak izanen Fundazioen eta Nafarroako babes jardueren zerga erregimena arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako gainerakoe-kin.

9. Zerga-onura horiek aplikatzeko erakunde onuradunek honako betekizunak bete beharko dituzte:

a) Dagozkien ziurtagirien bitartez egiaztatzea lankidetzaz-hitzarmenekin bat etorritik egindako dohaintzen edo ordaindutako zenbatekoen egiazkotasuna, eta benetan erakundeak edo, hala dagokionean, erakundeen jarduerak finantzatzeko erabili direla ere egiaztatzea.

b) Zerga araudian ezarritako ereduak eta epeak betez, Zerga Administrazioari jakinaraztea emandako ziurtagirien edukia.

10. Urtea bukatu aurretik, ingurumen arloan eskuduna den departamentuak Zerga Administrazioari bidaliko dio xedapen gehigarri honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten erakunde onuradunen zerrenda”.

Zioak: Fundazioen eta babes ihardueren eta gizarte eta ingurumen mezenasgoa babesteko jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarrian jasotako araubide bera hedatzea proposatzen dugu.

246. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“___ xedapen gehigarria. Baliabide zuzkidura

Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen arabera, behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak lortuko dituzte foru lege honen helburuak betetzen direla bermatzeko”.

Zioak: foru lege hau martxan jartzeko giza baliabide eta baliabide material gehiago beharko dira benetan nafarrentzat bermatu nahi bada arauaren helburuak betetzen direla. Diskurtsoak, aldarrikapenak eta behar bezala egindako lege-eginduak idazteaz gain, klima aldaketari aurre egiteko eta trantsizio ekologiko antolatua ezartzeko helburu zehatzak lortzeko, eraginpeko administra-

zio publikoek konpromisoak hartu beharko dituzte iturri ezberdinetatik etorriko diren giza baliabideak eta baliabide materialak gehitzeko. Nagusiki aurrekontu publikoetatik etorriko direnez, komeni da foru legean bertan idatziz jasotzea.

247. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“___ xedapen gehigarria. Udalez gaindiko planak eta proiektuak

1. Parke fotovoltaikoen edo eolikoaren eta horien ebakuazio azpiegituren instalazioa inolaz ere ez da izapidetuko Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 42. artikularen 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako antolamendu tresnen bidez.

2. Aipatu parke eta azpiegituren eraikuntzako administrazio baimena eta obra lizentzia ematea instalazioa eskatutako udalerriei dagokie.

Zioak: argi geratu behar da parke fotovoltaikoen edo eolikoaren eta horien ebakuazio azpiegituren instalazioa inolaz ere ez dela izapidetuko Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 42. artikularen 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako antolamendu tresnen bidez, hau da, Udalez gaindiko Proiektu Sektorialak izapidetuz.

Ildo berari jarraikiz eta ondorioz gabe utzita Nafarroan parke eolikoetarako baimena arautzen duen maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuaren 13. artikularen eta ondorengoaren aurreikuspenak eraikuntza baimenei dagokienez, asmoa da udal eskumenak errespetatzea baimen hori eta obra lizentzien edukiak emateko (beti araututa egoten dira).

248. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“___ xedapen gehigarria. Lurralde, sektore eta udal hirigintza plangintza.

Foru lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, 6 urteko epea egonen da foru lege honetan aipatutako lurralde planak, plan zuzentzaile sektorialak eta lurralde antolamenduko planak klima arriskuak gutxitzearen eta karbonoan neutroa den lurraldea lortzeko ikuspuntutik berrikusi daitezzen”.

Zioak: foru lege proiektuan eta gure talde parlamentarioak aurkeztutako zuzenketetan aipatzen da udal lurralde, sektore eta hirigintza plangintza klima aldaketara egokitu behar dela eta plangintzak trantsizio energetikoa arautu behar duela. Horregatik, epe bat finkatu behar da plangintza hori guztia klima arriskuak murriztearen eta karbonoan neutroa den lurraldea bilakatzearen ikuspuntutik berrikusteko.

249. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“___ . xedapen gehigarria. Ingurumen-inpaktua-
ren ebaluazioa

Nafarroako Gobernuan ingurumen eta klima aldaketaren arloan eskuduna den departamentuak foru lege hau onesten denetik aurrera urtebeteko epean jarraibideak emanen ditu. Horietan zehaztuko ditu zeintzuk diren planen, programen eta proiektuen ingurumen eraginaren ebaluazioan klima aldaketa sartzeko jarraitu beharreko pausoak”.

Zioak: foru lege proiektuan aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin bat etorritik, eta zehazki, II. tituluaren 2 B kapitulu berri bat gehitzeari buruzkoa. Horregatik, beharrezkoa da epe bat finkatzea Nafarroako Gobernuan ingurumen eta klima aldaketaren arloan eskuduna den departamentuak foru lege hau onesten denetik aurrera urtebeteko epean jarraibideak emateko. Horietan zehaztuko ditu zeintzuk diren planen, programen eta proiektuen ingurumen eraginaren ebaluazioan klima aldaketa sartzeko jarraitu beharreko pausoak. Bestela, legezko aurreikuspenak foru lege berri honen edukia jaso gabe eta jarraibide zehatzik gabe ebaluazioak egin behar dituenaren zoriaren mende geratuko dira.

250. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“___ . xedapen gehigarria. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua eratzea.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau onetsi eta bederatzi hilabeteko epean onetsiko du 7.3 artikuluan Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua sortzeko aurreikusen den foru dekretua. Horrela, indarrean jarri eta urtebete igaro aurretik gizarte partaidetzako organo hori sortuko da”.

Zioak: Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko Politikarako Gizarte Kontseilua arautzen duen 7. artikuluari lotuta aurkeztutako beste zuzenketa batekin bat etorritik, beharrezkoa da foru legean bi epe finkatzea: bat organo horren sorrerari buruzko foru dekretua onesteko, eta beste bat organo hori formalki eratzeko, behin onetsita. Gure ustez, gizarte partaidetzako organo hori ahalik eta azkarren sortu behar da, modu horretan bere funtzioak gehienez ere urtebetean hedatzeko foru lege hau onesten denetik aurrera zenbatzen hasita, izan ere, foru lege proiektuan organo horrek txostena egin beharreko erregelamenduzko garapen asko daude jasota, betiere bermatu nahi bada gutxienezko gizarte partaidetza dagoela legegintza araudia sortzeko prozesuan.

251. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak, modu loteslean, Nafarroako Energia Planean foru lege honen 21. artikuluan adierazitako moduan lurzoru urbanizaezinean haize-parkeak instalatzeko lehentasunezko zonak eta erreserba zonak zehaztu arte, edo foru lege honen 44.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik biodibertsitatearentzat, konektibitatearentzat, zerbitzu ekosistemikoen hornidurarentzat eta beste ingurumen balio batzuentzat garrantzitsuak izateagatik sentikorrek eta bazter uztekoak diren zonak identifikatzeko zonifikazioa ezarri arte, ez da baimenik emanen Nafarroako lurraldean inolako parke edo esparru eolikorik instalatu edo gauzatzeko”.

Zioak: Talde parlamentario honek aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko. 21. eta 44. artikuluei buruzko zuzenketek bi betebeharrak ezartzen dizkiote Nafarroako Gobernuari: lehenengoa, izaera loteslearekin zehaztea Nafarroako Energiaren Planean lurzoru urbanizaezinean parke eolikoak instalatzeko lehentasunezko eta erreserbako zonak, eta bigarrena, zonifikazio bat sortzea, biodibertsitaterako, konektibitaterako eta zerbitzu ekosistemikoen hornidurarako garrantzizkoak diren sentikortasun eta baztertze zonak identifikatzeko. Gure ustez, Nafarroako Gobernuak jarduketa horietakoren bat egiten ez duen bitartean, ez da baimenik eman behar industrialdeak edo parke eolikoak instalatzeko edo egikaritzeko.

3. Energia berriztagarrien iturrietan oinarritutako ekoizpen energetikoko instalazio berriek biodibertsitatean eta bestelako balio naturaletan inpaktu larriarik sortzen ez dutela bermatzeko, ingurumen arloan eskuduna den departamentuak foru lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean zonifikazio bat aurkeztuko du. Bertan, zona sentiberak eta bazterketa zonak identifikatuko dira biodibertsitaterako, konektibitaterako, zerbitzu ekosistemikoen hornidurarako eta gainerako ingurumen balioetarako duten garrantziarengatik. Horretarako, aipatu departamentuak aldi behin zonifikazio hori azaltzen duen tresna kartografikoa sortu eta eguneratuko du eta zainduko du energia berriztagarrien proiektuen hedapena zonifikazio horretatik kanpoko lekuetan egiten dela.

252. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“...xedapen gehigarria. Sareen okupazio azterketa

Nafarroako Gobernuak foru lege hau indarrean jarri eta hamar urtera sareen okupazio mailaren ebaluazio azterketa egiten du eta ondorioztatuko du ea beharrezkoa den foru legearen 19.3 artikuluan ezarritako konexio puntuen lehentasunak, potentzia tarteak eta okupazio kupoak aldatzea”.

Zioak: indarrean jartzen denetik hamar urte igaro ondoren, egokitzat jotzen da Nafarroako Gobernuak sareen okupazioari buruzko azterlana egitea, ikusteko ea 19.3 artikuluko aurreikuspenak egokiak diren edo aldatu behar diren.

253. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“...xedapen gehigarria. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko baimen eskaria eta puntu horietarako sarbide publikoa.

1. Ibilgailu elektrikoaren karga puntuen instalazioa eta ezarpen jarduera erantzukizunpeko adierazpenaren araubidearen menpe dago.

2. Udal lizentzia duen jarduera baten arloan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntu bat instalatzen denean ez da beharrezkoa lizentzia berria eskuratzea, baina dagokion udalari funtsezkoa ez den aldaketaren nahitaezko jakinarazpena egiten zaio.

3. Laguntza publikoak jaso dituzten karga azkarreko eta erdi azkarreko instalazioak ibilgailu elektrikoaren erabilzaileek desblokeatzeko modukoak izanen dira, hirugarrenek esku hartu behar gabe.

4. Laguntza publikoak jaso dituzten karga azkarreko eta erdi azkarreko instalazioak ibilgailu elektrikoaren erabilzaile guztiek erabiltzen ahalko dituzte, aurretiaz zerbitzuan alta eman behar izan gabe.

5. 3. eta 4. apartatuetan aipatutako instalazio jabeek instalazio horiek bederatzi XX-ko epean egokitu beharko dituzte, foru lege hau indarrean jartzen denetik aurrera zenbatzen hasita”.

Zioak: mugikortasun elektrikoaren elkarrengarritasunari esker, ibilgailu elektrikoaren erabilzaileek telefono mugikorretako aplikazio batekin edo sartzeko txartel bakarrarekin karga puntuen sare guztietarako sarbidea dute eta ordainketak egiten ahal dituzte. Hori guztia, karga puntuen enpresa jabeen aplikazioetan erregistratuta egon beharrik gabe. Roaming oinarriko funtzionalitate bat da eta orain dela urte asko arautu zen hainbat sektoretan, besteak beste bankan edo telekomunikazioen sektorean.

Mugikortasun elektrikoaren elkarrengarritasuna nagusiki finantzaketa publikoa duten karga puntuetarako sarbidea errazteko eta mugikortasun elektrikoak garatzeko sortu zen.

Elkarrengarritasuna proiektuan garatzen ari diren lan eremuetako bat da, ibilgailu elektrikoaren erabilzaileek azpiegitura guztia erabiltzen ahal izateko identifikazio bitarteko bakarrarekin eta horrela, hainbat txartel eta identifikazio gailu ez

eraman behar izateko. Elkarreragingarritasuna ezinbestekoa da ibilgailu elektrikoak garatzeko, eta erronka are handiagoa da helburua karga azpiegituren arteko elkarreragingarritasun horrek mugak gainditzea nahi denean.

Gaur egun, elkarreragingarritasuna araututa dagoen herrialdeetan (ezinbestekoa da estatuaren dirulaguntzak jasotzeko), ibilgailu elektrikoaren indizea handienetakoa da. Elkarreragingarritasuna araututa duten eta elkarren artean oso ezberdinak diren Europako herrialdeetan, hau da, per capita errentak oso ezberdinak dituztenak, besteak beste Portugal, Frantzia, Alemania, Herbehereak eta Norvegia, iraileko ibilgailu elektrikoaren sartzeko indizea % 15 baino gehiagokoa izan da (ikus grafikoa). Alderantziz, elkarreragingarritasuna araututa ez dagoen lekuetan, besteak beste Espainian eta Italian, ibilgailu elektrikoaren sartzeko adierazlea % 3 baino txikiagoa izan da. Elkarreragingarritasuna oso garrantzitsua da, zenbait sektore eta enpresek kontrakoa uste duten arren.

Gaur egun bukatzen ari dira ibilgailu elektrikoaren karga energetikoaren zerbitzu prestazioaren jarduera arautzen duen Errege Dekretuaren proiektua (<https://energia.gob.es/es-es/Participacion/Paginas/DetalleParticipacionPublica.aspx?k=408>). Bertan, karga puntuaren operadorearen (ingelesezko CPO siglak) eta mugikortasun elektrikoaren zerbitzuak ematen dituen enpresaren (EMSP) arteko elkarreragingarritasuna jorratzen da.

Horrez gain, energia kargaren zerbitzu emailek Trantsizio Ekologikoko eta Erronka Demografikorako Ministerioari eta autonomia erkidegoei eman beharreko informazioa zehazten duen Agindu Proiektu bat ere badago. Informazio hori, bestalde, jendaurrean erakutsiko da denbora errealean trafikoaren informazioko Nazio mailako Sarbide Puntu baten bidez.

Beste leku batzuetan, adibidez Katalunian, aliantzen bitartez eragingarritasuna ahalbidetzeko proiektuak sustatzen ari dira. 2017 bukaeran ICAENek (Institut Català de l'Energia) PIRVEC izeneko plan estrategikoaren barnean, ibilgailu elektrikoaren erabiltzaileentzako karga azkar eta erdi-azkarreko estazio publikoaren elkarreragingarritasunerako Udalerrien Aliantza sortzea sustatu zuen. Lankidetzara horri esker, erabiltzaileak Kataluniako karga estazio guztietara sartzeko ahal dira Aliantzako edozein udalek emandako txartelak erabili. Modu horretan errazten da Katalunian dabilzan ibilgailu elektrikoek mugikortasun osoa izatea eta erabiltzaileek Kataluniako askotariko udalerriek sustatutako instalazioetan ibilgailuak kargatzeko txartelak piltzeari uztea.

Aliantza sartzeko ahal dira erabiltzaileen txartelak kudeatzen dituzten eta herritarrei zerbitzu hori eskaini nahi dieten udalari eta erakunde guztiak. Aliantzako udalari kopurua azkar handitzen da PIRVEC 2016-2019 programa sustatzekoaren bitartez funtzionamenduan jartzen diren ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazio kopurua gehitzean.

Horregatik, garrantzitsua da baliabide publikoekin finantzatu diren karga puntuak "irekitzea", modu horretan, guztiek sarbidea izan dezaten, zuzenketa honetan proposatu bezala. Horretarako, jaso da ibilgailu elektrikoentzako karga puntuen instalazioa eta ezarpen jarduera erantzukizunpeko adierazpenaren arabideari lotuta egonen direla, aurreiazko obren lizentziari lotuta egon beharrean.

254. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona edukia:

"____. xedapen gehigarria. Energia kudeatzaileen prestakuntza.

Energia arloan eskuduna den departamentuak Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuarekin bat sustatuko ditu foru lege honen 55.4 artikuluan araututako energia kudeatzaileen zeregin propioak egikaritzeko prestakuntza neurri espezifikoak".

Zioak: foru lege proiektuaren 55.4 artikuluan ezarrita dago kudeatzaile energetikoaren figura sortzea, energiaren kontsumoaren jarraipena egin eta hobekuntzak proposa ditzan, eraikinetan efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien ekoizpena lortzeko. Era berean, kudeatzaile energetikoari dagokio auditoretza energetikoek eragindako neurriak ezartzeko proposatzea eta haien jarraipena egitea, eta laguntzea kontratazio ekologikoaren printzipioak kontratazio publikoan txertatzen.

Zeregin horiek hobeto garatzeko, beharrezkoa da energiaren arloko departamentu eskudunak Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuarekin batera prestakuntza neurri espezifikoak sustatzea. Horretarako, gure proposamena da konpromiso hori xedapen gehigarri berri honetan jasotzea.

255. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona edukia:

“... xedapen gehigarria. Gobernuaren maila estatuan eta Europan.

Nafarroako Gobernuak parte hartzen duen estatuko, Europako edo nazioarteko partaidetza edo kontsulta organo edo prozesuetan duen mailak kontuan hartuko ditu foru lege honen printzipioak eta Nafarroak klima aldaketarekiko duen zaugarritasuna”.

Zioak: Nafarroako Gobernuak foru lege honen printzipio eta edukien propagandista eta defendatzaile onena bihurtu beharko da. Horretarako, horiek defendatuko ditu parte hartzen duen estatuko, Europako edo nazioarteko foroetan edo maila horietako partaidetza edo kontsulta prozesuetan, horietan parte hartzeko eskatzen zaionean edo gonbidatzen dutenean.

256. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Administrazio kontratazioari buruzko xedapenak

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoarekin bat, kontratazio publiko guztietan zeharka eta nahitaez ingurumen eta jasagarritasun energetikoko irizpideak jasoko dira kontratuaren xedearekin lotuta daudenean. Irizpide horiek objektiboak izanen dira, kontratazio publikoaren informazio irizpideak errespetatuko dituzte eta esleitutako haztapenarekin batera dagokion baldintza-agirian jaso beharko dira.

Horretarako, Nafarroako administrazio publikoen eta estatuko sektore publikoko erakundeen kontratazioak Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 60. eta 61. artikuluekin bat, kontratazio pleguetako baldintza tekniko berezi gisa jasoko ditu isurketak eta karbono aztarna gutxitzeko irizpideak, bereziki klima aldaketaren aurka borrokatzeko direnak. Ondorio horretarako, foru lege hau indarrean jartzen denetik urtebeteko epean, ogasunaren arloan eskuduna den departamentuak ingurumen arloan esku-

duna den departamentuarekin prestazio katalogo bat sortuko du. Kontratazioan kontuan hartuko dira apartatu honetan aipatutako klima aldaketaren aurkako irizpideak eta isurketak eta karbono aztarna murrizteko irizpideak identifikatuko dira, elikadura jasagarri eta osasuntsuarekin lotutakoak barne. Edonola ere, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 66. artikuluan ezarritakoarekin bat, kontratazio organoek behar diren neurriak ezarriko dituzte bermatzeko kontratuak egikaritzean kontratistek ingurumen arloko betebeharrak betetzen dituztela.

2. Nafarroako administrazio publikoek eta haien menpeko sektore publikoko erakundeek Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 64. artikuluan xedatutakoa betez, proiektuak, obra kontratuak edo emakidak idazteko lizitazioetan, bestelako adjudikazio irizpideen artean honako hauetako bat gehituko dute:

a) Lizitatzen diren eraikinen energia kalifikazioa handienaren betekizunak.

b) Energia aurrezpena eta efizientzia, eraikinetan isolamendu termiko handia, energia berriztagarriak eta instalazioen emisio baxuak ahalbidetzen dituztenak.

c) Eraikuntza jasagarriko materialak erabiltzea, horien bizi erabilgarria kontuan hartuta.

d) Berotegi-efektuko gasen isurketak eta bestelako atmosfera kutsatzaileak gutxitzeko neurriak obra publikoen eraikuntza prozesuaren askotariko faseetan.

e) Klima aldaketara egokitzeko neurriak.

f) Hondakinen sorkuntza gutxitzea.

3. Halaber, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 60. eta 61. artikuluetan xedatutakoa betez, proiektuak edo obra kontratuak idazteko edo obra emakidak egiteko lizitazioetan baldintza tekniko gisa honako hauetako batzuk gehitzen ahalko dira:

a) Eraikuntzetan erabiltzen den zura modu jasagarrian kudeatutako basoetatik etortzea, haren aztarna ekologikoa kontuan hartuta.

b) Toki espezieekin basoberritzeak egiteko jarduketak, obraren edo lizitazioaren xede den zerbitzua egikaritzearen ondorioz sortutako karbono aztarna arintzeko neurri osagarri gisa”.

Zioak: beste zuzenketa bat proposatu da, kontratazio publiko ekologikoaren arloan gutxienez estatuak Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen

31. artikuluan araututako edukia jasotzen duena (kontratuen arloko foru araudiari egokituta).

257. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona edukia:

“____. xedapen gehigarria. Laguntzak, hobariak edo zerga-onurak jasotzeko betebeharrak.

1. Nafarroan lantokiak dituzten enpresek, 20 langile baino gehiago badituzte eta ingurumen, energia edo berrikuntza arloko jarduketa eta proiektuei lotutako laguntzak, hobariak edo zerga-onurak jaso nahi badituzte, karbonoan neutroa den ekonomiarako trantsiziorako Foru Komunitateko Administrazioak ezarri edo kudeatuak, prozedura egokian frogatu beharko dute honako hauek egin dituztela:

a) Klima aldaketaren inpaktuekiko zaurgarritasun analisia, foru lege honetan definitutako erreferentziazko esparru estrategikoarekin bat, eta hala badagokio, egokitzapen neurrien egutegi bat eta jarraipen mekanismoa ezartzea.

b) Nafarroako zentro guztien berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioa eta isurketak gutxitzeko gauzatzen dituzten jarduketak. Inbentarioko datuak behar bezala gaitutako ziurtagiri independente erakunde batek baliozkotu beharko ditu.

Europar Batasuneko emisio eskubideen merkataritza araubidean jasotako instalazioak dituzten zentroen kasuan, xedapen gehigarri honen ondorioetarako baliozkoak izanen dira dagozkien sistemen babesean eginiko berotegi-efektuko gasen isurketak.

2. Nafarroako Gobernuak zaindu behar du 20 langile baino gutxiagoko Nafarroako enpresek karbonoan neutroa den ekonomia lortzeko trantsiziorako ingurumen, energia edo berrikuntzako jarduera eta proiektuei lotuta jasotzen ahal dituzten laguntzek, hobariak eta onura fiskalek hautaketa positiboko irizpideak dituztela, enpresek egiaztatzen ahal dutenean 1. apartatuko neurriak ezarri dituztela”.

Zioak: foru lege proiektuaren helburuak lortzeko zeharkako neurri ona litzateke Nafarroan lantokiak dituzten enpresek, 20 langile baino gehiago badituzte eta Foru Komunitateko Administrazioak ezarri edo kudeatutako ingurumen, energia edo berrikuntza arloko jarduketa eta proiektuei lotutako laguntzak, hobariak edo zerga-

onurak jaso nahi badituzte, karbonoan neutroa den ekonomiarako trantsizioa lortzeko modu egokian honako hauek egin dituztela frogatzea:

a) Klima aldaketaren inpaktuekiko zaurgarritasun analisia, eta hala badagokio, egokitzapen neurrien egutegi eta jarraipen mekanismo bat ezartzea.

b) Nafarroako zentro guztien berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioa eta isurketak gutxitzeko gauzatzen dituzten jarduketak.

Nafarroako Enpresen Direktorioarekin bat, 2021eko urtarrilaren 1ean Nafarroako 35.337 enpresetatik bakarrik 1.226k (% 3,47) zuten hogeita langile baino gehiago. Beraz, enpresen sektore horretan kontuan hartu beharko da zaurgarritasun analisia egin duten, zeintzuk diren ezarri dituzten neurriak eta ea BEGen emisioen inbentariorik duten.

XEDAPEN IRAGANKORREI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

258. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen iragankorra. Nafarroako abeltzaintza instalazioen luzamendua.

Foru lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, berotegi-efektuko gasen emisio-maila handia denez, eta abeltzaintza sektoreak eremu zaurgarrietan eta akuiferoetan nitratoek eragindako kutsadura intentsiboa dela-eta, Nafarroako Foru Komunitatean lau urteko luzamendua ezarri da instalazio berrien baimenentarako eta daudenak handitzeko, aipatu isurketak arintzeko eta detektatutako kalteak lehengoratzten hasteko eskuragarri dauden teknologia hobeen bidez.

Ez dute luzamendurik izanen berotegi-efektuko gasen isurketak efizientziaz gutxitzen eta nitrato bidezko azaleko lurpeko uren kutsadura saihesten duten mekanismoak ezarri dituztela egiaztatzen duten instalazioek”.

Zioak: Nafarroan abeltzaintza instalazio intentsiboei berotegi-efektuko gasen emisio asko sortzen dute, eta gainera, zona jakin batzuetan (Cidacos ibaiaren arroan, Aragoian, eta abar) eta zona horietako udalerrietan nitratoengatik kutsadura handia sortzen ari da zona zaurgarrietan eta akuiferoetan. Horregatik, urteetarako luzamendua pro-

posatu dugu, egun detektatutako kalteak lehenagoratzeko.

259. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Xedapen iragankorra. Lurzoru urbanizaezinean dauden instalazio fotovoltaikoen baimenak etetea.

"Nafarroako Gobernuak 23. artikuluan ezarritako erregelamenduzko garapena onetsi arte, ez da baimenduko hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian kokatuko ez den eguzki energiaren instalaziorik, eta etenda geratuko dira lurzoru urbanizaezinean kokatzeko aurkeztutako proiektu guztiak. Baimenaren izapidetzearen etetetik salbuetsiko dira nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenei lotutako autokontsumo instalazioak edo 5 MW-eko edo gutxiagoko potentzia instalatuta dutenak eta kokapenaren eraginpeko toki erakundeen baimena dutenak, horiek titulartasun publikoko lursailetan egikaritzuz gero".

Zioak: bat dator 23. artikuluan inguruan aurkeztutako beste zuzenketa batekin. Nafarroako energia fotovoltaikoen orekarik eta neurririk gabeko garapena saihestu behar da. Horregatik, hau proposatu dugu 23. artikuluan:

"Lurraldean modu antolatuan ezartzen direla ziurtatzeko eta balio natural nabarmenen kontserbazioa bermatzeko, Nafarroako Gobernuak urtebeteko epean erregelamenduz ezarriko ditu eguzki-energia baliatzeko instalazioak lurzoru urbanizaezinean ezartzeko baldintzak, ingurumenekoak eta hirigintzakoak. Baldintza horien artean kontuan hartuko dira instalazio horiek salbuespenez nekazaritza balio gutxiago eta faunarentzako, bereziki hegaztientzako, garrantzirik gabeko nekazaritza lursailetan ezartzea. Lehentasuna izanen dute zona irisgarriek eta sarbide berriak irekitzea saihestuko da. Gainera, energia elektrikoa ebakutzeko nodoetatik hurbil egonen dira eta ebakuzio lerroen luzera gutxituko da.

Zuzenketa honekin lortu nahi dena da Nafarroako Gobernuak 23. artikuluan aurreikusitako erregelamenduzko garapena onetsi arte, ez dela eguzki-energiako instalaziorik baimenduko hiri lurzoruan edo urbanizagarrian ezarriko ez bada. Gainera, etenda geratuko dira lurzoru urbanizaezinean kokatzeko aurkeztutako proiektu guztiak, baina baimen izapidetzearen etete horretatik salbuetsiko

dira nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenei lotutako autokontsumoko instalazioak edo 5 MW-ko potentzia edo gutxiagokoa dutenak eta titulartasun publikoko lursailetan kokatzen badira eta eraginpeko toki erakundeen baimena badute.

Tokiko sortze banatuko instalazio fotovoltaikoek orokorrean potentzia gutxi izaten dutenez, xedapen gehigarri honetatik salbuetsita dago instalazio horien baimena, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenei lotuta autokontsumorako direnean edo 5 MWko potentzia edo gutxiagokoa instalatuta badute. Instalazio horiek toki erabilera izaten dute eta titulartasuna edo finantzaketa partaidetzakoa izaten da.

Tamaina txikiagoko ekoizpen fotovoltaikoko instalazioek sortze banatua sustatzen dute kontsumo zentroetatik hurbil daudelako eta efizientzia orokorra potentzialki handiagoa izaten da garraio eta banaketa sareetan galera gutxiago egoten delako. Halaber, sisteman integratzea errazten dute, azpiegitura elektriko berri gutxiago sortu behar baitira. Bestalde, sortze sistema elektrikoaren demokratizazio beharrari erantzuten diete eta teknologia berriak hedatzeko herritarren partaidea aktiboa bilatzen dute, baita bestelako eragileena ere, besteak beste ETE-ena eta toki erakundeena.

2021eko irailaren 8an ebazpena eman zuen Energiaren estatuko idazkaritzak, eta horren bitartez bigarren enkantea deitu zuten energia berrizagarrien erregimen ekonomikoa emateko abenduaren 4ko TED/1161/2020 Aginduan xedatutakoa betez. Gainera, 5 MWko edo gehiagoko potentzia duten instalazio ahalik eta gehienak erabiltzen dira gutxieneko erreserbetako baten onuradun izan daitezzen haien ezaugarriak direla-eta, bereziki tokiko sortze banatuko instalazio fotovoltaikoei zuzendutakoan.

AZKEN XEDAPENEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

260. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako bigarrena aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«Azken xedapenetako bigarrena. Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea aldatzea.

Bat. 19. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“19. artikulua. Erosketa publiko ekologikoa.

1. 2023ko ekainaren 30aren aurretik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratu publikoen erregulazioan eskumena duen departamentuak kontratazio publiko ekologikorako plan bat onetsiko du. Aipatu planean jasoko da hornidura eta zerbitzuak kontratatzeke baldintza-agirien ereduak prestatzea, foru lege honen xedearekin eta ekonomia zirkularerako trantsizioarekin bat datozen energia eta klima irizpideak txertatzeko. Kontratazio berderako plan hori Kontratu Publikoek buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen aplikazio esparruan sartutako erakunde guztietan aplikatu beharko da. Kontuan hartu beharko da, halaber, genero klausulak gehitzea, kontratuak betetzean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

2. Nafarroako Foru Administrazioaren kontratazio publiko ekologikorako planak Europar Batasunaren kontratazio ekologikorako irizpideei jarraituko die, bukaerako COM (2008) 400 komunikazioan («Kontratazio publikoa ingurumen hobe baterako») eta huraxe garatzen duten gidetan ezarritakoarekin bat. Planak, gutxienez, gai hauetako kontratuak aurreikusiko ditu: eraikinak jaso eta kudeatzea, errepedeen eraikuntza eta mantentze-lanak, elektrizitate hornidura, inprimaketa-tresnak eta ordenagailuak, garbiketa produktuak eta zerbitzuak, klimatizazio sistemak eta garraioa, elikadura eta jatetxe zerbitzuak.

3. Nafarroako Foru Administrazioaren kontratazio publiko ekologikorako planak helburu progresiboak ezarri eta behar diren neurriak aurreikusiko ditu kontratu publikoetan bete daitezen, baldin eta kontratuen xedean, gutxienez, honako hauen erabilera sartuta badago:

a) Nekazaritzako elikagaiak, elikagai ekologikoak edo hurbilekoak erosteko helburu progresiboak ezarrita. Kontratuak betetzeko kontratazioaren baldintza orokorretan adierazi beharko dira elikagai ekologikoen eta hurbilekoen erosketen ehunekoak.

b) Zuraren erabilera herri-lanetako kontratuetan, Nafarroako Baso Ondarea babestu eta gartzeari buruzko 13/1990 Foru Legearen 63 bis artikulua 2. apartatuan xedatutakoarekin bat.

4. Obra publikoen kontratazioan eta egikaritzean zehaztuko dira bakoitzarentzat erabili beharreko material ziurtatu eta birziklatuen ezaugarriak eta ehunekoak, obra motaren arabera. Aurkeztutako proiektuetan erabiliko diren materialen jatorriaren justifikazio agiriak atxikiko dira eta ahal den heinean karbono aztarnaren kalkuluan eta bizi zikloaren analisisian oinarrituko dira.

5. Administrazioek eta haiei lotutako organismo publikoek energia kontratatzeke egiten dituzten lizitazioetan exijituko da, lehentasunez, energia guztiak jatorri berriztagarriaren ziurtapena izatea 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera. Energia elektrikoaren kasuan, exijituko da, lehentasunez, merkaturatzaileak A etiketa izatea edo hurrengoak, enpresa elektrikoek merkaturatzaile bakoitzaren ingurumen inpaktua neurtzeko duten etiketa sistemaren arabekoak (A-G). Aipatutako lizitazioetan lehenetsiko da energia PPA kontratuen bidez kontratatzea instalaziotik 150 km baino gutxiagora dauden enpresekin, eta autokontsumoa duten hornidura kontratuak izatea.”

Bi. 27. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“27. artikulua. Ekitaldi publikoak.

1. Ingurumenaren arloko eskumena duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuak ekitaldi publikoek eta jasangarritasunari buruzko erregelamendu bat onetsiko du, eta hondakinak kudeatzeko plan bat ere exijituko da.

2. Administrazio publikoek babestutako, antolatutako edo diruz lagundutako ekitaldi publikoetan, ontziratutako edarien salmenta eta banaketa ez diren bestelako sistemak jarri beharko dira, eta, betiere, bermatu beharko da iturriko ura edateko aukera dagoela edalontzi berrerabilgarrien bidez edo ur botila berrerabilgarriak jarritz. Gainera, gordailu sistema bat ezartzen ahalko da, ontziak edonon botata geldi ez daitezen edo desegoki kudea ez daitezen.

3. Egin behar diren ekitaldi publikoetan honakoak gehitu beharko dira:

a) Berotegi-efektuko gasen isurketa murrizteko ezarriko diren ekintzak edo neurriak.

b) Gune mugatuetan egiten diren ekimen publiko edo pribatuko ekitaldien karbono aztarnaren kalkulua, 2.000 lagunetik gorako edukiera badute edo egun batez 2.000tik gora lagun biltzen badi-tuzte”».

Zioak: kontratazio publiko ekologikoa tresna garrantzitsua da klima aldatzarekin, baliabideen erabilerarekin eta ekoizpen eta kontsumo jasangarriarekin lotutako ingurumen politikak lortzeko.

Europako Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta COM Eskualdeetako Lantaldeari (2008) egindako 2008ko uztailaren 16ko «Ingurumen hoberako kontratazio publikoa» izeneko 400 azken komunikazioan erosketa eta kontratazio

publiko berdea honela dago definituta: «prozesu bat da, eta horren bidez agintari publikoak beren bizi-zikloan zehar ingurumen-inpaktu txikia duten salgaiak, zerbitzuak eta obrak eskuratzen saiatzen dira, eta horiek erabiltzen dituzte lehen mailako funtzio bera zuten salgaien, zerbitzuen eta obren orde». Komunikazio berean kontratazio publiko ekologikoa terminoa erabiltzen denez, gure proposamena da “berdea” hitzaren orde “ekologikoa” erabiltzea arlo horretako kontratazio publikoko plana izendatzeko.

Europako Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta COM Eskualdeetako Lantaldeari (2015) egindako 2015eko abenduaren 2ko «Zirkulua ixtea: EBren ekintza plana ekonomia zirkularrerako» izeneko 614. azken komunikazioaren helburua da ekonomia jasangarria, hipokarbonikoa, baliabideen erabileran eraginkorra eta lehiakorra dena lortzea, non produktuen, materialen eta baliabideen balioa ekonomian ahalik eta luzaroen mantentzen den eta hondakinen sorrera gutxienekora murrizten den.

Halaber, kontratazio publiko ekologikoaren arloan eragin zuzenak dituelako aipatu behar da COM (2011) 15. azken agiria, EBren kontratazio publikoko politika modernizatzeari buruzko liburu berdea, Europako kontratazio publikoko merkatua eraginkorragoa izateko sortutakoa (<https://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0015:FIN:ES:PDF>)

Askotariko nazioarteko erakundeek, bestiek beste Ingurumenerako Nazio Batuen Programak, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak eta Munduko Merkataritza Erakundeak kontratazio publikoarekin lotutako ekimenak gauzatu dituzte.

Erakunde horietan kontratazio publikoak garrantzia handia du erakunde horien ustetan jasangarriak ez diren ekoizpen eta kontsumo ereduak aldatzen ahal izateko, bai ingurumenean, gizartean eta ekonomian, merkataritza global eta nazioartekoan eta egungo ekonomietan sortzen dituzten inpaktuengatik edo inpaktu horien konbinazio eta eratorpenengatik.

Gainera, kontratazio publikoan jasangarritasun irizpideak sartzea oso eredugarria izateaz gain, merkatuan eragiteko elementu garrantzitsua izan daiteke eta baliteke horri esker sektore pribatuak ingurumena gehiago errespetatzen duten ekoizpen eta kontsumo modu berriak bultzatzea.

Beraz, kontratazio publiko ekologikoa tresna eraginkorra da ekoizpen, erabilera eta kontsumo jasangarrian eta ekonomia eta kontratazio praktika

jasangarrietan aurrera egiteko, eta horretarako, behar diren jarduketak egiten jarraitu behar da. Horrekin lotuta, kontuan hartu behar da tresna horrek estatuko administrazio orokorreko departamentuen arteko lankidetzak eraginkorra behar duela, izan ere, kontratazio arloko erantzukizunak guztien artean banatuta daude.

Kontratazio publiko ekologikoaren plana idazteko epe bat finkatzen ez bada, horren ondorio positiboak datarik gabe abandonatuko lirateke. Horregatik, zehazten dugu 2023 bukatu aurretik, hau da foru lege hau indarrean jarri eta bi urteko epean, dagokion departamentuak onets dezala.

Urtarrilaren 31ko PCI/86/2019 Aginduaren bidez argitaratu zen 2018ko abenduaren 7ko Ministroen Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsi zen Estatuko Administrazio Orokorraren, bere erakunde autonomoen eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileen kontratazio publikoaren plana (2018-2025) (https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2019-1394). Horregatik, epe jakin bat ez ezartzea ez da onargarria, izan ere, Europako Batzordearen jakinarazpen egintzeekin, Kontratuei buruzko Foru Legearekin edo Legegintzako Liburu Berdearekin, Nafarroako Gobernuak edo dagokion departamentuak nahikoa material eta legeria konparatu du epe laburrean Nafarroako Kontratazio Publiko Ekologikoaren Plana onesteko.

261. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako bigarrenaren lehenengo apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Bat. 19. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“19. artikulua. Erosketa publiko ekologikoa.

1. 2023ko ekainaren 30aren aurretik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratu publikoen erregulazioan eskumena duen departamentuak kontratazio publiko ekologikorako plan bat onetsiko du. Aipatu planean jasoko da hornidura eta zerbitzuak kontratatzeke baldintza-agirien ereduak prestatzea, foru lege honen xedearekin eta ekonomia zirkularrerako trantsizioarekin bat datozen energia eta klima irizpideak txertatzeko. Nafarroako Foru Administrazioaren kontratazio ekologikoko plan hori Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen aplikazio

esparruan sartutako erakunde guztietan aplikatu beharko da. Kontuan hartu beharko da, halaber, genero klausulak gehitzea, kontratuak betetzean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

(...)"

Zioak: beharrezkoa da epe bat ezartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratu publikoen erregulazioaren eskumena duen departamentuak kontratazio publiko berderako plan bat onesteko. Bestela, erosketa berde publikoarekin lortu nahi diren helburuak denborazko linbo bezalakoan geratzen ahalko lirarteke erregulazioa gauzatzeko ez balitz edo onesteko urte asko behar izanez gero.

Kontratazio publiko ekologikoaren plana idazteko epe bat finkatzen ez bada, horren ondorio positiboak datarik gabe abandonatuko lirarteke. Horregatik, zehazten dugu 2023 bukatu aurretik, hau da foru lege hau indarrean jarri eta bi urteko epean, dagokion departamentuak onets dezala.

Urtarrilaren 31ko PCI/86/2019 Aginduaren bidez argitaratu zen 2018ko abenduaren 7ko Ministroen Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsi zen Estatuko Administrazio Orokorren, bere erakunde autonomoen eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileen kontratazio publikoaren plana (2018-2025) (https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2019-1394). Horregatik, epe jakin bat ez ezartzea ez da onargarria, izan ere, Europako Batzordearen jakinarazpen egintzekin, Kontratuari buruzko Foru Legearekin edo Legegintzako Liburu Berdearekin, Nafarroako Gobernuak edo dagokion departamentuak nahikoa material eta legeria konparatu du epe laburrean Nafarroako Kontratazio Publiko Ekologikoaren Plana onesteko.

262. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako bigarrean (Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea aldatzea) Bi ataleko 2. puntua aldatzeko zuzenketa:

Bi. 27. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

"27. artikulua. Ekitaldi publikoak.

2. Administrazio publikoek babestutako, antolatutako edo diruz lagundutako ekitaldi publikoetan,

ontziratutako edarien salmenta eta banaketa ez diren bestelako sistemak jarri beharko dira, eta, betiere, bermatu beharko da iturriko ura edateko aukera dagoela edalontzi berrerabilgarrien bidez edo ur botila berrerabilgarriak jarritz. Gainera, gordailu sistema bat ezarriko da, ontziak edonon botata gelditu ez daitezkeen edo egoki kudea daitezkeen".

Zioak: uste dugu garrantzitsua dela gordailu sistemak ezartzea nahitaez, ontziak edonon bota daitezkeen galarazteko, gomendio hutsa ezarri ordez.

263. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako bigarrena (Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea aldatzea) aldatzeko zuzenketa.

27. artikulua 2. apartatua aldatzen da

"2. Administrazio publikoek babestutako, antolatutako edo diruz lagundutako ekitaldi publikoetan, ontziratutako edarien salmenta eta banaketa ez diren bestelako sistemak jarri beharko dira, eta, betiere, bermatu beharko da iturriko ura edateko aukera dagoela edalontzi berrerabilgarrien bidez edo ur botila berrerabilgarriak jarritz. Gainera, gordailu sistema bat ezartzen ahalko da ontziak edonon botata gelditu ez daitezkeen edo desegoki kudea ez daitezkeen".

264. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako bigarrenari hirugarren apartatu berria gehitzeko zuzenketa:

"Hiru. Hondakinen eta horien zerga-sistemaren 43. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

43. artikulua. Hondakinen funtsaren xedea eta banaketa.

1. Hondakinen funtsa" izeneko aurrekontu-partida banatzeko modua ingurumenaren arloko eskumenak dituen departamentuak erabakiko du urtero, Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoari kontsulta egin ondoren, hondakinen hierarkiako

goiko mailak lehenetsiz eta helburuak betetzea eta ingurumen premiak kontuan hartuta, hondakinen fluxu bakoitzak hartarako egiten duen ekarpen ekonomikoaren proportzioan eta honako arlo hauen arabera:

- a) Hondakinen sorrera prebenitzeko ekintzak sustatzea.
- b) Hondakinen kudeaketaren arloko ikerketa eta garapena, ekodiseinua barne.
- c) Sentsibilizazioa, komunikazioa, laguntzea, heziketa eta prestakuntza.
- d) Berrerabilerarako prestatzeko jarduketak.
- e) Ekonomia zirkularra sustatzeko eta aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko jarduketak, hondakinei dagokienez.
- f) Gaikako bilketa sistemak hobetzea.
- g) Birziklatzeko eta balorizazio materialerako sistemak optimizatzea edo hobetzea.
- h) Hondakinen arloko boluntario lanak.
- i) Hondakinen ondorioz andeatutako eremuak berreskuratzea.
- j) Hondakinak kudeatzeko instalazioen trazabilitate, kontrol eta estandarizazio sistemak hobetzea.
- k) Sorreragatiko ordainketa ezartzea.

2. Hondakinen funtsaren urteko banaketa aurreko apartatuan ezarritako irizpideekin bat egiten da, eta beraz:

- a) Zergaren hondakinak zabortegean deuseztatu eta errausteko zenbatekoak hondakin fluxu bakoitzak sortutakoarekiko proportzionalki bideratuko dira.
- b) Hondakinak zabortegean deuseztatu eta erraustera bideratu gabeko gainerako zenbatekoak ingurumen larrialdiko jarduketetarako eta jarduketa orokorretarako bideratuko dira.

3. Etxeetako hondakin fluxuaren gainerako zenbatekoa zuzenean banatuko da etxeetako hondakinak biltzeko, garraiatzeko eta kudeatzeko eskumena esleituta duten eta hondakinak Nafarroako tratamendu instalazio batera eramaten dituzten Nafarroako Foru Komunitatearen toki erakundeen artean. Eskumen hori zenbait toki erakunde osatutako elkarte bati esleituta dagoenean, hori izanen da funtsen azken onuradun potentziala.

Horien arteko banaketa irizpide objektiboan arabera egiten da eta bi ezinbesteko adierazle kontuan hartu beharko dira hondakinen planaren helburuak lortzeko:

a) Zeharkako moduan gainerako gaikako bilketei eta errefusa frakzioa gutxitzeari eragiten dion jasotako materia organiko garbiaren kantitatea. Ez dute inolako zenbatekorik jasoko honako bi betekizun hauek batera betetzen ez dituzten toki erakundeek:

– bakoitzaren eremuko biztanleriatik gutxienez % 50 ordezkatzeko duen lurraldean frakzio organikoaren gaikako bilketa ezarrita izatea eta

– gaikako bilketa horretan, pisuan desegokiak direnen ehunekoak ez gainditzea funtsaren lehengo urtean % 16ko zenbatekoa, bigarren eta hirugarren urtean % 13koa, laugarren eta seigarren urtean % 11koa eta zazpigarren urtean % 10koa.

b) Balorizazioko emaitza orokorrak. Parametro horri dagokion funtsaren parte ahal izateko, toki erakunde onuradunak ezin izanen dira egon beherantz desbideratuta hondakinen planean finkatutako helburuekin urtero arloan eskuduna den departamentuak finkatutako ehuneko puntuetan. Hala ere, 2027tik aurrera, helburuarekiko desbideratzea ezin izanen da ehuneko 10 puntu baino gehiagokoa izan.

Halaber, funtsa banatzeko kontuan hartuko dira banaketaren aurreko ekitaldian toki erakundeek hondakinak sortzeko prebentzioan egindako ekintzak”.

Zioak: Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen eztabaida parlamentarioan argi utzi zen (eta aurkeztu eta onetsitako zuzenketak horren adierazle dira) zein zen legegilearen nahia, izan ere, zehaztu zuen funtsa banatzeko helburua hau izan beharko litzatekeela: “helburuak betetzean emaitza onenak dituzten eragile eta erakundeen banaketa irizpideetan lehentasuna bermatzea”; hala ere, azken bi urteetan egin den funtsaren banaketa ez da koherentea izan lehentasun horrekin onuradunei dagokienez.

Horri jarraikiz, aipatu behar da foru legeak onetsitako gehiengoaren nahiak irizpide argi hau sartu zuela bertan: funtsaren banaketa hondakin fluxu bakoitzaren ekarpen ekonomikoarekiko proportzioan egin behar da, baina funtsa banatzean lehenetsi egin behar dira ongi egiten duten toki erakundeak (“helburuak betetzean emaitza onenak lortzen dituztenak”). Ez zen haien arteko norgehiagoka bat bilatzen lehentasunezko edo urgentziarik handieneko ekintzak lehenesteko, gainera. Asmoa zen funtsaren bidez, bere banaketan diskriminazio positiboa ezartzea gaikako bilketetan edo balorizazio orokorrean adierazle onenak zituz-

ten toki erakundeentzat, bereziki, frakzio organiko-ari dagokionez.

Azken finean, ez da zentzuzkoa hondakinen arloan eskudunak diren Nafarroako toki erakunde guztiak modu berean tratatzea, foru legearen asmoa argia denean: Hondakin Planaren helburuekiko konpromiso sendoa dutenak lehenestea eta saritzea, ez norgehiagokaren menpeko banaketaren bidez, izan ere, funtsaren helburua ez da banaketan guztiei aukera berberak ematea, baizik eta diskriminazio positiboa ezartzea (“onurak aplikatzea” esan zen parlamentuko eztabaidan) zereginak ondo egiten dituztenei, edo gutxienez, aurrera doazenei.

Argi utzi behar dira, halaber, azken bi urteetan hondakinen funtsa banatzeko dirulaguntzak emateko Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 2.2 artikulua aplikatzearen inguruan sortutako zalantzak eta foru lege honen 17. artikuluan ezarritako norgehiagoka sistema aplikatzeko derrigor-tasunari buruzkoak. Ondorio horietarako, 17. artikuluan adierazten da zuzenean ematen ahal direla honako dirulaguntzak: “b) Emakida edo zenbatekoa lege mailako arau baten bidez administrazioari ezartzen zaionean, arau horiek beren araudia- ren arabera aplikatzekoa zaien emakida prozedura jarraituko dute”. Horixe da zuzenketa honen helburuetako bat, legezko gaikuntza lortzea toki erakundeek jaso beharreko hondakinen funtsaren banaketa zuzenean egin dadin eta ez ego- teko beren artean norgehiagoka ezartzeko auke- rarik, izan ere, hondakinen isuriaren kanonaren edo zergaren filosofiaren aurkakoa litzateke hori.

265. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako hirugarrenean (Hondaki- nei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea aldatzea) puntu bat gehitzeko zuzenketa; hona testua:

«32.2 artikuluari c) apartatua gehitzen zaio. Hona testua:

“c) Biomatsat hartzen diren hondakinak energia sortzeko erabiltzea, Kutsaduraren Preben- tzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen esparruan zehazten den bezala”».

Zioak: Hondakin horiek, nekazaritzako edo basoko landare-materialez osatuak, erregaitzat

erabil daitezke haien eduki energetikoa baliozta- tzeko. Xede hori gorago dago hondakinen kudea- ketaren hierarkian eta hondakinok ez dute gorago- ko xederik hierarkia horretan. Beraz, ez da egokitzat jotzen foru legean ezarritako zergarekin kargatzea, kasu honetan hori ez delako pizgarri izanen hondakinak hobeki kudeatzeko.

266. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako hirugarrena (Nafarroako kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legearen 69. artikulua aldatzea) aldatzeko zuzenketa:

«69. artikulua aldatzen da, eta testu hau izan- nen du aurrerantzean:

“69. artikulua. Kontsumitzaileen eta erabil- tzaileen kooperatibak.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kooperati- bak dira ondasunak edo zerbitzuak ematea helbu- ru dutenak, bazkideen eta haien familien erabilera eta kontsumorako. Azken hartzailearen izaera duten pertsona fisikoak eta juridikoak eta erakun- de eta antolakundeak izan daitezke kooperatiba horietako bazkideak.

Kooperatiba horiek bazkideei eskaintzen edo banatzen dizkieten ondasunak edo zerbitzuak ekoitzi ahalko dituzte, haien izaera espezifikoak galdu gabe”».

Zioak: pertsona juridikoak ere jaso behar dira artikulua testuan.

267. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako hirugarrena aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Azken xedapenetako hirugarrena. Nafarroako kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legearen 69. artikulua aldatzea.

69. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“69. artikulua. Kontsumitzaileen eta erabil- tzaileen kooperatibak.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kooperati- bak dira ondasunak edo zerbitzuak ematea helbu- ru dutenak, bazkideen eta haien bizikideen erabi-

lera eta kontsumorako. Kooperatiba horietako bazkide izaten ahal dira pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.

Kooperatiba horiek bazkideei eskaintzen edo banatzen dizkieten ondasunak edo zerbitzuak ekoitzi ahalgo dituzte, haien izaera espezifikoak galdu gabe”.

Zioak: azken xedapenaren testua hobetzea eta gehitzea pertsona juridiko publiko eta pribatuak erabiltzaile kooperatiba horietako bazkide izateko aukera izatea; erakunde horiek, bestalde, oso garrantzitsuak izan daitezke energia banatua eta komunitarioa hedatzeko, egungo oligopolio elektrikoa albo batera utzita.

268. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako laugarrena (Nafarroako kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legearen 69. artikulua aldatzea) aldatzeko zuzenketa; hona testu berria:

“69. artikulua. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kooperatibak.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kooperatibak dira helburutzat dutenak ondasunak edo zerbitzuak ematea bazkideen eta haien bizikideen erabilerarako eta kontsumorako. Azken hartzailearen izaera duten pertsona fisikoak eta erakunde eta antolakundeak izan daitezke kooperatiba horietako bazkideak. Kooperatiba horiek bazkideei eskaintzen edo banatzen dizkieten ondasunak edo zerbitzuak ekoitzi ahalgo dituzte, haien izaera espezifikoak galdu gabe. Kooperatibak bazkideei ondasunak eta zerbitzuak ematea ez da izanen ondare-eskualdatzea.

Halaber, kontsumitzaile eta erabiltzaile kooperatiba gisa eratu ahal izango dira pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak zein pribatuak (ETEak barne), biltzen diren entitate juridikoak, energia (berriztagarria barne) sortzen, banatzen, hornitzen, kontsumitzen, agregatzen edo biltzen parte hartzen duten udalerriak eta beste toki agintaritzak, efizientzia energetikorako zerbitzuak ematen dituztenak edo komunitate energetikoaren antzeko jarduerak edo haien osagarriak direnak egiten dituztenak, baldin eta beren helburu nagusia bazkideei edo ari diren herriari edo toki zein eskualde eremuari ingurumen-onurak eskaintzea bada”.

Zioak: Zuzenketa honen bitartez erraztu egin nahi da energia komunitateak sortzea kooperatiben ereduari jarraituz. Ikuspegi horrekin sortzen ari diren egiazko ekimenen eskakizunen azterketan oinarriturik, proposatzen den testua garatua goa da, foru lege proiektuak azken xedapenetako laugarrenean egiten duen proposamenaren aldean (xedapen horrek aldatu egiten du Nafarroako Kooperatibei buruzko Legearen 69. artikulua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibak arautzen dituenak).

Horren guztiaren helburua da Nafarroan egin beharreko trantsizio energetikoa erraztea Nafarroako kooperatibei buruzko legeriak egitura juridikorako onartzen dituen aukeren bitartez, behar adinako malgutasuna eskainiz, eredu kooperatiboko erantzun juridikoa eman ahal izateko energia-komunitateen proiektuen eta lankidetzen ezaugarri espezifikoak.

Aldaketa hau egin behar da, azken finean, kooperatiba bat egitea formula juridiko baliozkoa izan dadin energia komunitate bat aurrera eramateko.

269. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako zazpigarrena aldatzeko zuzenketa. Indarrean jartzea, honako idazkera honekin:

“Azken xedapenetako zazpigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Halere, foru lege honen IV. tituluko II. kapituluaren aurreikusitako den zehapen araubideari dagozkion aurreikuspenek ondorioak izanen dituzte foru lege honek indarra hartu eta bi urte iragan ondoren”.

Zioak: foru lege honen edukia onduz izan litezkeen aldaketan eta betebeharren berri izateko epe bat egotea onargarritzat jotzen dugun arren, gehiegizkoa iruditzen zaigu zehapen araubidea indarrean jartzeko epea hiru urtez luzatzea. Horregatik, bi urteko epea ezartzea proposatzen dugu, izan ere, nahiko luzea da.

270. ZUZENKETA

GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa:

“Azken xedapena. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal zergari dagokionez.

Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. tituluko IV. kapituluaren aldaketa sustatuko du, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ibilgailu horiek eragindako isurketak kontuan harturik zehaztu dadin”.

Zioak: Erregelamenduzko garapenerako epea ezarri beharra dago. Eperik gabe, ez dago betebeharririk. Aspalditik geroratzen ari den neurria da, eta kutsatzen duenak ordaindu behar duela dioen printzipioari erantzuten dio.

271. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapenetako __garrena. Nafarroako parte-hartze demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea aldatzea.

“Nafarroako Gobernuak foru lege hau onesten denetik urtebeteko epean Parlamentuari bidaliko dio Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea aldatzeko proiektu bat, klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloko erabakiak hartzerakoan herritarren parte-hartzeari eman beharreko erantzun espezifiko jasotzeko.

Zioak: bat dator klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan herritarren parte-hartzeari buruz aurkeztu ditugun beste zuzenketa batzuekin.

272. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapenetako __garrena. Ingurumen eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen aplikazio osagarria

“Foru lege honen 59. artikuluan eta hurrengoetan ikuskaritza jarduerarekin lotuta aurreikusi ez

den guztirako Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen “Ingurumen arloko esku-hartzea duten proiektuen, jardueren eta instalazioen ikuskaritza eta jarraipena” izeneko II. tituluan jasotako erregelamendu osagarria aplikatuko da”.

Zioak: foru lege proiektuaren araudia nahiko urria da, baina hala ere, idazketa hobetzen saiatu gara eta horretarako zenbait zuzenketa aurkeztu ditugu, 59 bis a), b) eta c) artikuluko berriak proposatuz. Proposamen horiek guztiak ixteko, II. tituluan jasotako araudiaren aplikazio subsidiarioa proposatu da. Titulu horrek “Ingurumen arloko esku-hartzea duten proiektuen, jardueren eta instalazioen ikuskaritza eta jarraipena” izena du eta Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legean araututa dago.

273. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«Azken xedapenetako __garrena. Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzea.

Bat. 10. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“10. artikulua. Ingurumen ebaluazioa eta ingurumen eraginaren ebaluazioa.

1. Planei, programei, proiektuei eta jardueri dagokienez, ingurumen ebaluazioa arautuko dute oinarriko araudian xedatutako izapideak eta printzipio orokorrek, arau-hauste eta zehapenei dagokienean ez ezik; azken horiei foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

2. Ingurumen eraginaren ebaluazioa izanen dute kontrastatutako ingurumen eragina duten jarduera eta proiektuek. Beraz, horiek ingurumenean sortzen dituzten eta tamaina txikikoak edo atalase txikiagoak izateagatik estatuko oinarriko legerian jasotzen ez diren eraginei buruzko ebaluazioa izan beharko dute. Ingurumen eraginaren ebaluazioa izan beharreko jarduerak foru lege honen 2. eranskinean jaso dira eta titulu honetako IV. kapituluaren adierazitakoarekin bat izapidetuko dira.

3. Energia kontsumo handia duten planen, programen, proiektuen eta jardueren ingurumen ebaluazioak energiaren arloan eskuduna den organo-

aren txosten aginduzkoa eta erabakigarria izanen du.

4. Organo eskudunak ingurumen eraginaren ebaluazioa duten planei, programei, proiektuei eta jardueri ingurumen inpaktuak arintzeko, isurketak gutxitzeko, energia berriztagarrien erabilera gehitzeko edo klima aldaketarekiko zaurgarritasuna gutxitzeko baldintzak ezartzen ahalko dizkie.

5. Lurralde eta hirigintza plangintzako tresnak behin betiko onesteko eskumenak esleituta dituzten toki erakundeek ingurumen organo gisa jarduten dute Ingurumen Ebaluazioari buruzko martxoaren 9ko 21/2013 Legearen 11.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Hala ere, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrak direnean, jarduketa hori ingurumen ebaluazioaren arloan eskuduna den Nafarroako Gobernuako departamentuak gauzatuko du administrazio biek sinatutako hitzarmenaren bidez”.

Bi. 16. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“16. artikulua. Ingurumen-baimen bateratuaren edukia.

1. Ingurumen baimen bateratuak, hala dagokionean, honako determinazio hauek izanen ditu:

a) Gehieneko emisio balioak eta, hala dagokionean, horiek ordezkatzan dituzten neurri tekniko balioak, instalazioaren izaeraren eta ezaugarrien arabera, atmosfera, ura eta lurzorua kutsatzen duten substantziei eta zarata eta bibrazio emisioei buruzkoak.

b) Hondakinen ekoizpenarekin, kontrolarekin eta kudeaketa egokiarekin lotutako prozedurak eta metodoak.

c) Pertsonen eta ingurumenaren osasuna eta segurtasuna babestuta dagoela bermatzen duten neurri zuzentzaileak eta baldintza teknikoak.

d) Hala dagokionean, bermea edo aseguruak; bere zenbatekoa nahikoa izanen da ingurumen kalteak eraberritzeko, prebenitzeko, gutxitzeko edo ezabatzeko.

e) Ingurumen eraginak arintzeko, isurketak gutxitzeko, energia berriztagarrien erabilera gehitzeko edo klima aldaketarekiko zaurgarritasuna gutxitzeko baldintzak.

f) Aplikatu beharreko babes araudian ezarritako gainerako baldintzak.

2. Gehieneko emisioen balioak eta ingurumenaren babesa bermatzen duten neurri zuzentzaileak eta baldintza teknikoak zehazteko teknika erabilgarri onenak aplikatuko dira.

3. Abereen hazkuntza intentsiborako instalazioen kasuan, bateratutako ingurumen baimenaren baldintzak finkatzeko kontuan hartuko da animalien ongizateari buruzko legeria.

4. Aplikatzekoa den legeriaren arabera eskatu beharreko ingurumen kalitatearen betebeharrak betetzeko beharrezkoa denean aplikatzea teknika erabilgarri onenak erabiliz lor daitezkeen baldintzak baino zorrotzagoak, ingurumen-baimen bateratua eskuratzeko nahitaezkoa izanen da baldintza osagarriagoak aplikatzea, ezertan galarazi gabe bestelako neurriak ere ezartzea, ingurumen kalitatearen arauak betetzeko har daitezkeenak”.

Hiru. 35. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“35. artikulua. Ingurumen eragin txostena.

1. Ingurumen organoak espedientearen analisi teknikoak bukatu ondoren espediente ebatziko du proiektuaren ingurumen eragin txostena idatzita espediente osoa jasotzen denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean.

2. Ingurumen eragin txostena nahitaezkoa eta erabakigarria izanen da proiektuaren jatorriari, ingurumen efektuei eta gauzatzeari dagokionean, hala dagokionean, garatzen ahal diren baldintzei eta neurri zuzentzaile eta osagarri dagokionean. Txosten horren xedapen edukia organo substantiboaren baimenaren prozeduran sartuko da. Txosten horretan jasoko dira ingurumen eraginak arintzeko, isurketak gutxitzeko, energia berriztagarrien erabilera gehitzeko edo klima aldaketarekiko zaurgarritasuna gutxitzeko baldintzak.

3. Ebazpenean zehaztuko da ea proiektua bateragarria den Natura 2000 Sarea sortzeko arrazoi izan diren babes helburuekin edo ingurumen arrazoiengatik gune babestu izendatzea eragin duten helburuekin.

4. Ingurumen eragin txostena proiektuaren baimenaren organo substantiboari jakinaraziko zaio ebazpenean kontuan har dezan”».

Zioak: planen, programen, proiektuen eta jardueren ingurumen ebaluazioan ingurumen inpaktuak arintzeko, emisioak gutxitzeko, energia berriztagarrien erabilera handitzeko edo klima aldaketarekiko zaurgarritasuna gutxitzeko baldintzak ezarri behar dira, eta bereziki plan, proiektu edo jarduera baten ondorioz energiaren kontsumoa nabarmenki handitzen denean. Era berean, antzeko aurreikuspena jaso beharko da ingurumen baimen bateratuaren edukian eta ingurumen kalteen txostenean.

274. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapenetako ___garrena. Ingurumen fiskalitatea

1. Ingurumen fiskalitatea oinarritzko tresna da ingurumenaren aldeko ekintzak eta jokaerak sustatzeko eta kliman kalte larriak sortzen dituzten jarduketei pizgarriak kentzeko. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak foru lege hau indarrean jartzen denetik urtebeteko epean Parlamentura bidaltzeko klima fiskalitateari buruzko foru lege proiektu bat onetsi beharko du.

2. Klima fiskalitateari buruzko legeak honako hauek bildu beharko ditu:

a) Printzipio hau ezartzeko neurriak: “kutsatzen duenak ordaindu egin behar du, eta gehiago kutsatzen duenak, gehiago ordainduko du”. Autonomioan bereziki, izan ere, Nafarroan 1990. urtetik aurrera isurketak gehien gehitu dituen sektorea da. Neurri horiek dagozkien ikuskapenak eta zehapenak izanen dituzte.

b) Diru-sarrera gutxiago dituzten biztanleria sektoreentzako konpentsazio sistema.

c) Biztanleria gutxiagoko, garraio sistema urriko eta jarduera guneeetatik urrundutako zonetan bizitzearren ohiko moduan ibilgailu pribatueta joan-etorriak egin behar dituzten biztanleria sektoreak konpentsatzeko sistema.

d) Garraioko eta lehen sektoreko profesionalak konpentsatzeko sistema.

e) Zerga finalistak, bildutakoa klima aldaketaren arintze eta egokitzapen neurrietan inbertitzea ahalbidetzen dutenak.

3. “Ingurumen fiskalitateari buruzko foru legearen aurreproiektua egiteko, foru lege hau indarrean jarri eta gehienez ere hiru hilabeteko epean fiskalitate arloan eskuduna den departamentuak Herritarren Batzarra sortuko du. Batzar hori osatuko dute ausaz aukeratutako pertsonak eta zerga arloan entzutetsuak diren adituek; batzorde independente baten aholkularitzarekin, ingurumen eta gizarte arloetan handinahia izanen den lege proposamena prestatuko dute”.

Zioak: gure ustez, foru lege honek zerga sistema birbideratu behar luke eta zerga figura berriak ezarri edo daudenak aldatu beharko lirake hainbat sektoretan karbonorik gabeko ekonomia

sustatzen duten produktuak, zerbitzuak eta jarduerak sustatzeko eta kutsatzaileenak zigortzeko. Fiskalitatea birbideratzeko sortzen ahal diren gizarte efektuak kontuan hartu behar dira, eta horiek arintzeko sektore eta kolektibo zaurgarrienak babesteko eta horiei laguntzeko neurriak definitu behar dira.

Fiskalitate ekologikoari edo ingurumenekoari esker, positibotzat jotzen diren portaera aldaketak sustatzeko bitarteko gisa erabil daiteke zerga sistema, eta edonola ere, zigortu egin behar dira ingurumena kutsatzen duten jokaerak, klima aldaketa errazten duten jokaerak eta trantsizio energetikoa atzeratzen dutenak, eta printzipio hau bete behar da: kutsatzen duenak ordaintzen du, eta gehiago duenak, gehiago ordaintzen du.

Aurreko guztiarengatik galdetu beharra dago, Nola da posible Nafarroako zerga sisteman oraindik ere tresna horiek ez aplikatzea egoera ezin hobea baldin bada? Zalantzarik gabe, diru-bilketa gaitasunak, errenta taldeen araberako banaketa, ingurumen onurak eta politika publiko zuzentzaileei buruzko lehentasunak kontuan hartuta, aurrekoak aplikatzeko egoera egokia da. Zerga figura horien ezarpena atzeratu egin da aldaketak ezartzeko oztopoak egon direlako eta erakundeek mugak ezarri dituztelako. Ingurumen fiskalitateko erreformak ezartzeko egoera fiskala nabarmenki aldatu behar da eta badirudi ez dituztela ezarpenaren kostu politikoak beren gain hartu nahi. Zerga administrazioek oztopoak ezartzen dituzte ohituta dauden tresnak edo prozedurak aldatu nahi direnean, eta horregatik, legegileak dira zerga aldaketa garrantzitsuen arriskuak beren gain hartu behar dituztenak.

Ingurumen zergak eta erreforma fiskal berdea prozesu demokratikoaren hitzarmen fiskalaren parte izan behar direnez, erreferentzia gisa eztabaida politikoan jarri behar dira, izan ere, behar bada lehenbailehen gainditu behar duten oztopoa horixe da.

Nafarroa ere errealitate horren parte da.

Erabakiak hartzen direnean partaidetza publiko egotea Aarhuseko Hitzarmenaren oinarrietako bat da, izan ere, modu horretan agintaritzek herritarren kezak kontuan hartzen dituzten erabakiak hartzen ahal dituzte. Horregatik, hau proposatzen da:

“Ingurumen fiskalitateari buruzko foru legearen aurreproiektua egiteko, foru lege hau indarrean jarri eta gehienez ere hiru hilabeteko epean fiskalitate arloan eskuduna den departamentuak Herritarren Batzarra sortuko du. Batzar hori osatuko dute ausaz aukeratutako pertsonak eta zerga arloan

entzutetsuak diren adituek; batzorde independente baten aholkularitzarekin, ingurumen eta gizarte arloetan handinahia izanen den lege proposamena prestatuko dute”.

Klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren foru legea aplikatzen hasteko Nafarroako Herritarren Batzarra sortzea eta bertan fiskalitate berdea jorratzea eraginkortasunerako aurrerapauso egokia litzateke.

275. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapenetako ___garrena. Ingurumen fiskalitatea

1. ___ . artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak foru lege hau onesten denetik gehienez ere 2 urteko epean Nafarroako Parlamentura bidaliko du foru lege proiektu bat edo gehiago eta horietan jaso beharko dira foru lege honen helburuak betetzeko egokienak diren zerga figurak.

2.- Epe horretan, Nafarroako Gobernuak aurreproiektua egiteko saihestu edo pizgarria kendu nahi zaien, edo, alderantziz, isurketak gutxitzeko eta aldaketara egokitzeko baliagarriak diren jokiera eta ekintzen azterketa analitikoak egingen du. Halaber, posible izanen da zerga neurri sustatzaileak ezartzea eta askotariko sektoreek foru lege honen ___ . artikuluan ezarritako jarduketekin lotuta egindako esfortzuak aitortzea.

3.- Nafarroako Gobernuak egin beharreko aurretiazko azterketetan kontuan hartuko dira ingurumen helburuak eta honako hauek: arindu nahi diren ingurumen kanpo-efektuen eta kalteen estimazioa, aurrekoak ezartzearen eraginpeko ekonomia sektoreetan sortzen ahal diren efektuak, geografia eremua Nafarroa osoa ez denean merkatuan aldaketaren bat sortzen ahalko den edo ez, zerga berriaren zerga-egitatea jada ezarritako beste zerga baten egitatearekin bat etortzen ahal denean gertatzen ahal den zergapetze bikoitza, tributatu beharreko zerga-oinarrien ikuspegia, jokabide kaltegarriari begira egon dadin ekoizpenaren azken fasea zergapetzen saiatuz, kontsumoa edo errentak eta ez bitarteko faseak eta bere diru-bilketa posiblearen ebaluazio estimatua, eta ea finalista izan behar den edo ez eta zein ehunekoetan.

4. Ingurumen fiskalitateari buruzko foru legearen aurreproiektua egiteko, foru lege hau indarrean jarri eta gehienez ere hiru hilabeteko epean fiskalitate arloan eskuduna den departamentuak Herritarren Batzarra sortuko du. Batzar hori osatuko dute ausaz aukeratutako pertsonak eta zerga arloan entzutetsuak diren adituek; batzorde independente baten aholkularitzarekin, ingurumen eta gizarte arloetan handinahia izanen den lege proposamena prestatuko dute.

5. Nafarroako Gobernuak zerga erreforma berde baten bidez Nafarroan ezartzen ahalko diren zerga figuren edo ingurumen zergen azterketan eta analisisian artikuluko honen bigarren apartatuan ezarritakoak kontuan hartuko ditu eta horiekin bat analizatuko ditu hauek:

a) Bildutako uraren zenbait erabilera eta aprobetxamenduen zerga.

Zerga berri horrek ibaien ibilguetako floran eta faunan, uren kalitatean eta ibai-ekosistemari lotutako ibaiertzetan eta ibarretan eragindako ingurumen-ondorioak zergapetzen ahalko ditu, bildutako urak erabiltzen dituzten jarduera jakin batzuk egitearen ondorioz.

b) Goi-tentsioko energia elektrikoko garraio instalazioen gaineko zerga.

Ingurumen zerga honen xedea goi-tentsioko linea elektrikoaren bidez funtzionatzen duten jarduera jakin batzuetan azaleratzen den gaitasun ekonomiko zehatza zergapetzea da, paisaia eta hirigintza inpaktuak sortutako arriskuengatik, ez bakarrik arrazoi estetikoengatik, baizik eta goi-tentsioko instalazio horiek sortutako erradiazio elektrikoaren eremuen hedapenarengatik. Ingurumen inpaktua –paisaiakoa eta hirigintzakoa– ez da bera lineak instalatuta dauden lurzoru edo eraikuntza motaren arabera. Ondorioz, zergak askotariko kuota motak ditu eta zerga gehiago ordaintzen dira inpaktua handiagoa den heinean.

Energia garraiatzeko sareen instalazioek lurraldean sortzen duten inpaktuaren gaineko ingurumen zerga honen ondorioz, ingurumen ikuspegiak (baso-masa gutxitzea, faunari lotutako mugapenak, jarduerak sortutako hondakinak, linea elektrikoaren korridoreak eta abar) eta ikuspegi bisualetik (paisaia eta hirigintza) Administrazio Publikoak zenbait jarduketa egin behar ditu; horien bitartez, inpaktua arindu behar da eta besteak beste basoberritzerako pistak garbitu eta mantenduko dira, eta hesiak kenduko dira fauna eta hegazti-fauna igarotzeko. Ingurumen izaerako eta izaera bisualeko jarduketa zuzentzaileek gastu erantsiak sortzen dituzte agintaritzaren publikoentzat, eta, horiek konpentsatzeko, zenbat eta handiagoa izan

inpaktua orduan eta gehiago zergapetzen duen kuota ezarriko da.

c). Trakzio mekanikoko ibilgailuen karbono dioxido emisioen gaineko zerga

Ingurumen zerga honen helburua ibilgailuek sortzen dituzten eta berotegi-efektuko gas isurketak gehitzen dituzten karbono dioxidoaren isurketak zergapetzea da.

d) Lurzoruaren erabileren aldaketaren gaineko zerga: zerga honen helburua da lurzoru urbanizaezina urbanizagarri bihurtzeko pizgarriak kentzea. Horrela, lurzoria bezain baliabide natural baliotsua eta gero eta urriagoa erabiltzea babesten da, landa-lurzoria urbanizatzea igarotzeko urbanizazio berriko jarduketak zergapetuz.

e) Abeltzaintza intentsiboaren ingurumen-inpaktuaren gaineko zerga: zerga bat sortzea proposatzen dugu, minden sorrerak eta abeltzaintzako instalazio intentsiboetan sortutako metanoxisuri lausoek ingurumenean duten eragina zergapetzeko. Ziurtagiri ekologikoa duten baserriak zergaren zati batetik kanpo uztea proposatzen da. Era berean, erabilera estentsiboko ustiategiak zergatik kanpo geratuko lirarteke, nekazaritzan sortzen dituzten ingurumen eta gizarte onurak direla eta.

f) Ontzi ez-erabilgarrien gaineko zerga: zerga honen helburua ontzi berrerabilgarri eta iraunkorren erabilera sustatzea da; beraz, erabilera bakarreko ontzien gaineko zerga sortzea proposatzen du. Zerga hori pizgarria izanen litzateke ekonomia zirkularerako, egunero kontsumitzen diren erabilera bakarreko ontzien kantitate handia murriztuko luke, eta sustatuko luke ontziratzaileek beren ontziratzea formatu berrerabilgarrietara bideratzea.

Estatuak hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko lege proiektua onetsi du eta bertan jasota dago berrerabili ezin diren plastikozko ontzietan buruzko zerga berezia, estatu osoan aplikatu beharrekoa. Hala, zerga hori lurralde komunean eta foru lurraldean aplikatzeko araudi sistema bakoitzaren legeak onetsi beharko dira eta zerga ordainarazteko konexio puntuak Hitzarmen Ekonomikoan erregulatu beharko dira.

g). Meatzaritzako erauzketa jardueren gaineko zerga: erauzketa jarduerak ingurumen kalte handiak eragiten dituzte berriztagarriak ez diren baliabide naturalak agortzeari dagokionez. Aire zabaleko ustiategi kasuan, gainera, paisaia aldarazten dute. Ustiategi horietan da justifikatuena zerga ekologiko bat ezartzea.

h). Gaua igarotzearen gaineko zerga: zerga honen helburua izanen litzateke jarduera eta esta-

blezimendu turistikoek ingurumenean duten eragina zergapetzea. Bestalde, turismoak kalitatezko ingurumenaren onura jasotzen du, eta bidezkoa da arlo horretako politikak finantzatzen laguntzea.

i). Sintesi kimikoko plagiziden eta ongarrrien kontsumoaren gaineko zerga berezia

Proposamen hori sintesi kimikoko plagiziden eta ongarrrien kontsumoari buruzkoa da, besteak beste nekazaritzan eta lorezaintzan erabiltzen diren substantzia kimikoen (adibidez

intsektizidak, herbizidak eta ongarrriak) fabrikazioa edo inportazioa zergapetuko lukeen zerga berezi baten bidez.

Zerga horren xedea sintesi kimikoko plagiziden eta ongarrrien fabrikazioa zergapetzea da, horiek gutxiago erabiltzeko, bereziki ingurumen eragin handiena sortzen dutenak. Aldi berean, ohiko ekoizpenaren ordeko ekoizpen ekologikoa erraztu eta sustatu nahi da”.

Zioak: ingurumen zergak eta erreforma fiskal berdeko ereduak erabiltzea babesten dute eragin handiena duten nazioarteko organismoek, besteak beste Munduko Bankuak, Nazioarteko Diru Funttsak eta ELGAK, baina, Europar Batasuna izan da bere erabilera gehien defendatu duena zerga eta ingurumen politiketan tresna zentral gisa erabiltzeko. Neurri handi batean, klima aldaketaren aurkako eta garapen jasangarriko eredu batera aldatzeko estrategia orokorretan eragiteko tresna eta politika horien diseinuari eta ondorioei buruzko eztabaida Europako kontua izan da, eta arlo horretan sortu dira aplikatutako esperientzia gehienak.

Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea da ekarpen gehien egin dituen nazioarteko organismoetako bat, horien bidez ingurumen fiskalitatearen arloan baterako araudi esparrua ezartzeko. Zehazki, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak 1972an ezarri zuen “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa “Nazioarteko ingurumen politiken alderdi ekonomikoetako buruzko printzipio zuzentzaileei” buruzko gomendioaren bitartez. Printzipioa honela jasota geratu zen:

“Kutsaduraren prebentzio kostuak eta ingurumeneko baliabide urriak arrazoizko moduan erabiltzea sustatzeko, kontrol neurriak esleitzeko eta nazioarteko merkataritzan eta inbertsioetan eraldaketak saihesteko printzipioa “kutsatzen duenak ordaintzen du” delakoa da”. Printzipio horrek esan nahi du kutsatzen duenak bere gain hartu behar dituela agintaritzak publikoek erabaki dituzten eta aurretik aipatu diren neurriak gauzatzeko

gastuak, horrela bermatzeko ingurua egoera onargarrian dagoela. Hau da, neurri horien kostua ekoizpenean eta/edo kontsumoan kutsadura sortzen duten ondasunen eta zerbitzuen kostuan adierazi behar da. Neurri horiek ez lirarteke nazioarteko merkataritzan eta inbertsioetan aldaketa nabarmenak sortzen dituzten dirulaguntzekin batera egon behar”.

Europar Batasunak hamarkadak daramatza ingurumena jorratzen, eta “kutsatzen duenak ordaindu egiten du” printzipioa aplikatzen. Hasieran 1973ko azaroaren 22ko Europako Komunitateen Kontseiluaren Deklarazioaren esparruan egin zen, eta ondoren, Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Tratatuaren 191.2 artikulua bitartez. Halaber, EBk ingurumen fiskalitateko alderdiak jorratu ditu ingurumen politikako tresna gisa hainbat ikuspegitatik; adibidez, ikuspegi orokor batetik, aurrekontu eraketako tresna gisa, edo ikuspuntu espezifikotatik, ingurumen inpaktua duten kanpo-efektu batzuk zergapetuz edo zergapetze figura zehatzak ezarriz zuzentzeraren bidez (besteak beste, energiaren gaineko zergaren harmonizazioa, 2003/96/EE Zuzentzeraren bidez bultzatu zena: produktu energetikoen eta elektrizitatearen gaineko EBko zerga sistema berregituratzea).

Ingurumen zergen onura erabakigarrietako bat da merkaturako prezio faltsuen seinaleak zuzentzen dituztela eta prezioetan kutsaduraren eta bestelako ingurumen kostuak gehitzen dituztela (prozesu horretan, prezioak zuzen zehazteaz gain, “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa aplikatzen da). Zerga berdeen onura hori aitortu zuen Europako Kontseiluak 1991ko abenduaren 12ko Ingurumenari buruzko kontseiluaren ondorioetan. Ondorio horiek plataforma komun batean aurkeztu zituen Nazio Batuen 1992ko Ingurumenari eta Garapenari buruzko konferentziarako, Rio de Janeiron antolatuta zuten Lurraren Goi Bilerarako, hain zuzen ere:

“Garapen jasangarria lortzeko baliabideak berriz ere esleitzeko, gizarte eta ingurumen gastu guztiak jarduera ekonomikoetan sartu beharko dira, kanpo efektuak barneratu daitezten. Horrek esan nahi du ingurumen kostuak eta baliabide naturalak modu jasangarrian ustiatzearekin lotutako eta herrialde hornitzaileak bere gain hartutako beste kostuak jarduera ekonomikoetan azaldu behar direla. Helburu hori lortzeko erabilitako neurrien artean daude tresna ekonomikoak eta fiskalak”.

Ordutik aurrera gehiago erabiltzen dira zerga zorrak, baina, oraindik ere askoz ere gehiago erabili behar dira.

Ingurumenaren Europako Agentziarentzat (2008ko abenduaren 19an argitaratutako txosten batean) adierazi zen hauek zirela ingurumen zergak erabiltzeko arrazoi nagusiak:

- tresna bereziki eraginkorrak dira kanpo-efektuak barneratzeko, hau da, ingurumen zerbitzu eta kalteen eta horien konponketaren kostuak zuzenean ezartzea horiek sortzen dituzten ondasunen zerbitzuen eta jardueren prezioan. Horrez gain, kutsatzailearengatik sortzen den ordainketa printzipioa aplikatzea eta ekonomia eta ingurumen politikak integratzea sustatzen da;

- pizgarriak ematen ahal dituzte kontsumitzaileek eta ekoizleek jokaera alda dezaten eta baliabide “ekoeraginkorragoak” erabil ditzaten, berrikuntza eta egiturazko aldaketak sustatzeko eta arauzko xedapenak betetzen direla indartzeko;

- errenta fiskala gehitzen ahal dute eta hori ingurumen gastua hobetzeko erabiltzen ahal da eta/edo lanaren, kapitalaren eta aurrezpenaren gaineko zergak gutxitzeko.

- tresna politiko bereziki eraginkorrak izaten ahal dira egungo ingurumen lehentasunak hain “lausoak” diren kutsadura iturrietan oinarrituta jorratzeko, adibidez garraioaren isurketak (aireko eta itsasoko garraioa barne), hondakinak (besteak beste ontziak eta bateriak) eta nekazaritzan erabiltzen diren agente kimikoak (hala nola pestizidak eta ongarriak).

Eguno ekonomia berreskuratzearen eta ingurumenari dagokionez jasangarria den eredurako trantsizioaren esparruan, ingurumen zergak eta erreforma fiskal berdeak oso garrantzitsuak izaten ahal dira kanpo-efektuak zuzentzeko eta diru-sarrera publikoak eskuratzeko mekanismo gisa. Halaber, diru-sarrera horiek hainbat helburutarako erabiltzen ahalko dira erreforma fiskal berdeen bidez, adibidez, zerga finkapenerako, energia eta klima politikarako, berrikuntzarako edo hazkunde ekonomikorako. Izan ere, horixe da erreforma fiskal berdeen hirugarren belaunaldiak aurrekoekin alderatuta duen ezaugarri ezberdina, hau da, zerga bilketa malguagoa, heterogeneoa eta egoera berriari egokitutakoa izatea.

Araudirik gabeko egoera batean enpresa batek produktu bat modu kutsatzailean fabrikatzen ahalko luke lur-planetan edo ingurumenean sortzen duen inpaktua kontuan hartu gabe. Ekonomian kanpo efektua izena du horrek. Zerga berdeen xedea da kutsatzaileek derrigorrez tasa bat ordaindu behar izatea “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa betez, eta modu horretan, prezioan kanpo efektu horien kostua ere azaltzen da.

Geroz eta maizago, gobernuek zergak erabiltzen dituzte ingurumen kalteak barneratzeko. Horien artean ugarienak eta garrantzitsuenak energia eta ingurumen zergak dira, baina ez dira bakarrak, izan ere, guztiz ingurumenekoak diren beste figura batzuk ere badaude: isuri solidoen gaineko zergak, pestiziden gaineko zergak, isuri likidoen gaineko zergak, eta abar. Ingurumen zergen kontzeptuak guztiak barne hartzen ditu eta bere egitura eta inpaktuari buruzko ikuspegi zaballean oinarrituta dago. Nazioarte mailan hedatu den definizioa da hain zuzen ere.

Baina, ingurumen kalteak zuzentzeaz gain, ingurumen zergei esker diru-bilketa bat sortzen da eta gobernuak diru hori erabiltzen ahal du distortsioak gutxitzeko, eta, horrela, onura osagarria edo ingurumenekoa ez den ongizatea gehitzea lortzen ahal da. Horrek dibidendu bikoitzaren teoria sortzen du; bertan, lehenengo dibidendua lortutako ingurumen hobekuntzak sortzen du eta bigarrenean ingurumen bilketak sortutako ongizateko aldaketa osagarri guztiak barne hartzen dira.

Modu horretan, erreforma fiskal berdearen definizio klasikoa hau da: zerga sistemaren aldaketa bat da, eta horren bidez zerga karga aldatu egiten da, ohiko zergetatik (errenta, BEZa, gizarte kotizazioak, eta abar) ingurumena kaltetzen duten jardueretara, besteak beste baliabideak erabiltzea edo kutsatzea.

Aurreko guztiarengatik galdetu beharra dago, Nola da posible Nafarroako zerga sisteman oraindik ere tresna horiek ez aplikatzea aplikatzeko egoera ezin hobea baldin bada? Zalantzarik gabe, diru-bilketa gaitasunak, errenta taldeen arabera banaketa, ingurumen onurak eta politika publiko zuzentzaileei buruzko lehentasunak kontuan hartuta, aurrekoak aplikatzeko egoera egokia da. Zerga figura horien ezarpena atzeratu egin da aldaketak ezartzeko oztopoak egon direlako eta erakundeek mugak ezarri dituztelako. Ingurumen fiskalitateko erreformak ezartzeko egoera fiskala nabarmenki aldatu behar da eta badirudi ez dituztela ezarpenaren kostu politikoak beren gain hartu nahi. Zerga administrazioek oztopoak ezartzen dituzte ohituta dauden tresnak edo prozedurak aldatu nahi direnean, eta horregatik, legegileak dira zerga aldaketa garrantzitsuen arriskuak beren gain hartu behar dituztenak.

Ingurumen zergak eta erreforma fiskal berdea prozesu demokratikoaren hitzarmen fiskalaren parte izan behar direnez, erreferentzia gisa eztabaida politikoan jarri behar dira, izan ere, behar bada lehenbailehen gainditu behar duten oztopo horixe da.

Nafarroa ere errealitate horren parte da.

Erabakiak hartzen direnean partaidetza publikoa egotea Aarhuseko Hitzarmenaren oinarrietako bat da, izan ere, modu horretan agintaritzek herritarren kezkek kontuan hartzen dituzten erabakiak hartzen ahal dituzte. Horregatik, hau proposatzen da:

Ingurumen fiskalitateari buruzko foru legearen aurreproiektua egiteko, foru lege hau indarrean jarri eta gehienez ere hiru hilabeteko epean fiskalitate arloan eskuduna den departamentuak Herritarren Batzarra sortuko du. Batzar hori osatuko dute ausaz aukeratutako pertsonak eta zerga arloan entzutetsuak diren adituek; batzorde independente baten aholkularitzarekin, ingurumen eta gizarte arloetan handinahia izanen den lege proposame-na prestatuko dute.

Klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren foru legea aplikatzen hasteko Nafarroako Herritarren Batzarra sortzea eta bertan fiskalitate berdea jorratzea eraginkortasunerako aurrerapauso egokia litzateke.

1. ERANSKINARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

276. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

I. eranskinean definizio berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Ekonomia zirkularra: Jasangarritasun maila handia lortzeko baliabideen erabilera efizientzia sustatzen duen ekonomia. Horretarako, ekodiseinua, hondakinen sorkuntzako prebentzioa eta material eta produktuen berrerabilpena, konponketa, birmanufakturazioa eta birziklapena erabiltzen ditu, eta, horrenbestez, horien balioa ahalik eta denbora luzeenean mantentzen da eta hondakinen ekoizpena eta baliabide naturalen erabilera gutxitzen dira. Modu horretan, produktu edo material baten bizi erabilgarria bukatzen denean, berriz erabiltzen ahal da eta ekonomian eta gizartean balioa sortzen jarraitzen ahal da, hondakinak sortzea eta baliabide natural birjinak kontsumitzea saihestuz”.

Zioak: definizio hori sartzea koherentea da talde parlamentario honek hondakinekin lotuta aurkeztutako bestelako zuzenketekin, eta beraz, beharrezkoa da “ekonomia zirkularra” definitzea.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

277. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Foru Lege proiektua, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

I

Atmosfera berotzen ari da eta, horren ondorioz, klima aldaketa gertatzen ari da. Horrek ondorio larriak ditu gure ingurumenarentzat eta gure gizartearentzat. 2021eko abuztuaren 7an I. Lantaldeak eman eta Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldearen 6. txostenean sartuko den txosten batean adierazten denez, aztertu diren agertoki guztien arabera, munduaren azaleko tenperaturak igotzen jarraituko du mendearen erdialdera arte behinik behin. XXI. mendean, munduko tenperaturaren batez besteko igoera 1,5°C-tik 2°C-ra bitartekoa izanen da, hurrengo hamarkadetan CO₂ren isurketak eta berotegi-efektuko bestelako gasenak nabarmen gutxitzen ez badira.

Klima aldaketari aurre egitea premiazko erronka da, gero eta inpaktu larriagoa izaten ari baita ingurune eta sektore guztietan, dela ekosistemetan, dela biodibertsitatean, dela azpiegituretan, dela ekoizpen-sistemetan, bai eta gure osasun eta elikadura sistemetan ere.

Hori dela eta, lan egiteko konpromisoari heldu behar zaio, haren ondorioak arintzeko eta energia eredu berri baterako trantsizioa prestatzeko, karbono gutxiko ekonomia zirkularrean oinarritua, eskura dauden baliabideak efizientzia handiagoarekin baliatzeko gauza izanen dena, eta berotegi-efektuko gasen isurketak eragiten dituzten energia fosilen ordez energia berriztagarrien erabilera progresiboa proposatuko duena.

Testuinguru horretan kokaturik daude, batetik, arintze politikak, hau da, berotegi-efektuko gasen isurketak murriztea eta CO₂-hustubiderako gaitasuna handitzea xede dituzten politikak, eta bestetik, egokitzapen politikak, hau da, klima aldaketak ingurumenerako nahiz gizarte sistemetarako (ekonomia, osasuna, azpiegiturek eta ekipamenduak, adibidez) eragiten dituen arriskuak murriztea xede dutenak.

Hainbat organismok klima larrialdiko adierazpenak onetsi dituzte, haien artean Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak 2019ko irailaren 23an eta 24an, Europako Parlamentuak 2019ko azaroaren 28an, eta Espainiako Gobernuak 2020ko urtarrilaren 21ean. Orain, adierazpen horiek justifikaturik, nahitaezkoa eta premiazkoa da Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko foru lege hau tramitatzea, jarduteko esparru juridikoa ezartze aldera.

Bi mehatxu handik atsekabetu dute gizateria gaur egun, hots, klima aldaketak eta COVID19-aren pandemiak, eta bi-bien aurrean, helburu bateratuak behar dira: gidaritza ausarta eta lankidetzazkoa. Koronabirusaren krisia agertu izanak eta geroko susperraldiak aukera izan behar dute planeta bide jasangarriago eta inklusiboago baterantz eramateko. Bide horretan, klima aldaketaren arazoari heldu, ingurumena babestu, biodibertsitatearen galerari aurre egin eta gizateriaren osasuna eta segurtasuna epe luzera bermatu beharko dira.

II

Parisko 2015eko akordioan mundu mailako konpromiso bat lortu zen klima aldaketari buruz – Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Aldeen 21. Konferentzian (COP21), hain zuzen-, berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko, batez besteko tenperatura globalaren igoera 2 °C-tik behera mantentzeko xedez, betiere industria aroaren aurreko mailekin alderatuta, eta ahal bada, baita 1,5 °C-tik behera mantentzeko ere, Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldeak 2018ko urriko txosten berezian gomendatu zuen bezalaxe.

Meteorologiaren Munduko Erakundearen arabera, 2019an munduko batez besteko tenperatura 1850-1900 epealdiko batezbestekoa baino 1,1°C gradu altuagoa izan zen. Meteorologiaren Estatu Agentziaren arabera, Espainian igoera hori 1,7°C-koa ere izan da.

Meteorologiaren Estatu Agentziak eskualdez eskualde egindako proiektioek adierazi dute tenperaturak oro har igoko direla mende honen bukaerarako. Zehazki, 5°C-ra bitarteko igoera aurreikusi da tenperatura maximoan, eta 4°C-koa, berriz, tenperatura minimoan. Igoera horrek zerikusia dauka bai bero boladen iraupen luzeagoarekin, bai egun eta gau beroen ehunekoarekin, bai izotz egunen kopurua gutxitzearekin. Prezipitazioaren bilakaerak beheranzko joera agertzen du eta, mende bukaeran, %20ra bitarteko beherakada izan daiteke.

Nafarroako Foru Komunitatean, LIFE IP NADAPTA proiektuaren baitan egin den “Klima aldagarritasunaren azterketa. Nafarroako klima eremuei eta Nafarroan aurreikusitako klimaren baldintza orokorreki buruzko txostena” izenekoan, 0,23°C igo da tenperatura hamarkada bakoitzean 1991-2019 aldian, erreferentziako 1961-1990 aldiarekin alderaturik.

III

Parisko 2015eko Akordioarekin batera, Nazio Batuen Erakundeak Garapen Jasangarrirako Agenda 2030 onetsi zuen 2015eko irailan, mundu mailako eta aplikazio unibertsalerako 17 helburu zehaztuta. Haien artean, berariazko helburu bat dago premiazko neurriak hartzearen gainean, klima aldaketari eta haren ondorioei aurre egite aldera (13. helburua).

Europako Batzordeak, 2019ko abenduaren 11n, “Europako Itun Berdea” onetsi eta hazkunde estrategia berri bat ezarri zuen, 2050erako klima neutraltasuna lortzeko helburuarekin, berotegi-efektuko gasen isurketa netorik gabea, eta hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik bereiziko duena, eraldakuntza teknologiko, ekonomiko eta sozial justuetan oinarritua. Eraldakuntza horietan funtsezkoak dira ikerketa nahiz berrikuntza. Itun Berdearen Inbertsio Plana munta handikoa da, bilioi euro bat mugiaraziko baitu inbertsio berdeetan, gutxienez, eta trantsizio justurako funts bat ere izanen da, 100.000 milioiz hornitua, hurrengo hamarkadan klima trantsizioa finantzatzeko laguntzeko.

Joan zen ekainean onetsi zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 30eko 2021/1119 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez ezartzen baita klima neutraltasuna lortzeko esparrua eta aldatzen baitira 401/2009 (EE) eta 2018/1999 (EB) erregelamenduak.

EB Erregelamendu horrek legez finkatzen du Europar Batasunaren helburua, neutraltasun klimatikoa 2050erako lortzea, alegia, eta, horrez gain, helburu lotesle bat ezartzen du, 2030erako, berotegi-efektuko gasen isurketak, guztira, %55 jaiste gutxienez, 1990eko isurketekin alderaturik. Horrekin bat, Europar Batasuneko instituzioak eta estatuak elkarrekin beharturik daude behar diren neurriak hartzera.

Ildo horri jarraikiz, Europako Batzordeak «55 helburua» neurri multzoa aurkeztu du (Fit for 55, ingelesez). Proposamen horiek guztiak elkarrekin lotuta daude eta helburu bera lortu nahi dute, hain zuzen ere une honetan hasi eta 2030era arte eta hortik aurrera trantsizio bidezkoa, lehiakorra eta

ekologikoa bermatzea. Ahal den heinean, indarreko legeriarentzako helburu handizaleagoak ezarri dira, eta beharrezkoa denean, proposamen berriak aurkeztuko dira. Orokorrean, neurri multzoak zortzi legegintza egintza indartzen ditu eta bost ekimen berri aurkezten ditu askotariko eremu politiko eta sektore ekonomikoetan: klima, energia, erregaiak, garraioa, eraikinak, luraren erabilerak eta basogintza.

Ingurumen arloko Zortzigarren Ekintza Programa (aurrerantzean, VIII. IEP) onesten ari dira Europako erakundeak, eta bere xedea trantsizio prozesua azkartzea da klimatikoki neutroa den, baliabideak modu efizientean erabiltzen dituen eta garbia eta modu bidezko eta integratzailean zirkularra den ekonomia lortzeko eta Europako Hitzarmen Berdearen klima eta ingurumen helburuak eta bere ekimenak babesten ditu. VIII. IEP Nazio Batuen 2030eko Agendaren eta bere Garapen Jasangarrirako Helburuetan definitutako klima eta ingurumen helburuak lortzeko oinarria da, eta bere jarraipen esparruak EBk klimaren eta ingurumenaren arloan jasangarritasun gehiago, klima neutraltasuna, baliabideen efizientzia, ongizatea eta erresilientzia lortzeko egindako aurrerapenak ebaluatzeko egindako lana erakusten du. VIII. EIPren lehentasunezko sei helburuen gaiak dira berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzea, klima aldaketara egokitzea, hazkunde ereduak lur-planetary kentzen diona baino gehiago ematea, kutsaduran zero helburua lortzea, biodibertsitatea babestea eta berreskuratzea eta ekoizpenari eta kontsumoari lotutako klima eta ingurumen presio nagusiak gutxitzea.

Estatuan, berriz, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legea onetsi da helburu nagusi batekin, 2030erako, Espainiako ekonomia osoaren berotegi-efektuko gasen isurketak %23 murriztea, 1990ekoarekin alderatuta, eta klima neutraltasuna lortzea 2050a baino lehen. Lege horrekin batera, Energia eta Klimari buruzko Plan Nazional Integratuak, Trantsizio Justurako Estrategiak, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzarako Ekintza Planak eta gisako beste tresna batzuek Energia eta Klimaren Esparru Estrategikoa osatuko dute. Foru lege honen edukia koordinatuta dago eta bat dator lege horren ildo orokorrekin.

IV

Nafarroako Foru Komunitatea, klima aldaketaren aurkako eta trantsizio energetikoaren aldeko estatuko eta nazioarteko konpromisoarekin bat, aurrerapausoak ematen ari da norabide horretan. Horrela, 2015eko abenduaren 6an –Parisko Konferentzia (COP21) egin zenean–, Nafarroako

Gobernuak Under2Mou Sarea izeneko ekimena sinatu zuen, mundu zabaleko 100etik gora eskualderekin batera, isurketak murrizteko konpromisoa bere gain hartuta, 2050ean kopurua %80tik %95era bitarte apaltzeko, 1990ekoarekin alderatuta. Sareko kide den heinean, Nafarroak hainbat betebeharrak ditu; adibidez, urtero informazioa eman behar du berotegi-efektuko gasen isurketen politikei, neurriei eta zenbaketei buruz, betiere datuetan gardentasunez jokatzeko sarearen helburuarekin bat.

Nafarroako Gobernuak, 2018ko urtarrilaren 24ko Erabakiaren bidez, KLINA onetsi zuen, hau da, Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orria, betiere Gobernuaren baitan eta gizarte eragile interesdun guztiarekin lan, gogoeta eta eztabaida prozesua egin eta gero. KLINA ingurumeneko estrategia integratua eta zeharkakoa da, politika sektorial guztiak bildu eta lerrokatzen dituena. Halaber, nazioartean eta Europan klima aldaketaz diren konpromisoak txertatzeaz gain, arintze eta egokitzapen helburu bana finkatu ditu. Arintze helburua da berotegi-efektuko gasen isurketa guztiak gutxienez %45 murriztea 2030erako, eta %80, 2050erako –betiere 2005. urteko isurketen aldean–. Eta egokitzapen helburua, berriz, Nafarroa lurralde jasangarria eta erresilientea izatea da.

KLINarekin batera, data berean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako 2030era arteko Energia Plana onetsi zuen, beharrezkoa den trantsizio energetikoari buruzko helburuak eta ildoak ezarri. Energia Planak, plangintza energetikoa ezartzeaz gain, beste plangintza sektorial batzuekin integraturik eta koordinaturik aritzea finkatu du, hala nola industria, garraio, etxebizitza, ingurumen edota lurralde plangintzarekin. Nafarroako 2030era arteko Energia Planak ildo nagusiak ezarri ditu energia eredu berri baterako trantsizioaz, honako hauek oinarri harturik: energia berriztagarrien garapena, sorkuntza eta kudeaketa energetikoa eta bere azpiegitura energetikoen kudeaketa eta sektore guztietako efizientzia energetikoa; aldi berean, sustapen neurriak eta laguntza publikoak ezarri ditu, bai eta ikerketa eta berrikuntza bultzatzea ere, prestakuntza eta sentsibilizazioarekin batera.

Nafarroan izaniko ekimen nabarmenen artean, hauek dira aipatzekoak: 14/2018 Foru Legea, 2018ko ekainaren 18koa, Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzkoa, eta Ekonomia Zirkularra garatzeko Agenda; LIFE IP-NAdapta-CC (2018-2025) proiektu integratua, klima aldaketarako egokitzapenari buruzkoa, eta Sustainability proiektua (2019-2023), inbertsioak mugiarazteko, bai energia efizientziaren arloan, bai energia berrizta-

garrien ezarpenean. Tokiko konpromisoa sustatzen duten ekimenen artean, Egoki proiektua, Alkatetzen Itunarekiko atxikimendua eta Agenda 21ak ezartzea daude. Era berean, Nafarroako Gobernuaren ekimenak, hala nola “Emakumeok Klimaren alde” emakume sarea, Nafarroako Parlamentuan 2018ko urrian egindako Adierazpena zabaltze aldera, edota Agenda 2030 ekimenarekiko atxikimendua, 2019ko martxoan.

Aipatu beharrekoa da, halaber, Nafarroako Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren 2019-2030 Plan Gidaria, Nafarroan hornidura nahiz saneamendua eta arazketa antolatzen dituen zerbitzu bakarrean, eta klima aldaketaren kontrako borroka printzipioak txertatzen dituen, berrikusteko asmoarekin betiere, etorkizunean erabilgarri izanen ditugun ur baliabideei buruzko proiektuak daudenean.

IV bis

Ziurrenik Nafarroak klima aldaketaren ondorio larriagoak jasanen ditu, bere ezaugarri orografikoen eta klimatikoen ondorioz. Etorkizuneko klima egoeretan muturreko fenomenoak aurreikusi dira, besteak beste etengabeko lehortekak eta euri-jasa handiak, eta horrek ez du egoera hobetuko.

Hala ere, klima aldaketaren aurkako borroka ez da arriskua soilik, izan ere, nagusiki erronka bat da, egokitzeko eta etorkizuna eta oraina sortzen dituen garapen ekonomiko eta sozial alternatiboa garatzeko aukera.

Nafarroa jasangarriagoa eta bizitzeko egokiagoa bihurtzeko lan egin behar dugu, izan ere, energia berriztagarria ekoizteko baliabide natural asko dago gure lurraldean: ura, haizea eta eguzkia, eta horiek dira trantsizio energetikoa lortzeko hiru baliabide nagusiak.

Nafarroa leku aproposena da energia berriztagarrietan oinarritutako eredu jasangarriagoan aurrera egiteko. Horregatik, ezinbestekoa da energia eredu berriaren elementu aurreratuena izatea ahalbidetuko diguten politikak martxan jartzea.

Trantsizio energetikoaren bidez inguru jasangarriagoa eta bizigarriagoa lortzeaz gain, energiaren zeharkako tratamenduaren bitartez (ekonomia-ingurumena-gizarte ongizatea) ekoizpen eredu berri bat sortzeko oinarriak ezartzen ahalko dira. Aberastasuna sortzen duen, burujabeagoak eta beste lurraldeekiko ez hain menpekoak egiten gaituen eta Nafarroa orainaldian eta etorkizunean aukeraz betetako lurraldea izatea ahalbidetzen duen eredu eraikitze tresna eta aukera da.

Nafarroan bereziki, klima aldaketaren aurkako borroka «ekonomia berdea» eta karbonorik gabea lortzeko trantsizio errealaren esparruan sartu behar da.

V

Nafarroako Foru Komunitateko instituzioek eta herritarrek badakite premiazkoa eta garrantzi handikoa dela klima aldaketari elkarrekin aurre egitea mundu osoan, dela bizitzan, dela ekonomian, dela gizartean, egungoan nahiz etorkizunekoan. Hain munta handikoa izanik, ausardia politikoa eta soziala behar da neurririk eraginkorrenak eta justuenak hartzeko.

Herritarrek, enpresek eta erakundeek –ekoizleak edo kontsumitzaileak diren aldetik– berotegi-efektuko gas isurketak murrizten lagundu beharra daukate, nazioarteko konpromisoen nahiz foru lege honetan aurreikusitako tresnen esparruan, dela energiaren erabileran ahalik eta efizientziarik handiena bilatuz, dela energia berriztagarrien kontsumorantz aldatuz edo ekonomia zirkularra sustatuz.

Ildo berean, Nafarroako Gobernuak, gainerako botere publikoek bezala, baliabide natural guztiak zentzuz erabiltzen direla begiratu behar du, biziaren kalitatea babestu eta hobetze aldera, eta ingurumena defenditu eta lehengoratzeko aldera, elkartasun kolektibo ezinbestekoan bermatuta, betiere.

Elkarrizketa bat ezarri beharko da politikaren, eta jakintza zientifiko, teknologiko eta sozialaren artean, gizarte eragileen konpromisoa katalizatuko duena, lankidetzan aritzeko eta proposatutako helburuak lortzen laguntzeko. Era berean, aintzat hartzen dira eskualdeetan eta toki mailan sortzen diren ekintzen nahiz konpromisoen balioa eta garrantzia.

Klima aldaketaren kontrako ekintza integrala da, eta Nafarroako Gobernuak eragile izan behar du politika koherenteak eta proaktiboak sektorez sektore ezartzeko, elkarlanean eta koordinazioan arituta, bere departamentu guztien, toki administrazioen eta eragile zein talde publiko eta pribatuen artean.

Klima aldaketaren zeharkako izaeraren ondorioz, administrazio publikoen ekintza gauzatu behar da Foru Komunitatearen beste eskumen batzuen bidez, horien xede diren alorretan ere eragina izan dezakeelako. Izan ere, eremu eta esparru hauetan eraginen du modu batera edo bestera: nekazaritza, abeltzaintza, ur baliabideak, energia, etxebizitza, hirigintza, mugikortasuna, osasuna, turismoa, industria sektoreak, azpiegiturak, basoen kudeaketa edo babes zibila. Era berean, espa-

rru horietako bakoitzean garatzen diren politika sektorialek inpaktua dute klima aldaketa areagotzen edo arintzen. Eta plangintza sektorialeki dago kienez, Nafarroak eskumen eskusiboa du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Energiaren arloko politika funtsezkoa da klima aldaketaren ondorioak arintzeko, eta haren elementu gakoetako bat da erregai fosilek sortutako energiari iturri berriztagarrietatik datorren energiara aldatzeko trantsizioa. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak, energiaren esparru honetan, eskumen eskusiboa du energia ekoiztu, banatu eta garraiatzeko instalazioen arloan, garraioa Nafarroako lurraldetik kanpora ateratzen ez bada eta haren aprobe-txamenduak Estatuko beste lurralderik ukitzen ez bada, hori guztia Estatuaren oinarritzko legeria deusetan ukatu gabe meatzaritzaren eta energiaren araubideaz den bezainbatean (44. artikulua). Eta, Estatuko oinarritzko legeriaren esparruan, eskumena du energia eta meatzaritzaren araubidea legez garatu eta betearazteko (57. artikulua).

Lurraldearen antolamenduak, hirigintzak eta etxebizitzak lotura zuzena dute klima aldaketara egokitzearekin eta berotegi-efektuko gasen isurketak apaltzearekin. Hiri garapenak klimaren ikuspetik ezarri eta berritu behar dira, aintzat hartuz hainbat alderdi, hala nola orientazioak, altuerak, azpiegitura berdearen presentzia eta abar. Eta eraikinek efizienteagoak izan behar dute energiaren aldetik, isurketa gutxiago sortzeko. Esparru horietan, Nafarroak eskumen eskusiboa du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Nekazaritza eta abeltzaintza dagokienez, posible da klima aldaketaren arintzea eta egokitzapena sustatzen duten askotariko neurriak ezartzea. Neurri horien artean daude ekoizpen ekologikoa sustatzea, abeltzaintza eta nekazaritzako hondakinen kudeaketa optimizatzea, ustiapenetan energia berriztagarriak instalatzea edo abeltzaintzako instalazioetan eskuragarri dauden teknika onenak gehitzea, horrela, sektorearen berotegi-efektuko gasen isurketak gutxituz. Nafarroak eskumen eskusiboa du nekazaritzan eta abeltzaintzan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 50. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Hezkuntza ezinbesteko tresna da herritarrak prestatzeko, gizateriak aurrean duen klima aldaketaren arazoaz jabetu daitezzen. Beharrezkoa da, horrenbestez, klima aldaketa eta trantsizio energetikoa hezkuntza curriculumetan eta maila guztietako irakasleen prestakuntzan eta gaikuntzan aurreikusteko, bai eta hezkuntza sistemaren kalitatearen ebaluaziorako nahiz eta ebaluazio instituzionalerako prozesuetan ere. Hezkuntzaren esparruan, Nafarroak eskumen osoa du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki erakundeek ondasun eta zerbitzuen kontsumitzaile diren heinean, energia ereduaren aldaketaren, arintzearen eta klima aldaketara egokitzearen gidaritza hartu behar dute. Nafarroak eskumen eskusiboa du toki erakundeekin duen harremanean, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Zoritzarrez, pobrezia energetikoa oso erreal da gure gizartean. Alde horretatik, administrazio publikoetan gizarte gaiez arduratzen diren unitateek zaugarritasun ekonomikoan dauden pertsonak eta familia unitateak babesteko bitartekoak ezarri behar dituzte, hornidura energetikoa bermaturik egon dadin edozein dela ere egoera. Eta gizarte laguntzari dagokionez, Nafarroak eskumen eskusiboa du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Klima aldaketaren aurkako borrokan funtsezkoak dira garraio publikoaren erabilera bultzatu eta mugikortasun ohiturak aldatuko dituzten neurriak, jasangarriagoak izan daitezzen. Neurri horietako bat izan daiteke garraio publikoaren zerbitzuak indartzea garraio pribatuaren alternatiba izateko, maiztasun eta estaldura handiagoekin, hiri nahi hiriarteko toki gehiagotara iristeko. Eta hiri barruko espazioetan, garraio pribatu konbentzionalaren erabilerarako disuasioa baliatzen ahal da, bideak oinezkoentzat bakarrik utziz, zirkulazio murriztuko eremuak edo aparkaleku arautuak ezarri, bestelako aukera batzuekin, bizikleta publikoen zerbitzuak edo isurketa gutxiago eragiten duten ibilgailuetarako abantailak, esate baterako. Garraioen arloan Nafarroak eskumen eskusiboa du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikuluaarekin bat.

Basogintzaren kudeaketa jasangarriak sustatzen du basoen kontserbazioa eta hazkundera, eta isurketak murrizteko eragin garbia du, laguntzen duelako atmosferako karbonoa xurgatzen eta finkatzen, eta are isurketa handiagoak ekar ditzaketen beste arrisku batzuk ere (suteak) ekiditen ditu. Horrez gain, balio handiko baliabide berriztagarria lortzen da isurketa gutxiago eraiuntzarako eta energia sortzen da dendroenergiaren bitartez (basoen biomasa). Arlo horretan Nafarroak eskumen eskusiboa du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 50.1.e) artikuluaarekin bat, Nafarroako Foru Komunitatearen edo udalen, kontzejuen eta gainerako erakunde administratiboen titulartasunekoak diren mendiei dagokionez. Halaber, partikularren jabetzako mendien arloan ere, Nafarroari dagokio Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea.

Abeltzaintza estentsiboa sustatzea klima aldaketaren arintze eta egokitzapen neurri oso garrantzitsua da, izan ere, baso-suteak prebenitzeko eta habitatak kontserbatzeko funtzio garrantzitsua du. Horretarako, abelbideak kontserbatzea derrigorrezkoa da, azpiegitura berde garrantzitsuak baitira. Nafarroak abelbideen eskumen eskusiboa du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.h) artikuluan ezarritakoarekin bat.

Industria eta merkataritzaren sektoreak berotegi-efektuko gasen isurketa eragile nabarmenak dira eta begi bistakoak dira isurketa horiek murriztu edo konpentsatzeko moduak. Horren adibide argia da industria eta merkataritzako eraikinetako teilatuetan milaka metro koadro egotea plaka fotovoltaikoak jartzeko prest. Merkataritzaren eta industriaren arloetan, Nafarroak eskumen eskusiboa du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56 artikuluaarekin bat.

Klima aldaketaren aurkako borrokan, beharrezkoa bihurtu da kontratazio publikoan larrialdi hau kontuan hartuko duten baldintzak sartzea. Horretarako, Kontratazio Publiko Berderako Plan bat bitarteko egokia izan daiteke, eta, horren barruan, foru lege honen xedearekin eta ekonomia zirkularrera eramanen gaituen trantsizioarekin bat egiten duten energia eta klima arloko irizpideak jasotzen dituzten baldintza-agirien eredu berriak prestatzea. Kontratu publikoen arloan Nafarroak eskumen eskusiboa du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikuluaarekin bat.

Nafarroako I+G+b estrategian, lehentasuna behar dute izan klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko ikerketak eta ezagutzaren transferentziak. Bereziki, energia berriztagarriak sortu, erabili eta biltegitratzearen arloan, batetik, eta bestetik klima aldaketara egokitzeari dagozkion gaitetan, ikuspegi teknikitik nahiz sozialetik. Eta I+G+b arloan Nafarroak eskumen eskusiboa du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.7 artikularekin bat.

Foru lege honetan proposatzen da funts klimatiko bat sortzea, bihur dadin bitarteko bat klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko politikak eta ekintzat gauzatzeko. Funts hori osatuko dute urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan atxikipen espezifikoa duten eta "Nafarroako Funts klimatikoa" izena duten partidek. Eta, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 11. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, Parlamentuak nafarrak ordezkatzan ditu, legegintzako ahalmena betetzen du eta Nafarroako konatuak eta aurrekontuak onesten ditu.

Klima arloko ekintzan, emakumeak aldaketa-eragileak dira, ezinbestekoak jasangarritasunaren helburuak erdiesteko. Foru lege honetan hala ulertzen da, eta genero ikuspegia printzipio gidarizat hartzen du, gobernantza organoetan emakume eta gizonen presentzia eta ordezkartza orekatua izatea bermatuz, emakumeen parte-hartzea, datu kualitatiboan erregistroak sexuaren arabera bereizita sortzea eta genero ikuspegia duten analisiak eta azterketak egitea sustatuz. Ziurtatzen da komunikazioa inklusiboa eta ez-sexista izatea, eta genero ikuspegia txertaturik egotea foru lege honetan arautzen diren gai guztietan. Aipatutako guztia, betiere, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean ezarritako premisak betez.

Aintzat harturik Nafarroan diharduten sektoreek eta egiten diren jarduerak guztiek duten potentziala bai energia gutxiago kontsumitzeko, bai isurketa energetikoak murrizteko, foru lege honek betebeharrak ezartzen ditu energia berriztagarriaren sorkuntza sustatzeko, ingurumenaren gaineko eragina minimizatzeke, egungo sorkuntza-instalazioen kokalekuak optimizatuta, azalera urbanizatuak aprobetxatuta eta herritarren, erakundeen eta tokiko eragileen engaiamendua bultzatuta, lankidetzazko lanabesen bidez, hala nola autokontsumo partekatuen bidez eta udalerrietan edo eskualdeetan komunitate energetikoak garatuz (energia berriztagarrien komunitateak edo herritarren energia-komunitateak edo tokiko komu-

nitare energetikoak) eta egiten diren proiektu energetikoen bidez, proiektu horiek onura sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak ekartzen baituzte.

Energiaren eskaria gutxitzeko beharrezkoa da maila guztietan efizientzia gehitzea: argiteria, mugikortasuna, klimatizazioa, makinak, prozesu industrialak, eta abar. Ez da nahikoa efizientzia gehitzea. Eskaria gutxitzeko bizi eredu guztiz aldatu beharko da eta merkatuan zentratutako gizarte harremanak izan ordez (eredu horretan merkatuaren beharrek zehazten dute zer ekoizten eta kontsumitzen den) bizitza erdigunean jartzen duen eredu aplikatu behar da. Eredu horretan, bizitza merezi duten bizitzak izateko baldintzak sortzea bermatzen duten beharrak erdigunean jartzen dira. Bizi eredu aldatzean sektore guztietan inpaktua sortzen da, turismoa gutxitzen da, garraibide pribatu gutxiago erabiltzen dira, beharrezkoak ez diren eta energia asko behar duten ondasun eta zerbitzu gutxiago ekoizten dira, eta abar. Energia kontsumoaren murrizketaren ardatza hirukoitza izan behar da: ekonomia lokalizatzea (mugikortasun gutxiago), zenbait jardura adar desagertzea edo murriztea (automobilgintza sektorea adibide garbia da) eta ekonomian lehen sektorea indartzea (industria eta ezinbestekoak ez diren zerbitzu gutxiago eta nekazaritza ekologiko gehiago). Foru lege honen bidez egungo bizi ereduaren eraldaketari ere eman nahi zaio erantzuna.

Foru lege honek kooperatiba energetikoak sustatu nahi ditu tokiko komunitate energetikoetan sartuz. Helburu nagusia da kooperatibako kideei edo jardura betetzen deneko herriari onura energetikoak ematea eta, horretatik abiatuz, ingurumenekoak, ekonomikoak eta sozialak ere bai, finantzen errentagarritasunaren gainetik. Gauzatu beharreko jarduerak izanen dira, besteak beste: energiaren sorkuntza, batez ere iturri berriztagarrietatik, energiaren banaketa, hornidura, kontsumoa, agregazioa, biltegitratzea, efizientzia energetikoko zerbitzuak ematea, ibilgailu elektrikoak birkarga-zerbitzuak ematea edo bestelako zerbitzu energetikoak ematea. Kooperatiba hauetako bazkide diren pertsona juridikoek proiektu energetikoetan parte hartzeko helburua da Nafarroan egin behar dugun trantsizio energetikoan laguntzea.

V bis

Europar Batasunak hamarkadak daramatza ingurumena jorratzen, eta "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioa aplikatzen. Hasieran 1973ko azaroaren 22ko Europako Komunitateen Kontseiluaren Deklarazioaren esparruan egin zen, eta ondoren, Europar Batasunaren Fun-

tzionamenduaren Tratatuaren 191.2 artikulua bitartez. Halaber, EBk ingurumen fiskalitateko alderdiak jorratu ditu ingurumen politikako tresna gisa hainbat ikuspegitatik, adibidez ikuspegi orokor batetik aurrekontu eraketako tresna gisa edo ikuspuntu espezifikotatik, ingurumen inpaktua duten kanpo-efektu batzuk zergapetuz edo askotariko zuzentzarauen bitartez zergapetze figurak ezarriz.

Baina, ingurumen kalteak zuzentzeaz gain, ingurumen zergei esker diru-bilketa bat sortzen da eta gobernuak diru hori erabiltzen ahal du distortsioak gutxitzeko, eta, horrela, onura osagarria edo ingurumenekoa ez den ongizatea gehitzea lortzen ahal da. Horrek dibidendu bikoitzaren teoria sortzen du; bertan, lehenengo dibidendua lortutako ingurumen hobekuntzak sortzen du eta bigarrean ingurumen bilketak sortutako ongizateko aldaketa osagarri guztiak barne hartzen dira.

Ingurumenaren Europako Agentziarentzat (2008ko abenduaren 19an argitaratutako txosten batean) adierazi zen hauek zirela ingurumen zergak erabiltzeko arrazoi nagusiak:

- tresna bereziki eraginkorrak dira kanpo-efektuak barneratzeko, hau da, ingurumen zerbitzu eta kalteen eta horien konponketaren kostuak zuzenean ezartzea horiek sortzen dituzten ondasunen, zerbitzuen eta jardueren prezioan. Horrez gain, kutsatzailearengatik sortzen den ordainketa printzipioa aplikatzea eta ekonomia eta ingurumen politikak integratzea sustatzen da;

- pizgarriak ematen ahal dituzte kontsumitzaileek eta ekoizleek jokaera alda dezaten eta baliabide “ekoeraginkorrak” erabil ditzaten, berrikuntza eta egiturazko aldaketak sustatzeko eta arauzko xedapenak betetzen direla indartzeko;

- errenta fiskala gehitzen ahal dute eta hori ingurumen gastua hobetzeko erabiltzen ahal da eta/edo lanaren, kapitalaren eta aurrezpenaren gaineko zergak gutxitzeko.

- tresna politiko bereziki eraginkorrak izaten ahal dira egungo ingurumen lehentasunak hain “lausoak” diren kutsadura iturrietan oinarrituta joratzeko, adibidez garraioaren isurketak (aireko eta itsasoko garraioa barne), hondakinak (besteak beste ontziak eta bateriak) eta nekazaritzan erabiltzen diren agente kimikoak (hala nola pestizidak eta ongarririk).

Egungo ekonomia berreskuratzearen eta ingurumenari dagokionez jasagarria den eredurako trantsizioaren esparruan, ingurumen zergak eta erreforma fiskal berdeak oso garrantzitsuak izaten ahal dira kanpo-efektuak zuzentzeko eta diru-

sarrera publikoak eskuratzeko mekanismo gisa. Halaber, diru-sarrera horiek hainbat helburutarako erabiltzen ahalko dira erreforma fiskal berdeen bidez, adibidez, zerga finkapenerako, energia eta klima politikarako, berrikuntzarako edo hazkunde ekonomikorako. Izan ere, horixe da erreforma fiskal berdeen hirugarren belaunaldiak aurrekoekin alderatuta duen ezaugarri ezberdinena, hau da, zerga bilketa malguagoa, heterogeneoa eta egoe- ra berriari egokitutakoa izatea.

VI

Agerikoa da, beraz, foru lege hau beharrezkoa dela, Nafarroako Foru Komunitatean ekintza klimatikoaren eta beste energia eredu baterako trantsizioaren arau esparrua eta esparru instituzionala eta instrumentala ezartzeko, oinarria karbono gutxiko ekonomian, efizientzia energetikoan eta energia berriztagarrietan duen eredu batera, hain zuzen.

Esparru juridiko hori zehazte aldera, foru lege honek hirurogei eta bederatzi artikulua ditu, eta sei titulutan, hiru xedapen gehigarritan, xedapen indargabetzaile batean eta zazpi azken xedapenetan daude egituratuta.

“Xedapen orokorrak” biltzen dituen I. tituluak jasotzen ditu foru legearen xedea eta helburuak eta Nafarroako Foru Komunitateko ekintza klimatikoa eta trantsizio energetikoa gidatu behar duten printzipioak.

“Gobernantza, eta Plangintza” izena duen II. tituluak gobernantza sistema garatzen du, foru legearen eta haren printzipioen aplikazioan eta jarraipenean, estamentu publiko eta pribatu guztien elkarlana bermatuko duena.

Plangintza, ezarpen eta ebaluazio tresnak zehazten dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira klima aldaketaren eta energiaren arloko plangintza estrategikoa, lotura duten politika sektorial guztiekin koordinaturik, Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren sorrera, bai eta Funts Klimatikorena ere, plan eta ekimenak kofinantzatzeko, eta karbono aurrekontuak.

II. tituluaren bukaeran, informazio publikoaren deskribapena dago jasoa, neurri sozialen efektu biderkatzailea nabarmenduta, arauketa hutserako neurriekin batera ageri baitira. Era berean, ingurumen hezkuntza eta ikerketa nahiz berrikuntza sustatzeko neurriak, ahalegina egin beharko baita ezagutza transferitzeko eta ikerketa egiteko, klimaren ezagutzan eta sistemen erantzunetan sakontze aldera.

III. titulua, “Klima aldaketa arintzea eta energia eredu berria” izenekoa, funtsezkoa da berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko helburuak lortzeko. Energia berriztagarriak bultzatzeko neurriak ezartzen dira, identifikatuta zein diren foru intereseko inbertsioak, enpresa banatzaile energetikoen betebeharrak, energia eolikoaren jardun-esparrua eta elektrizitate sorkuntzaren deskarbonizazioaren jardun-esparrua, energia berriztagarrien erabilera, eta efizientzia energetikoa bai eraikuntzan, bai kanpoko argiztapenean. Aurrerago, mugikortasun jasagarria sustatzeko neurriak ezartzen dira, enpresa eta instituzioen lan garraiorako planak, edo zero isurketako mugikortasun elektrikoaren sustapena, zehazki deskribatuta arintzeko helburuak lehen sektorean eta hondakinetan eta gainerrako sektoreetan.

III. tituluaren bukaeran arintze tresnak daude identifikatuta, hala nola karbono aztarnaren kalkulu eta karbono aztarna hori murrizteko planak egitea.

IV. tituluaren, “Klima aldaketara egokitzea” izenekoan, neurriak eta irizpideak jasotzen dira, klima aldaketarako egokitzapen jarduera arlo guztietan zeharkakotasunez txertatzeko; bereziki, Nafarroako Gobernuaren plan sektorialetan.

Egokitzapen ekintzen helburua izanen da minimizatzea klima aldaketaren ondorioei lotutako arrisku aurreikusgarriak Nafarroako Foru Komunitateko natura, landa eta hiri inguruneetan, eta aipatu arriskuetatik eratorrita, pertsonen osasunean, biodibertsitatean, baso sistemetan, nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpenean, azpiegituretan eta jarduera ekonomiko orokorrean izan daitezkeen ukipenak.

Halaber, foru legeak eta haren erregelamendugarapenak pobrezia energetikoari aurre egin eta bermatu behar dute haren aplikazioak konpentsazio mekanismoak ezarriko dituela biztanleria sektore zaurgarrientzat.

V. titulua, “Administrazio jasagarria” izenekoak, jarraibideak nahiz betebeharrak ezartzen ditu administrazio publikoaren ekintza eredugarria izateko, konpromisoak finkatuta eraikuntzan, mugikortasunean, erosketan publikoan, efizientzia energetikoan eta energia berriztagarrietan, efektu bultzagarria eraginen dutenak nafar gizarteak klima zaindu dezan.

VI. titulua “Ikuskaritza, jarraipena eta zehapen araubidea” da eta foru lege honen eta haren printzipioen aplikazio zuzena bermatzen duten neurriak arautzen ditu. Hasteko, ikuskaritza eta jarraipenaren arloan arautzen dira eskumenak,

elkarlanean aritu beharra eta kautelazko neurriak ere.

Bertan garatzen dira zehapen araubidea, zehatzeko ahalmenaren erabilera, arau-hausteak, zehapenak, eta eskumena eta prozedura.

Xedapenetan, xedapen gehigarriak daude foru lege honen garapenaren ebaluazioaz, toki erakunde eta herritarren esku egonen diren bitartekoak, eta egun dauden zentral termikoen erregulazioaz; xedapen indargabetzaile batek indarrak gabe uzten ditu foru lege honen aplikazio eraginkorrerako traba diren araudiak; eta azken xedapenetan indarreko foru legearen aldaketak daude, erregelamenduzko garapenerako baimena eta foru lege honetan aurreikusten diren atalaseen aldaketa.

Azkenik, “Definizioak” izeneko I. eranskinean terminoen eta definizioen glosario bat dago.

Foru legearen aurreproiektua Nafarroako Kontseiluari igorri zitzaion kontsultarako, eta uztailaren 28an eman zuen 25/2021 Irizpena”.

Zioak: zenbait aldaketa proposatu dira, eta horretarako, Ingurumen arloko Zortzigarren Ekintza Programari (Europako erakundeak onesten ari dira), ingurumen fiskalitateari, Nafarroarentzat klima aldaketa izaten ari denari eta foru lege honek honakoa lortzeko egin behar duenari erreferentziak egiten zaizkio: eredu bat lortzea non bizitza erdigunean jartzen den, eta beraz, bizitza merezi duten bizitzak ahalbidetzeko baldintza materialak erreproduzitzen direla bermatzeko beharrak erdigunean jarri behar dira neurriak ezartzerakoan.

278. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko I. puntuko 1. paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Atmosfera eta ozeanoak berotzen ari dira, eta horrek ondorio larriko aldaketa klimatikoa ekarriko du...”.

Zioak: kontuan izan behar dugu ozeanoek xurgatzen dutela atmosferako CO₂ -aren % 30 eta berotegi efektuko gasek sortutako beroaren % 80. Hori dela-eta, beharrezkoa litzateke ozeanoak aipatzea foru legean.

279. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren I. atala aldatzeko zuzenketa:

“Atmosfera eta ozeanoak berotzen ari dira eta, horren ondorioz, klima aldaketa gertatzen ari da. Horrek ondorio larriak ditu gure ingurumenarentzat eta gure gizartearentzat”.

Zioak: paragrafo hasiera horretan atmosfera bakarrik aipatzen da, eta ez ozeanoak; eta kontuan izanik ozeanoek xurgatzen dutela atmosferako CO₂-aren % 30 eta berotegi-efektuko gasek sortutako beroaren % 80, testuan jasorik utzi behar litzateke atmosfera ez ezik ozeanoak ere berotu egiten direla.

280. ZUZENKETA**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA
IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Honako aldaketa hau egiten da zioen azalpeneko V. puntuko 9. paragrafoan:

“...garraio pribatu konbentzionalaren erabilerrako disuasioa...” kendu eta hau ipini: “...ibilgailu motordun bidezko garraio pribatu konbentzionalaren erabilerrako disuasioa...”.

Zioak: garraio pribatu konbentzionaltzat jotzen dugu auto pribatua erabiltzea, sektorearen zati batentzat hori ez denean eguneroko garraiobide pribatua; bizikleta edo beste ibilgailu bat izan daiteke.

281. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren V. atalari paragrafo bat gehitzeko zuzenketa:

“Nafarroako Gobernuak Trantsizio Energetikoko Nafarroako Agentzia sortuko du. Ingurumenaren, energiaren eta lurralde antolamenduaren arloetan eskumenak dituzten departamentuek eskuordetutako eginkizunak izanen ditu. Foru lege honetan jasotako gai guztien kudeaketaz arduratuko den foru organoa izanen da, eta baimen-

tzeko, ebaluatzeko, kontrolatzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko eginkizunak izanen ditu”.

Zioak: trantsizio energetikoarekin zerikusia duen guztirako, eta batez ere lege honetan, Estatu legeetan eta Europako zuzentarauetan ezarritako epeak betetzeko, eraginkortasun eta efizientziarik handienak behar dira gai horren inguruko espedienteak izapidetzeko, bai eta bete beharreko arauak ebaluatu eta kontrolatzeko ere, horiek gabe ezinezkoa bailitzateke arlo horretan hartutako konpromiso saihestezinak. Agentzia helburu horiek betetzea errazten duen tresna da, eta gaiarekin zerikusia duen orotan erreferente bakarra da administratuentzat, sustatzaileentzat eta toki erakundeentzat.

282. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenean IV bis apartatu berria gehitzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“IV bis

Europar Batasunak hamarkadak daramatza ingurumena jorratzen, eta “kutsatzen duenak ordaindu egiten du” printzipioa aplikatzen. Hasieran 1973ko azaroaren 22ko Europako Komunitateen Kontseiluaren Deklarazioaren esparruan egin zen, eta ondoren, Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Tratatuaren 191.2 artikulua bitartez. Halaber, EBk ingurumen fiskalitateko alderdiak jorratu ditu ingurumen politikako tresna gisa hainbat ikuspegitatik, adibidez ikuspegi orokor batetik aurrekontu eraketako tresna gisa edo ikuspuntu espezifikotatik, ingurumen inpaktua duten kanpo-efektu batzuk zergapetuz edo askotariko zuzentzarauen bitartez zergapetze figurak ezarriz.

Baina, ingurumen kalteak zuzentzeaz gain, ingurumen zergei esker diru-bilketa bat sortzen da eta gobernuak diru hori erabiltzen ahal du distortsioak gutxitzeko, eta, horrela, onura osagarria edo ingurumenekoa ez den ongizatea gehitzea lortzen ahal da. Horrek dibidendu bikoitzaren teoria sortzen du; bertan, lehenengo dibidendua lortutako ingurumen hobekuntzak sortzen du eta bigarrenean ingurumen bilketak sortutako ongizateko aldaketa osagarri guztiak barne hartzen dira.

2008ko abenduaren 19an argitaratutako txosten batean, Ingurumenaren Europako Agentziak adierazi zuen hauek zirela ingurumen zergak erabiltzeko arrazoi nagusiak:

- tresna bereziki eraginkorrak dira kanpo-efektuak barneratzeko, hau da, ingurumen zerbitzu eta kalteen eta horien konponketaren kostuak zuzenean ezartzea horiek sortzen dituzten ondasunen, zerbitzuen eta jardueren prezioan. Horrez gain, kutsatzailearengatik sortzen den ordainketa printzipioa aplikatzea eta ekonomia eta ingurumen politikak integratzea sustatzen da;

- pizgarriak ematen ahal dituzte kontsumitzaileek eta ekoizleek jokaera alda dezaten eta baliabide “ekoeraginkorrak” erabil ditzaten, berrikuntza eta egiturazko aldaketak sustatzeko eta arauzko xedapenak betetzen direla indartzeko;

- errenta fiskala gehitzen ahal dute eta hori ingurumen gastua hobetzeko erabiltzen ahal da eta/edo lanaren, kapitalaren eta aurrezpenaren gaineko zergak gutxitzeko.

- tresna politiko bereziki eraginkorrak izaten ahal dira egungo ingurumen lehentasunak hain “lausoak” diren kutsadura iturrietan oinarrituta jorratzeko, adibidez garraioaren isurketak (aireko eta itsasoko garraioa barne), hondakinak (besteak beste ontziak eta bateriak) eta nekazaritzan erabil-

tzen diren agente kimikoak (hala nola pestizidak eta ongarriak).

Egungo ekonomia berreskuratzearen eta ingurumenari dagokionez jasagarria den eredurako trantsizioaren esparruan, ingurumen zergak eta erreforma fiskal berdeak oso garrantzitsuak izaten ahal dira kanpo-efektuak zuzentzeko eta diru-sarrera publikoak eskuratzeko mekanismo gisa. Halaber, diru-sarrera horiek hainbat helburutarako erabiltzen ahalko dira erreforma fiskal berdeen bidez, adibidez, zerga finkapenerako, energia eta klima politikarako, berrikuntzarako edo hazkunde ekonomikorako. Izan ere, horixe da erreforma fiskal berdeen hirugarren belaunaldiak aurrekoekin alderatuta duen ezaugarri ezberdinena, hau da, zerga bilketa malguagoa, heterogeneoa eta egoe- ra berriari egokitutakoa izatea”.

Zioak: zioen azalpenean ingurumen edo ekologia fiskalitateari egiten zaion erreferentzia ez da nahikoa Nafarroak une honetan behar duena kon-tuan hartuta. Gure zuzenketak foru lege proiektuan jasotzen dena baino askoz ere handinahiagoak dira, eta paragrafo berri honek hobeto azaltzen du zuzenketen edukia.

